

Jon Palais

BORROKA GUZTIEN AMA

Klima-belaunaldiarentzako
ekintza-estrategia bat



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

**MANU
ROBLES
ARANGIZ
FUNDAZIOA**

Argazkia: HUGO LECOMTE

Jon Palais

BORROKA GUZTIEN AMA

Klima-belaunaldiarentzako
ekintza-estrategia bat

Jatorrizko izenburua: La bataille du siècle

© Le Liens qui libèrent, 2023

Itzultzailea: Antton Hariñordoki

Edizioa:

Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua

Barrainkua, 13 - 48009 BILBAO

www.mrafundazioa.eus

Inprimazioa: Bilbograf

ISBN: 978-84-125647-3-0

L.G.: BI-01472-2024

ESKERRAK:

Eskerrik asko Bizi, Alternatiba eta ANV-COP21eko militanteei, haien engaiamendu kolektiboak, erabakitasunez eta onginahiz, ausardiaz eta apaltasunez, nahasmendu klimatikoari buru egiteko itzaropena pizten duen bide bat ireki baitu. Bereziki eskertzen ditut, beren irakurketa eta aholkuengatik, Anne-Sophie Trujillo, Barth Camedescasse, Claudine Darque, Charlotte Izard, Elise Ayrault, Elouan Trichard, Emma Tosini, Fanny Delahalle, Franzeska Bindé, Gaïa Mugler, Juliette Carouille, Léa Chancelier, Léa Vavasseur, Malika Peyraut, Nicolas Nace, Rebecca Wangler, Rémi Donaint, Silène Parisse, Sylvine Bouffaron, Thibaut Godin, Txetx Etcheverry, Yannick Montaulieu, Zoé Lavocat eta Zoé Pélegry.

AURKIBIDEA

Sarrera	11
1. Masa-mugimendu baten estrategia: zergatik, nola	17
1. Ekologia erradikala, justizia soziala eta demokrazia uztartzea	17
1.1. Borroka guztien ama.....	17
1.2. Munduaren bukaera, hilabetearen bukaera, borroka bera?.....	18
2. Bortizkeriarik gabeko strategiaren hautua.....	22
2.1. Bortizkeriarik ezari buruzko aurreiritzietatik ateratzea	22
2.2. Handiak dira soilik belauniko baldin bagaude	24
2.3. Indar harremana eta kontzientzien harremana.....	29
2.4. Demokrazia eta bortizkeriarik eza.....	34
2.5. Masa-mugimendu herrikoi eta erradikala, bortizkeriarik eta zalantzarik gabekoa	38
3. Erradikal-pragmatismoa: mugimendu erradikal eta herrikoi baterako gakoa	39
3.1. Erradikaltasuna vs pragmatismoa: kontrakotasun antzua.....	39
3.2. Erradikal-pragmatismoaren sintesia	40
3.3. Euskoaren adibidea (Ipar Euskal Herriko moneta lokala)	42
3.4. Notre-Dame-des-Landes: Vinciren eta haren munduaren aurka..	44
3.5. AHTren aurkako borroka Euskal Herrian: ez hemen, ez beste inon!.....	45
2. Herritarren mobilizazioa	49
1. Herritarren eginkizuna berriz lehen mailan ezartzea.....	49
1.1. “Aulki bahitzaileen” kanpaina.....	49
1.2. Milaka David, Goliaten aurka.....	55
2. Alternatiba: Herri mobilizaziorako errezeta bat	62
2.1. Ez dezagun itxaron konponbideak goitik etorri arte!	62
2.2. Alternatiben Herrixka: alternatibak badaude	63
2.3. Errealitatean antolatutako sare sozialak	65

2.4. Praktikak kontzientzia sortzen du	68
2.5. Ekologia herrikoia nola sortu.....	71
3. Antolaketaren ezinbesteko eraginkortasuna.....	74
3.1. Eraginkortasunaren beharra	74
3.2. Inklusibitatea eta demokrazia: itxuren gainetik	77
3.3. Indar positiboa	79
3. Beste mundu bat posible da	83
1. Kontakizunaren gudua.....	83
1.1. Macron ken dezagun!	83
1.2. “Kapitalismo berdearen” irtenbide faltsuak.....	86
1.3. Mundua ikusteko moduen arteko gatazka	88
1.4. Eskuin muturraren eta muturreko kapitalismoaren arteko estoka	89
2. Alternatibak: beste mundu bat posible da!	90
2.1. Hiper mugikortasunetik ateratzea	91
2.2. Laborantza herrikoitari bere balioa berriz emanik	92
2.3. Desazkunde materiala: neurritasun zoriontsurantz	94
2.4. Gure lurraldeetan bizitzea	97
2.5. Munduari irekitzea: denborarekiko gure harremana aldatzea	98
2.6. Sistema alda dezagun, ez klima!	100
3. Etsipenetik ateratzea.....	101
3.1. Etorkizuneko munduak	101
3.2. Klimaren aldeko Herritar Konbentzioaren ahalmena	104
3.3. Arrazoimenaren baikortasuna	106
4. Datorren hamarkadarako hurrengo urratsak	109
1. Zertan dago klima-mugimendua?.....	109
1.1. Klima-mugimenduaren historia.....	109
1.2. Goraldietan eta beheraldietan aitzinatzen segitzea.....	112

1.3. Erakundeen aniztasuna.....	115
1.4. Mugimenduen izaera.....	116
1.5. Eginkizunen eta jarduteko moduen osagarritasuna	118
2. Hamarkadarako ikuspegi estrategikoak	119
2.1. Epe luzerako larrialdia.....	120
2.2. Ziurgabetasunaren ziurtasuna.....	122
2.3. Erresistentzia-, erresilientzia- eta elkartasun-sarea	123
2.4. Lurralde mailako sarea eta sare soziologikoa.....	125
2.5. Ekologia herrikoia praktikan.....	126
2.6. Aliantzak biderkatzea	128
2.7. Kooperaziorik eza eta programa eraikitzailea: eraikuntza masiborako bi arma.....	130
2.8. Borroka hasi baino ez da egin.....	136

SARRERA

Klima larrialdia dela eta agintariak geldirik daudela ikusirik, nola ekin dezakegu? Horra galdera nagusia, hil ala bizikoa, ezin baztertuzkoa, nahasmendu klimatikoaren aroan sartu garenez gero.

Gaur egun segitzen dugun ibilbideak, klima hainbat graduz berotzera eramaten gaituen horrek, lurreko bizi-baldintza “zibilizatuak” epe laburrean mehatxatzen ditu, hots, bakerako, demokraziarako, berdintasunerako eta giza eskubi-deen hobekuntzarako baldintzak. Nahiz eta alerta seinale asko pizturik dauden, energia fosilen ustiapen zentzugabearen tematzeak gure lasterketa eroaren abiadura are gehiago azeleratzen du, gure espeziearen biziraupena bera dudan ezartzeraino, baita beste espezie askorena ere, gurearekin batera. Energia pozoitsu horiek ematen dizkiguten indar titanikoek planeta osoko bizi-baldintzak suntsitzeko ahala ematen digute, eta azeleragailua zapaltzeari ez diogu uzten. Gizateriaren historia osoan aurrekaririk izan ez duen nahasmendu handi baten atarian gaude orain.

Aldaketa klimatikoa hain da alimalekoa, hain harrigarria, non gogoan sartzeko zailtasun handiak baititugu oraino. 2020ko hamarkadaren hasiera honetan, ikusi den bezala, COVID-19 pandemiak, planeta mailako konfinamenduez, Ukrainako gerlaz asaldatu gara. Ontsa ohartzen gara gertakari historikoak direla... Baina jende gehiena ez da oraino behar bezala ohartzen abiarazi dugun nahasmendu klimatikoaren olatua askoz handiagoa dela. Egunero, galnaren aurretik erortzen diren euri tantak aipatzen ditugu, datorkigun ekaitzaren izaeraz ongi ohartu gabe. Nahasmendu klimatikoa gutxitan agertzen da komunikabideetako lehen tituluetan. Alta, gure planetan iragaten den egun bakoitzeko gertakari nagusia da, alde handiz. Gertakari hori telebistako albiste guztietako hasieran aipatu beharko litzateke eta egunkari guztietako lehen orrialdeetan. Dena geldiarazi beharko luke, dena baldintzatu, parametro guztiak aldatzera bultzatu beharko gintuzke, COVID-19 pandemia, 1973ko petrolioaren krisia edo Bigarren Mundu Gerra gertatu ziren aldietan baino molde are harrigarriagoan. Alta, horretaz urrun gaude.

Zein luze zaigun kontzientzia hartzea... 1990eko hamarkadaren hastapenez gero, IPCC Klima-Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeko klimatologoek aldaketa klimatikoa eta haren ondorioak iragartzen dituzte. 1990eko hamarkadaz gero, militante ekologistek ekosistemen suntsiketaren berri ematen dute. Orduan, “geroko belaunaldien” zoria eta bizitzeko baldintzak betetzen dituen planeta batean bizitzeko eskubidea aipatzen ziren. Orain, “geroko belaunaldiak”

hor daude, konkretuki: gu gara. Klima-belaunaldia gara. Errealitatea gordin ageri zaigu. Larrialdian murgildurik.

Sakrifikatua izateari uko egiten dion klima-belaunaldia

Nahasmendu klimatikoaz kontziente izatea errealitatea den bezala ikustea da, haren gogortasunaz eta larritasunaz ohartzea. Erremediorik gabekoa dela sentitzea da, erretzen ari diren oihanak, kiskalitako edo egarriz hildako animaliak, berriz sortuko ez diren glaziar urtuak, suntsitzen ari diren paisaiak, betiko desagertzen ari diren espezieak ikustean. Tragedia eta bidegabekeria latza dela ikustea da, gizon, emazte eta haurrak errepideetan ihesi doazenean, zikloiek, uholdeek, lehorteeek, gatazkek eta baliabide eskasiaren inguruko tentsioek areagotu gerrek beren lurraldeetatik kanporaturik; gu bezalako pertsonak, esperantzarik gabeko zeharkaldietan abiataturik, itota eta ur bazterrean hondaturik. Eta harri-dura sentitzea da, hori guztia aurrebista bat, trailer bat dela oroitzean, eta hondamendiaren larriena oraindik etortzekoa dela pentsatzean. Beldur izatea da, norberarentzat, haurrentzat, senideentzat beldur, datozen urteez gogoetaztean. Etorkizun errearen menturari aurrez aurre begiratzea da. Lorik gabeko gauak eragiten dituzten hondamendien kontakizunak. Larritasuna da, eko-antsietatea, ekintzaren erantzukizunak gure bizkar gainera dakarren pisu zapaltzailea. Ixten ari den aukeraren irudia da, eta ezinezkoa lortzeko gelditzen zaigun denboraren tiki-taka hertsagarria.

Baina, nahiz eta larritasun hori baden, erronka hori aukera paregabea ere da. Maila ekologikoan, baita maila sozial eta kulturalean ere, kaltegarri bilakatu den sistema errotik aldatzeko aukera da. Halako bidegabekeria sozialak, bortizkeriak, bazterketak, diskriminazio eta menderatze-harremanak sorturik, zer interes dauka oraindik gaur egungo sistemak? Sortzen duen bizimodu kontsumistak ez du zentzurik. Haren logika aseezinak frustrazioak areagotu egiten ditu, eta gure gizarteak tristatzen, antsietatez betetzen eta deprimitzen ditu. Eredu hori ez da gehiago aitzinamenduaren eta zorientasunaren sinonimoa, nahiz eta garai batez horretarako bidea zela sinetsarazi nahi izan diguten. Beraz, norabidea aldatzea ezinbestekoa da, arrazoi ekologikoengatik, baina baita ere gure bizitzetako zentzua berriz proposatzeko, eta mundua pentsatzeko modu berri bat eskaintzeko. Gaur egun, hain zuzen ere, erronka klimatikoak ikuspegi hori garatzeko aukera ematen digu. Hori oraino premiazkoagoa da eskuin muturraren eta liberalismo autoritarioaren gorakadak piztu tentsioen garai honetan, non bi indar horiek, bakoitzak bere modura, indibidualismoa, nork bere buruari bakarrik kasu ematea, berekoikeria, intolerantzia, menderatzea eta bortizkeria gogortzen baitituzte.

Testuinguru horretan, erronka klimatikoari aurre egiteko xedez, sistemaren aldaketa erradikalak aukera eskaintzen digu gure burua etorkizun berri eta desiragarri batean kokatzeko, eta gure oraingo ekintzei benetako zentzua ematen die.

Ikuspegi positibo horri esker, edozeri aurre egiteko gai den entusiasmo bat ageri da, beste mundu baten alde, nahiz eta dena kolokan dagoela iduri duen. Horra zergatik *zerbaiten alde* militatzeak poz ezohikoa ematen duen, poz hori klimamugimenduaren ezaugarri ere izanik. Beldurra hor dago, baina itxaropena ere bai.

Herritarren dinamika da, gazteriak biziki egituratzen duena, sumintzeko eta haserretzeko gaitasuna osorik daukana. Amets egiteko beldurrik ez izateko ausardia da, eta ametsak betetzeko erabakitasuna. Ezinezkoa dirudien baina ezinbestekoa den horretan sinesteko indarra da. Utopiak betetzeko mendiak altxatzeko behar den energia da. Etorkizuna jokoan duen belaunaldi baten zilegitasun ukazina da, harentzat erradikaltasuna biziraupen kontua baita. Erradikaltasun horrek gure mendeko erronken aurrean gaurkotu nahi ez duen mundu zaharra inarrostean du. Klimaren alde ekitea ekintza kolektiboaren indarra sentitzea da, gu baino handiagoa den mugimendu bateko kide izatearen sentimendua izatea, indibidualismoaren mundu atomizatu, murriz eta itogarri horren kontrako bidea hartzen duena. Beste gizarte mota bat asmatzeko dugun gaitasunari buruzko konfiantza da. Gauzak beste modu batera egin daitezkeela, modu oso ezberdinean eta zentzu askoz handiagoz bizi daitezkeela argiki ikustea da.

Egungo sistema zaharkitua delako ziurtasuna da, eta osoki, errotik, haren oinarrietatik hasiz ordezkatu behar dela jakitea.

Klima-mugimendua martxan

Paradoxikoki, itxaropena izugarri handia da eta,aldi berean,desafioa beldurgarri. Izan ere, ekintzarako palanka asko daude. Gure gizarteek ez dute jakin norabidea aski goiz aldatzen nahasmendu klimatikoa sor ez zedin eta, horregatik, haren ondorioetako batzuk atzeraezin bihurtu dira, baina *okerrena saihesteko borroka ez da oraindik ez galdua, ez irabazia*. Mugimendu bikoitza ikusten ari gara.

Sistema neoliberalak bere lasterketa eroa azkartu eta nahasmendu klimatikoa larriagotzen ari den aldi berean, erronkaren kontzientzia handitzen doa eta desafio horri aurre egiteko herritarren mugimendu bat sortzen eta egituratzen ari da.

Azken urteetan, klima-mugimenduak indar handia hartu du, modu ikusgarrian. 2018-2019 denboraldia bihurtu garrantzitsua izan da Frantziako Estatuan, hala nola klimaren aldeko martxa jendetsuak eta gazteen eskolako grebak, Estatuko ekintza klimatikorik ezaren aurkako ekintza judiziala eta haren eskaera erraldoia (2 milioi izenpetzaile baino gehiago izan zituen eta Estatua auzitan bi aldiz kondenatua izatea ekarri zuen), Macron presidentearen erretratuak kentzeko ekintzak eta ondorioz etorri den epaiketa-andana, eta Jaka Horien mugimenduarekiko hurbiltzeak, “klima, justizia soziala, borroka bera” mezuaren

inguruan. Nazioartean, Greta Thunbergen irudi mediatikoa agertzeak, Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak argitaratu 1,5 °C-ko helburuari buruzko txosten bereziak, munduko iritzi publikoa hunki duten muturreko gertaera klimatikoaren testuinguruan, hala nola Australia edo Amazoniako sute erraldoiak gertatu direlarik, sistemaren aldaketa erradikalaren beharra jendarteratzen lagundu dute. Hilabete gutxiren buruan, klima-mugimendua anitz hedatu da, kolektibo berriak sorturik, hala nola *Citoyens Pour Le Climat*, *Youth For Climate*, *Fridays For Future*, *Extinction Rebellion*, *La Fresque du climat*, Frantziako Estatuko lehen mugimendu “klimatikoak” (Bizi!, Alternatiba eta ANV-COP21) laguntzera etorri direnak, baita elkarte zaharragoak ere (*Greenpeace*, *Lurraren Adiskideen Sarea*, *Acción Clima Sarea*, *Attac*, *Oxfam*), denak borroka horretan osoki engaiatuak baitira. Azken urte hauetan, mugimendua oraino gehiago hedatu da, beste kolektibo batzuk agertzen segitzen baitute, hala nola, Frantziako Estatuan: *Scientifiques en Rébellion*, *Dernière Rénovation*, *Terres de luttés*, *les Soulèvements de la Terre*, eta nazioartean: *Last Generation* eta *Just Stop Oil* (gaur egun oihartzun handiko ekintzak egiten dituen, margolanetan salda botaz). Gainera, estatu mailako eta nazioarteko erakundeetatik haratago, milaka elkarte lokalek, alternatibak, lurraldeetako borrokak eta ehunka mila pertsonak osatzen dute klima-mugimendua, eta sekula baino biziago eta pluralago ageri da.

2009an Kopenhageko klimaren aldeko goi-bileran eraikitzen hasi zen mugimendu horren garaipen nagusia kulturala da. Egia da garaipen oso konkrituak lortu ditugula proiektu klimatiziden aurka, eta lege mailako aitzinamenduak ahalbidetu ditugula. Baina ikusgarriena kontzientzia hartzea da, izugarri aitzinatu baita. Hala ere, gure begien aitzinean gertatzen ari den nahasmendu klimatikoak are azkarrago harrapatzen gaitu, gero eta gogorrago eta erregularkiago jotzen baitu. Denbora aitzina doan heinean, azeleratu behar dugu, eraginkortasuna irabazi, egitura-aldaketa handiak lehenbailehen lortu, gure sistema ekonomikoak eta gizarte-ereduak bidez aldatzea lortzeko, hori behar-beharrezkoa baita. Hil ala bizikoa eta premiazkoa da ekitea, baina bereziki premiatsua da *eraginkortasunez* jokatzeko, zuzen bideratuz, estrategia egokiak garatuz.

Gerorako estrategia bat osatu

Su hartzen hasi den mundu honetan, estrategia kontuak hil ala bizikoak dira. Oraindik esperantza izan ote dezakegu berotze globalaren ibilbidea aldatzeko, eta beraz berotzearen ahultzearen aldeko borrokan jarraitu behar ote dugu, ala bataila dagoeneko galdua dela pentsatu behar dugu eta egokitzapenean bakarrik

¹ Bizi! 2009an Euskal Herrian sortu elkarte ekologista eta altermundialista da, batez ere klimaren gaiari buruz ari dena. Ondotik, *Alternatiba* mugimenduaren sortzea ekarri zuen 2013an, eta geroztik *Alternatibaren* adarretako bat da.

zentratu? Segitu behar ote da gudu kulturean, desafioaren kontzientzia maila jendearen gehiengoan oraino gehiago handitzeko?

Edo gehiago zentratu behar da azpiegitura proiektu handien aurkako borroketan, lekuan lekuko, iduri baitu konkretuagoak direla eta horietan gehiago eragin dezakegula? Menturaz bakarrik hurbileko borroka horietan zentratu behar da? Saiatu behar ote gara gehiengoa konbentzitzen, edo hobe dugu erresistentzia guneetan eta arnaguneetan kontzentratzea, non errazagoa baita gizartetik kanpoko bizimodu alternatiboa garatzea? Zer baitetarako balio ote dute klimaren aldeko martxek? Bortizkeriarik gabeko ekintzak eraginkorrak izan ote daitezke? Erradikalak izan ote daitezke? Desobedientzia zibilean sartu behar ote dugu?

Nola uztartu erradikaltasuna pragmatismoarekin? Nola zabaldu mugimendua borroka sozialetara eta prekarizatuena, behartsuenak, diskriminatuenak diren populazio-sektoreetara? Nola eraiki egiazko herri ekologia bat, eta klima-mugimendua zabaldu, frantses populazioaren egiazko aniztasuna hobeki ordezkatu dezan? Nola artikulatu klima-aldaketaren erronka globala pertsonen beharalako arazo eta behar materialekin, eta “munduaren bukaera, hilabetearen bukaera, borroka bera” eslogana konkretuki gauzatu?

Galdera horiek klima-mugimendua zeharkatzen dute bere aniztasun osoan, eta hainbat norabide estrategiko ageri dira. Sinesgarriena iruditzen zaidan estrategia da *masa-mugimendu herrikoi bat sortzea eta horri esker sistema errotik aldatzea*. Helburu hori ez da adostua militanteen artean: alde metodologiko, taktiko eta estrategiko anitz baldintzatzen dituen hautua da, eta ez da batere neutroa.

Masa-mugimendu bat nahi den ala ez, erradikaltasun ekologikoa ez da modu berean demokraziarekin eta justizia sozialarekin uztartzen. Herritarrari ez zaio eginkizun bera ematen sistemaren aldaketan. Aldi berean erradikala eta herrikoia den masa-mugimendu baten helburuak berekin dakar multzo militanteak gainditzen dituzten aliantzen logika bat; erradikaltasunaren eta pragmatismoaren arteko sintesi arrakastatsu bat aurkitzera sustatzen du. Ikuspegi horrek jendea dagoen tokitik hastera bultzatzen du, publiko zabalekin hitz egiteko bideak bilatzera, berdin politizatuak ez direnekin eta ezkerrekoak ez direnekin ere. Badakar ere % 100 bortizkeriarik gabekoa den estrategia bat aukeratzea, estrategia horrek pairatzen dituen aurreiritzietatik libratu. Izan ere, aurreiritzi horiek, gehiegitan, bortizkeriarik gabeko estrategia gaizki ezagutzetik heldu dira. Ikuspegi horrek indar harremanaren gaia gehiengo politiko eta kultural herrikoi bat lortzeko xedearekin lotuz pentsatzera eramaten gaitu. Bide horrek behartzen gaitu lan egiteko modu bereziak plantan ezartzera, modu inklusiboak bezain diziplinatuak, militante asko baina bateratuak izateko aukera ematen dutenak. Azkenik, denborarekiko erlazio berezia sortzen da, zeren masa-mugimendu bat eraikitzeko denbora behar baita, denbora falta zaigunean, eta horrek presaren eta denbora luzearen arteko kontraesana konpontzera garamatza.

Lasterrago ibiltzeko ordua da. Ezin ditugu jada egin ditugun akatsak errepikatu, ezta jada ikusi ditugun kale itsuetan sartu ere, porrot estrategiko bakoitza oso garesti aterako zaigulako. Klima-mugimenduak dozena bat urteko esperientzia dauka, eta haietatik probetxua atera dezakegu fase berri batera pasatzeko. Sekula baino gehiago behar ditugu gidalerro sendoak, orientazio estrategiko argia, zerumuga partekatua. Horrek eman diezaguke norabidea atxikitzeko ahala, baita gure beldurra, esperantza eta haserrea ekintzarako estrategia argi eta eraginkorretan bideratzeko aukera ere.

Urteak daramatzat Bizi!, Alternatiba eta ANV-COP21 mugimenduetan. Bertan, “praktikak kontzientzia sortzen du” filosofiak sustatzen gaitu. Eskulangile gisa ari izan gara, intelektual gisa baino gehiago, esperimentatzaile gisa, teoriarri gisa baino gehiago. Eta mobilizazioen poderioz, gure praktikak kontzientzia bat sortu du, hots, ikuspegi politiko eta estrategiko berezi bat. Segurtamen osoa dut mugimendu horiek, orain, kontzeptu eta ideia nagusi aski agerrarazi dituztela, eta ildo estrategiko sinesgarri aski, datozen urteetarako balio handiko funtzionamendu militante koherente bat osatzeko, nire ustez. Funtzionatzeko molde hori hemen deskribatzen dut, pertsonalki ikusten dudana bezala, zabalago partekatzen laguntzeko eta oraindik eraikitzen ari den klima-mugimenduaren segidarako ekarpen estrategiko gisa proposatzeko.

1. MASA-MUGIMENDU BATEN ESTRATEGIA: ZERGATIK, NOLA

Erronka klimatikoari aurre egiteko sistema errotik aldatu beharraren ikuspegitik, masa-mugimenduaren estrategia da egokiena, ekologia erradikala, justizia soziala eta demokrazia uztartzeko. Horrelako mugimendu bat eraikitzeak bortizkeriarik gabeko strategiaren, ikuspegi erradikal-pragmatikoaren eta aliantza zabalaren logikaren aldeko norabide argiak eta onartuak eskatzen ditu.

1. EKOLOGIA ERRADIKALA, JUSTIZIA SOZIALA ETA DEMOKRAZIA UZTARTZEA

1.1. Borroka guztien ama

Klimaren aldeko borroka ez da besteak bezalako borroka. Nahasmendu klimatikoak gure gizarteak mehatxatzen ditu: errepikatzen diren hondamendi ekologikoak, elikadura eta edateko ur eskasiak, muturreko beroaldiak... Fenomeno horiek lurralde osoak ezin bizitzeko bihur ditzakete.

Hondamendi ekologiko handiek kate-erreakzioak eragin ditzakete, non eragin humanitario lazgarriek gizarte osoak jo baititzakete: migrazio behartuak, baliabideen eta lurraldeen inguruko tentsioak, gatazka armatuak, gerrak. Bortizkeria eta kaosa nagusitzen diren bakoitzean ikusten ditugun giza eskubideen urraketak eragiten dituzten muturreko egoerak. Beraz, nahasmendu klimatikoak biziki handitzen du mundu askoz ezegonkorrago eta bortitzago baten arriskua, larrialdi-egoerak ugaritzeko eta erregimen autoritarioak garatzeko egokia, eta horiek, aldi berean, demokrazia, justizia soziala eta giza eskubideen hedapena mehatxatzen dute.

Klima da, beraz, borroka guztien ama. Zer mailatan lortuko dugu nahasmendu klimatikoa mugatzea? Izan ere, maila horrek baldintzatuko ditu "zibilizatua" deritzon gizarte baten funtsezko beste erronka guztiak. Dagoeneko zaila da gaur egungo munduan bakea, berdintasuna, demokrazia, tolerantzia eta giza eskubideak aitzinaraztea, klima "soilik" gradu batez berotua denean, eta oraindik ere bizigarritasun-baldintza aski onak dauzkagunean. Baina beroago izanen den mundu batean (+1,5 °C-ren eta +2 °C-ren artean), muturreko gertakari klimatikoak askoz bortitzagoak eta ohikoagoak izanen direlarik, askoz zailago izanen da desafio erabagiarri horiek aitzinaraztea eta defendatzea.

Analisi hori onartzen den puntutik, klimaren aldeko borroka ez da besteak bezalako borrokatzat hartzen ahal. Kontua ez da borroka beren artean kontrajartzea eta erratea klimaren alde militatu beharko litzatekeela, demokraziaren, bakearen, justiziaren, berdintasunaren edo giza eskubideen alde *militatu orde*. Aitzitik, erronka horiek ere *funtsezkoak direlako* militatzen dugu klimaren alde, klimaren aldeko borroka horiek guztiak barne hartzen baititu. Alabaina, datoren urte eta hamarkadetako bilakaera klimatikoak baldintzatuko ditu, hein handi batean, borroka horiek egiteko modua eta haiek aitzinarazteko izanen dugun tarte. Klimaren aldeko borroka globala eta erabatekoa da. Globala da, globoaren osotasuna inplikatzeko eta soilik planetaren mailan irabaz daitekeelako. Erabatekoa da, funtsezko beste desafio guztiekin bat egiten duelako.

Militantzia klimatikoak izaera berezia dauka, erronka klimatikoaren berezitasunagatik. Azken eta behin betiko borroka da: historian behin bakarrik jokatzen da. Demokrazia ez bezala, diktadura batek demokrazia zanpatu dezakeelako, baina iraultza historiko baten bidez berreskura daitekeelako; gerra bat ez bezala, gerra has daitekeelako, noizbait bakea berriz etorri arte... Demokraziaren eta bakearen aldeko borroka horiek zailak izan arren, egun bateko garaipenek beste egun bateko porrotak ordezkatu ditzakete. Baina horrelakorik ez da gertatzen klima-aldaketaren kasuan, zeinak, isuriaren murrizketa zorrotzik lortu ezean, okerrera egiten baitu egunegun, gradu hamarrenez gradu hamarren, atzerakorik gabe. Nahi ala ez, klima-belaunaldiaren parte gara: belaunaldi garaikideak, zeinen ekintzek –eta ekintzarik eze— zehaztuko baitituzte planetako bizigarritasun- eta bizi-baldintza “zibilizatuak” hurrengo hamarkadetan.

1.2. Munduaren bukaera, hilabetearen bukaera, borroka bera?

Klase borroka berria

Nahasmendu klimatikoa gizateriaren erronka komuna izanik ere, ongi bereizi behar dira erantzukizun mailak, eta oinarrizko bidegabekeria bat kontuan hartu behar da. Izan ere herrialde aberatsenak dira, historikoki, berotegi-efektuko gas gehien isuri dutenak eta industria-iraultzaz geroztik energia fosilen ustiapenari lotutako garapen ekonomikoari etekin handiena atera diotenak ere. Baina herrialde aberatsenak dira nahasmendu klimatikoaren lehen ondorioak gutxien pairatzen dituztenak. Aitzitik, herrialde pobreenak dira, historikoki, berotegi-efektuko gas gutxien isuri dutenak, baita etekin ekonomiko gutxien lortu dutenak ere, baina oraingo berotzearen ondorioz areagotzen diren muturreko gertakari klimatikoak gehien pairatzen dituztenak.

Bidegabekeria hori herrialdeen barnean ere ageri da: populazio pobreenak dira bero eta hotz handiak gehien jasaten dituztenak, uholde arriskuan dauden eremuetatik joan ezin direnak, muturreko gertaera klimatikoek uztak jo eta

prezioek gora egiten dutenean kalitatezko elikagairik erosi ezin dutenak, eta energiaren prezioaren igoerara egokitu ezin direnak. Aberatsenak, aldiz, aire gihrotua duten etxeetan aterpetu daitezke, egoitza anitz ukan ditzakete eta energia edo janari prezioen emendatzeak ez du eragin handirik haien bizian. Eta hori, populazioaren kategoria aberatsenek kategoria pobreenek baino berotegi-efektuko gas gehiago isurtzen segitzen dutelarik, berek beste batzuek baino gutxiago jasanen duten nahasmendu klimatikoa larriagotuz! Beraz, nahasmendu klimatikoaren bidegabekeria historikoak gaur egungo sisteman indarrean segitzen du: gaur egungo desberdintasun sozialak, izan ere, ingurumen arloko bidegabekeriak ere dira, txanpon beraren bi aldeak bezala.

Logika hori areagotu egin daiteke klima-aldaketa larriagotuko denean: edateko uraren murrizketa askoz handiagoei aurre egin beharko diegunean, ura modu bidezkoan banatu eta kontserbatuko ote da, jende guztiaren funtsezko beharretarako, edo aberatsek bereganatuko ote dute, aberatsen eta pobreen arteko nagusitasun-harremanen arabera, aberatsenek beren etxe klimatizatueta igerilekuak beteko dituztelarik, biztanle gehienek edateko, kuzinatze eta garbitzeko urik ukanen ez duten bitartean? Fruitu eta barazki freskoak luxuzko produktu bihurtuko ote dira, aberatsenentzat bakarrik eskuragarri izanez, beste batzuek janari errazionamenduak ezagutu bitartean?

Azken uda hauek, beroteek eta lehorteen markaturik, jadanik erakusten dute ingurumen alorreko bidegabekeria horien gustu garratza, hala nola ur murrizketen denboran ureztatuak izaten segitzen duten golf-zelaiak, edo botere publikoek laguntza ekartzen diotelarik laborantza industrialari ur erreserba erraldoiak eraikitzeke, laborantza ekologiko eta herrikoirako egokiak diren ureztatze sistemak sustatu ordez. Urteak badira, jada, ultra-beratsek lurra erosten dituztela nahasmendu klimatikoa gutxien jasanen duten munduko eskualdeetan, eta batzuek bunkerrak bertan eraikitzea ere aurreikusten dute². Beraz, klase sozial pribilegiatueneke ez diote nahasmendu klimatikoari ez ikusiarena egiten. Aitzitik, batzuk gainerako giza komunitatearekiko elkartasuna hausteko estrategia batean sartuak dira jadanik. Ez badugu berotzea ahultzeko estrategia behar bezainbat bideratzen eta ez badugu egokitze kolektibo eta solidarioa antolatzen, beraz, abiadura anitzeko gizarte bat sortzeko arriskua hartzen dugu, hondamendi filmetan ikusten direnak bezalakoa: aberatsenek bizimodu eroso atxikitzen dute, behar diren baliabide guztiez ongi hornituak diren auzoetan eta segurtasun zerbitzu pribatuek babesturik, aldiz, behartsueneke gero eta maizago pairatzen dituzte edateko ur, janari eta energia eskasiak, eta matxinatzen badira bortizki zapalduak dira. Orduan, borroka klimatikoa klase borroka berri bat bezala dator.

² "Comment les super-riches payent pour échapper à la crise climatique", *Novethic*, 2020ko abenduaren 24a.

Ez da soilik ingurumen arloko kontua: justizia soziala eta demokrazia kontuan hartu behar dira, erronka horiek banaezinak baitira. 2018-2019ko mugimendu sozialek, non aldi berean Jaka Horien mugimendua eta klimaren aldeko martxak ikusi baitira, modu deigarrian erakutsi dute.

Karbono zerga: ideia iraultzaile bikaina ala ekologia zigortzailea?

Karbonoaren gaineko zerga ideia bikaina da. Zoritxarrez oso gaizki bideratua izan da. Alta, haren oinarritzko printzipioa bikaina da eta trantsizio ekologikoaren eta justizia sozialaren helburuak uztar ditzake, sortutako errezeten banaketa egoki baten bidez. Diru-sarreraren lehen zati bat garraio alternatiboaren finantzaketara bideratu behar da, banakako autoaren mendekotasunetik ateratzen laguntzeko. Mekanismo horren bidez, zenbat eta petrolio gehiago kontsumitu, orduan eta baliabide alternatibo gehiago finantzatzen dira, petroliotik orduan eta gehiago askatuz: horrela, zirkulu bertutetsu bat plantan ematen da klimaren alorrean. Baina printzipio bakar horri helduz gero, arazo sozial zorrotz bat sortzen da, has-te-hastetik, zeren banakako autoaren menpe dauden landa eremueta populazio sektore prekarioenak berehala kaltetuak izanen bailirateke. Beraz, diru-sarreraren zati bat biztanleriaren sektore ahulenei laguntza ekonomikoa ematera bideratu behar da. Ez bakarrik zergak ez dezan jo dagoeneko arazo ekonomiko handiegiak dituen jendea, baizik eta, baita ere, prekario horiek *zerbait irabaz dezaten*: zerga kostatzen zaiena baino diru gehiago emanez, mekanismo hori aberastasuna banatzeko tresna bihurtzen da! Hots, aberatsenek petrolio garesti ordaintzen dute, guztientzako trantsizioa finantzatzuz, eta prekarioenak diruzko abantaila badute eguneroko garraioaren alternatiba eraginkorrak ohiko bihurtu arte. Horrela, harri batez, bi txori: trantsizioa eta energia fosiletatik ateratzea finantzatzeko modu bat, aldi berean desberdintasun sozialak murriztuz. Sistema bertutetsua litzateke, alde guztietatik.

2018an, Emmanuel Macronen lehen bosturtekoan, Jaka Horien mugimendua eragin zuen karbono-zergak guztiz alderantzizkoa egin zuen: trantsizio ekologiko handinahi bat finantzatzeko nahikoa ez bazen ere, aldi berean, biztanleria osoarengan oinarritzen zen, bereizketarik gabe. Gehiago zigortzen zituen lehen-dik prekaritatean zeuden populazio-sektoreak, banakako autoaren mendekotasun handiena zutenak. Bidegabekeria are jasanezinagoa zen, aldi berean, hegazkinen kerosenoa –aberatsek pobreek baino askoz gehiago erabiltzen dutena– ez baitzen gure eguneroko ibilbideetako erregai bezainbat zergapetzen, eta multinazionalei eta aberatsenei egindako zerga-opariak biderkatu baitziren Emmanuel Macronen agintaldiaren hasieratik. Ironiaz, ekologistek hainbestetan leporatzen zaie ekologia zigortzailea sustatzea baina, egiazki, ekologia zigortzailea politika neoliberallean aurkitzen da! Adibide horrek ongi erakusten du gizartearen berrantolaketak zenbateraino erantzuten dion klimaren erronkari (zergaren, ekonomiaren, lurralde antolaketaren eta abarren aldetik) eta ezin dela sozialki neutrala izan. Aberatsenak babestu eta desberdintasun sozialak areagotu di-

tzake edo, alderantziz, ahalegina bakoitzaren baliabideen arabera banatu, ahulena babestu eta desberdintasun sozialak murriztu.

Jaka Horiak, ekologia eta justizia sozialaren arteko konbergentzia baten eragile

Hasieran, militante ekologistek arrazoi guztiak zituzten okerrenaren beldur izateko, Jaka Horiek karbono zergaren aurka mobilizatzeko deiak sare sozialetan zabaltzen zituztela ikustean. Bost urte lehenago, “Txano Gorrien” mugimendua ikusi genuen protestaka, ibilgailu astunen gaineko zerga bat bertan behera uztera behartu arte, berriz ere ekologia –molde zinez engainagarrian– ordena sozial eta ekonomiko bidegabe baten hobendun gisa salatuz. Horrek are gehiago indartu zuen ekologia nahitaez “zigortzailea” eta justizia sozialaren aurkakoa zela dioten gezurrezko kontakizuna. Beraz, pentsa genezakeen ekologia berriz ere bidegabekeria sozialaren errudun ideala izanen zela. Baina, ustekabean, Jaka Horien mugimenduak logika hori hautsi zuen: hasieratik errefusatu zuen ekologiaren kontrakotzat jo zezaten. “Munduaren bukaera, hilabetearen amaiera, borroka bera” eta “klima, justizia soziala, borroka bera” esloganak oihukatu zituzten bai klima martxetan, bai Jaka Horien manifestazioetan. Jaka Horiek kritikatu zuten batez ere zergaren izaera sozialki bidegabea, eta ez haren printzipio ekologikoa. Batzuek lehen matxinada sozial klimatikotzat jotzen dute, eta Jaka Horien mugimenduak argiki erakutsi zuen, sistema *jendearekin* aldatzen ez bada, *jendearen aurka* aldatzeko arrisku handia dagoela. Trantsizio ekologikoa modu justuan egiteko, modu demokratikoan egin behar da, populazioa inplikatur. Alabaina, Jaka Horien mugimendua izaera demokratikoko aldarrikapen baten inguruan egituratu zen, Herritarren Ekimeneko Erreferendumaren eskarian zentratuz. Horrela, aldaketa ekologikoaren beharra justizia sozialaren behararekin lotzen duen adibidea badugu, gizartearen berrantolaketa mota horrek eskatzen duen aukera demokratikoaren arazo orokorrarekin ere loturik.

Jaka Horien mugimenduaren esperientziak berretsi du masa-mugimendu baten estrategiaren egokitasuna erronka klimatikoari aurre egiteko: estrategia hori da aldaketa ekologiko erradikala, demokrazia eta justizia soziala uztartu ditzakeen bakarra. Masa-mugimendu baten menturak galdera asko sortzen ditu, militante askok ez dute hartan sinesten eta ez dira ikuspegi horrekin ados. Baina bestela, zer? Abangoardia bat? Aldaketa autoritarioa, inposatua, menturaz *ekofaxista*? Alerta-jotzaileengan soilik oinarritu estrategia? Eremu alternatiboak ugaritzea? Masa-mugimendu baten estrategia plantan ematea ez da erraza, egia da, baina sistema osoa aldatu nahi badugu, jendearen masarekin egin beharko dugu. Gizarte osoa alda dadin, gizarte osoa mugiarazi behar da. Ez dago beste biderik. Beraz, ingurumenaren erronkari helduko dion mugimendu sozial bat beharrezkoa da. Ikusi behar da nola sor daitekeen horrelako masa-mugimendu bat: zein dira horretarako metodoak, zein dira haren sorrarazteko hautu estrategiko egokiak?

2. BORTIZKERIARIK GABEKO ESTRATEGIAREN HAUTUA

2.1. *Bortizkeriarik ezari buruzko aurreiritzietatik ateratzea*

Klimaren aldeko mugimendu masibo bat sortzeko, bortizkeriarik gabeko estrategia erabili behar dugu. Baina estrategia mota horren interesa ongi ulertzeko, lehenik eta behin, bortizkeriarik ezari buruzko aurreiritzi batzuk ezeztatu behar dira. Izan ere, estrategia hori justu haren kontrakoa balitz bezala deskribatzen dute. Hona hemen, bortizkeriarik eza dela eta, egiaren kontra doazen sei ideia nagusi, estrategia hori, usu, gaizki ulertzeroa bultzatzen dutenak.

Lehenik, bortizkeriarik gabeko ekintzak ez du zerikusirik pasibotasunarekin, etsipenarekin edo otzantasunarekin: alderantziz, *ekitean* datza. Oposizioaren atalean, injustizia- eta nagusitasun-egoeren parean esku hartzea, tartean sartzeta, aurre egitea eta borrokatzea da kontua. Eraikuntzaren atalean, konponbi-deak asmatzea, sortzea, eraikitzea eta ezartzea da kontua.

Bigarrenik, bortizkeriarik gabe ekitea ez da ihes egitea, ez gatazka saihestea; alderantziz, gehienetan *gatazka bat planteatzea* da kontua, injustizia egoera bat, nagusitasun logika bat, arazo politiko bat agerian jartzeko. Gatazkak aukera ematen du egoera bateko eragile ezberdinak agerrarazteko, interesen arteko ezberdintasunak azaleratzeko eta *arerioak seinalatze*ko, kontzesioak egin ditzaten edo beren jokabideak alda ditzaten. Hala ere, ez dira nahasi behar gatazka eta bortizkeria: bortizkeriarik gabeko ekintzan, gatazka bat planteatu behar da, gero konpontzeko, bortizkeriaren logika suntsitzailea segitzen ez duen bide batez.

Hirugarrenik, bortizkeriarik gabe ekitea ez da, inola ere, boteretsuei aldaketak kortesiaz eskatzea, erabakitzaileek eskaera zilegi bat nahitaez ulertu eta aintzat hartu behar dutelako uste inozoarekin, nahiz eta erabakitzaile horiek aldaketa horien kontrako interesak izan. Beraz, bortizkeriarik gabeko ekintzak ez du behartzea baztertzen: aitzitik, nahi diren aldaketak lortzeko indar harreman bat erabiltzea da kontua. Eta horretarako, gehienetan, behartze-indarra erabili behar izaten da aldaketa horiek lortzeko. Gatazkaren logika horretan, bortizkeriarik gabeko ekintzak eskatzen du pertsonak beti errespetatzea, baita arerioak ere. Bortizkeriarik gabeko jokabidea ekintzak eta pertsonak bereiztean datza: arerio baten eta haren ekintzen aurka borrokatzen da, baina pertsona errespetatzen da. Zehazkiago, debekatuta dago bortizkeria fisikoa (gorputzaren osotasunari kalte egiten dion oro) erabiltzea, baita bortizkeria psikologikoa, hitzeko jokabideetan (irainak edo eraso pertsonalak, adibidez) eta hitzik gabeko jokabideetan ere (mespretxuzko jarrerarik edo keinu iraingarririk ez, adibidez).

Laugarrenik, bortizkeria gabeko ekintza ez da errepresio bortitz orotatik ihes egiteko berme edo modu bat: alderantziz, aktibista ez-bortitzak maiz bortizki

erabiliak dira beren ekintzen denboran, eta horretarako prestatu behar dira. Al-diz, bortizkeriarik gabeko urratsean, bortizkeriari ez zaio bortizkeriaren bidez erantzuten. Horrek ez du erran nahi bortizki erabilia izatea onartzen dugunik, eta are gutxiago erran nahi du bortizki erabilia izatea bilatuko genukeenik edo sakrifizio-logika batean egonen ginatekeenik: alderantziz, bortizkeriarik gabeko urratsa bortizkeriaren logikaren ukatze erradikala da. Bortizkeriak bortizkeria dakar, gurpil zoro bat osatuz: hortik ateratzeko, ez zaio bortizkeria bati beste bortizkeria batez erantzun behar. Aterabide bakarra da. Bortizkeriarik ezaren antzea, hain zuzen, bortizkeriaren aitzinean erreakzionatzea eta hari aurre egitea da, baina guk bortizkeriarik batere erabili gabe.

Bosgarrenik, bortizkeriarik gabeko ekintzak ez du nahitaez materialaren degradazioa edo suntsipena baztertzen. Bortizkeriarik gabeko mugimendu batzuek baztertu egiten dute, arrazoi moralengatik (bortizkeria mota bat dela kontsideraturik) edo arrazoi taktikoengatik (kontsideraturik ez dela on iritzi publikoaren babesa lortzeko). Baina bortizkeriarik gabeko beste mugimendu batzuek materialen andeatzea eta/edo suntsitzea sartzten dute beren ekintza-moduetan, kontsideratuz sentsibilitaterik eta sufrimendua sentitzeko gaitasunik ez duen objektu bati erasotzea ez dela bortizkeria³. Beraz, bortizkeriarik gabeko mugimendu batek sabotajea erabil eta errebindika dezake, materiala edo instalazioak nahita hondatzeko edo suntsitzeko helburuarekin: adibidez, Genetikoki Eraldatutako Organismoen kontrako *Faucheurs Volontaires* mugimenduak, haren ekintza-modu nagusiak landare transgenikoak suntsitzea baitakar, bortizkeriarik gabeko gisa aldarrikatzen diren ekintza kolektiboetan.

Seigarrenik, bortizkeriarik gabeko ekintza ez da arerioekiko atsegina eta onbera izatea. Ez da ontasuna bere lana magiaz bezala egingo lukeelako sinesmenak bultzatu jarrera moral bat, non ekintzaileek uste luketen eskubideak lortzeko borrokatu beharrik ez dagoela. Alderantziz, bortizkeriarik gabeko ekintza borrokatzeko modu bat da. Bortizkeriarik gabeko ekintzaren indarra, alabaina, pertsonen kontzientzia hunkitzeko, konbentzitzeko, pentsamoldeak aldatzeko eta, aldi berean, indar-harreman bat plantan emateko eta arerioa behartzeko gaitasunean oinarritzen da. Bortizkeriarik gabeko ekintzaren antzea bi indar mota horiek uztartzeko sintesi bat egitean datza. Bortizkeriarik gabeko ekintzaren ikusmolde horrekin, bortizkeriarik ezari lotu ohi zaion egin-molde kaltegabe eta indargabe baten karikaturatik urrun, 2015ean, COP21 (ANV-COP21) bortizkeriarik gabeko ekintza-mugimendua sortu zen. Mugimendu horrek antolatu lehen ekintza handiak bortizkeriarik gabeko ekintza erasotzaile eta erradikal bat zer izan daitekeen erakusten du.

³ Larousse hiztegiko definizioaren arabera.

2.2. Handiak dira soilik belauniko baldin bagaude

COP21etik bi hilabetera, mundu osoko herrialdeek berotzea 1,5 °C-ra edo 2 °C-ra mugatzeko helburuarekin bat egin zuten nazioarteko goi-bileraren ondotik⁴, beraz, ANV-COP21eko militanteek beste goi-bilera baterako gonbida luzatzen zuen mezu baten berri ukan zuten. MCEDD⁵ izeneko bilkura zen, Pauen antolatu goi-bilera bat, petrolio eta gas multinazional handienak biltzeko, hala nola Total, Shell, Exxon eta BP, itsaso sakon eta ultra-sakonean zulaketa teknikak hobetzeko helburuarekin... Hots, mundu osoak berotze globala mugatzeko premia larria –energia fosilen erreserba ezagunen % 80 lurrian uztea erran nahi duena– onartueta aste gutxira, multinazional horiek guztiz alderantzizkoa egin nahi zuten: hidrokarburoak erauzteko aukerak gehiago zabaldu! Frantziako Estatuan elkartzeak ziren, Klimaren Aldeko Akordioa izenpetu berri zen herrialdean berean. Beraz, probokazio hutsa zen, eta horrek konbentzitu gintuen gure lehen ekintza zuzen ez-bortitza antolatzeko, desobediencia zibil masiboa, goi-bilera hori blokeatzeko. ANV-COP21ek, orduan, dei publikoa egin zuen “bortizkeriarik gabeko eta zalantzarik gabeko ekintzak” burutzeko eta goi-bilera hori blokeatzeko.

Handik bost asteren buruan, petrolioari buruzko goi-bileratik egun batzuetara, Emmaüs Lescar komunitatean bildu ginen, Pauetik kilometro gutxira. Bertan, formakuntzak emateko eta ekintzak prestatzeko kanpamendu bat antolatu genuen, non blokeoan parte hartzera etorri ziren ehunka pertsonak errezibitu baikenituen. Emmaüseko lagunek karpa handiak jarri zituzten gure esku, batzuk aktibistak lo egiteko koltxoiekin, beste bat sukalde handi bat antolatzeko gisan, beste bat otorduetarako eta bilkuretarako mahai handiekin... Non geunden ongi ulertzeko, bere burua “herri” gisa aurkeztu nahi duen Emmaüs komunitate hori laburki aurkez dezagun. Ehun lagun inguru bizi dira han, berek eraiki etxe txikietan. Etxe horietako batzuek itxura ezohikoak dituzte, hala nola “alderantziz” eraikia den bat, teilatua beherean duena, edo beste bat, zuhaitzetan eraiki dagoena. Emmaüseko lagunek hesiak egin dituzte eski zahar batzuk erabiliz, bankuak surf ohol zaharrekin, eta etxe koloreztatu horien artean tren zahar bateko bagoiak badaude, errail zati batzuen gainean. Eraikin horiek logela gisa erabiltzen dira, hortik pasatzen den jendearentzat. Urteak joan urteak etorri, komunitate horrek alternatiba anitz plantan eman ditu: egunero bigarren eskuko gauzak erostera joaten diren milaka pertsonen salneurri merkean saltzen zaizkien gauzak berreskuratzeak eta konpontzeko jarduera tradizionalaz gain, baratzeak eta laborantzako etxalde txikiak, ogia egiteko labe bat, kontserbak egiteko lantegi bat, erlezaintza, dena autogestioan kudeaturik. Emmaüs Herria bere

⁴ Parisko Hitzarmena, non, hala ere, herrialdeak berotegi-efektuko gasen emisioak zinez mugatzera behartuko litzuzkeen mekanismo loteslerik ez baita sartzen.

⁵ “Marine, Construction and Engineering Deepwater Development” goi bilera zen, ur sakonetako petrolio eta gas prospekzioko profesionalen goi bilera bat.

burua elikatzeke aski ekoizteko bidean dago. Janari denda bat, taberna bat, krepak egiten dituen ostatu bat, irrati bat, haurrentzako animazioak, astoek tiratutako karroekin edo pedalez mugitzen diren auto txikiekin. Alternatiba “eraiki” horiei programazio militantea eta politizatua gehitzen zaie, mintzaldiak, mahai-inguruak, kultur ekitaldiak eta ekitaldi militanteak erregulariki antolatzen baituzte. Diruaren aldetik independente izateak eta lurraldean ezinbesteko eragile ekonomiko bihurtu izanak bere independentzia politikorako eta jarduteko askatasunerako baliabideak ematen dizkio Emmaüs komunitateari... hala nola, aste oso batez, petrolioari buruzko nazioarteko goi-bilera bat blokeatzeko asmoa publikoki eta alde aurretik iragarri duten ekintzaileen kanpaldi bat hartzeko. Eta hori, komunitatea Pauetik hurbil izanik, Total enpresa historikoki indartsu dagoen lurralde batean, gaur egun ere bereziki jarduera petrokimikoek egituratzen duten lurralde batean. Zenbait egunez, beraz, bortizkeriarik gabeko ekintzarako eta desobedientzia zibilerako formazioak proposatu genizkien militanteei, horietako gehienek oraindik ez baitzuten sekula horrelako ekintzarik burutu. Aldi berean, militante zailduagoak (baina horietako askok hilabete batzuetako esperientzia besterik ez zuten, COP21aren inguruko mobilizazioetan mugimenduan sartu zirenetik) ekintzak zehazki prestatzen aritu ziren.

Lehen ekintzak, goi-bilera ireki zen egunean, zertara gindoazen erakutsi zuen. 2016ko apirilaren 5ean, astearte goizarekin, lehen aktibista-talde batek Pauko Biltzar Jauregiko lorategiak zeharkatu zituen, petrolioari buruzko goi-bilera han egitekoa baitzen. Bata bestearen kontra tinkaturik, antzinako erromatar formazio militar batean bezala, lehen lerroko ekintzaileek koltxoiz egindako ezkutuak zeramatzaten. Denak oihuka ari ziren: “Larrialdi klimatikoko egoera!” eta zalantzarik gabeko urratsez aitzina egin zuten istiluen aurkako poliziaren lerro baterantz, azken horien harridurarako. Militanteak CRSak hunkitzeraino aitzinatu ziren, koltxoizko ezkutuak erabiliz bultzatu zituzten eta haien lerroak zeharkatu.

Koltxoizko ezkutu horien ideia Alemaniako ikatz meategien aurkako ekintzetatik hartu genuen, non *Ende Gelände* mugimendu sozial eta ekologistak erabili baitzituen: segurtasun-indarrak fisikoki baztertzea ahalbidetzen dute, kolpatzeko arriskurik gabe. CRSen lerroak zeharkatu bezain laster, militanteek Kongresu Jauregiaren inguruan zeuden hesi altuak eraitsi eta lekua inbaditu zuten. Beste talde batzuek segitu zuten, toki ezberdinetatik sartuz.

Gaunditurik, segurtasun-indarrek bortizki erantzun zuten, gas negar-eragileak eta borrak erabiliz. Laster, aktibistak elkartu eta giza-bloke trinkoak osatu zituzten Kongresu Jauregiko eraikinaren sarreraren aitzinean. Poliziakide batek ekintzaile baten eskua hartu eta mehatxu egin zion: “Altxa, edo behatzak hautsiko dizkizut”. Emaztea ez zen mugitu. Poliziakideak behatzak bortizki bihurritu zizkion, hainbat zaintiratu eraginez. Poliziak gas negar-eragileak hurbil-hurbiletik bota zizkien eserita zeuden ekintzaileei, eta beste batzuei konpresio mingarriak eragin. Poliziaren bortizkeriaren aitzinean, eta mina gorabehera, aktibista

bakar batek ere ez zuen bortizkeriaz erantzun. Ordea, denek errepikatzen zuten: “polizia, lasai, zuen seme-alabentzat egiten dugu” eta *HK et les Saltimbanques* musika taldearen leloa: “*sans haine, sans armes, sans violence* (gorrotorik gabe, armarik gabe, bortizkeriarik gabe)”. Ekintzaileen erabakitasunaren ondorioz, poliziak banan-banan kanporatu behar izan zituen.

Bloke batetik erauzitako ekintzaile bakoitzak erresistentzia pasiboaren teknika erabiltzen zuen, “pisu hila”⁶ eginez, poliziakideek blokeo gunetik kanpora banan-banan eramatera behartuz, kanporatzea mantsotuz eta blokeoa iraunaraziz. Inguruan, ekintzaileen beste parte batek erizaindegiak antolatu zituen, zauritutako ekintzaileak sendatzeko. Gailurreko hamarnaka parte-hartzaile, beren jantzi gorbatahun eta maletatxoengatik erraz ezagutzen zirenak, kanpoan blokeaturik eta ilara luzeetan itxarotera beharturik zeuden. Batzuk urrundu ere behar izan zuten, gas negar-eragileetako lainoak zirela eta!

Kongresu Jauregiaren barnera sartzea lortu zuten ekintzaileak inaugurazio-hitzaldia egin behar zen tribunan kateatu ziren. Eguerdian, ekintzaileek kongresurako materiala garraiatzen zuen kamioneta bat blokeatu zuten. Harrigarria badirudi ere, asaldura eta blokeo egun horietan zehar, ekintzaileen eta poliziakideen eta ekintzaileen eta kongresuko parte-hartzaileen arteko liskar fisikoak elkarrizketa-uneekin nahasi ziren. Horietako nehor ez zen gure etsaia: sistema da aldatu behar dena, eta gure hitzak gure armarik boteretsuena izaten jarraitzen du. Gurpilen azpian kateatutako ekintzaileek blokeatutako furgonetaren inguruan, gunetik kanporatuak izan ziren militanteek beren ekintzak jarraitu zituzten blokeo sinboliko bat osatuz kongresuko parte-hartzaileen bidean, *die-in*⁷ baten bitartez. Militante horietako bat kongresuko parte-hartzaile bati zuzendu zitzaion: “Hemen gelditzen bazara +2 °C da, urrunago joaten bazara +5 °C da”. Kongresuko parte-hartzaile gehienak, biltzarren erdigunera sartzeko, ekintzaileen gainetik pasatzen ziren bitartean, haietako bat gelditu zen, erran zigun dimisioa emateko erabakia hartua zuela, eta pasabidearen ertzean eseri zen, bortizkeriarik gabeko hesi horri begira egoteko. Kongresuko beste parte-hartzaile bat, diskretuki, lanean ari zen petrolio-konpainiari buruzko barne-informazioa eman zigun, erranez bera ere beldurtuta zegoela bere enpresak prestatutako proiektuengatik.

Energia eta jarrera kolektibo batek ekintzaileak bateratu zituen. Orotara, hiru egunetan, 500 ekintzailek hartu zuten parte ekintza horietan, eta gehienak hasiberriak ziren. Prestaketa denboran, batzuek erran ziguten ez zutela lehen lerroan

⁶ Pisu hilaren teknika erabiltzea da erabat bigun bilakatzea, segurtasun-indarrek ekintzaileak eraman nahi dituztenean. Kanpora joateko aginduetan ez laguntzea ahalbidetzen du, ezezko hori liskar fisiko bihurtu gabe.

⁷ Die-in egitea lurrean etzanik egotea da, hilda bageunde bezala.

egon nahi, ez eta arrisku fisikorik hartu nahi, baina horietarik batzuek, gero, poliziari erabakitasun osoz aurre egiteko erabakia hartu zuten, esku ahurrak zabalik erakutsiz, bortizkeriarik ezaren adierazgarri, baina burua altxaturik eta begirada irmo atxikiz. Lehen egunean hankan zauritutako ekintzaile bat hirugarren eguneko ekintzan parte hartzera itzuli zen, makuluak zituela. Emmaüs mugimenduko lagun bat, taka-taka bat erabiltzen zuena, halako arriskueta ez sartzeko eman genion aholkua entzuteari uko eginez, ekintzan parte hartzera etorri zen. Gu kanporatzeko prest zeuden segurtasun-indarren lerro bati aurre egin zion, ekintzaileen lerro batean sartuz, aurrez aurre zuen poliziakideari finko begiratu. Poliziakidea, deseroso, burua ezker-eskuin itzultzen zuen, bere lankideei begiratu, “Hala ere, ez dut taka-taka batekin dagoen pertsona bat joko?” erran nahi izan balu bezala.

Klimaren aldeko militanteen mugimenduan, zeina oraindik mikrokosmos bat baitzen 2016 hastapenean, ekintza hori ez zen batere usaian bezalako. Bortizkeriarik gabeko ekintza zuzenak ehunka pertsona bildurik egin daitezkeela erakutsi zuen, eta bortizkeriarik ezari buruzko aurreiritzi iraunkor bat hautsi zuen: ekintza mota hori halabeharrez biguna delako itxura ematen dion aurreiritzia, hain zuzen. Konfrontazio fisikoaren maila, ekintza hartan, gehienek uste zutena baino askoz handiagoa izan zen. Baina talka fisikoaren irudi ikusgarrien gibelean, batez ere, shock psikologiko bat dago: kontzientziak dira gehien astindu direnak, eta hor dago bortizkeriarik ezaren indarririk handiena. Adibidez, ekintzaile bat poliziakide bati zuzendu zitzaion, ziurtasun harrigarritz, bi liskarren artean: “Laster, gurekin etorriko zarete... Badakizu zergatik? Zuen familiak izanen direlako aurrean izanen dituzuenak”.

Ekintza-kanpaina horrek “COP21aren aitzineko” eta “COP21aren ondoko” bat markatzen du: lehen onartzen genituen gauza batzuk onartezin bilakatu dira. Garai batean, petrolio-enpresek, jarduera ekonomikoa eta lanpostuak hitzemanen, harrera beroa izan zezaketen Paue bezalako hiri batean, historikoki petrokimika-industriari lotua baitzaio. Baina orduan, ehunka lagunek petrolio-enpresa horiek berak errezibitu zituzten, “bat, bi, hiru gradu: gizateriaren aurkako krimena da!” errepikatuz. Hiru eguneko ekintza horien biharamunean, 2016ko apirilaren 8an, ostiralarekin, Ségolène Royal Ingurumen ministroak “Mediterraneoan hidrokarburoen bilaketak berehala gelditzeko aldi baterako erabakia” hartu zuen, Ozeanoari buruzko Bigarren Konferentzia Nazionalaren harira, gehitu zuen ez zuela gehiago “esplorazio baimenik emango, ez Frantziako Estatuaren meneko uretan, ez plataforma kontinentalean”.

Apirilaren 10eko *Le Monde* egunkariak argitaratu zuenaren arabera, iragarpen hori “Pauen petrolio eta gas enpresa handien topaketa oztopatzeko ahalegin guztiak egin dituzten militante ekologisten kezkei eman erantzuna dela pentsa daiteke”.

Pauen gertatu konfrontazio fisikoen irudiak deigarrienak izanik ere, ekintza horiek beste ekintza mota batzuen bidez osatu ziren. Alde batetik, aktibista talde txiki batzuek “komando” ekintzak burutu zituzten, kongresuko parte-hartzaileek lo egiten zuten hoteletako aitzinean eta barnean ere sirenak joz, eta egunsentian hoteletako atarietan kateatuz, goi-bilerara joatea fisikoki oztopatzeko. Baina, publiko zabalarentzat egokiak ziren ekintzak ere egin ziren, hala nola giza kate handi bat, Biltzar Jauregiaren inguruan, hain militanteak ez diren pertsonak eta haurrak dituzten familiek parte hartzeko gisan. Baimenik gabeko kontzertu bat ere antolatu zen, *HK et les Saltimbanques* taldearekin, egun inklusiboago horren bururatzeko. Ekintza-kanpainaren alderdi hori klasikoagoa da, baina, hala ere, funtsezkoa da kanpainaren arrakastarako, herritarren artean borrokaren zilegitasuna emendatzen baitu eta, ondorioz, indar politikoaren erlazioa areagotzen. Herritarren zati baten laguntza, egunero kanpamentura janaria eramatera baitzetozen, ekintza zuzenetan arrisku fisiko eta legalen hartzeko prest zeuden ekintzaileen ausardia bezain erabakigarria izan zen. Bortizkeriarik gabeko estrategiak bere indarra oinarritzen du gizarteak ikusten dion zilegitasunean eta herritarrak borrokan zuzenean parte harrarazteko gaitasunean. Masen estrategia ez-bortitz egokia sarrera anitz eskainiz antolatu behar da, publiko anitzen integratzea ahalbidetuz, herri dimentsio hori eraikitzeke behar diren baldintzak biltzeko⁸.

Horra hor, masa-mugimendu bat eraikitzeke, bortizkeriarik gabeko estrategia bereziki egoki egiten duen lehen arrazoa: *haren inklusibotasuna eta ekintza moldeen aniztasuna*. Bortizkeriarik gabeko ekintza esku-hartze eta blokeo ekintza zuzenez osatua izan daiteke eta arrisku fisikoak hartzera eraman gaitzake, baina baita mobilizazio masiboz ere egin daiteke, jendea familiarekin eta seme-alabekin joateko gisan. Desobedientzia zibileko ekintzak izan daitezke, auzitara eramaten ahal gaituztenak, baina baita errepresioaren bide klasikoak saihesten dituzten ekintza abilak ere, umorea edo originaltasuna erabiltzen dutenak. Bortizkeriarik gabeko estrategiak, aurkakotza-ekintzak ez ezik, eraikuntzaren erregistroan txertatzen diren alternatibak plantan ezartzeko ekintzak ere barne hartzen ditu, baita kooperaziorik eza plantan ematen duten ekintza masiboak ere, hala nola boikota edo greba, non aldatu nahi den sistemaren boterearen oinarriak ahultzen baitira. Hain ekintza-modu ezberdinak erraz jar litezke elkarren kontra: adibidez, pentsa liteke desobedientzia zibileko ekintzen erradikal-tasunak zilegitasuna kentzen diela alternatibak garatzeko eraikuntza-ekintzei. Edo alderantziz, ekintza eraikitzaileen adostasunezko izaerak eragotziko lioke-ela mugimenduari bere erradikal-tasuna adieraztea. Baina bortizkeriarik gabeko estrategia batean, aitzitik, ekintza-modu ezberdin horiek elkarrekin uztartzen

⁸ MCEDD izeneko goi bilera horren aurkako ekintza kanpaina Sandra Blondel-ek eta Pascal Hennequin-ek zuzendutako *“Irrintzina, le cri de la génération climat”* film dokumentalean agertzen da. DVDz eta interneten ikus daiteke.

dira eta elkar indartzen dute. Horren azalpena da ekintza mota horiek mekanika komun bat elikatzen dutela: xedea da ekintzen indarra aldarrikapenen zilegitasunean oinarritzea, iritzi publikoaren sostengua eta herritarren parte hartze zuzena pizteko.

Ekiteko moduen aniztasun horrek aukera ematen du ahalik eta jende gehien mugimendu komun batera biltzeko, arrisku juridiko edo fisikoak hartzeko prest egon ala ez, gaztea ala adinekoa, denbora asko izan ala ez, familiako bizitzak edo lanak oso hartua izan, osasun-arazoak izan ala ez, etab.: masa-estrategia ez-bortitz egokiak bakoitzari leku eta eginkizun bat proposatzeko gai izan behar du.

Bortizkeriarik gabeko estrategia masa-mugimendurako bereziki egoki bihurtzen duen bigarren arrazoia indar hertsatzaile bat eta pertsuasio-indar bat aldi berean erabiltzeko gaitasuna da.

2.3. Indar harremana eta kontzientzien harremana

Indar harremana estrategia mota ororen funtsezko nozioa da. Ekologiari eta klimari buruzko argudio arrazional eta zientifikoak, bakarrik, aski balira arduradun politiko eta ekonomiko handiei erabaki egokiak harrarazteko, ohartuko ginen. Zilegi dena jendetasunez eskatzea aski balitz desoreka eta bidegabekeria sozialekin bukatzeko, horretaz ere ohartuko ginen. Kontuan hartu behar ditugu interesen logikak, non desadostasunak eta gatazkak saihestezin bihurtzen baitira. Jakin behar dugu, halaber, beharrezkoa dela injustizia egoeren erantzuleak identifikatzea eta areriotzat hartzea, haien aurka egitea, haien aurka borrokatzea eta, beraz, indar harreman bat ezartzeko gai izatea, haien interesen aurka joan daitezkeen aldaketak lortzeko.

Hala ere, nahiz eta indar harremana erabiltzea ezinbestekoa izan, ez da aski. “Ekintza baten eraginkortasuna kontzientzien erlazioan duen eraginagatik epaitu behar da, eta ez soilik indar harremanean duen eraginagatik”, gomendatzen zuen Jean-Marie Mullerrek⁹. Hori bereziki egia da borroka klimatikoan; izan ere, sistemaren aldaketa erradikalak ezinbestean dakar bizimodu kolektiboaren aldaketa, beraz, gure pentsamoldeen aldaketa sakona eta, beraz, gure kontzientzietan eragina izateko modu bat.

Estatu batuetako eskubide zibilen aldeko mugimenduaren adibidea

Estatu Batuetako 1950eko hamarkadako eskubide zibilen aldeko borrokarekiko paraleloa egitea argigarri da. 1955-1956 urteetan, autobusei boikota egiteko

⁹ Jean-Marie Muller filosofoa da, Gandhiren eta bortizkeriarik ezaren inguruan aditua, *Mouvement pour une alternative non-violente* mugimenduko kide sortzailea.

kanpaina batek bortizkeriarik gabeko indar bat erabili zuen, ekonomikoa kasu honetan, Montgomery hirian. Rosa Parks-ek desobeditu zion garai hartan indarrean zegoen araudi segregazionistari, hots, uko egin baitzion bere eserlekua bidaiari zuri bati uzteari; haren atxilotetaren ondorioz, autobusei boikota egiteko mugimendu masiboa hasi zen, politika segregazionista indargabetzea eskatzeko. 381 egunez jarraian, bidaiari beltzek hain kopuru handian parte hartu zuten boikotean, non dozenaka autobus egon baitziren biltegian geldirik. Ekintza molde hori kooperazioari uko egitea da: sistemarekiko lankidetzaz gelditzeko antolatzea da xedea. Ondoko analisitik datorren taktika bat da: botere bat erabiltzen duen sistema bakar batek ere ezin du jendearen lankidetzarik gabe iraun, ez gobernu batek, ez multinazional boteretsu batek. Lege batzuek benetan indarrean egon daitezten, herritarrek legeei obeditzea onartu behar dute. Herrialde batek funtziona dezan eta gobernu batek gobernatzeko bideak ukan ditzan, enplegatuek beren lana egin behar dute ekonomiaren ezinbesteko katebegietan: energiari buruzkoetan, garraio azpiegiturari buruzkoetan, telekomunikazioei buruzkoetan, etab. Uste komun baten kontra, gobernu baten boterea ez da oinarritzen soilik, ezta nagusiki ere, segurtasun-indarretan eta errepresio- eta hertsapen-tresnetan, horiek boterearen erabileraren alderdi bat besterik ez baitira, beste batzuen artean. Biztanleriaren zati esanguratsu baten onespena eta obedientzia ezinbestekoak dira boterea benetan segurtatzeko. Gisa berean, multinazional ahaltzu batek ezin du funtzionatu, bere langileen lana, bere hornitzaileen zerbitzuak, bere bezeroen konfiantza eta kontsumoa erabiltzerik ez badu.

Modu batera edo bestera, boterea oinarritzen da botere horrek eragiten dien pertsonen kooperazio aktiboan edo etsian. Étienne de La Boétie-k 1574an *Discours de la servitude volontaire* obran garatu zuen ideia da: “Jaun horrek, alta, bi begi, bi esku, gorputz bat besterik ez ditu, eta ez gure hirien kopuru mugagabeko azken biztanleak baino gehiago ezer. Horrez gain daukana zuk zure suntsitzeko ematen dizkiozun baliabideak dira. [...] Tirano hori bakarrik badago, ez da haren aurka borrokatu beharrik, ezta hura eraitsi beharrik ere. Berez desegina da baldin eta herrialdeak ez badu onartzen bere mendekotasuna. Kontua ez da tirano horri zerbait kentzea, ezer ez ematea baizik. [...] Erabaki ezazue ez gehiago zerbitzatzea, eta libre izanzen zarete”. Jakina, ideia hau ez da aplikatzeko hain erraza, sistemaren oso mendekoak baikara.

Montgomeryko biztanle beltzek autobusa hartu behar izaten zuten, nahiz eta, noski, ez zuten atseginez hartzen, bertan maiz tratatu txarrak eta umiliazioak jasaten baitzituzten, eta batzuetan bortizki erabiliak ere izaten baitziren. Beraz, autobusei boikota egiteko baliabideak ukaiteko, Montgomeryko komunitate beltzak alternatibak antolatu zituen: gehienak oinez ibiltzen hasi baziren, ibilaldiak asko luzatuz, afroamerikarrek gidatutako taxiak bidaiari beltzak autobuseko tarifan hartu zituzten, eta autobus zerbitzu paralelo bat ere jarri zuten martxan, denbora baten buruan. Alternatiba horiek aukera eman zioten mugimenduari boikota

urte bat baino gehiagoz luzatzeko, harik eta Auzitegi Gorenak Alabamako legeak konstituzioaren kontraketat jo zituen arte, autobusetan arraza-segregazioa inposatzeagatik.

Gandhik kolaboraziorik ezaren teknika bera erabili zuen Indian, britainiar ehuna boikotatuz eta, horrela, inperio kolonialeko elementu ekonomiko nagusi bati eraginez. Grebak kolaboraziorik eza plantan emateko beste modu bat dira, eta askotan erakutsi dute beren eraginkortasuna historian eta munduan zehar.

Hertsatze eta behartze mota bat erabiltzea, beraz, zinez posible eta oso baliagarria da bortizkeriarik gabeko estrategia batean. Baina estrategia ez-bortitzaren indarra kontzientziak hunkitzeko gai diren ekintzak ere garatzean datza. Eskubide zibilen aldeko mugimenduaren ekintza enblematikoetako bat pertsona beltzak zuriei erreserbatutako kafetegietan sartzea izan zen. Militante beltzek edari bat eskatzen zuten, jendetasunez, horretarako eskubidea ukan balute bezala jokatzuz. Zerbitzariak beltzak zerbitzatzeari uko egiten ziotenean, militanteak bertan gelditzen ziren, sorgor, eta zerbitzatuak izan arte itxaroten zuten, berterik gabe. Jarrera horrek jende askoren haserrea eragiten zuen eta, batzuetan, erreakzio bortitzak sortzen zituen: bezero zuriak militante beltzak umiliatzen zituzten, edariak, saltsak eta hautsontziak buruan botaz. Gatazkaren puntu zorrotz horretara iritsiz, probokazio haiek funtsezko oinarria ziren mugimenduaren estrategia ez-bortitzarentzat. Horrela umiliatutako eta bortizki erabilitako militante beltzek ere bortizkeriaz erreakzionatu ahal izanzen zuten, adibidez erasotzaile zuriak fisikoki gibelaraziz. Gainera, moralki, erreakzio hori osoki ulergarria eta bidezkoa izanzen zen. Baina biziki kaltegarria izanzen zen, strategiaren aldetik: borrokak gertatuko ziren, kontakizun arrazista menderatzailea elikatuko zutenak, zeinaren arabera beltzak eta zuriak ez baitziren elkarrekin bizitzeko gai, beltzek ez omen baitzekiten modu “zibilizatuan” bizitzen.

Hain zuzen ere, sinesmen horrek justifikatzen zuen segregazio-politika, hots, jendea larruaren kolorearen arabera banatzea hainbat eskolatan, saltokitan, autobusen parte ezberdinetan, etab. Orduan gizarte amerikarrean indarrean zegoen arrazakeria kultural eta sistemikoa beltzak “basatiak” zirela pentsatzean oinarritzen zen, berez gizalegez jokatzeko gai ez zirelakoan. Bortizkeriaz defendatuz gero, militante beltzek, beren gogoaren kontra, pairatzen zuten kontaktuzuna elikatuko zuten. Beraz, bortizkeriarik gabe erreakzionatzea erabaki zuten, eta azkenean egoera horri buelta eman zioten: duin, sorgor, ez-bortitz izaten jarraituz, basati gisa jokatzeko zuten zurien aitzinean, erakutsi zuten barbaro gisa jokatzeko zuena pertsona zuri arrazisten komunitatea zela, eta ez komunitate afroamerikarra, bortizkeria gordin horretara apaltzen ez baitzen. Horrelako ekintzek, bortizkeriarik gabeko jarrera zorrotz eta akatsik gabean oinarrituz, populazio zuriaren gero eta zati handiago baten babesa bildu zuten, arazoaren muinari, arrazakeriaren sustraiari berari eraginez, zeina biztanleriaren pentsa-

moldean, kultur sustraian eta dimentsio sistemikoan finkatzen baita. Arrazakeriaren kontra borrokatzeko, pertsona eta erakunde arrazisten kontra borrokatu behar da. Baina arrazismoa errotik kentzeko, bere dimentsio politiko eta ekonomikoa desegiteko, aldaketa kultural bat ere eragin behar da eta, beraz, kontzientziei eragiten dieten ekintzak burutu behar dira, gizabanakoak ideologia arrazistarekin haustera bultzatzen dituztenak.

Martin Luther King-en gisako mugimendu bat, klimaren alde

Gauza bera gertatzen da klima-aldaketaren benetako izaeraz eta horrek zehazki dakarrenaz kontzientzia hartzearekin. Imajinatzen ahal dira bortizkeriarik gabeko ekintzak *Total*, *Cargill*, *Lafarge*, *BNP*, *Société Générale*, etab. edo gobernu ultraliberalak behartzeko, eta horrelako ekintzak ezinbestekoak dira. Baina helburua gizarte zibila zabal mugiaraztea bada, lanaren parte garrantzitsu bat kontzientzien mailan egin behar da, nahitaez.

Azken aldi honetan, aktibismotik urrun diren pertsonak klimari buruz mintzatzen entzuten ditudanean, klimaren aldeko martxak eta gazteek 2018-2019an klimaren alde egin dituzten eskolako grebak aipatzen dituzte gehienik. Alta, mobilizazio horiek ez dute berez zuzeneko behartze indarririk izan. Epe laburrean ez dute garaipen nabarmen eta zehatzik lortu, klimari buruzko gobernu-politikaren aldaketarik ez, adibidez. Eta horregatik, gainera, kritika gogorrak jaso dituzte militanteen partetik. Hala ere, urte batzuen buruan eta urrunagotik begiraturik, mobilizazio horiek dira iritziz publikoaren aldatzeko indartsuen direnak.

Nahiz eta batzuetan mobilizazio horien erradikalatasun falta eta purismo militante eskasa kritikatu izan den, egia erran, ez dago inolako kontraesanik eta dilemarik horrelako mobilizazio masiboak eta erradikalagozat jotzen diren beste ekintza batzuk paraleloki egiteko. Alderantziz, mobilizazio masiboak, bistan da, desobedientzia zibileko ekintzen edo aipatu berri ditudan bezalako proiektu handien aurkako erresistentziatzeko ekintza zuzenen osagarriak dira. Elkar indartzen duten ekintza motak dira. Ekintza masiboek panorama mediatiko eta politikokoan zenbat eta garrantzi gehiago eman klimaren gaiari, orduan eta ekintza erasotzaile eta erradikal gehiago egin ditzakegu, gure aldarrikapenak iritzi publikoan zilegiagoak izanen baitira. 2019ko klimaren aldeko martxa batean, Baionan, mila pertsona inguruk zubi bat osoki blokeatu zuten, bizikletentzako eta autobus-bideentzako behar bezalako egokitzapenik ez zuten bideetako obren aurka protesta egiteko.

Beste edozein egunetan, blokeo ekintza horrek herritarren zati esanguratsu baten gaitzespena eragin zezakeen, arduradun politikoentzat asumitzeko errazak izanen ziren kondanak emateko aukera eman, eta manifestarien erresistentzia-gaitasuna gaindituko zuen errepresioa eragin segurtasun-indarren aldetik.

Beste edozein egunetan, menturaz, baina ez egun horretan: ez mundu guztiak irratian, telebistan, egunkarietan klimaz mintzatzen entzuten zuen egunean, non milaka ahots altxatzen baitziren non-nahi larrialdi klimatikoa, ekintza politikorik eza eta aldaketa sakonak lehenbailehen bideratzeko beharra gogorarazteko. Klimaren kausaren mediatizazio handiko testuinguru horretan, horrelako blokeo ekintza baten zilegitasuna handiagoa da eta erradikaltasuna bultzatzea ahalbidetzen du, biztanleriaren zati esanguratsu baten atxikimendua galdu gabe. Hilabetez-hilabete errepikatuz, klimaren aldeko martxak izan dira ekintzaren zilegitasunezko testuinguru hori finkatzen gehien lagundu duten mobilizazioak. Bestalde, jende anitzek, klima-martxa batean lehen urratsak egiteko aukera ukan ondoan –hasiberrientzat biziki eskuragarria den formatua baita–, gero kolektiboekin bat egin nahi izan du eta engaiamendu gehiago eskatzen duten ekintza-moduetan sartu, dela alternatibei buruzko ekintza zehatzetan, dela desobediencia zibileko ekintzetan. Bestalde, hilabeteak joan arau, ikusi ahal izan dugu ekimenak martxetan bertan egiten zirela, hala nola iragarkien aurkako ekintzak. Bizkitartean, martxen mugimendua hasi zenean, horrelakorik ez zen gertatzen. Bortizkeriarik gabeko estrategian, formatu masiboek eta ekintza erradikalek elkar indartzen dute horrela, konbentzitzeko indarra hertsatzeko indarrarekin uztartu behar den logika batean, kontraesanik sortu gabe.

Egun batez klimaren aldeko martxetan oraindik gutxi politizatu den jendea aurki daitekeela ohartzean kexatzen direnei gogorarazi behar zaie nehor ez dela erradikal jaiotzen, baina erradikal bihurtu egiten dela, bilakaera baten ondorioz. Politizatu izateko, beharrezkoa da politizazio ibilbide bat segitzea, eta denak ez dira momentu berean trenera igo. Are garrantzitsuagoa da klimaren aldeko martxak jende berriarentzako sarrera erraldoiak izan direlako. Manifestari batzuen mezu gutxi politizatuak deitoratu ordez, hobe da ikustea jende horrek politizatzeko duen potentzialtasun handia. Ez du ezertarako eta inorentzat balio lehen urratsak egiten dituztenak gutxiestea, mespretxuzko etiketak emanez, edo hobereanean inozokeria eta okerreanean hipokrisia bezala hautematen dena salatuz. Horren ordez, hobe da etorri berrien politizazioa laguntzea, pankartak eta esloganak prestatzeko tailerretan haiekin parte hartuz, estrategiari eta desobediencia zibilari buruzko ikastaroak proposatuz, eta martxaren ondotik parte hartu ahal izan duten ekintzak antolatuz. “Erradikalak” bakarrik biltzeak eta, aldi berean, hain politizatuak ez diren pertsonak gaitzesteak ez du estrategikoki ezertarako balio. Inporta duena, gure indar erlazioa handitzen laguntzen diguna, haien erradikalizatzea da.

Gauza bera gertatzen da gazteek klimaren alde egiten dituzten eskolako grebak direla eta, greba gisa ez baitute hertsatzeko indar zuzenik: ez dute lantegi baten ekoizpena geldiarazten, ez dute ekonomia trabatzen, enpresa edo garraio zerbitzu publiko bateko grebek egingo luketen bezala. Hala ere, Greta Thunberg bultzatu zuen eskolako greba mugimendu horrek berebiziko garrantzia izan

zuen. Izpirituak astindu zituen, bere mezuaren zuzentasunagatik, lehenago gutxitan lortu zen bezala, eta mundu mailan entzuna izan zen. Greba horiek klimaren belaunaldiaren etortzea gorpuztu dute, “etorkizuneko belaunaldiak” heldu diren unea markatuz, haien izenean borrokatu baitira ekologiaren aitzindariak hainbat hamarkadatan. Orduz gero, ez dira gehiago etorkizun urrun bateko pertsona zehaztugabeak aipatzen direnak, hezur-haragizko pertsona errealak dira, karrikan beren bizitzeko borondatea eta etorkizun baterako eskubidea aldarrikatzen ikusten direnak. Asko dira orain arte klima-arazoari buruzko axolarik ukan ez dutenak baina, mezu horiek gutxietsi ordez, aldarrikapen horien zilegitasun ukazina onartu dutenak. Sinpletasun handiko eta aldi berean benetokotasun sakoneko mezu horrek kontzientziak hunki ditu: “etorkizunik ez badugu, zertarako joan eskolara?” Mezu horrek arazo klimatikoa ikuspegi berri batetik planteatu du eztabaida publikoan, jende askorentzat larrialdi ekologikoa kontzeptu oraindik abstraktu batetik fenomeno ukigai, ikusgarri, gorpuztu, saihestezin bilakaraziz.

Ez da kasualitatea Greta Thunbergen mezua orain eraginkor izan dadin. Ho-geita hamar urte lehenago, beste neska bat zen, Severn Cullis-Suzuki, hamabi urtekoa, nazioartean mintzatzen zena. Rio de Janeiroko Lurraldeko goi-bileran 1992an eman hitzaldi batean, mundu osoko politikariei neurriak hartzeko eskatu zien, negar-zotinak ahotsean. Diskurtso horrek izpirituak markatu zituen, baina gaur egun ikusten ari garena bezalako mobilizaziorik piztu gabe. Greta Thunbergen hitzei nazioarteko mailan gazteriaren zati oso bat mugimenduan jartzeko ahala ematen diena da, orain, kontzientzia hartzea eta kausaren zilegitasuna nabarmen handitu den testuinguru batean sartzen direla.

Aldaketa kultural hori, jakina, belaunaldi baten epean planeta mailako kontzientzia ekologista aldatu duten eta orain ekintza-modu guztiei askoz zilegitasun handiagoa ematen dieten sentsibilizazio-ekintza ugariak ekarri dute.

Konbentzitzeko indarra, beraz, aurkakoak hertsatzeko indarra bezain ezinbestekoa da munduaz dugun ikusmoldea aldatzeko, gure bizimodu kolektiboa aldatzeko, gure kultura aldatzeko: sistema aldatzeko, pentsamoldeak aldatu behar dira, paradigma aldatu behar da, eta hori kontzientziak hunkitzen dituzten ekintzen bidez bakarrik lor daiteke.

2.4. Demokrazia eta bortizkeriarik eza

Plazak okupatu zituen mugimendua

Bortizkeriarik gabeko estrategia, izan ere, masa-mugimendu bati bereziki egokitutako estrategia bihurtzen duen hirugarren arrazoia da balio demokratikoekin eta maila handiko funtzionamendu demokratikoarekin duen bateragarritasuna. M-15 mugimenduak horren adibide guztiz argigarria eman du.

2011n, M-15 mugimendua, Frantziako Estatuan “Suminduen mugimendu” deitu zena, Espainiako estatuan abiatu zen, demokrazia ezari eta krisi ekonomikoak eragindako bizi-baldintzen degradatzeari erantzunez. “Benetako demokrazia” eskatuz, mugimendu horrek egun batetik bestera ehunka mila pertsona elkartu zituen eta Madril eta Bartzelona bezalako metropoli handietako erdigunetako plazak okupatu, baita herrialdeko beste dozenaka hirietakoak ere. Kanpaleku iraunkor bilakatu ziren, milaka oihal-etxola bildurik, sukaldeekin eta gisa guztietako azpiegiturekin, eta Suminduek plaza horiek gau eta egun, hainbat astez jarraian, etenik gabe okupatu zituzten.

Egunez, herritarren biltzarrak egiten ziren demokrazia zuzena praktikatzeko eta, haien inguruan, eskuak eta adimenak lanean karraskan ari ziren kanpaleku erraldoi horien logistikak funtziona zezan. Beren hirietako plaza publikoak berenganatzean, Suminduek demokraziaren praktika bera berenganatzen zuten. “Benetako demokrazia” baterako sistema-aldaketa eskatzearekin batera, beraiek ere zuzenean praktikatzen zuten egunerokoan. Mugimendu hori oso herrikoa zen, eta ehunka mila pertsona bildu zituen, multzo militante eta politizatuez askoz haratago. Esparru guztietako jendea bazegoen han, gazteak, zaharragoak, beren burua ezkerrekotzat edo eskuinekotzat jotzen zutenak, politizatuak edo ez.

Bortizkeriarik eza mugimenduaren oinarritzko printzipioetako bat zen. Inolako egiturarik aurretik erabaki gabe, Suminduek beren kabuz sartu ziren urrats horretan. “*No violencia*” hitzak pankartetan, banderoletan, eskuetan eta aurpegietan idatzirik zeuden, manifestazioetan errepikatzen ziren eta sare sozialetan hedatzen. Bortizkeriarik eza balio partekatua zen, federatzailea, komuna, mugimenduaren osagai garrantzitsua. Inplikatzeko moduetan aniztasun handia zegoen; hori ere masa-estrategia ez-bortitz baten ezaugarria da. Plazak modu iraunkorrean okupatzen zituzten pertsonak hamarnaka mila ziren, eta horrek jadanik eginkizun asko eskatzen zituen aire zabaleko hiri demokratiko horiek funtziona zezaten. Baina beste jende asko ere noizbehinka pasatu ziren mugimendutik, biltzar baterako, edo sukalde, logistika, erizaintza eta abarretaz arduratzen ziren batzorde batzuei laguntzeko. Herritarrek materiala ekartzen zieten kanpatzen zutenei, sare sozialetako deiei erantzunez: oihal-etxolak, olanak, janaria, sukaldeko tresnak, eguzki-krema... Gau eta egun fisikoki lekua hartzen zutenetatik haratago, mugimendua zabaldu zen, dinamika kolektiboan laguntzeko eta parte hartzeko askotariko moduei esker.

Bortizkeriarik eza mugimenduaren abantaila taktiko garrantzitsua ere da errepresio bortitzari aurre egiteko. Inoiz ikusi ez zen fenomeno sozial horren aurrean, Espainiako agintariek Suminduen mugimendua bortizkeriaz apurtzea erabaki zuten, manifestariak kanporatzeko istiluen aurkako polizia bidaliz. Poliziak indar basatia erabili zuen, borra kolpeak banatuz eta gas negar-eragileak jaurtiz. Suminduek bloke bat osatu zuten: elkarren kontra tinkatu ziren eta elka-

rri heldu zioten, lurtean eserita, plazetan gelditzeko. Batzuk kolpeka jo zituzten, beste batzuei eskuak hartu eta behatzak bihurritu zizkieten: Suminduen artean adineko pertsonak ikusten ziren balantzaka, aurpegia odoletan... Baina mugimendu herritarraren bortizkeriarik gabeko oinarria hain zen indartsua, ezen Sumindu bakar batek ere ez baitzion bortizkeriari bortizkeriaz erantzun: guztiek “no violencia” oihukatzen zuten eta fisikoki aurre egiten zieten segurtasun-endarrei, horien kontra bortizkeriarik erabili gabe. Han ere esku ahur zabalduen keinua erabili zuten bortizkeriarik gabeko erresistentziaren seinale. Errepresio basatiaren aurkako erantzun ez-bortitz horrek elkartasun-sentimendu oso zabal sortu zuen herritarrengan. Biharamunean berean, dozenaka elkarretaratze egin ziren herrialde osoko hirietan, eta mugimenduak are indar handiagoa hartu zuen. Horrela, bortizkeriarik gabeko indarrak bere legitimitatea handitzeko aukera eman zion mugimenduari, baina baita bere inklusibotasuna eta oinarri herritarra areagotzeko ere. Militante batzuk zaurituak izan arren, errepresioak mugimendua handitu eta indartu zuen, haren erresistentzia ez-bortitzari esker, jiu-jitsu politiko gisa jokatu baitzuen.

Lotura sakona dago bortizkeriarik ezaren, mugimenduaren aldarrikapen demokratikoaren eta bere dimentsio masibo eta herrikoiairen artean. Masa-mugimendu batean, elkarrekin funtzionatzeko gai izan behar dugu, nahiz eta jende asko izan, eta horrek erran nahi du parte-hartzaileen artean dauden berezitasun asko bateratu behar direla. Ezberdintasunekiko begirunea, tolerantzia, entzuteko gaitasuna behar da, nahitaez. Hau da, izpiritu ez-bortitzaren ezaugarri diren jarrerak behar dira. Alabaina, demokrazia ikus daiteke historian zehar bortizkeriarik ezak hartu duen moduetako baten gisa: interes dibergenteak eta desadostasunak kudeatzeko modu bat da. Ez dira bortizkeriaren bidez eta indartsuenak bere erabakiak inposatuz kudeatzen, baizik eta eztabaida, ideien arteko debatea sustatuz, deliberatuz eta erabaki kolektiboak hartzeko moduak erabiliz, hala nola adostasuna bilatuz edo botoa baliatuz. Demokrazia, izan ere, gatazkak bortizkeriaren bidez konpontzea eragozteko xedea duen asmakizun bat da: indarkeriarik gabekoa da, errotik. Gainera, bortizkeriak kausa demokratikoaren izenean diktadura bati aurre egiteko baliabideak eman baditzaie ere, ez da gai kultura demokratikoa eta sistema demokratikoa eraikitzeko. Bortizkeria diktadura bat suntsitzeko tresna izan daiteke, baina ezin da haren antidotoa izan. Agian arazo bati aurre egin diezaiok, baina ezin du haren konponbidea eman. Beraz, demokrazia, berez, ez-bortitza da, eta bortizkeriarik gabe eraikitzen da, nahitaez.

Mundu mailako demokrazia gogoa

Demokraziaren eta bortizkeriarik ezaren aldeko irrika globala dago, eta biak elkarrekin doaz. Espainiako Suminduen mugimendua baino hilabete batzuk lehenago, Udaberri Arabiarretako demokraziaren aldeko iraultzak gertatu ziren: Ekialde Hurbileko herrialde askotan, jendeak plazak okupatu zituen, bortizke-

riarik gabe. Suminduen mugimendua horretan inspiratu zen, Europako hainbat herrialdetan (Frantziako Estatuak, Alemania, Italia, Erresuma Batua, Belgika, Portugal, Grezia...) antzeko mugimendu herritarrak sustatu aurretik. Europako Suminduen mugimendu horiek munduko beste eskualde guztietako hamarnaka herrialdetan hedatu ziren, *Occupy* izena harturik, Ipar Amerikan, Latinoamerikan, Afrikan, Asian, Ozeanian¹⁰... 2010eko abenduan Udaberri Arabiarrak abiarazi zituen Tunisiako Jasminen Iraultzatik, Occupy olatuaren bukaerako Turkiako Taksim plazaren okupazioa arte (2013an), herritarren dinamika hori planetako kontinente guztietara zabaldu zen, hilabete batzuen buruan. Herrialde gehienetan, plaza-okupazioen, demokraziaren praktika zuzenaren eta bortizkeriarik gabeko erresistentziaren bateratze bera gertatu zen. Sare sozial digitalen 2010eko hamarkada hasierako gorakadak ahalbidetzen zuen biraltasunaz baliatuz, ekintza-modu hori herrien artean transmititu da, munduko kultura demokratikoan eta bortizkeriarik gabeko borrokaren kulturaz aztarna sakonak utzi dituen fenomeno planetario bihurtuz.

Edozein izanik ere hizkuntzak, kulturak, herrialdeak, borrokatutako erregimen politikoak, arazo sozioekonomikoen izaera, bortizkeriarik eza ekiteko modu bat da, demokraziarako irrika global sakonarekin bat datorrena, eta gero eta unibertsalagoa dena.

Klima-mugimenduaren garapena sakoneko joera horretan kokatzen da: Greta Thunbergen eskolako grebaren ekintza ez-bortitzak, non munduko liderren gelditasuna salatzeke Suediako Stockholmeko Parlamentuaren aurrean 2018ko abuztuaren 20an bere kartelarekin bakarrik eseri baitzen, gazteen mobilizazio historiko bat eragin zuen mundu osoan. Urte berean, Erresuma Batuan sortu zen *Extinction Rebellion* mugimendua hilabete gutxiren buruan zabaldu zen munduko beste dozenaka herrialdetara, bortizkeriarik eza ekintza-modu gisa aldarrikatuz eta demokrazia eskatuz klimarako erabaki sendoak hartzeko momentuan.

COPen inguruko nazioarteko mobilizazioak eta Munduko Gizarte Foroak ere kultura demokratiko eta ez-bortitza nazioarteko herritarren mugimenduetan zabalteko eragileak dira. Emeki-emeki, mugimendu herritar global bat sortzen ari da, eta ezinbestekoa da, planeta mailan aldaketa klimatikoaren erronkari aurre egin behar diogunean. Hona hemen, beraz, bortizkeriarik gabeko estrategian sartzeko azken arrazoi bat: mugimendu herritar planetario bat sortzen eta egituratzen laguntzeko aukera ematen digu, mundu mailako iraultza bat abiarazteko gai den mugimendu bakarra, berez mundu-mailakoa den erronka klimatikoari aurre egiteko.

¹⁰ Orotara 82 herrialdetako 95 hiri baino gehiagotan, 2011. urtean, Wikipediaren arabera.

2.5. Masa-mugimendu herrikoi eta erradikala, bortizkeriarik eta zalantzarik gabekoa

Biltzen dituen ekintza mota desberdinei eta tolerantzia kulturari esker inklusiboa, kontzientziei indarra emateko gai eta errepresio bortitzari aurre egiteko eraginkorra, baita funtzionamendu demokratikoa garatzeko egokia eta mugimendu herritar global baten mailara egokitua ere izanik, bortizkeriarik gabeko estrategia zinez egokia da erronka klimatikoari aurre egiteko balioko duen masa-mugimendu baten proiekturako. Ez gara hutsetik abiatzen. Frantziako Estatuan, bortizkeriarik gabeko borroka anitzek garaipen ekologistak lortu dituzte, hala nola Larzac-eko eremu militarren hedatzea bertan behera uztea, eskistoko gasen esploraziorako *fracking* teknika debekatzea, eremu zabaleko transgenikoen laboreen landatzea berehala gelditzeko aldi baterako erabakia, Plogoff-eko zentral nuklearraren proiektua bertan behera uztea, edo *Société Générale* banketxea Australiako *Alpha Coal* ikatz meatze erraldoiaren proiektutik ateratzea. Azken urte hauetan, klimarentzat kaltegarriak izanzen ziren proiektu askoren aurka lortutako garaipenak aipa daitezke: Montpellierko *Oxylane* edo *Rosny 2* bezalako merkataritza-guneak, Montbert hiriko eta Gard departamenduko *Amazon* biltegiak, Ipar Euskal Herriko urre meatzea, Andorrako aireportua eta Roissy-Charles-de-Gaulle aireportuaren hedapena, Donibane Lohizuneko Surf Park artifiziala, eta beste hainbat. Maila orokorrean, bortizkeriarik gabeko estrategiari esker, herri borroka anitzek aldaketa kultural eta politiko handiak lortu dituzte, eta baita ere, indartsuenen kasuan, historiaren norabidea aldatu. Garaipen batzuk enblematikoak dira, hala nola Gandhiren borrokarena eta Indiaren independentziarena, edo Estatu Batuetako eskubide zibilen aldeko borrokarena; beste batzuk berriagoak dira, hala nola Udaberri Arabiarrena, Sumindu espainiarrena eta *Occupy* mugimenduarena. Eta badira aski ezagunak ez diren beste asko, mende bat baino gehiagoz iragan direnak, kontinente guztietan¹¹. Borroka guzti horiek oso inspirazio iturri baliotsuak dira asmatu behar dugun jarraipenerako.

Bortizkeriarik gabeko borrokaren ildo horretan kokatzen da klimaren aldeko mugimendu herritar masibo, erradikal eta herrikoi, ez-bortitz eta zalantzarik gabeko baten ikuspegia. Gorago aipatu borrokek mugimendu horrek har dezakeen formaren adibide zehatzak ematen dituzte. Hala ere, oso kontu delikatu gertatzen da horrelako mugimenduak indarra hartzen hasten direnean: erradikalitasunarena. Lortu behar den aldaketaren izaera ikusirik, erradikalitasuna

¹¹ Ikus, adibidez, *Alternatives Non-Violentes* aldizkariaren 119-120 aleak, “Les luttes non-violentes au XXe siècle”; Gene Sharp, *La lutte non violence. Pratiques pour le XXe siècle*, Écosociété, 2015; Srdja Popovic, “Comment faire tomber un dictateur quand on est tout petit, tout seul et sans armes”, Payot, 2017; Pauline Boyer eta Johann Naessens, “Manifeste pour la non-violence”, ECLM, 2022, bortizkeriarik gabeko borroken adibide ugari biltzen dituzten liburuak.

beharrezkoa da baina, mugimendu batek benetako aldaketak lortzeko gaitasuna ukan dezan, pragmatismoa ere ezinbestekoa da, eta zaila da bien arteko oreka aurkitzea.

3. ERRADIKAL-PRAGMATISMOA: MUGIMENDU ERRADIKAL ETA HERRIKOI BATERAKO GAKOA

3.1. *Erradikaltasuna vs pragmatismoa: kontraktotasun antzua*

Itxura erradikala

Indar harremanaren eta erradikaltasunaren ikuspegi jakin bat, militanteen artean oso zabaldua, bereziki engainagarria da. Indar harremana gauzatzeko gaitasuna gure engaiamenduaren gogortasunaren araberakoa dela pentsatzean datza, ahalik eta konfrontazio maila handiena bilatu behar dela eta aurkaria salatzeke ahal bezain hitz gogorrak erabili. Kontua litzateke gure kexua eta haserrea ahalik eta ozenen adieraztea, mahai gainean ukabilaz jotzea, oihuka aritzea. “Sistema industrial desegitea” edo “kapitalismoa eraistea” bezalako helburuak aldarrikatzen dira, lelo magikoak balira bezala. “Boza altxatzea” bezalako formulak zabaltzen dira, edo beste esamolde militante intelektual batzuk, diskurtsoan erradikaltasuna gora eramateko, baina itxurazko erradikaltasun batean kokatzen gaituzte, berez erabat kaltegabea den jarrera batean. Horrelako hitzaldiek bularra hanpatzera bultzatzen gaituzte, ukabilak altxatzera, postura bat antzeztera, baina horrek ez gaitu indartsuago egiten. Katua ere, handiagoa iruditu nahiz, ilea lazten duenean, ez da horregatik astunagoa edo indartsuagoa.

Diskurtso erradikalaren lasterketa ero hori erradikalismo populista baten itxura hartzera irits daiteke, hots, aktibista erradikalek entzun nahi dutena ahalik eta ozenen aldarrikatzera, baina benetako aldaketa erradikalak lortzeko modu zehatzak egiazki gogoetatu gabe. Jarrera erradikal-populista horrek itxurazko erradikaltasun norgehiagokak sustatzen ditu eta ustez hain erradikalak ez diren guztiei leporatu purutasun eskasia salatzeke diskurtsoak elikatzen. Ezintasun politiko baten seinale da, non maiz identitate erradikal militantearen izaera saminez adierazten baita. Indarrak gabeko erradikaltasuna, izan ere, jantzi bat besterik ez da, erradikaltasun konkretu eta eraginkorraren eskasia konpentsatzeko itxurak egiten dituen.

Alta, funtsezkoa da erradikala izatea, sistema *errotik* aldatzea ezinbestekoa den zentzuan, hots, haren oinarrietan berean aldatzea. Noski, ideia erradikalak asumitu eta intelektualki garatu behar dira, hazkundearen dogma, kapitalismoa eta abar deszifratzeko eta zalantzan jartzeko. Baina, horrez gain, benetako erradikaltasuna lortzeko baliabideak eskuratzea da funtsa. Erradikaltasunak ez

du izan behar identitate militante bat edo errealetik deskonektatutako pentsamendu-korrante bat, baizik eta benetako aldaketa erradikalak lortzeko bide bat. Horretarako, militantismo erradikalak indar harremana, estrategia eta taktika behar ditu.

Bi kale itsuak

Antzeztutako erradikaltasunak ezintasun politikoaren kale itsura garamatza, baina pragmatismoak, aldiz, *statu quo* egoeran geldiaraz gaitzake, eta hori ez da askoz hobe. Ekintza errealistak asmatzeko dauzkagun bitartekoen azterketa zehatza egin behar da. Hala ere, gure oraingo baliabideekin eskura dauzkagun ekintzak soilik egiteak ezin gaitu gogobete, pragmatismoaren izenean ere ez. Sistemaren doikuntza txikiak baino ez genituzke lortuko. Eta kasu honetan ez geundeko sistemaren oinarrien aldaketa erradikalaren norabidean, baizik eta sistemaren egokitzapenean, hots, haren jarraipenaren norabidean. Alabaina, azaleko aldaketak dira, hain zuzen ere, oraingo sistemaren aldeko beren oinarriak zailantzan ez jartzea ahalbidetzen dietenak.

Bi kale itsu horien arteko tentsioak egituratzen du “erradikalen” eta “pragmatikoen” bi joera kontrajarrien arteko lehia. “Erradikalek” “pragmatikoei” aurpegiatzen diete beren aldarrikapenen eta helburuen ahultasuna, hautsi-mautsiak, baita sistemaren osagai batzuk onartzea edo harekin lankidetzan aritzea. Eta “pragmatikoei” “erradikalei” aurpegiatzen diete haien idealismoa, lelo hutsak errepikatzea, haien ezintasuna, eraginkortasunik eza, batzuetan kausari egiten dioten kaltea ere. Pertsona bakoitzak kurtsorea leku batean edo bestean jartzen duenez, joera militante batzuk erradikalegiak iruditzen zaizkie batzuei, eta pragmatikoei besteak beste! Tentsio hori, ordea, mundu guztiak benetan kudeatu behar duen dilema bati dagokio. Izan ere, bai alde batean, bai bestean, laster topo egiten da militantziaren eraginkortasunaren mugekin eta errealtatean esku hartzeko gaitasun eskasarekin.

3.2. Erradikal-pragmatismoaren sintesia

Erradikal-pragmatismoak, 2009an Bizi elkartean asmatu neologismoak, proposatzen du gauzak lantzea *pragmatismoaren eta erradikaltasunaren sintesi* baterako bidean. Ez da kurtsorea erdian jartzera gomitatuko gintuzkeen eta beraz erdi erradikala eta erdi pragmatikoa izatera eramanez gintuzkeen hautsi-mautsi bat. Bien sintesia da, aldi berean erabat erradikala eta erabat pragmatikoa izateko aukera ematen diguna.

Arazoaren muina indar harremanean datza. Izan ere, nahi ditugun aldaketa erradikalak lortzeko nahikoa indar izanzen bagenu, pragmatikoki egin genezake, erradikaltasunari buruzko hautsi-mautsirik egin beharrik gabe. Orduan ez legoke kontraesanik erradikaltasunaren eta pragmatismoaren artean. Zailtasun

hori daukagu indar harreman nahikorik ez daukagulako. Helburuen handinahiaren eta bitartekoen errealitatearen artean desoreka dagoelako dago tentsioa helburu erradikalaren eta ikuspegi pragmatikoaren artean.

Beraz, dilema horretatik ateratzeko bide bakarra gure indar harremana areagotzea da. Arazo horren aterabidea norberak bere buruari ezartzen dizkion helburuen definizioan dago. Helburu handinahiegia hastapenean motibagarri izan daiteke, baina ezin lortuzkoa baldin bada, ez gaitu aitzinamendu zehatzik egiten uzten eta dinamika militantea leloak errepikatzen mugatzen du. Helburua ez baldin bada aski handinahia, ez da aski motibagarria izanen ekintza dinamika bat abiarazteko, edo emaitza anekdotikoa baizik ez du erdietsiko, eta horrek ere ez du ahalbidetuko dinamikak iraun dezan. Beraz, ongi neurtuak diren helburuak hautatu behar dira, aldi berean errealistak eta egiazki gauzatzen ahal direnak, eta zeinen emaitzak aski motibagarriak izanen baitira ekintzen dinamika elikatzeke. Baina, batez ere, palanka-efektuak eta baskula-puntuak eragiten dituzten helburuak identifikatu behar dira. Helburu oso onak dira martxan jartzen direnean gure ahaletatik kanpo daudenak baina bidean indarrak metatzeko dinamikak sortzeko aukera ematen digutenak eta, azkenean, lortzeko gaitasuna ematen digutenak. Gora egitea eta gure indar harremana handitzea eragiten duten helburuak dira.

Bizik lehen “Alternatiben Herrixkaren” proiektua abiatu eta Alternatiba mugimenduaren sortuko zuen herri mobilizazio handia piztu zuenean, tokiko elkarre txiki bat ginen, zeinak ez baitzuen batere gaitasunik beharrezkoak ziren 600 boluntarioak mugiarazteko, ez eta E egunean animatzaile lanetan ariko ziren hamarnaka lantaldeak antolatzeke ere. Baina proiektuak bere dinamika sortu zuen, jende berri anitz etorraz zuten, eta azkenean askoz gehiago izateko bidea eman zigun. Alternatiben Herrixka bukatzean, proiektua iragarri genuenean baino indar askoz handiagoa genuen, eta horrek aukera eman zigun gerora asmo handiagoko helburu berriak finkatzeko.

Eskailera baten maila batera igo ondotik, hurrengo mailara igo gaitetzke eta, tarteko helburutik tarteko helburura, beste solairu batera iritsi. Nahiz eta solairu hori hasieran ezinezkoa iruditu eta, errealismoaren izenean, pentsatu ez zegoela beste aukerarik beheko solairuan geratzea edo, kausaren izenean, goiko solairura zuzenean salto egitea baizik.

Hara lerro gutxitan nola deskriba dezakegun erradikal-pragmatismoa. Praktikan, jakina, beti konplexuago da. Erradikal-pragmatismoa ez da sekula aplikatzen erraza. Beti zaila da hegiko bide batetik aurrera egitea, eta bide horretatik erraz eror daiteke, alde batera zein bestera. Gimnastika ariketa bat da, erradikalatasuna eta pragmatismoa inoiz ez kontrajartzeko pentsamolde bat, eta

horiek uztartzeko abilezia aurkitzeko sormen ariketa etengabea. Hona hemen borroka adibide batzuk, ikuspegi erradikal-pragmatikoaren alderdi zehatzak agerian jartzeko.

3.3. Euskoaren adibidea (*Ipar Euskal Herriko moneta lokala*)

Erradikaltasunaren eta pragmatismoaren arteko dilema hori izan da Ipar Euskal Herriko tokiko monetak, euskoak, sortu zenetik gainditu behar izan zuen erronketako bat. Tokiko moneta ahalmen handiko tresna da lurraldeen metamorfosi ekologikorako. Lurralde jakin batean bakarrik erabil daitezkeen diru osagarria da (kasu honetan Ipar Euskal Herrian erabiltzen da) eta horrek, berez, ekonomia birtokiratzeko tresna bihurtzen du. Baina jarduera bat bertakoa izatea ez da aski jarduera hori bertutetsu bilakatzeko: pestizidaz ihinztatu eta modu intentsiboan ekoitzi tokiko barazkiak erostea edo maila sozialean lan baldintza egokiak ez dituzten tokiko saltokietan produktuak erostea ez da gauzak hobetzeko modua, bistan da. Baina tokiko moneta baten bigarren interesa da, hain zuzen ere, moneta horren bidez ordain daitezkeen jarduera ekonomikoen mota finkatzea, baldintza kualitatiboetan oinarrituz. Eta hor hasten da dilema erradikal-pragmatikoa.

Baldintza guztiz erradikalak ezartzen baldin badira, jadanik bertutetsuak diren aktibitate ekonomikoak baizik ez dira sartuko: jakina, beren artean nolabait konektatuko ditugu, baina eraginak sinboliko izaten jarraituko du. Publiko alternatiboek ez dute moneta berezirik behar dagoeneko identifikatuak dituzten produktu bertutetsuak erosteko. Jadanik bertutetsuak diren aktibitate horiek bakarrik barne hartuz, beraz, ez da palanka efekturik sortzen, eta ez da batere eragiten lurraldearen metamorfosi ekologikoan. Orduan “ghettoko” moneta bat sortzen da, dagoeneko konbentzitutak dauden zirkuluetan geratzen dena. Alderantziz, baldintza oso laxo eta integratzaileekin, askoz eragile ekonomiko gehiago sartuko dira tokiko monetaren sarean, baina ekoizpenen izaeran ez da deus aldatuko... beraz, ezer ez aldatzeko beste modu bat da. Hirugarren aukera hautsi-mautsiarena da, baldintza-agiri erdi erradikala egitea. Aukera hori ere eskasa da, aldi berean erradikaltasun falta eta inklusibitate falta pairatzen baititu.

Euskoaren kasuan erdietsi aterabidea, beraz, ez da hautsi-mautsia, sintesia egiten duen aterabide bat baizik, baldintza-agiri *progresibo* bat plantan ezarriz. Tokiko monetaren sarean sartzeko, ezin gainditutako muga batzuez gain, lehen-tasunezko bi baldintza bete behar dira, proposatuak diren guztien artean. Ideia da baldintza gehigarriak urratsez urrats sartzea. Hasieran ez gara baitezpada perfektuak, baina garrantzitsua da hobetzeko gogoia ukaitea. Tokiko moneta, garatzen den heinean eta saltokientzat esanguratsuak eta estrategikoak diren publikoak erakartzen dituen tresna herrikoi bihurtu arau, eragile ekonomikoak beren jardunbideak hobetzera bultzatzeko tresna bilakatzen da, hobekuntza hori

ikuspegi ekologiko, sozial eta kultural batetik ikusirik¹². Epe luzerako asmo handiko baldintza-agiri baten erradikaltasuna eta sarea eraikitzeke metodo pragmatiko bat bateratzeko modua da.

Sistema benetan funtzionala izan dadin, saltokiek ezin dituzte euskoak eurotan trukatu debaluazio bat jasan gabe eta, beraz, beren euskoak beste hornitzaile batzuei erosteko erabiltzera bultzatuak dira, lurraldeko jarduera ekonomiko on guztiak sustatzeko moduko zirkulu bertutetsu bat elikatuz. Irizpideen hurbilketan progresibo horren beste abantaila bat da benetako blokeo ekonomikoak non dauden identifikatzea ahalbidetzen duela. Bere euskoak xahutzeko, okindegi bat bultzatua izanen da gari-irin hornitzaile lokal bat bilatzera... baina hurbileko gari ekoizpenik ez baldin badago eta, oro har, okindegiak bere euskoak erabiltzeko hornitzaile nahikorik ez badauka, euskal moneta elkarteak ez du arazoa tratatuko okindegiak borondate txarra erakutsiko balu bezala. Sistema horri esker, jakiten da non diren lurraldearen eraldaketa ekologikorako garatu behar diren eremu ekonomiko estrategikoak.

Ohartaraz dezagun, gainera, tokiko moneta osagarriaren sistema horrek moneta bikoizteko aukera ematen duela: 100 euro 100 euskotan trukatu dituzunean, ez duzu erosteko ahalmenik galdu, eros baititzakezu ogi-, garagardo- edo barazki-kantitate bera, zure 100 euroak erabili izan bazenitu bezala. Baina 100 euskotan trukatu dituzun 100 euro horiek ez dira desagertu, beti existitzen dira nonbait: irizpide ekologiko eta sozialen araberrako egitasmoak soilik finantzatzen dituen banku etiko baten funtsean daude (euskoaren kasuan, NEF izeneko banku kooperatiboan). Orduan, hastapenean 100 euro genituen eta, azkenean, 100 eusko eta 100 euro ditugu. Beraz, antolaketa horrek, egungo finantza-sistemari dirukopuru jakin bat kentzeaz gain, bide ematen du zentzu onean doazen egitasmo ekonomikoak finantzatzeko funtsak biltzeko. Euskoa 2013an abiatu zen, eta gaur egun Europako moneta lokalik handiena da, 3 milioi euskotik gora baitira zirkulazioan, 4000 erabiltzaile partikularrek, 1300 profesionalak eta 35 udalerrrik osatutako sarean (Euskal Hirigune Elkargoa ere barne da).

Erradikal-pragmatismoa, gainera, aliantzen logiketan ere islatzen da. 2012an, Vinci enpresaren probetxurako baina alferrikako eta inposaturiko Proiektu Handien aurkako bi borroka aldi berean gertatu ziren: Notre-Dame-des-Landeseko aireportuaren proiektuaren aurkakoa eta Abiadura Handiko Linearen proiektuaren aurkakoa, azken hori Euskal Herrian. Borroka herrikoi horiek, lurraldeetan erroturik, aliantza zabal eta askotarikoak egituratu zituzten eta, erradikal-pragmatikotasunaren aldetik, oreka aurkitzeko erronka bizi izan zuten.

¹² Euskal Herrikoa izanik, euskal monetak euskarari buruzko irizpideak barne hartzen ditu, hala nola seinaletika elebiduna, irizpide ekologiko eta sozialez gain.

3.4. Notre-Dame-des-Landes: Vinciren eta haren munduaren aurka

Notre-Dame-Des Landeseko aireportu proiektuaren aurkako borroka aliantza zabalen bidez egituratutako ahalegin baten adibidea da, non borroka politiko erradikala eraman eta, aldi berean, babes anitz, eta herrikoiak, eskuratu baitziren. ZAD¹³ eremua, borrokaren epizentroa, nahasketa soziologiko eta politiko oso aberats batek osatzen zuen, non laborari historikoak, bertan bizitzera etorri herritarrak, laborari eta artisau berriak, militante sindikalistak, ekologistak, antikapitalistak, anarkistak, antiespezistak eta abar biltzen baitziren. Borroka horren indarra ZAD horrek segurtatu zuen okupazio iraunkor eta defentsa fisikoaaren estrategiatik zetorren, baina baita ere denbora luzeko borroka batetik, zeinak sostengu oso zabal eta askotarikoak federatzen jakin baitzuen. Ekintza, elkarretaratze eta manifestazio jendetsuen ondorioz, sostenguen perimetroa eremu askotara zabaldu zen, militantzia-esparru politizatuenetik askoz harago, eta nazioko eta nazioarteko dimentsio herrikoia hartu zuen. Aliantza zabal horiek euskarri logistikoak, finantza-laguntzak eta mobilizazio-ahalmen masiboak ahalbidetu zituzten, aireportu-proiektuaren sustatzaileentzat gero eta trabagarriagoa izan zen zilegitasun politikoa bermatuz.

Adibidez, 2012ko azaroaren 17an, larunbatarekin, dozenaka mila pertsona Notre-Dame-des-Landesen elkarretaratu ziren eremua berriz okupatzeko manifestazio batean. Izan ere, aste batzuk lehenago, segurtasun-indarrek militanteak ZADetik kanporatzeko operazio bat egin zuten, baina ez zuten lortu eremua osoki hustea. Manifestazio erraldoi horren xedea azpiegiturak berriz altxatzea zen, bereziki eraikinak, ZADa gehiago sustraitzeko eta balizko ebakuazio-saio berriei aurre egiteko. Gainera, helburua zen indar-erakustaldia egitea, herrialde osotik etorritako hamarnaka mila pertsona bilduz, borrokaren zilegitasuna indartzeko eta, ikuspegi politikotik, gobernuari zailago izan zekion ZADa erasotzea. Manifestariak alde guztietatik etorri ziren, autobusetan. Garraiatzen ninduena bide txikietan galdu zen eta elkargunetik urrun utzi gintuen. Traktore baten atoian igo nintzen, ezagutzen ez nituen beste hiru lagunekin batera. Orduan, Berdeen banderak alaiki eta maleziarik gabe erakusten zituen militante gazte talde txiki bat aurreratu genuen. ZADera joaten ziren herritarren alimaleko ilaran sentitzen zen giro erdi nekazari, erdi punk horretan argiki nabarmentzen ziren eta beren jarreraren eta espazio horretan bildutako beste pertsonen jarreraren arteko de-

¹³ ZAD "Defendatu Beharreko Eremua" da (frantsesez: *Zone À Défendre*). Neologismo horrek administrazioak berantago antolatzeke xedez sailkatzen dituen lurak izendatzeko erabili "Zone d'Aménagement Différé" (Antolaketa Geroratuko Eremu) izena bestelakotzen du, kontrako zentzua hartuz. ZAD alternatiboetan, lurak okupatzen dira eta bizitzeko lekuak antolatzen, laborantzako lurretan edo naturaguneetan lanak egitea eta eremu horiek suntsitzea eragozteko. Notre-Dame-des-Landesen aireportu proiektua zegoen. Azkenean, 2018an, proiektua bertan behera gelditu zen, 50 urteko borrokaren ondorioz.

sorekak barregarri bihurtzen zituen, militante askoren ikuspegitik, gazte haien gogoaren kontra. Orduan, gazte haien zoritxarrerako, *Europe Écologie Les Verts* mugimenduko arduradun batzuen aurpegiak erakusten zituen erakusketa baten aitzinean iragaten ari ginen, Notre-Dame-des-Landeseko aireportu proiektuaren aurkako borrokari buruz erran omen zituzten hitz anbiguo edo negatiboez apaindurik. Nire atoiko lagunek oihu egin zieten, trufaz: “Tepa! Ikusi duzue zertan ari diren, zuen buruzagiak?”

Ez nuen astirik ukan EELVko arduradunen aipamenak eta izenak ongi irakurtzeko, eta ez dakit kritikatuak izatea merezi zuten ala ez baina, oroz gainetik, pentsatzen dut 18 urte eskaseko itxura zuten gazte horiek ez zutela horrelako erasorik merezi Notre-Dame-des-Landeseko lurretan egiten zituzten lehen urratsetan. Are gutxiago haien lehen manifestazioetako bat zelarik, itxura guztien arabera.

Anekdota argigarria da, edozein mobilizazio erradikal eta aldi berean masibo mehatxatzen duen purismo mota jakin baten adierazgarri. Izan ere, zer sor zitekeen ZADa ezagutzera zihoazen gazte horien gogoetan? Oro har, bi aukera ikusten ditut: edo ongi hartuak sentituko ziren, bertan zegoen indar kolektiboa hautemanen zuten, hango sormen ahalak, elkartasun eta erresistentzia izpirituak liluratuko zituzten, eta haren defendatzaile eta sostengatzaile leial bilakatzeko gogo bizia sendotuko zitzairen. Edo, bestela, bazterturik sentituko ziren, eztegiak eta ez oraindik behar bezain politizatuak, berriegiak zirelakoan, oraindik ez zeukatelako ez orbainik ez hitz aski gogorrik kapitalismoa eta “Vinciren mundua” kritikatzeko, eta ondorioztatuko zuten ez zutela lekurik horrelako borroka batean. Eta gehiago politizatu ordez, beste eremu militante ez hain erradikaleta-
ra joanen ziren.

Purismo militante eredu hori errazki agertzen da erradikaltasunaren adierazpena indartsu dagoen borroketan, eta Notre-Dame-des-Landesekoa bezain indartsuak ez diren eta aldi berean erradikalak eta herrikoiak izan behar duten borroken kasuan zorigaiztokoa izan daiteke. Militante konbentzituak bakarrik bildu nahiz eta aliatu bihur daitezkeenak baztertuz, purismo eredu horrek sostenguen eremua murriztu eta borrokaren harrobia antzutzen du. Beraz, beti kasu eman behar da eta pedagogia etengabe erabili, itxiak izateko modu horiek saihesteko, eta baztertzailak ez diren erradikaltasunaren adierazpen moduak garatzeko.

3.5. AHTren aurkako borroka Euskal Herrian: ez hemen, ez beste inon!

Garai berean, borroka bat pil-pilean zegoen Euskal Herrian Vinciren beste proiektu handi baten aurka: Abiadura Handiko Trenaren kontrakoa. Proiektu horrek etxebizitza eta laborantzako lur asko suntsitzeko mehatxua dakar. Gai-

nera, trenbide berri hori eraiki ordez, dagoen trenbidea antola daiteke. AHT hori “gero eta bizkorrago” joateko nahi zentzugabearen eta metropoli handietan soilik zentratutako lurralde-antolamenduaren ikuspegiaren adierazgarri da, Hendaia-Paris linean minutu gutxi batzuk “irabazteko” xedez, hainbat miliar euroko kostuarekin eta eragin ekologiko neurrigabearekin. Hori guztia bidean dauden herrietako geltoki txikietan gelditu ere gabe! Beraz, herritarrek erresistentzia antolatu dute proiektu horren aurka, fronte anitzetan: proiektuaren aldeko argudioak desegin dituen ikerketa bat eginarazi dute, manifestazio jendetsuak egin, proiektuaren babes politikoak salatzeke ekintza mediatikoak... Notre Dame-des Landes ez bezala, non proiektua eremu homogeen batean kontzentratua den, AHT proiektuak mehatxatzen dituen eremuak aurreikusitako ibilbide osoan zehar hedatzen dira: zaila da ZAD motako okupazio iraunkor bat antolatzea horrelako konfigurazio batean. Baina lekuan lekuko erresistentzia, funtsezkoa, beste era batera antolatzen da. Zulaketak aurreikusitako ziren Vincik pentsatu ibilbidearen hainbat tokitan, lurra aztertzeke: biztanleek, telefono-kateen bidez antolatutarik, kasik denak galarazi zituzten. Makina bat ikusi bezain laster, jendeak elkar deitu egiten zuen, eta ahalik eta lasterren elkartzeko ziren guneetarako sarbidea fisikoki blokeatzeko. Denboraren poderioz, proiektua gero eta gehiago korapilatatu zen: lekuan berean tratatua, politikoki eta ekonomikoki ahuldua, azkenean *sine die* atzeratua izan zen.

Hor ere aliantzen logika aztertzea interesgarria da, borroka hori egitura-tu zuen ikuspegi erradikal-pragmatikoa ulertzeko. Euskal Herrian AHTren aurkako borroka horren garai gogor batean militatzen hasi nintzenean, ohartu nintzen militante ekologistek eta antikapitalistek aliantza egiten zutela... eskuineko alkateekin! Lehen begiratuan, pentsaezina iruditu zitzaidan. Jakina, batzuek eta besteek ez zituzten arrazoi berak proiektuaren aurka egiteko: aise irudikatzen da auzapezen eta biztanle kontserbadoreen engeiamendua “*nimby*”¹⁴ logika batetik datorrela. Bitartean, Bizi bezalako mugimendu ekologista eta antikapitalista baten aldetik, adibidez, AHTren aurkako borroka oinarritzen da abiaduraren kultua, mugarik gabeko hazkundera eta kapitalismoa salatzen dituen diskurtsoan. Proiektuaren aurka egiteko askotariko arrazoi horien aurrean, molde askotara erreakziona dezakegu. Logika puristak “onak” eta “txarrak” bereizteko mugak ezartzera bultzatzen du, proiektuaren aurka egiteko arrazoi “onak” edo “txarrak” dituztenak bereizteko. Orduan, desberdintasunetan jartzen da arreta, bateraezintzat jotzen baitira. Aitzitik, ikuspegi erradikal-pragmatikoa puntu komunetan kontzentratzen da eta puntu komun horien inguruan aliantzak eraikitzen saiatzen da.

¹⁴ “*Nimby*” terminoa “*Not In My Backyard*” esapidearen akronimoa da, euskaraz “ez nire baratzean” itzul daitekeena, proiektu baten aurka egiteko arrazoi bat adierazten du: norbait aurka agertzen dela soilik bere etxe ondoan egiteko delako, baina beste leku batean eraikiko balitz berdin litzaiokeela.

Batzuek horrelako aliantza zabaletan “garbitasun” eskasa ikusten dute. Du-darik gabe, muga argiak behar dira: adibidez, Bizi ez da inoiz eskuin muturreko mugimendu batekin aliatuko, proiektu beraren aurka egonik ere. Baina, bestalde, ez dira ukatu behar puntu guztietan gurekin osoki ados ez daudenekin egin ditzakegun aliantzak. Aitzitik, publiko sorta zabal horretan, hastapenean gure mundu-ikuskerarekin eta argumentuekin ados ez dauden pertsonen mundu-ikuskerara hori entzunarazteko aukera ikusi behar da. Izan ere, elkarrekin borroka bat partekatu gabe, ez genuke elkar ezagutzeko aukerarik izanen. Ezberdintasun horiek eta aniztasun hori onartuz, aurreiritziak hautsi ditzakegu, eta beste molde batez pentsatzen dutenekin trukatu. Eta horrela, beren burua ez politizatutzat jotzen duten pertsonen, edo eskuinari botoa ematen diotenek, kontaktua ukan dezakete kapitalismoaren ikuspegi kritikoarekin, hazkunde infinitua zalantzan jartzen duen pentsamoldearekin, mundu ekologistaren ikuspegiarekin... Mugimendu erradikal eta herrikoi baterantz aurrera egiteko, argi dago gure arreta oraindik konbentzituta ez dauden pertsonengana bideratu behar dugula! Bestalde, horrelako borroka lokaletan, ez da arraroa jendea mobilizatzen ikustea lehenik “*nimby*” arrazoi hutsengatik, kritika globalago baterantz laster eboluzionatu baino lehen, bereziki “ez hemen, ez beste inon” leloari esker. “Beren” arazoa orokortuz, proiektu mota berdinek hunkitzen dituzten lurralde guztietara zabalduz, pertsona horiek proiektu horiek sortzen dituen sistemari kritika funtsezkoagoa egiten diote, eta ikuspegi politikoa sakonki aldatzen dute. Hala ere, politizazio hori ez da berez egiten, eta ikuspuntu militante egoki baten bidez bultzatu behar da. AHTren aurkako borrokan, eragin hori CADE¹⁵ kolektibotik dator, borroka horren eragile nagusia baita eta oso ongi artikulatzen baititu aliantza zabalaren logika, militantzia inklusibo eta herrikoa, baita tokiko arazoetara mugatzen ez diren eta kritika sistemikoagoetara zabaltzen diren jarrera politikoak ere.

Michel Berhocoirigoinek, laborarien mugimenduko eta Euskal Herriko bortizkeriarik gabeko borroka askotako parte-hartzaile ezagunak, antzeko molde aztertzen zituen dinamika horiek, Alternatibako militanteentzat antolatutako formakuntza batean azaldu zuen bezala: “askotariko arrazoiak daude zerbaiten sostengatzeko. Hartu egin behar dira, eta borroka aurrera eraman. Konbergentzia da. Baina konbergentzia koherentzia bihurtu behar da: atxikimendu bilakatu. Emeki-emeki, izendatzaile komuna zabaltzen da”.

Aliantza zabalak horrela ulertzeak erran nahi du, halaber, eragile bera, dago-kion borrokaren arabera, aldi berean aliatu edo arerio izan daitekeela. Eta hori ez da inola ere eskizofrenikoa bortizkeriarik gabeko logika batean gaudenean, non arreta nagusia ekintzei jartzen baitzaie eta arerioak pertsona gisa errespetatzen

¹⁵ CADE: *Collectif des Associations de Défense de l'Environnement du Pays Basque et du sud des Landes* (Ipar Euskal Herriko eta Landetako hegoaldeko ingurumenaren aldeko elkartearen kolektiboa).

baitira. Mugimendu batek hainbat proiekturen inguruan eragile politiko beraren alde edo kontra egin ahal izatea bere benetako independentzia politikoaren seinale ere da, eta agerian uzten du ez dagoela ez automatismorik ez faboritismo politikorik. Eramaten diren politikak dira inportanteak, ez etiketak. Hori, alderdi politikoei loturik ez egoteko irizpidearekin batera doa, baztertzen baita hauteskunderen kariatara alderdi politiko bat edo hautagai bat sostengatzea. Hori ezinbesteko baldintza da mugimendu herritar batek benetako independentzia politikoa izan dezan. Ildo horri zorrotz jarraituz, urteetan zehar, etengabe, Bizi mugimenduak bere lurraldean ospe eta sinesgarritasun handia eraiki du bertako klase politiko guztiaren, hedabideen eta iritzi publikoaren begietan.

AHTren aurkako borrokaren adibidearekin bukatzeko, azpimarra dezagun aliantza zabalaren ikuspegi erradikal-pragmatiko horren azken alde taktiko bat. AHTren proiektuak eskualde eta nazio-mailan Alderdi Sozialistaren babesa du. Alderdi Sozialista osoa deabrutzen badugu, eta Ipar Euskal Herriko Alderdi Sozialistako auzapezak errefusatzeko baditugu, irudika dezakegu gure oposizioa modu osoagoan erakusten dugula. Baina horren ondorioa, batez ere, kontrako alderdiaren batasuna sendotzea da. Alderantziz, herri mailan Alderdi Sozialistako hautesiak eta militanteak gure aliatuak baldin badira, gure arerioen alderdia zatitzen eta hauskortzen da, eta AHTren aurkako alderdia indartsuago bilakatzen da.

Borroka horretan, proiektuaren aurka bertako eragile politiko sorta zabal bat bildu izanak, ezkerretik eskuinera joanez, proiektuaren sinesgarritasun politikoa biziki ahultzen du. Bestalde, zenbat eta aliatu ezberdin gehiago izan, laguntzaile gehiago ditugu eremu ezberdinetan, biztanleriaren sektoreak proiektuaren aurka federatzeko, eta horrek proiektuaren kontrako herri-fronte masibo bat garatzen laguntzen du.

Ikuspegi erradikal-pragmatikoa funtsezkoa da herri-mugimendu baterako. Hori da ezintasun politikoan trabaturik ez egoteko gakoa, bai lelo erradikalen hitz handien kale itsua, bai pragmatismo moderatuaren urrats txikien kale itsua saihestuz. Erradikalitasuna behar-beharrezkoa da erronka klimatikoari aurre egiteko. Gaur egungo sistemaren oinarriak aldatzea ezinbestekoa da. Baina errealtate horri ere zuzen begiratu behar zaio: indar harremana ez da batere gure aldekoa. Sistema mugimendu ekologistak eta altermundialistak baino askoz indartsuagoa da. Beraz, ez zaigu hainbeste interesatzen diskurtso baten edo ekintza-modu baten berezko erradikalitasuna, baizik eta horiek ahalbidetzen duten *erradikalizazio-ahalmena*. Hots, nola mugiarazten, politizatzen eta erradikalizatzen duten gero eta jende berri gehiago. Hori da erronka nagusietako bat masa-mugimendu baten perspektiban: nola lortu gure zirkuluetatik ateratzea? Nola mobilizatu populazioaren zati askotarikoagoak, bereziki klase herrikoietan? Nola sortu populazioaren egiazko aniztasun soziologikoa askoz hobeki adieraziko lukeen ekologia herrikoia bat?

2. HERRITARREN MOBILIZAZIOA

Erronka klimatikoari herri-mugimendu baten bidez aurre egitea herritarren eginkizuna osoki berriz gureganatzea ere da. Hori, berez, erronka bat da, intentsitate baxuko demokrazia testuinguru batean. Protagonismoa berreskuratu behar dugu Herrian, engaiamendu-molde anitzetan, alternatiba zuzenen eraikitzetik desobediencia zibilaren praktikara. Herritarren mobilizazio masiboari egokitutako metodoak garatu behar ditugu ere, lekuan lekuko, batez ere benetako “sare sozialak” aktibatuz, zeinek, gaur egungo sistema atomizatuan, jendarteaz gelditzen dena fisikoki egituratzen baitute oraindik. Herritarren mobilizazio masibo eta iraunkorrari begira, ezinbestekoa da antolaketa-metodo diziplinatuak plantan ezartzea, eraginkortasun-beharra, demokrazia eta bizipoza uztartzeko.

1. HERRITARREN EGINKIZUNA BERRIZ LEHEN MAILAN EZARTZEA

1.1. “Aulki bahitzaileen” kanpaina

Aulkiak itzuliko ditugu dirua itzuliko duzuenean!

2015eko otsailaren 12an, Biziko hogeitun bat militante Baionako HSBC bankuan sartu ziren, bulegoetan barneratu eta zortzi besaulkirekin atera ziren, prentsaren aitzinean eta agentziako zuzendariaren eta enplegatuen begi harrituen aitzinean adieraziz: “besaulkiak itzuliko ditugu HSBCk dirua itzuliko duenean!”. Banketxeak erabilitako zerga-ihesaren sistemari buruzko eskandalu baten berri eman eta bi egun eskasera egin zuten operazioa. Begi bazterretik, beren kamioia-
ren ondoan pausa egiten ari ziren eraikuntza-langile batzuk ikusi nituen, irriz lehertzen eta txaloka. Agentziaren aitzinetik pasatzen ari zen adineko emazte batek ere zoriendu gintuen.

Banketxeko zuzendaritzaren aldetik, estatusuna nagusi zen: atea itxi zuten eta Attac erakundeak eta Bastamag aldizkariak argitaratu *Le Livre noir des banques* (Bankuen liburu beltza) hartzea errefusatu.

Gauzak horrela, “herritarrek burutu aulkien bahiketa” horrek benetako dilema bat planteatzen zion bankuari. Salaketa jartzen bazuen, irrigarri gelditzeko arriskua hartzen zuen: nola ausartu garrantzirik gabeko zortzi besaulkirengatik salaketa jartzera, bankuari zerga-iheserako sistema zabal batean laguntzea lepo-

ratzen zitzaionean, zeina urtean 60.000 eta 80.000 milioi euro artean kostatzen baitzitzaien finantza publikoei? Bestalde, salaketarik ez jartzea errua aitortzea bezala zen: zergatik utziko zituen bankuak bere besaulki erosoak joaten, leporatzen zitzaiona ez balitz batere egia izan?

Ekintza honek argi eta garbi erakusten du *dilema sortzen duen ekintza* batek daukan interes taktikoa: egoerak etsaiari utziko dizkion aukera guztiak kaltegarriak gertatuko zaizkio, ukanen duen erreakzioa, edozein izanik ere, gure alde baliatu ahal izanen baitugu.

Agintariak sutan zeuden. Biziren egoitzara itzuli eta gutxira poliziak deitu gintuen besaulkiak hara ekarri berri baikenituen, adieraziz baliagarriagoak izanen zirela nahasmendu klimatikoaren eta justizia sozialaren aurka borrokatzen den elkarte batean, zerga-ihesa antolatzen duen banku batean baino. Nik hartu nuen telefonoa egun horretan. Poliziakideak gertatutakoa egiaztatu zuen lehenik, sinestea zaila baitzitzaion, iduriz: “erran digute besaulkiak hartu omen dituzuela HSBC agentzian”. Baietz erantzun nion. Poliziakidea pixka bat ezegonkorturik zegoen eta, aldi berean, gurekiko benetako sinpatia sentitu nuen harengan, eta batez ere guregatik penatua zela sentitu nuen, imajinatzen baitzuen ez ginela ohartu gure ekintzaren “larritasunaz”. Erran zidan ulertzen zuela gure ekintza ikusgarrien interesa, baina oraingo honetan urrunegi joan ginela, eta prefetak aipatua omen zuen gure elkarte desegiteko mehatxuaren berri ematen zigun. Poliziakidea benetan kezkatua zela zirudien, ohartarazi zigun besaulkiak itzultzen ez bagenituen, miaketa bat egin beharko zutela, eta abisatu gintuen: “kontuz ibili, unereren batean besaulki horien jabe aurkituko liratekeen pertsona guztiak auzipetu ahal izanen dituzte, lapurreta taldean egiteagatik”. Oraingo horretan, nahi gabe, poliziakide horrek ekintzaren jarraipenaren ideia eman zigun. Telefonoa berehala hartu genuen, konplize potentzialak deitu genituen eta proposatu genien besaulkiak hartzea eta horrela ekintzaren konplize bilakatzea: Thomas Coutrot ATTACeko lehendakariak, Florent Compain *Lurraren Adiskideen Sareko* lehendakariak, Patrick Viveret SOL moneta lokalen mugimenduko lehendakariak eta Vincent Drezet *Solidaires Finances Publiques* sindikatuko idazkari nagusiak bost besaulki hartzea onartu zuten.

Orduan, polizia furgoneta batekin eta miaketa aginduarekin Biziren egoitza txikiaren aurrean agertu zenean, besaulki baliotsuetako hiru baino ez ziren gertatzen. Beste besaulkiak non zeuden galdetu ziguten poliziei, besaulkiak hartu zituzten konplizeen izenak eman genizkien eta azaldu pertsona horiek prest agertu zirela poliziaren inkestaren kari entzunak izateko. Poliziakideek berehala ulertu zuten beren nagusiek erabaki errepresio hori tranpa bihurtu zela: Biziko hainbat militante komisariara deitu izana inkesta horren karietara, entzuketak egiteko, aski erridikulua zen jadanik, baina Parisera joatea, GKE eta sindikatu nazionalen egoitzak miatzera, besaulki bakar batzuen bila, pentsaezina zen.

Zerga-ihesari aurre egiteko ekintza politikoa hain ahula zen testuinguru horretan, zer mezu igorriko zuen inkesta handi bat egiteak, miaketa eta agerraldi anitzekin, garrantzirik gabeko zortzi besaulkiren aurkitzeko? Gainera, *ATTAC*en, *Lurraren Adiskideen Sarearen* eta beste batzuen egoitzetara joaten baziren ere, azken horiek besaulkiak beste konplize batzuen eskuetara eramanez ahal izanen zituzten lehenago eta, hala, pista-joko eta aulki-joko bat osa zezaketen, agintariak arras erridikulu utziz. Aste batzuk berantago, gainera, lekukoa pasatzeko agerraldia antolatu genuen: Patrick Viveretek bere besaulkia ekarri zion bere lagun Edgar Morin erresistente ohi ospetsuari; horrek bere burua konplize eta gure ekintzarekin ados zela adierazi zuen, kazetarien eta beste pertsona ospetsu batzuen aurrean, besteak beste Susan George figura altermundialista eta Claude Alphanféry erresistente ohia bertan izanik. Jakina, horrek mundu guztiari pentsarazten ahal zion bi pertsona ospetsu horiek izan zitezkeela Edgar Morinen esku utzitako besaulkia hartuko zutenak, polizia haren etxera bila etorriko zen egunean, sekula miaketa egitera ausartu balitz. Bistan da, lekukoa pasatzeko manera horrek inkesta geldiarazi zuen, erridikuluaren prezioa handiegia izanen baitzen: taldean lapurtzeagatik eta gordetzeagatik auzipetuak izateko mehatxua agintarien kontra itzuli zen. Izan ere, agintariek ez zuten ikusi ekintza horren izaerak ematen zigun aikido politikoaren aukera¹⁶.

Aldi berean umoretsua izanez, irri egileak gure alde jarriz, eta erabat zilegi ziren argumentuetan oinarrituz, hots, galdekatzen gintuzten poliziakideek berek oso ongi ulertzen zituzten argumentuetan oinarrituz, ekintza horrek errepresio handiago bati ematen ahalko zitzaizkion justifikazioak neutralizatu zituen. Are gehiago, ekintza horren inguruan hasi zen istorio mediatikoak jarraitzaileak agerrarazi zituen: kolektibo belgikar bat horretarako osatu zen eta Bruselako banku bateko aulkiak bahitu zituen, eta gero *ATTAC*ek antzeko operazio bat egin zuen Parisko BNP agentzia batean.

196 aulkien gailurra

Hilabete batzuk geroago, Bizik *ATTAC*ekin, *Lurraren Adiskideekin*, *Solidaires Finances Publique* sindikatuarekin, Patrick Viveretekin eta, gero, ANV-COP21ekin bat egin zuen kanpaina handiago bat antolatzeko, ekintza-kontzeptu hori erabiliz. 2015eko irailaren 29an, *Libération* egunkariaren bidez, iritzi zutabe bat argitaratu genuen, 80 pertsona ezagunek izenpeturik, zerga-ihesaren sisteman gehien sartuak ziren banku frantsesetan¹⁷ 196 aulki¹⁸ bahitzera deituz, aulki horiek trantsizio ekologikoaren finantzaketari buruzko goi bilera herritar bat anto-

¹⁶ Aikidoaren eta bortizkeriarik ezaren arteko loturaz, ondoko artikulua irakur: "Aikido : un art martial non-violent", *Alternatives non-violentes*, 122. alea, 2002ko udaberria.

¹⁷ BNP, Société Générale, Crédit Agricole eta HSBC.

¹⁸ 196, hots, COP21en ordezkaturako parte-hartzaileen kopurua.

latzeko baliatzeko xedez. Izan ere, goi bilera herritar hori COP21aren inguruan egiteko xedea agertu genuen.

Orotara aulkien bahitzeko 39 ekintza burutu ziren, hamarnaka hiritan, bi hilabete eta erdiko epean, 200 besaulki baino gehiago bilduz. Ekintza guztiak begitartea agerian egin ziren eta komunikabideetan aipatu ziren. Salbuespen bakan batzuk kenduta, ekintza-modu horrek minutu laburretan lortzen zuen bere helburua. Arreta handiz prestatzen ginen inolako izurik ez eragiteko: agentzian poliki mugitzen ginen, bat-bateko keinuak saihesten genituen, ahapeka hitz egiten genuen, eta pertsona bakoitzarekin adeitasunez jokatzeko genuen. Ekintza normala izan balitz bezala egiten zen, militanteen jarrera lasai eta seguruak dudatan ematen zituen enplegatuak, harriturik, beren besaulkiak nola eramaten genituen begira gelditzen ziren. Langile batzuk beren besaulkietatik altxatzen ziren, guk adeitasunez eskatu ondoren, eta aho zabalik gelditzen ziren besaulkiekin joaten ikusten gintuztenean. Enplegatu batek uko egiten ziolarik, guk “baina hau herritar konfiskazioa da, jauna” erantzuten genion, halako segurtasunaz non dudatan jartzen baitzen eta azkenean jarlekutik altxatzen baitzen.

Ekintzak burutu arau, gai ekologikoak eta justizia soziala uztartzen zituen mezu bat errepikatzen genuen: “beti erraten digute ez dagoela dirurik trantsizio ekologikorako, baina klimarako dirua badago: paradisu fiskaletan dago!”. Kanpaina horrek are gehiago erakarri zuen herritarren sektore anitzen begikotasuna, zerbitzu publiko guztiak austeritate-politiken ondorioak jasaten baitzituzten, ospitaleetan, eskoletan, administrazioetan, justizian, polizian...

Gure akzioen helburu nagusia BNP bankua zen, besteak beste Kaiman uharteetako paradisu fiskalean langilerik gabe irabaziak lortzen dituzten zazpi filial edukitzeagatik. Banku hori gero eta estutasun handiagoan jarri genuen.

Seinale argigarria: azaroaren 13ko atentatuen biharamunean, BNPrentzuzendaritzaren mezu elektronikoa jaso genuen: “Gaur egun indarrean dagoen larrialdi egoeraren testuinguruan, aulkien lapurretak bertan behera uzteko eskatzen dizuegu, gure agentzietan sartzeko edozein ekintza ondorio oso larriak izan baititzake”. Mezu elektronikoa 13:00etan bidalia zen, hau da, bezpera gaueko atentatuak gertatu eta ordu gutxira. Hots, krisi handi haren testuinguruan, non enpresa guztiak, alderdi politiko guztiak, erakunde guztiak larrialdiko bilkura egiten baitzuten, miaketa horiek BNP Paribaseko bilkurako gai-zerrendan zeuden.

Dolu garaian, hildakoen eta haien familien alderako errespetuagatik, desobediencia zibileko ekintza guztiak geldiarazi genituen, egun batzuetako su-etena ezarri. Bitartean, BNPrentzuzendaritzaren bidali genion erantzunaz baliatu ginen ultimatum bat finkatzeko. Bankuari jakinarazi genion herritarrak banketzeko egoitzan konfis-

kazio-operazio handi bat egitera deituko genituela, COP21a hasi baino egun bat lehenago, BNPk Kaiman Uharteetan zituen zazpi filialak itxiko zituela iragaritzen ez bazuen. Bide batez, gure erantzunean gogorarazi genien “txosten askok deskribatu dutela nola, paradisu fiskaletan, mafia-kriminalek eta terroristek bankuen filialak erabiltzen dituzten beren dirua zurrizteko eta beren operazioak finantzatzeko”, “zuen bankuak lurralde horietan duen presentzia aktiboak haien opakutasunezko eta disimuluzko jokabideak legitimatzen laguntzen” duela eta, beraz, bankuaren jarduteko moduak direla “ondorio oso larriak” dituztenak eta “ordena publiko ekonomiko, sozial eta ingurumenarekiko nahaste nabarmena” dakartenak.

Finkatu egunean, BNPk bere egoitza itxia zuen, baina ekintzaileek, esku-hutsik ez gelditzeko, hiru ekintza antolatu zituzten aldi berean Parisko beste banku batzuetan, eta han konfiskatutako besaulkiak BNPreko egoitzaren aurrera eramaten zituzten, bildutako ehunka manifestarien txalo artean.

Bitartean, herrialdeko bazter guztietan konfiskatutako besaulkien elkarretaratzea antolatu zen, eta denak Montreuil-en bildu ziren. Besaulki bakoitza etiketa batekin identifikatua zen, konfiskazio-egunaren data, herria eta konfiskatua izan zen bankuaren izena zehaztuz. Ehunka herritarrek, ilaran ibiliz, 196 besaulkiak hiriko erdiguneraino eramanez ondotik, eserleku baliotsuak biribilean ezarri eta nazioarteko gizarte zibileko ordezkariak bertan eseri ziren, zerga-ihesaren aurkako borrokari eta trantsizio ekologikoaren finantzaketari buruzko goi bilera egiteko. Han, kontinente guztietako ordezkariak eta nazioarteko gizarte zibileko hainbat kide bazeuden, GKEak, sindikatuak, nekazarien mugimenduak, mugimendu indigenak... ordezkaturik. Bi mila pertsona bildurik zeuden. Jakina, polizia bakar bat ere ez zen etorri gailur horretara, hainbeste bilatutako aulki horien bila, nahiz eta jendaurrean alde aurretik iragarrita egon.

Kanpaina-bukaera horren ondotik, hala ere, 200 besaulki inguru genituen Parisen, non biltegitratzeko leku gutxi baikeneukan. Beraz, erabaki genuen justiziaren eskuetan utziko genituela, aste batzuk berantago... 2016ko otsailaren 8an, Justizia Jauregian, zerga-ihesarengatik auzipetu eta kargugabetu Jérôme Cahuzac Finantza ministroaren aurkako epaiketa hasiko zenean. Berriz ere, herritarrek osatu ilara batek Parisko karririk zeharkatu zituen, bizkar gainean bankuetako besaulkiak eramanez. Justizia Jauregitik metro gutxitara dagoen zubira iritsita, CRS (Polizia Nazionala) lerro batek bidea trabatu zigun. CRS kamioi ilara luzea zegoen, bi ilaratan aparkaturik. Ezin genuen haratago joan: besaulki guztiak CRSen aurrean ezarri genituen, eta prentsari jakinarazi genion segurtasun-indarren esku uzten genuela aulkiak justiziari helaraztea, berak erabaki zezan zer baldintzatan itzuli behar zitzaizkien bankuei. Berriz abiatu ginen, eszenatoki surrealista bezain absurdoa atzean utzita, dozenaka CRS baitzeuden, zain, besaulki hutsek osatu ilara luze baten aurrean. Ordu batzuk berantago,

besaulki-multzoaren inguruan haren babesteko lerro bat osatu ondotik, segurtasun-indarren bi kamioitan kargatu zituzten denak, eta geroztik ez ditugu sekula berriz ikusi!

Herritarra, militantea, ekintzailea

Hilabete batzuk geroago, BNPk Kaiman uharteetako bere filialak itxi zituen, modu diskretuan, itxura ez galtzeko, ez zuelako gure aldarrikapenei amore eman zielako inpresioa eman nahi. Oraindik urrun gaude zerga-ihesaren sistemaren bukaeratik, baina kanpaina horrek erakusten du ekintza taktikoek BNP bezalako banku oso handi bat ezegonkortu dezaketela eta, batez ere, zerga-ihesarena bezalako gai konplexu eta tekniko bat jendarteratu.

Izan ere, zerga-ihesaren sistema babesten duena opakotasun antolatua da, klase politikoaren zati baten zigorgabetasuna eta onarpena; baina, gainera, subjektuaren teknikotasunak eta konplexutasunak eragozten du herritarrek esku hartzea eta etsipenera eramaten ditu. Gure haurrak eskolara eramaten ditugunean, bulegoetan ari diren gaizkile horiek harrapatuko bagenitu eskolako materiala eta haurren jostailuak lapurtzen, protesta egingo genuke. Ospitalean senide bat bisitatzen ari garenean, norbait ikusiko bagenu gaixoak eta zaurituak artatzeko materiala lapurtzen, protesta egingo genuke. Zerga-ihesaren sistemak modu oso konkretuan eragiten du baliabide publikoen lapurreta masiboa, baina hori zeharbidez egiten da, eta horregatik ez dago protestarik, karrikan, bidegabekeria horren aurka. Gaiaren teknikotasuna dela eta, nahiz eta borroka hori erabakigarria izan, eta gai horrek pertsona guztiei zuzenean eragin, hautetsi politikoek, bai eta zenbait sindikatutako eta GKEetako adituen arteko espezialista batzuk bakarrik eramaten dute.

Aulki bahitzaileak bezalako kanpaina batek “herritar soilei” protagonismoa ematea ahalbidetzen du. Horiek, azkenean, publikoki eta mediatikoki hitz egin dezakete, eta bat egin dezakete politikariek, sindikalistek eta gaian adituak diren militanteek dagoeneko daramaten borrokarekin. Kanpaina horrek erakusten du herritarren mobilizatzeko lanaren funtsezko parte bat dela “herritar soilei” inplikatzeko, interes orokorreko gaiei heltzeko, herrian leku aktibo eta lehen mailako bat berreskuratzeko aukera ematen dien ekintza-moduak aurkitzea. Hots, herritarrei jarduteko ahalmena berriz ematea.

Ikuspegi horretatik, “herritarren mugimendu” bat eraikitzeke helburua ez da gutxietsi behar: kontua da gaur egun eginkizunak banatzen diren moduen iraulketa oso garrantzitsua lortzea. Gu gauden behe-intentsitateko demokrazia-sistema, azkenean, nahiko urrun dago Abraham Lincolnek bere formula ospetsuaren bidez definitu zuenaz: “herriaren gobernu bat, herriaren eskutik, herriarentzat”. Egia da adierazpen askatasuna badaukagula (sistema mediatikoak eta

sare sozialetako algoritmoek ahalbidetzen dizkiguten mugen barnean), bozkatzeko eskubidea badaukagula. “Demokrazia” bi eskubide horietan laburbiltzen dugu usu eta, beraz, ohitu gara gure boterea beste batzuen eskuetan uztera, gu-hurrek erabili beharrean. Alde horretatik, gure gizartearen ezaugarri nagusietarik da herritarrei erantzukizun politikoa kentzea. Ondorioz, politikoki jarduten duen jendea “militante” edo “ekintzaile” izendatzera heldu gara.

Egia erran, militante eta aktibista horiek herritarrak “baino ez” dira. “Militante” eta “ekintzaile” deitzen zaie soilik “herritar” hitza devaluatu delako. Azken hitz horren bidez sistema politikoaren erabiltzaile bat, gizarte kapitalistaren atomo bat besterik ez da gehiago izendatzen, hitz horrek eskubide osoko eragile politikoa izendatu beharko lukeenean. Hitzaren zentzu literalean, herritarra da herriaren –gauza publikoaren– antolaketan konkretuki inplikatzeko den norbait, gizartea antolatzeko moduan eginkizun aktiboa betetzen duena. “Herritar soila” esamoldea, halaber, herritar izan nahi duenaren eta egungo gizartean izendatzen duenaren artean dagoen koska erraldoiaren erakusle da. Izan ere, egiazki, herritarra izateak ez du ezer “soilik”. “Militante” edo “ekintzaile” izateak, gaur egun, herritar izatea adierazten du: ez gehiago, ez gutxiago, baina osoki herritarra. Herritarren mobilizazio lana, beraz, beste lan baten bidez egiten da: kultura eta jarduera demokratikoa biziberritzeko lanaren bidez.

Beti gogoratu behar da hurrengo lehendakaritzarako hauteskundeak eta hauteskunde legegileak hautagai ekologista erradikal batek irabaziko balitu ere, hori ez litzatekeela aski izanen sistema aldatzeko, baldin eta aldi berean ez balago gehiengo politikorik, hitzaren zentzu zabalean; hots, ez bakarrik alderdien eta hauteskundearen zentzuan, baizik eta, zabalago, herri mailan. Beharrezkoa da biztanleriaren zati esanguratsu bat, gehiengoa ez bada ere, gure bizimodu kolektiboaren aldaketa erradikaletan zuzenean parte hartzeko eta engaiatzeko prest egotea. Gehiengo kultural bat eraikitzea da kontua, eta horretan oinarrituz, gizartean ezinbesteko gizarte-indar bat inplika dadin, konkretuki, jendartearen berrantolaketan. Mobilizazio orokorra egon behar da. Izan ere, Eliseoko bulegoan ez dago botoirik jendearen pentsamoldea, ametsak, ohiturak, mundu-ikuskerak, eta elkarrekin bizitzeko eta jendartearen elkarrekin osatzeko modua aldatzeko. Eraldaketa mota hori pentsamolde-aldaketa bati dagokio, kultura-aldaketa bati, eta mugimendu herritar baten garapenari esker modu erabakigarrian lagundu behar dugun lanaren zatia da: jendea inplikatzera gonbidatu behar da, engaiatzeko molde egokiak proposatuz.

1.2. Milaka David, Goliaten aurka

Zerga-ihesaren auzia

Aulkiak bahitu eta hilabete batzuetara, Akizeko Auzitegira deitua eta auzipetua izan nintzen, “taldean lapurreta egiteagatik”, BNPre salaketa baten ondorioz,

Parisko ekintza batean bozeramaile gisa parte hartu nuelako. “Taldean burutu lapurreta” deritzon delitua 5 urteko kartzeladiaz eta 75.000 euroko isunaz zigor daiteke.

Bankuak bere agentzietan gertatzen ziren “intrusio” ekintzak geldiarazi nahi zituen, zerga-ihesaren gai delikatuarengatik beren langileak ezegonkortuak baitziren. Militanteak beldurrarazteko, Aulki bahitzaileen ekintzetan parte hartzen zuten elkarte bakoitzeko ordezkari bat erreprimitu nahi zuten: zerrendan lehena nintzen. Baina jazarpen judizial horrek ez zituen ekintzak geldiarazi, eta kontrakoa ere gertatu zen, zeren auziaren menturak aulki bahiketen kanpainak baino are ekintza andana handiagoa piztu baitzuen, bankuaren estrategiak bilatzen zuenaren kontrakoa sustatuz: BNPk aulkiak nahi ditu? Ekarriko dizkiogu... eta agentziak okupatuko ditugu! Orduan, ekintza kontzeptu berri bat abiarazi genuen. Orduko hartan ez genituen gehiago haien aulkiak bahituko, baizik eta agentziak okupatu, geure aulkiak ekarriz, eta zerga-ihesaren diruarekin finantza daitezkeen zerbitzu publikoak irudikatuz.

2016ko abenduaren 10ean, hamar bat guraso gazte Parisko BNP agentzia batean sartu ziren, beren haur txikiekin eta haurrendako aulki bereziekin.

ANV-COP21 eta Lurraren Adiskideen erakundeetako militanteek lagundurik, minutu gutxiren buruan, agentzia nagusiaren ataria “paradis fiskaleko haurtzaindegi” bihurtu zuten. Agentziako zuzendariak berehala deitu zion poliziari, minutu batzuen buruan egoera hobeki neurtu eta bere lehen erreflexuaz damutu baino lehen. Poliziakideak hara iritsi zirenean, buruari hazka hasi ziren, bizpahiru urteko dozena-erdi bat haurrek eta haien gurasoek burutzen zuten “haurtzaindegi” haren aurrean zer egin zezaketen ezin asmatuz. Paradisu fiskaletan gordea den diruaz finantza litezkeen zerbitzu publikoak gogorarazteaz gain, ekintzaileek “Denak Akizen urtarrilaren 9an” pankarta bat zabaldu zuten.

Aste batzuk lehenago, azaroaren 16an, asteazkenarekin, Biziko 30 bat militante sartu ziren Biarritzeko BNP agentzia batean, horiek ere aulkiz “armaturik”, eta bertan “Apostrophes” telebistako literatura-saio ospetsuaren dekoratua irudikatuz. Bernard Pivot faltsu bat buru zuen mahai baten inguruan jarririk, militanteek zerga-ihesari buruzko 9 liburu ozenki irakurtzen hasi ziren, hala nola Antoine Peillon-en *“Ces 600 milliards qui manquent à la France”*, Christian Chavagneux eta Ronen Palan-en *“Les Paradis fiscaux”* eta Xavier Harel-en *“La Grande Évasion – Le vrai scandale des paradis fiscaux”*. Polizia bertaratu zenean eta militanteek agentzia noiz arte okupatuko zuten galdetzen hasi zenean, Biziko bozeramaileak “Bederatzi liburu ditugu bukatzeko. Gauez ere irakurtzen badugu, ez genuke hiru egun baino gehiago beharko”, erantzun zien lasaiki. Polizia zalantzan egon zen une batez, jakin gabe zer egin, militanteak kanporatzea erabaki aurretik. Horiek erresistentzia pasiboa erabili zuten eta, poliziakideek

ekintzaileak banan-banan arrastaka eramaten zituzten bitartean, oraindik ikus zitezkeen “Joan zaitezte zerga-ihesaren epaiketara, urtarrilaren 9an, Akizera” zioten pankartak.

2016ko udazken horretan, mota horretako hamarnaka ekintza egin ziren hiri anitzetan, Aulki bahitzaileen dei berriaren ondotik, BNP agentziak ospitaleko larrialdi-zerbitzu, eskola eta abar bihurtuz. Ekintza horiek enplegatuekin hitz egiteko aukerak izan ziren, horietako asko zerga-ihesari buruzko eskandaluak guk bezainbat asaldatzen baitzituzten. Ekintza horietako bakoitzak kontsigna bat errepikatzen zuen dozenaka lurraldetan: “Denak Akizen urtarrilaren 9an!

Ondorioz, epaiketaren egunean, bi mila lagun bildu ginen Akizen, astegun batez, epaiketa hori “zerga-ihesaren epaiketa” bilakatzeko. Gertakari hori Frantziako Estatu mailako komunikabide guztiek aipatu zuten, hainbestearino non BNPko abokatuak azkenean ez baitziren auzira agertzera ere ausartu, nahiz eta parte zibil izan. Europako banku nagusiak osoki huts egin zuen indar politiko eta mediatikoko harremanaren ebaluazioan.

Hasieran, kalte komertzialengatik eta irudiarengatik, hamarnaka mila euro eskatu baldin bazituen ere, nire abokatu Éva Joly eta Caroline Jolyren arabera –beren engaiamenduak bat egiten zuen gai horri buruz nire defentsa dohainik egitea onartu baitzuten–, BNPk gero atzera egin zuen, ordaineko euro sinboliko bat baizik ez eskatzeraino... azkenean ez agertzea erabaki baino lehen.

Segur aski dudatu zuketen –berandu samar– epaitegitik ateratzean zain zeuden kamera eta mikrofonoen anitzen aurrean zer erran zezaketen asmatu ezinik. BNPk gaiztoaren lekua baizik ez zezakeen ukan historia horretan, frogatua zelako zerga-ihesaren sistemaren parte hartzen zuela, gure ekintzak zilegiak iruditzen zitzaizkiolako jende gehienari, eta haien berri izan zuten gehienek begikotasuna erakarri zutelako. Auzitegiak “taldean burutu lapurreta” delitutik errugabetu gintuen, munduko bankurik boteretsuenetako bat gaitzetsiz.

BNPk berehala iragarri zuen ez zela parte zibil izanen ondoko epaiketarako, hots, Amis de la Terre erakundeko Florent Compain lehendakariaren auzirako, erabat barregarri uzten zuen “kasu” horren inguruan sortutako interesa ahultzen saiatzeko gisan. Horrez gain, auzitegiek Florent Compain ere errugabetu zuten, baita Attac erakundeko Nicole Briend, hori baitzen bankuaren salaketarengatik auzipetu hirugarren pertsona.

Nola menderatu multinazional bat?

BNP Europako banku handiena da¹⁹, eta nazioarteko zortzigarren banku-taldea. 65 herrialdetan dago, 190.000 langile baino gehiago dauzka munduan, horietatik 55.000 Frantziako Estatuan. Haren irabazi garbia 9500 milioi eurokoa zen 2021ean. Legelari, abokatuz, zuzenbidean, komunikazioan, estrategian eta abarretan adituak diren pertsonen bidez beteta dauden solairu osoak badauzka Parisko Défense auzotegian eta beste leku batzuetan.

Gure aldetik, Bizi, kanpaina hori bultzatu zuen elkarte eta Akizeko mobilizazioaren antolatzaile nagusia, erakunde txikia da, diru baliabide ahulak ditu, eta goi mailako ikasketarik egin ez duten edo BNPN aurki daitezkeen goi mailako titulurik ez duten boluntarioz osaturik dago. Aulki bahitzaileen mugimenduan zeuden *Lurraren Adiskideen Sarea*, *Attac* eta *Syndicat Solidaires Finances publiques* sindikatua bezalako Frantziako Estatu mailako erakundeen laguntzarekin ere, gure baliabideak ezdeusak dira BNPNren gisako multinazional baten aldean.

Orduan, hainbeste trebetasun eta baliabide dauzkan halako banku ahaltzu bat nola behaztopa daiteke, hain modu traketsan, auzi batean sartuz, itxura erabat galtzeraino?

Indar-harremana finkatzen duena aldatu egin daiteke egoera aldatu orduko. Aipatu kasuan, hiru kontu iruditzen zaizkit garrantzitsu.

Lehenik, gure antolaketa-metodoen indarra. Epaietaren eguneko elkarretaratze jendetsua mobilizazio lanaren emaitza da, lekuan lekuko komunikazioarena, sareen eraikitzearena, etab. Antolaketa-metodo eraginkorretan oinarritzen da. Lehen puntu hori erabakigarria da, herritarren mobilizazioa izan baitzen epaiketa hori mintzaleku mediatiko bihurtu zuena. Auzitegiaren barnean ere, nahiz eta epailea ez zegoen zuzenki mobilizazioaren presiopean –eta hori ez zen xedea–, 2000 pertsona auzitegiaren aitzinean bildurik izateak biziki baldintzatu zuen auziaren garapena. Eztabaidak sakoneko gaiei, zerga-ihesari, herritarren eginkizunari eta desobedientzia zibilari buruzkoak izan ziren, “taldean burutu lapurreta” kalifikazio teknikoari buruzkoak izan ordez. Auzia hasi eta berehala, areto betean, epaimahaiburuak dena lasai egiteko eskatu zuen, berak erranez “auzi hau baldintza berezietan” egiten zela.

Ondotik jakin genuen epaiketa Akizen antolatua izan zela (Parisen egin beharrean, han burutu baikenuen ni auzipetua izatea ekarri zuen ekintza) gertakari politiko ez bilakatzeko. Baina Akize Paristik urrun baldin badago, eta Parisen

¹⁹ Europako banku nagusia da, bere negozioagatik eta errentagarritasunagatik: 3000 miliar dolarreko aktiboak dauzka.

mediatizazio nazionala agian errazagoa izanen baldin bazen... Biziren egoitza dagoen Baionatik berrogeita hamar bat kilometrora baizik ez dago ordea. Alabaina, hurbiltasun geografiko horrek ahalbidetu zuen, ironikoki, Frantziako Estatu mailako mobilizazio bat antolatzea.

Bigarrenik, herritarrek burutu aulki-bahiketa bezalako ekintza ez-bortitz baten abantaila taktikoa bazen, zeinak ispilu-efektua sortzen baitzuen lapurretaren arazoaren inguruan: bankua aulkien “lapurretari” erantzutera behartuz, are gehiago jartzen zen diru publikoaren lapurreta salaketaren menean. Ondorioz, Robin Hood-en gisako kontakizun horretan, bankuak leku okerra baino ezin zuen izan. Menderatu ezin zuen istorio batean harrapatua zen. Oro har, bortizkeriarik gabeko ekintzaren indar handienetako bat ohiko joko-arauak aldatzea da, aurkaria menderatzen ez duen zelai batera eramatea, non bere ohiko baliabideak ez baitira eraginkorrak. Haren giza baliabideak eta zuzenbidean dituen gaitasun guztiak ez dira efikazak egoera berezi horretan.

Zalantzarik gabe, BNPri aurre egiteko hainbat arlo eta modu izan zitezkeen, non ez baikenuen aukerarik izanen ezer lortzeko, ezta den gutxienik desegonkortzeko ere. Baina egoera zehatz horretan, BNP abantailarik ez zuen eremuan zegoen.

Hori lehen baldintza da indarkeriarik gabeko urratsean indar-harremana sortzeko: aurkaria indartsu dagoen eremutik kanpo eramatea, beste eremu batera. Mike Tysoni aurre egin behar baldin badiozu, molda zaitetz ez dadin boxeo borrokaldi batean izan: desafia ezazu pilotan, xake-jokoan edo dardoetan, benetan irabazteko aukera duzun jokoaren arabera! Kontua da arerioaren arma berak ez erabiltzea, gure onerako izan daitezkeen asimetriak sortzeko.

Hirugarren alderdia, lehenengo bien oinarri dena, legitimitatearena da. Gai izan gara BNPrentzat hain kaltegarria zen kontakizun bat sortzeko, aliantzak eraikitzeko, milaka jenderen sostengu oldea pizteko eta mobilizazio handi bat sortzeko, daramagun mezuak zentzua daukalako, pertsona horien guztien begietan zuzena eta zilegi zelako. Kanpaina osoan kazetari guztien begikotasuna izan genuen. Istorio hori aipatu zutelarik, beti gure alde egin zuten. Poliziakideen kasuan ere hala zen, gurekin zuzen jokatu baitzuten eta batzuetan gure ekintzekiko begikotasuna ere erakutsi. Magistratuen kasuan ere berdin: epaileak utzi zigun gure ekintzaren sakoneko motibazioei buruz hitz egiten, eta prokuradorea ere jarrerara onean zegoen, berak proposatu baitzuen “aulkiak eramatea” irudimenezko kalifikazioa, “taldean burutu lapurreta” delituaren ordez, bere burua zurtzeko, nire errugabetzea eskatu zuelarik! BNPko langile anitzen kasuan ere berdintsu zen: bankuaren barnetik etorri zitzaizkigun informazio batzuek jakinarazi ziguten egoera arras deserosoa zela enpresaren barnean, kanpaina hori zela eta, enplegatuen artean zerga-ihesari buruzko eztabaidak elikatzen zituelako, eta

gehienek ez zutela jarduera hori onartzen. Bada, enpresa batek, nahiz eta oso hierarkikoa izan, ezin du behar bezala funtzionatu bere langileen gutxieneko atxikimendurik gabe. Orduan, eginkizunak askotan uste izanen zenaren kontrara jokatu ziren: errepresioa burutzen irudikatu genituen poliziakideak askoz ere gure aldekoagoak ziren, beren enpresarekin solidario irudikatu genituen enplegatuak gure mezuak ongi hartzen zituzten, eta ustez kondenatu behar ninduen prokuradoreak (zerga-ikuskatzaile ohia zen!) nire errugabetzea eskatu zuen.

Aldarrikapenen eta ekintzaren zilegitasunaren pertzepzioa, beraz, guztiz erabakigarria da: bortizkeriarik gabeko estrategia batean, erran daiteke indar harreman bat gauzatzeko gaitasuna jendeak ekintzaren aldarrikapenekiko duen atxikimendu mailaren araberkoa dela. Behartze-indarra eta pertsuasio-indarra txanpon beraren bi aldeak dira.

Azkenik, horrek guztiak funtziona dezan, lehenik eta behin, aurkariaren zirikitu berezi bat hartu behar da jomuga gisa. Zerga-ihesaren sistema batean inplikaturik izatea ezin onartuzkoa da banku ospetsu batentzat baina, hala ere, dena oso ongi ateratzen zaio inplikazio hori ulertezina deno, ikusten ez deno, kontatzen erraza ez deno... Aulkiak bahitzeko ekintzek eta banketxeetan egin antzezteek, lapurreta konkretu bilakaturik, diru publikoaren lapurreta globalagoa ikusarazi dute. Irudi bat sortu dute, egoera bat, eta horrek gauzak aldatu ditu borroka horretan. Indar-harremana plantan ezartzeko, maiz, ongi apuntatzea hobe da ozenki oihu egitea baino.

Desobedientzia zibilaren bertute demokratikoa

Desobedientzia zibileko ekintzek demokrazia batean herritarrek duten lekuaren eta protagonismoaren gaia planteatzen dute. “Desobedientzia zibil” esamoldean, “desobedientzia” hitzak biltzen du arreta gehien, baina egiazki garrantzitsuena “zibil” hitza da. Izan ere, ekintza modu horren ezaugarri nagusia bere dimentsio zinez zibikoa da. “Desobedientzia zibikoa” esamoldea, bestalde, askoz erabilia goa den “desobedientzia zibila” esamoldea baino zuzenagoa da. Desobedientzia zibila egitean, kontua ez da legearen printzipioa ukatzea, baizik eta legearen printzipioa berrestea eta bidezkoa izan dadin eskatzea. Jean-Marie Mullerrek oso zuzen idatzi zuen bezala: “Ez dagokio legeari erratea zer den zuzena, aldiz, zuzen den horrek legeari agindu behar dio²⁰”. Desobedientzia zibila demokrazia-aren ikuskera zorrotz batetik dator. Horren arabera, herritar garen aldetik, ez zaitu aski legeak itsu-itsuan eta galderarik egin gabe betetzea, alderantziz, zorrozki begiratu behar diogu legeari, eta legea zuzena izateaz arduratu behar dugu. Lege zuzenei obeditzea eta haiek betearaztea bezain garrantzitsua da lege bidegabeei desobeditzea eta lege horiek aldaraztea. Legea ez baita beti zuzena! Hori begi

²⁰ Jean-Marie Muller, *Dictionnaire de la non-violence*, éditions du Relié, 2005.

bistakoa da jadanik aipatu ditugun erregimen segregazionista eta arrazisten kasuan, non pertsonen larruaren kolorearen arabera bereizkeria erabat legezkoa den, nahiz eta guztiz bidegabea izan. Borroka feministari dagokionez ere hala da: luzaz legezkoa izan da emazteek ez zitzaten gizonen eskubide berak eduki, nahiz eta hori bidegabekeria nabarmena izan. Emazteek botoa emateko edo beren gorputzari buruz erabakitzeke eskubideak borroka bidez lortu dira, desobedientzia zibila barne.

Horrelako egoeretan, ikusten delarik desoreka badela legala denaren eta bidezkoa denaren artean, desobedientzia zibila demokraziarako urrats arduratsu eta eraikitzaile gisa agertzen da. Legea zertan ez den zuzena azaleratuz, ekintzaileei aukera ematen die gizarteari dei egiteko, legea aldarazteko xedez. Gaur egun, ez ote da gauza bera gertatzen nahasmendu klimatikoari dagokionez? Energia fosilen ustiapena legezko jarduera da, baina guztiz ez-legitimoa, planetaren bizigarritasun-baldintzak suntsitzea baitakar, eta milioika biktima eragiten dituen nahasmendu klimatikoa sustatzen baitu. Alde horretatik, pentsa dezakegu egungo legeak bidegabeak eta larriki eskasak direla gu arrisku klimatikotik babesteko.

Desobedientzia zibila ezin da autoritarista izan: helburua ezin da izan gizartean nork bere ikuspuntua inposatzea. Hori dela eta, desobedientzia zibileko ekintzak publikoki asumituak dira: aurpegia agerian jartzen duten, publikoki agertzen diren, beren ekintza aldarrikatzen duten eta ondorio publiko eta juridikoak onartzen dituzten pertsonak egiten dituzte. Xedea da legearen inguruan eztabaida sortzea edo, orokorkiago, gizartea antolatzen dugun maneraren inguruan. Urrats honetan, gure helburua ez da auzipetuak izatea, baina horretara prestatzen gara eta gure ekintzak justiziaren aurrean asumitzen ditugu, auzitegietara eramaten bagaituzte. Orduan, iritzi publikoari dei egin nahi diogu, gure aldarrikapenen aldeko gehiengo edo jende kopuru esanguratsu bat konbentzitu eta bildu. Beraz, desobedientzia zibila apustu bat da. Apustua egiten dugu jendea konbentzitu ahal izanen dugula, eta gatazkak eta bidegabekeriak eztabaidaren bidez eta bortizkeriarik gabe konpondu ahal izanen ditugula. Horregatik, desobedientzia zibila oso urrats demokratikoa da.

Desobedientzia zibila herritarrei protagonismo politikoa berreskuratzeko ahala eman behar dieten ekintza motetako bat baizik ez da. Beste engaiamendu mota asko beharrezkoak dira jendarte zibilaren mugimendu masibo bat osatzeko. Ideia nagusia herritar boterearena da. Hauteskunde-ordezkaritzan biziki oinarritzen den sistema batean, ohitu gara aldaketa handiak "goitik" etor daitezen itxarotera. Masako estrategia ez-bortitza, hain zuzen ere, ikuspegi hori iraultzea eta "beheretik" datozen aldaketak eragitea da. Ikuspegi horretatik, herritarren mobilizazioa ez da mugatu behar arduradun politiko eta ekonomikoei aldaketak *eskatzer*a, baizik eta guhaurrek *sortzer*a, herritar gisa, oinarritik. Hori Frantziako Estatuko klima-mugimendu nagusietako bat (Alternatiba) sortu duen mobilizazio dinamikaren oinarritzko printzipioetako bat da.

2. ALTERNATIBA: HERRI MOBILIZAZIORAKO ERREZETA BAT

2.1. *Ez dezagun itxaron konponbideak goitik etorri arte!*

Goazen hamar urte atzera. 2011-2012 urteetan, klima-mugimendua beheraldian zegoen, urte batzuk lehenago sortu baitzen, 2009ko Kopenhageko goi-bileraren inguruan. Garai hartan, Frantziako Estatuan ez zegoen “klima-mugimendurik”, eta izen hori ez zen erabiltzen ere. Borroka ekologistak bazeuden (transgenikoen aurka, eskisto-gasen erauzketaren aurka...), erakunde batzuek klimaren gaia lantzen zuten, bereziki *Action Climat Sareak*, bai eta klimaren aldeko talde militante batzuek ere, baina ez zegoen klimaren aldeko mobilizazio dinamikarik, ez gaur egun dagoen bezalakorik. Gaia bakan aipatzen zen eztabaida publikoan: prentsako artikulua bat nahasmendu klimatikoaz ari zenean, gertakari bat izaten zen militante klimatikoaren talde mugatueta! Publiko zabalak, oro har, egun baino askoz gutiagoa ulertzen zuen gaia. Jende askok oraindik uste zuen aldaketa klimatikoa eguneroko tenperatura gradu gutxi batzuek berotzera mugatzen zela. Gehienek ez zuten kezkatzeko arrazoirik ikusten udan edo neguan bizpahiru gradu gehiago egingo lituzkeela pentsatzean: alderantziz, anitzek uste zuten atsegina goa litzatekeela! Muturreko gertaera klimatikoak eta haien inplikazio sozial eta humanitario guztiak oso gutxi ezagutzen ziren.

Eta fenomenoak behar bezala ulertzen zuten pertsonen gutxiengoa kontzientzia hartzera mugatzen zen. Horrek, gehienetan harridura-efektu bat eragiten zuen eta, paisaia mugimendu herritar sendorik ez zegoenez, etsipen eta depresio bihurtzen zen aise, ekintzara sustatu ordez. Alta, testuinguru horretan antolatzen zen lehen Alternatiben Herriak, klimaren aldeko herritarren mobilizazio dinamika berriz abiarazteko gogoz.

2012ko irailean, Bizik “Alternatiba” izeneko gertakari bat pentsatu zuen, asteburu bateko denboran Baionako hirigune osoa “alternatiben herri” bilakatzeko xedea zuena. Asmoa zen hirigunea autoei moztea, eta hiriko aparkaleku, plaza, kai eta karrika guztietan berotegi efektuko gas-isuriak murrizteko dauden alternatibak erakustea. Biziko kideen ustez, hori egokia zen unean uneko egoerari erantzuteko; izan ere, garai hartan, herritarren ekintzarik eza klimaren arazoaren fenomenoak ez aski ulertzetik zetorren. Gai konplexu, abstraktu, urruneko eta globalegi bezala ikusten zuten, eta horrek beren burua esku hartzeko gai sentitzea eragozten zien. Alta, gure lurraldeetan berean, isurtzen ditugun berotegi efektuko gasen kantitateak murrizteko aukera anitz badira, gizartearen funtsezko eremu guztietan: laborantza herrikoia eta laborantza biologikoa, laborantza industrialaren eta abeltzaintza intentsiboaren ordez; mugitzeko modu arinak, hala nola bizikleta, oinez ibiltzea, garraio publikoak, auto individualaren ordez; energia berriztagarriak eta neurritasuna, energia fosilen eta xahutze energetikoaren ordez, etab. Ikuspegi horretatik, ez gara batere tresnarik gabe sentitzen.

Hiriko erdialdea alternatiba guzti horiek erakusteko gune erraldoi bilakatu, Alternatiben Herrixkaren ideiak klimaren problematikari heltzeko manera iraultzen zuen: gai lauso eta eskuragaitza izan ordez, agerian ematen ziren alternatibak oso zehatzak ziren, hunki zitezkeen, eta gure eguneroko bizitzarekin lotuak ziren. Gure lurraldean bazeuden jadanik, hemengo mailan, ikus zitezkeen, hunki zitezkeen, dastatu, esperimentatu.

Bizi, beraz, ideia horren inguruan mobilizazio jendetsu bat prestatzen hasi zen, ondoko IPCCren txostenaren ondotik, hurrengo urteko urrian egiteko xedez. Asmoa zen egoeraren larritasunari erantzutea itxaropena eta boluntarismoa sustatuko zuen mezu baten bidez, halako txosten zientifikoek eragin dezaketen harridura-efektua indargabetzeko. Guretzat, IPCC erreferentzia zen, ahalik eta gehien aipatu behar zen, baina mobilizatzeko helduleku ere bilakatu behar zen, eta ez bakarrik egiaztapen kezagarri baten eraikitzeko. Bestela, besterik gabe aipatuz, porrotaren egiaztapen gisa ikus daiteke. Kontua zen erratea: “Bai larria da, eta IPCCri entzun behar zaio, baina erreakzionatu ere egin behar da, alternatibak badirelako, eta erronka horri aurre egin diezaiokegulako”.

2.2. Alternatiben Herrixka: alternatibak badaude

Horrela, urte batez prestatzen aritu ondoan, 2013ko urriaren 6an, Baionako erdialde osoa itxuraldatu zen: bizikleta tailer handi batek, aire zabalean, bisitariak gomitatzen zituen ikastera (edo berriz ikastera) beren bizikletak mantentzen eta konpontzen, trukaketa postu batzuek gure trukaketei buruzko beste ikuspegi bat eskaintzen zuten (merkataritza logikatik kanpo), bazkari handi bat antolatu zen hurbileko laborantza herrikoiak ekoitzi elikadurarekin, lastozko murru bat eraikitzeko teknikaren erakustaldi batek eko-eraikuntza tekniken aurkezpena lagundu zuen, euroak euskoen truke aldatzea proposatzen zen, etab. Ehunka alternatiba aurkeztu ziren hamabost gune tematikoetan, eta hain ziren ugariak, non ezinezkoa baitzen egun bakar batean itzuli osoa egitea!

Beraz, milaka alternatiba erakutsiz, Alternatiben Herrixka horrek aurretik agerrarazi zuen gure gizartea nolakoa izan litekeen, horrelako alternatiben inguruan antolatuko balitz. Berotegi efektuko gasak murrizteko irtenbideak badaudela erakusteaz gain, erakutsi zuen, batez ere, horrelako alternatibek gaur egungo gizartea baino askoz ere desiragarriago eta loragarriagoa den gizartea osa dezaketela. Banakako autoaren sistematik ateratzeak, adibidez, eragozpen anitz ekar ditzake eguneroko bizitzan, gaur egun lurralde antolaketa guztia garrario mota horren inguruan egina baita. Baina Alternatiba egun horretan ikus zitezkeen nolako ondorio positibo eta desiragarriak dauden autoez libre den hiri batean: trafikoaren zarataren ordez, jendearen ahotsak, eztabaidak eta irriak entzuten ziren, haurrak karrikan jolastu zitezkeen auto batek harrapatzeko arriskurik gabe, espaloietan eta ibilgailuz estali ohi diren aparkalekuen lekuetan, la-

gunarteko jarduerak burutzen ziren, hala nola, otordu handiak, jolasak, antzerki emanaldiak etab., eserlekuak jartzen ziren... Hiria berriz bilakatu zen humano eta bizi, eguneroko bizitzan jasaten dugun zalaparta mekaniko eta metalikoa desagerturik. Kontuan hartu gabe autorik gabeko hiri bat izatea ez dela soilik berotegi efektuko gasen isurketa murriztea, baizik eta arnas aparatuko gaixotasun asko (adibidez haurren asma) eragiten dituen airearen kutsadura gelditzea ere dela, zirkulazioari lotua baitzaio. Autorik gabeko hiri batean, haurrek korrika eta jolas egin dezakete aire osasuntsua arnastuz, jendea lasterka eta bizikletaz mugitu daiteke autoen gasek intoxikatu gabe.

Herriko karrika eta plaza guztietan, "Herrixka" horrek, alternatibak ez ezik, aktibitate ludiko, kultural eta artistiko anitz erakusten zituen: espazioak apainduak ziren, koruak, karrika antzerkia, ikuskizunak, kontzertuak, haurrentako jolasak baziren, etab. Gauza horiek erakusten dute maila materialean neurritsuago den gizarte batek ez duela bizimodu tristeagoa erran nahi. Alderantziz: logika kontsumista eta materialistatik askatzeak gizartea jendearen arteko loturen inguruan antolatzeke aukera ematen du, eta hori objektu material berrien etengabeko erosketan zoriona bilatzea baino askoz aberasgarriagoa da. Hori du laburbiltzen hazkuntza-eragozpenaren eta neurritasun zorionsuaren filosofiatik sortu "ondasun gutiago, lotura gehiago" leloak, non Alternatiben Herrixka hori osoki sartzen baitzen.

Lehen Alternatiben Herrixka horrek 12.000 pertsona bildu zituen. Gaur egun, pentsa daiteke kopuru hori arrunta dela klima-mugimendu baten kasuan, baina arrakasta izugarria izan zen, egia erran, beheraldi garai hartan, non iduri baitzuen klimari buruzko mobilizaziorik ez zela posible.

Mobilizazio horrek, beraz, gezurtatu zuen garai hartan indarrean zegoen diagnostiko defentsiboa, eta elektroshock bat sortu zuen. Esperantza eta entusiasmo sentimendu bat nabari zen hiri osoan asteburuan, eta ekitaldira etorritako elkarte anitzetako ordezkariak zerbait eraman zuten beren eskualde eta sareetara. Egun horrek, beraz, zerbaiten abiapuntua izanen zen ekitaldi bat sortzeko apustua irabazi zuen, eta milaka lagunek entzun zuten eguna bukatzean luzatu genuen horrelako Herrixkak biderkatzeke deia. Izan ere, oihartzuna izan zuen, beste lurralde askotan.

Ondoko asteetan, lehen taldeak sortu ziren hainbat lurraldetan, beren alde-tik Alternatiben Herrixka bat antolatzeke helburuarekin. Aipagarria da talde horiek, nagusiki, oraindik proiektu politiko edo militanteetan engaiatuak ez ziren pertsonak bilduz sortu zirela. Mobilizazio eredu horrek klimaren inguruan mugituko zen belaunaldi militante berri baten agerpena sustatu zuen. Bi urtetan, 2013ko udazkenetik 2015eko COP21era arte, alternatiben ehun herrixka antolatu ziren. Herritarrak klimaren alde mobilizatzen zituen dinamika berri bat

abiatu zen, orduan, batez ere Frantziako Estatuan, baina baita beste herrialde batzuetan ere, Austrian, Alemanian, Belgikan, Suitzan, Erresuma Batuan, Haitin eta Senegalen, non “Alternatiba” Herrixkak ere antolatu baitziren.

Zergatik izan zen arrakastatsua apustu hori, etsipen handiak eta klimaren aldeko mobilizazio-dinamikarik ezak markatutako garai hartan? Hori ez da hala-beharraren edo zortearen ondorio: lan metodiko eta gogoetatsu batetik zetorren, osoki, harriz harri eraiki zen ekimen baten prestaketa xehetik. Mobilizazio-metodo zehatza da, bereziki lekuan lekuko eremutik hurbilen landutako sareen logika batean finkaturik, baita ikuspegi praktiko-praktikoan eta herrian errotzeko eta publiko ez-militanteak integratzeko prozesu batean oinarriturik ere.

2.3. Errealitatean antolatu sare sozialak

Gaur egun, sare sozial digitaletan egiten diren klimaren aldeko deiak, batzuetan magiaz bezala, lekuan lekuko mobilizazio errealek bihur daitezke. Baina hori pentsaezina zen 2010eko hamarkadaren hastapenean. Alta, sarete-lana funtsezkoa izan da Alternatiba mugimenduaren sorreraren arrakastarako, baina lan hori lehenik sare sozial *fisikoetan* oinarritzen da, horiek sare sozial digitaletan ez bezala funtzionatzen baitute.

Deigarria da “sare sozialak” aipatzen ditugunean, berehala eta ia soilik sare sozial *digitalak* etortzen zaizkigula gogora: Facebook, Twitter, Instagram, Twitch, Tik Tok, etab. “Sare sozialak” esamoldeari emandako zentzua errealitatearen beste zati oso bat ezkutatzera ere iristen da. Izan ere, gizartea beti egituratzen da sare sozial *errealen* bidez. Sare horiek Internet baino askoz lehenagokoak dira, eta, hein handi batean, webgunetik kanpo garatzen jarraitzen dute, baina gehienak ez dira gizartearen ikuspegi ekologiko baten eragile. Ehiztariak milioi bat inguru dira Frantziako Estatuan; departamenduko federazioetan eta taldeetan antolatuak dira, milaka eta milaka udalerritan. Egoitzak badituzte, eta ez dituzte bakarrik ehizaldiak antolatzen, baina baita ere bazkariak, bilkurak... Herriko kontseiluetan daude: sare sozial bat osatzen dute, hitzaren lehen zentzuan. Bertan, informazioa dabil, ideiak sortzen dira, kultura bat transmititzen da, ekintzak koordinatzen dira. Nire herriko okindegian ez da dokumentazio handirik aurkitzen, baina parrokiako aldizkaria beti hor dago: elizak, meskitak, erlijioak oro har, sare sozialak dira. Landetan, errugbia kirola baino askoz gehiago da, kulturalki errotua den praktika da, horren inguruan beste aktibitate sozial anitz antolatzen dira eta lurraldea egituratzen dute. Nonahi, beste kirol batzuek, baina baita ere musika, zirkua eta antzerkia bezalako kultur jarduerak sekulako sare sozialak osatzen dituzte. Frantziako Estatuko Futbol Federazioak 2 milioi lizentziatu baino gehiago dauzka. Futbolarien familiek eta lagunek jarduera horren inguruan elkarreragin sozialak dauzkaten pertsonen eremua zabaltzen dute eta sozializazio leku oso zabalak bihurtzen dituzte. Herri anitzetan, besta komiteak lekuko

bizitza soziala, eta bereziki gazteena, egituratzen dute oraino. Gizartea, nahiz eta kapitalismoaren sistema kontsumista eta lehiakorrek gero eta digitalizatuago eta atomizatuago bilakatu, oraindik ere, neurri handi batean, errealtateari lotutako sare sozial ugariaren bidez egituratuta dago, elkarreragin sozial fisikoetan, egoitzetan eta azpiegiturretan eta tokian tokiko jardueretan oinarriturik. Sare horiek are erabakigarriagoak dira gizartearen antolaketan, lurralde baten mailan, non lotura fisikoek oraindik gaintitu baititzakete interakzio numerikoak. Begien bistakoa dirudi horrela deskribaturik, baina ez da hala “herritarren mobilizazioaz” ari garenean. Gure ahalegin guztiak sare sozial digitaletan egiteko tentazioa ukan dezakegu, haien boterea hainbeste goraiatzeko baita, baina horrek errealtateko sareak eta haien ahalmen ordezkazina alde batera uzteko arriskua ekarriko luke.

Beraz, hein handi batean, sare sozial horietan oinarriturik eraikitzen da Alternatiben Herrixkaren aldeko mobilizazio-prozesu herritarra. Pedagogia lanaren bideak dira, sare bakoitzeko problematika klimatikoaren eta gai berezien artean dagoen lotura ikusarazteko, askotan susmatu ere egiten ez baita.

Bizikletaren promozioa egiten duten elkarteak edo birziklategiak, adibidez, begi bistakoak iduri dute orain... baina, 2012an, lan hori egin zenean, ez zen oraindik batere hala! Klimaren aldeko militanteen ikuspegitik, bizikletak eta birziklategiak nahasmendu klimatikoari buru egiteko tresnak badira ere, alderantzizkoa ez zen beti egia: eragile horiek gehienek ez zuten oraindik beren jarduera klimaren problematikan sartzen. Klimaren aldaketa oso ulertezina zen testuinguru horretan, lotura ez zegoen batere argi. Beraz, “klimaren aldeko” ekitaldi bat prestatzeko sare horiek mobilizatzea aurrerapauso argia izan zen. Horri esker, klimaren gaia hari nagusi bilakatu zen, zeharkako gai, beste jarduera-eremu batzuekin lotzen zena. Alternatiben Herrixka 15 gune tematikoren inguruan eraiki zen horrela, eta horiek lurraldeko sare sozialak mugiarazteko beste bide batzuk eskaini zituzten, gai horien inguruan: energia, ekonomia, ura, etxebizitza, mugitzeko moduak, elikadura, etab. Sareen mekanika martxan ezartzeko, sare horietako eragileak diren pertsonak inplikatu behar dira gertakariaren prestaketan. Ez zaie soilik gomitatzen mahai bat atxikitzaera edo egunean berean hitzaldi batean parte hartzera: proposatzen zaie beren gune tematikoa antolatzea, hilabete batzuk lehenagotik, lana beraiek egin dezaten beren espazioko egitarauaren eraikitzeke eta eremuko eragile guztien mobilizatzeko. Egitasmoan inplikatzeko konketu horrek, ardura hartze sendo horrek, lurraldeko funtsezko eragile horiek ekitaldiaren antolatzaile oso izatera eramaten ditu, partaide soil izan ordez. Orduan, osoki engaiatzen dira gertakari klimatikoaren antolaketan, gai hori transbertsal eta zentral izatera lagunduz.

Sareen logika hori ikuspegi zabal batekin pentsatzen da. Kontua ez da elkarte ekologistak edo klimarekin lotura nabarmenena dutenak bakarrik inplikatzeko. Garrantzitsua da ahal bezain mota askotako eremuekiko pasabideak sortzea.

Euskal Herrian hain ugariak eta aktiboak diren abesbatzak, adibidez: zer harreman izan dezakete klimarekin? Lehen begiratuan, bat ere ez. Alta, lurraldeko kulturaren parte hartzen dute, berotegi efektuko gasik isuri gabe, eta erakusten dute energia gutxiago kontsumitzeak ez duela erran nahi bizitza sozial eta artistiko pobregoa izatea. Gertakariaren egunean Alternatibien Herrixkako txoko guztietan abesbatzak entzuteak besta eta laguntasun giroa sortu zuen, eta aldi berean ikusarazi zuen “ondasun gutiago, lotura gehiago” filosofiak nola lagun dezakeen karbono gutxi sortzen duen gizarte alai, loratu eta aberasgarria asmatzen. Ordura arte klimaren alde mobilizatu ez ziren abesbatzek, horrela, eginkizun garrantzitsua jokatu zuten gertakariaren giroan eta mezu politikoan. Abesbatza horietako kideek, orduan, munduaren eta proposatzen den sistemaren aldaketaren ikuskeratik zerbait har dezakete eta ikuskera hori gizarteratzen lagundu dezakete. Logika berean, joste tailer batengana joan ginen, jantzien konpontzea etorkizuneko munduaren parte dela azalduz: konpontzen diren arropa guztiak botatzen ez diren eta ekoizten ez diren arropak dira eta, beraz, berotegi efektuko gas-isuri gutiago. Kontsumoarekiko, modarekiko, itxurarekiko beste harreman bat garatzeko bidea ere bada, eta hori publikoari gogoraraz diezaiokegu eta harekin parteka dezakegu. Antzerki-taldeak gomitatu genituen ekitaldi egunean antzezenak egitera, eta musika-taldeak kontzertu akustikoak ematera. Leku zentralagoa hartuz eta hobeki baloratuak izanez, aktibitate horiek guztiek gizartearen berrantolatzeke ahalmen biziki indartsua dute, eta Alternatibien Herrixkaren apustua zen ekarpen-gaitasun hori agerian uztea.

Hilabeteetan zehar, klimaren aldeko borrokarekin *a priori* inolako loturarik ez zuten ehunka elkarte eta eragilek Alternatibien Herrixkan parte hartzeko aukera aipatu zuten beren bilkuretan. Horretaz eztabaidatze hutsa aurrerapen bat zen jada, klimaren gaia beren eremuetan lehen aldiz sartu baitzen horrela. Ondorioz, elur-bolaren efektua gertatu zen: gero eta elkarte gehiago inplikatu ziren, eta horrek berak gehiago bultzatu zituen beste elkarte batzuk ekitaldiaren prestaketa-prozesuan sartzera.

Gainera, eragile horiek ez ziren bakarrik Alternatibien Herrian inplikatzeko, baina haren komunikazioari oihartzuna eman zioten. Lehen begiratuan, abesbatzen arteko sare bati ezin zaio eskatu klimaren aldeko mobilizazio bat susztatzea, gai horrek beren hedapen-zerrenden xedearekin zerikusirik ez duelako, eta ez zaielako interesatzen zerrenda horietan mota guztietako informazioak hedatzea, horrek informazioz itozteko arriskua ekar bailezake. Baina abesbatzek gertakariaren egunean parte hartzeko asmoa zuten puntutik, gauzak arras aldatu ziren: haientzat garrantzitsu bilakatu zen haien emanaldiaren ordua eta lekua jakinaraztea. Horren ondorioz, Alternatibien Herrixkako egitarau osoa ere parteka zezaketen, baita boluntarioak biltzeko deiak ere. Horrela, prestakuntzan inplikatu ondotik, eragile horiek guztiak publiko zabalaren mobilizatzeke lanean parte hartzen zuten beste hainbeste komunikatzaile bihurtu ziren.

Beraz, gertakariaren prestaketa, berez, herritarren mobilizazio-prozesu bilakatzen da. Herritarren mobilizazioa ez da soilik E egunean milaka pertsona leku eta momentu berean biltzea; hilabetetan luzatzen den prozesua da, zeinaren bidez klimaren, sistemaren aldaketaren eta beste gizarte-eredu baten problematikak hedatzen eta ezagutarazten baitugu.

Hilabeteak joan eta hilabeteak etorri, gero eta gehiago ziren gertakari handi bat iragartzen zuen informazioa jaso zutenak, behin, bi aldiz, hiru aldiz, hainbat bidetatik: parte hartzen zuten jarduera kultural baten posta elektronikoko zerrrendaren bidez, gero ahoz aho, karrikan afixa bat ikusiz, gero berriz ere beren janari dendan, etab. Horrek, azkenean, hitzordu handi bat gertatuko zelako ziurtasuna sortu zuen. Eta horrela, lehen Alternatiben Herrixka horrek oso publiko zabala bildu zuen, orotariko jendea, giro militante eta politizatuak aise gainditzeko zituena. Eskuineko eta ezkerreko jendea bazegoen, politizatu gabeko jendea, familiarekin etorri jendea, etab. Hiriaren erdialdea jendez gainezka zegoen. Karrika eta plaza guztiak kuxkuxean zebilen jendez bete ziren, giro atseginean. Eta jende guztiak ikusi zuen, egun hartan, beste gizarte mota bat nolakoa izan daitekeen. Orduan, mundu guztiak entzun zuen, nahasmendu klimatikoaz ez ezik, alternatibez ere hitz egiten, eta erronka horri aurre egiteko elkarrekin burutu daitezkeen ekintzez. Posibilitateen eremua ireki zen, eta klima, orduan, gainditu beharreko erronka gisa agertu zen, baina baita gizartea gaur egun daukaguna baino askoz desiragarriago bihurtzeko aukera paregabe gisa ere.

2.4. Praktikak kontzientzia sortzen du

Sareak mobilizatzea ez da nahikoa. Beste elementu erabakigarri bat militanteak ez direnentzat erakargarriak diren metodoak plantan ezartzea izan zen, bereziki engaiamenduaren abiapuntu gisa praktika lehenesten duen hurbilketa baten bidez.

Praktikatik abiatzea

Kontzientziak praktikara daramalako ideia begi bistakoa dirudi: erraz irudikatzen da problematika bat hitzaldi edo artikulu batean azaltzeak jendea erronkaz ohartzea eta gero horren arabera ekitea ekarriko lukeela. Esperientziak, ordea, kontrakoa erakusten du sarri. Batez ere klima-aldaketaz ari garenean, ezin konta ahala kasu daude, non erronkak azaltzeak ez dakarren jauzirik eta ekintzara igarotzerik, baizik eta, aitzitik, harridura, ezintasun-sentimendua, etsipena eta fatalismoa. Alternatiben Herrixkaren antolaketarako, beraz, alderantzizko urrats batean sartu ginen, itxuraz intuizioaren kontra doana: ez ginen abiatu kontzientziak ekintza eragiten duelako ideiatik, baizik eta *praktikak kontzientzia sortzen* duelako ideiatik.

Sartzeko atea, beraz, praktika da: erabakigarria da jendeari gauza konkretuak proposatzea. Alternatibaren mobilizazio-prozesua oinarritu zen bakoitzak proiektuari zerbait eman diezaiokeelako eta “herritar soila” gizartearen eraldaketaren eragile nagusi bihurtu daitekeelako ideietan. Kontakizun horrek zentzua dauka pertsona askorentzat, beren lankidetzaren eta elkartasun-balioekin bat egiten duen ekintza modu bat bilatzen baitute, gai ekologikoei buruz duten kezkekin eta sozializazio beharrekin bat datorren ekiteko manera bat aurkitu nahi baitute.

Gero eta pertsona gehiagok urratsa egin zuten, horrela, eta nola lagundu galdetzeraz etorri ziren. Azpimarratzekoa da horietarik gehienak ez zirela oraino militanteak. Oraindik inolako esperientzia militanterik ez duten gizon eta emazteen integrazioa erabakigarria bezain delikatua da ekitaldi herrikoi handi baten arrakastarako. Alternatibaren Herrixka prestatzeko basea zen Manu Robles-Arangiz Fundazioaren egoitzan, arbel batean, boluntario berriek berehalaz egin zitzaizkien gauza guztiak zerrendatuak ziren. Izan ere, konkretua den zerbait egiten hasita, jendeak hautematen du baliagarria izan daitekeela, nahiz eta zeregin txikia izan. Eta baliagarria dela sentitzen duenean kolektiboan sartzen da, konkretuki. Engaiamendua pizten duena praktika da.

Praktikaren bidez modu zabalean mobilizatzeko, sartzeko ateak biderkatu behar dira. Boluntarioak mobilizatzeko, trebetasun bereziak bilatzeko, materiala biltzeko egoitzak aurkitzeko edo afixak karrikan kolatzeko deiak oso erregularri zabaltzen ziren. Oso garrantzitsua da sartzeko ate anitz dituen antolaketa prestatzea, jende anitz parte hartuz gomitatzeko askotariko manerak baitira: pertsona batzuek gaitasunak dauzkate brikolajearen, elektrizitatearen, beste batzuek sukaldaritzan, itzulpengintzan, informatikan, argazkigintzan, apainduraren, beste batzuek harremanak badituzte irakaskuntzan, kulturaren, musikan, edo badakite egoitzak edo ibilgailuak nori eskatu, edo apaintzeko elementuak egiteko materiala berreskuratzeko bideak ezagutzen dituzte, etab. Ekitaldi handi bat antolatzeko, milaka ekarpen material eta milaka boluntario behar dira. Behar horiek guztiak aukera bihurtzen dira abentura kolektibo batean parte hartu nahi duten herritarren inplikatzeko eta klimaren alde jarduteko bideak aurkitzeko.

Behin jende berriak atea pasatzen duenean, haren integrazioa ez da nahasmen duen klimatikoari buruzko diskurtso teorikoetatik hasiz egiten. Alternatibaren lehen Herrixka lantzen ari ginenean, Baionan, tokian tokiko bisitak antolatu genituen: hiriko auzoetan ibiltzen ginen militante berriekin, eta elkarrekin irudikatzen genuen plazak, karrikak, kaiak... nola bihurtu etorkizuneko gizartearen irreikusteko gune. Horri esker, jendeak bere burua bertan kokatu eta Herrixkaren ideiaz jabetzea lortzen zuen. Egoitzara itzuli eta, proiektua azaltzen jarraitzen genuen, Herrixkaren planoaren inguruan. Era horretan, proiektuaren antolamenduarekin lotura zeukan guztiari lehentasuna ematen zitzaion.

Metodo horrek hitzaldietan ikusten ez den publiko bat erakartzen du (horrek ez du eragozten Bizik mintzaldiak oso erregularki antolatzea, horiek ere onura asko ekartzen baitute, bestalde). Prozesu horrek ez ditu, beraz, soilik beste mundu bat *pentsatzen* duten pertsonak biltzen, baizik eta mundu hori *beren eskuekin eraikitzen* dutenak: biharko mundu hori eraikitzen berehala hasi nahi duten pertsonak. Gertakariaren eraikitzeak, orduan, herritarren mobilizazioaren artisaunen mugimendu bat sortzen du.

Lehen Alternatiben Herrixka honen apustua bikoitza zen: kontua ez zen “bakarrik” ehunka boluntario biltzea ekitaldia ongi ateratzeko. Klimaren aldeko apustua bere egiten zuen eta klimaren aldeko borrokan modu iraunkorrean ariko zen mugimendu herritar bat sortu nahi zen ere, gertakariaren prestakuntza-fasearen bidez. Teorian, alternatiben herrixka bat antola daiteke ehunka profesionalen laguntzaz. Baina guk herritarren gaitasunak bildu eta jendea ahaldundu zuen prozesu alternatibo baten bidez egin genuen. Alde batetik, ez geneukalako ehunka profesionali ordaintzeko baliabiderik, eta bestalde, eta batez ere, profesionalak kontratatzea ez zelako klimaren aldeko engaiamendu iraunkorra duen kolektibo bat sortzeko bidea izanen.

Harri-pikatzaillea eta katedral-eraikitzailea

Alternatiba metodoan, beraz, praktika da engaiamenduaren abiarazlea. Baina praktika horrek, noski, gertakariaren zentzu politiko eta estrategikoaz jabetzea ekarri behar du. Orduan, gauzak *zergatik* egiten diren azaltzeko lana egin behar da, etengabe. Hori da ondoko metaforaren erranahia: zer alde dago harri-pikatzaille baten eta katedral-eraikitzaile baten artean? Biek harria zizelkatzen dute, baina harri-pikatzaillea harrian zentratzen da, katedral-eraikitzaileak, aldiz, katedrala gogoan duelarik. Gure lan praktikoa gure buruan irudikatzeko moduak sakonki aldatzen du bizi dugun esperientzia. Dena ongi ibil dadin, beraz, harri-pikatzaille guztiei beti azaldu behar zaie nolako katedrala eraikitzen ari garen.

Adibidez, gertakariaren bezperan, salduko diren ogitartekoak egingo dituzten boluntarioei argibideak eman behar zaizkie. Une horretan, egin beharreko gauzak eta konpondu beharreko larrialdiak ez dira falta. Estres maila handia da eta neke handia pilatu da. Beraz, ogi makila bakoitza zenbat zatitan moztu behar den eta barnean zer jarri behar den azal dezakegu, eta horretan geldi. Hori nahikoa litzateke ogitartekoak behar bezala egiteko. Baina hori ez da aski ogitartekoez arduratzen diren pertsonak proiektuaren dimentsio politiko eta estrategikoarekin erabat lotuta sentitzeko.

Alta, funtsezko eginkizun bat dute: ogitartekorik, kreperik eta edaririk gabe, ez dago gertakariaren autofinantzaketarik, hots, ez dago ekitaldirik. Eginkizun bakoitzak gertakariaren arrakastarako duen eragina azaltzeak ikuspegi guztiz

ezberdina ematen dio hasieran desatsegina dirudien zeregin bati. Ogitartekoak prestatzen orduak iragatea ez da biziki interesgarria: baina gertakariaren auto-finantzaketari esker haren independentzia politikoa bermatzen laguntzea, aldiz, biziki pozgarria da.

Dudarik gabe, Alternatiben Herrixkaren inguruko bideak mozten dituzten hesiak zaintzea da eginkizun aspergarrienetako bat. Gertakaritik urrun gaude, eta aspertu egiten gara gure txanda osoan. Hor ere, kontua ez da soilik laguntzaile boluntarioei esplikatzeko zer erran behar zaien auto-gidariei: esplikatu behar zaie zertan Herrixka hori auto trafikoari moztua izateak dena aldatuko duen gertakariaren giroan eta etorkizuneko gizartea itxuratzean. Orduan, ez gara hesi bat atxikitzen ari, gertakariari zentzu politikoa emanen dion giroa bermatzen ari gara.

Eginkizun praktikoa izanik ere mugimenduan sartzeko bidea, laguntzaile boluntario berri bat errezibitzen den azalpen-bilkura bakoitzean, prestaketaren aurrerapena aipatzen dugun bilkura kolektibo bakoitzean, larrialdi klimatiko eta egoeraren larritasuna oroitarazten ditugu, bai eta gertakari herritar bat antolatzeak zientzialarien oharrei erreakzio positibo eta boluntarista bat gehitzen diola ere. Hilabete luzeetan zehar klimaren desafioaren esplikatzeko lan jarraiki horrek pertsona asko deprimitu ditzake, baldin eta, pertsona horiek ez balira jadanik dinamika kolektibo batean sartuak. Nahasmendu klimatikoaren larritasunaz ohartzeak suntsi zaitzake, ezer egiterik ez duzula sentitzen duzunean. Beste pertsona batzuekin engaiatzea da harriduraren ordeztu energia positiboa eta esperantza ematen duena: indar kolektiboak sustatzen gaitu, irribarrea ematen digu, eta aldarte eta energia hori da gero Herrixkako bisitari guztiei helaraziko zaiena. Horri esker, E egunean, giro berezia zegoen Herrixkan: ustekabeen nahasten ziren bai larritasun eta larrialdi sentsazioa, bai eta esperantza eta energia positiboa ere, zeinek erronka klimatikoari aurre egiteko eta engaiatzeko kemena ematen diguten.

2.5. Ekologia herrikoa nola sortu

Ikuspegi praktiko-praktiko horrek herriaren inplikazioa sustatzen du. Aisetasunean bizi diren klase sozialez eta ikasketa maila altua duten herritarrez osatua den mugimendu klimatiko baten klixearen kontra –nahiz eta hori parte batez egia den–, Alternatibaren prestaketa-prozesuak karikatuta horretatik urrun diren askotariko publikoak bildu zituen. Lantegietan eta bilkuretan, Zientzia Politikoetan, Soziologian edo Ingurumenaren Zuzenbidean ikasketak egin dituzten pertsona gutxi zeuden, baina iturginak, irakasleak eta arrantzaleak bai... Baionako hiriak neurri ertaina du eta haren soziologia metropoli handienaz bestelakoa da. Ezaugarri horrek, zalantzarik gabe, oinarri herrikoi zabalago baten alde egiten du, baina fenomeno bera ikusi zen hurrengo hilabeteetan neurri

guztietako beste hiri eta lurraldeetan antolatu ziren Alternatiben hamarnaka Herrixketan. Proiektuaren sorlekua edozein dela ere, prestatzeko metodoa erabakigarria da publiko mota bat edo bestea mugiarazteko.

Hala ere, denborarekin, agerian gelditu da herri-oinarri hori ez dela behin betiko lortua, eta denboraren poderioz ahuldu egin daitekeela, gutxienez bi fenomenoren eraginez.

Lehenik, joera militantea nagusitzeko joera dago, denbora joan arau politizatzen den mobilizazio-dinamika orotan. Politizazio-prozesua militanteen eraginarekin egiten delako, laster etor daiteke militantziaren kodeak erabiltzen hastea, militantziaren hiztegi partikularra, baita errealitatetik urrun diren gogoeta intelektualak ere. Alabaina, militantziaren ezaugarri horiek engaiatzeko-bideak mozteko joera dute, eta militanteak ez direnei lehen urratsak ematea oztopatzen diete. Jende askok bat egin zuen Alternatibaren dinamikarekin, herri dinamika inklusiboa ikusten baitzuten, jendea beldurraraz dezaketen seinale militanteek gutxi markatua. Baina pertsona horiek berek, beren burua politizatuz gero, kode militanteak laster har ditzakete, nahiz eta, hilabete batzuk lehenago, kode horiek berek gibelaraziko zituzten! Ironia triste da: laster ahanzten dugu gauzak nola ikusten genituen oraindik militante ez ginenean. Herritar mugimendu batek politizatze eta, aldi berean, inklusiboa eta hasiberrientzat eskuragarria gelditze-ko daukan zailtasun hori kontuan hartu behar da, jendea engaiatzen laguntzeko lan berezi hori egiten segitzeko.

Bigarrenik, askotariko publikoen integrazioa delikatua da. Askotan entzuten da klase ertain altuek, gazteek eta diplomadunek dutela nagusiki klima-mugimendua osatzen: baina hori ez da beti egia. Lurralde askotan, batez ere hiri txiki eta ertainetan edo landa-eremuetan, beste soziologia batzuk badaude: kategoria herrikoiagoak, eta askotariko adin eta ingurune sozioprofesionalak. Baina metropoli handiak ikusgarriagoak dira eta klima-mugimenduaren *irudi* jakin bat agerrarazten dute, beste lurraldeek baino gehiago. Irudi hori ez da klima-mugimendu osoaren eta haren benetako aniztasunaren adierazgarri. Irudi desitxuratu da baina, funtsean, egiazko eragina ukan dezake mugimenduan, publiko batzuen mobilizazioaren edo desmobilizazioaren aldera. Klase ertain altuetatik datozen pertsonak, sarritan atsekabez, klase ertain altuez bakarrik osatutako mugimendu baten parte direla diotenean, eta hori mundu guztiaren izenean erraten dutenean, deskribapen horretan beren burua ezagutzen ez duten pertsonengan mugimendu horretan lekurik ez dutelako sentipena sor dezakete. Horrek azken horiek eraman ditzake mugimendutik urruntzera, eta biztanleriaren beste sektore batzuetatik gero eta jende gutxiago erakartzea eragin dezake. Orduan profetia bera formulatzearen eraginez betetzen den profetia negatibo bihurtzen da eta, azkenean, klase ertain altuek bakarrik osatzen duten mugimendua sortzen da. Oztopo hori are arriskutsuagoa da, klase ertain altuetako pertsonak beste

batzuek baino errazago hitz egiten dutelako, eta sare sozial digitaletan errazago agertzen direlako. Beraz, kontu handia izan behar da gentrifikazio fenomenorik garatzen ez uzteko, oinarri herrikoiak dituzten mugimenduetan, soziologia murrizagoetan uzkurto daitezkeelako. Hala ere, ez dago halabeharrik, eta neurriak har ditzakegu halako menderatze-mekanismoak eta uzkurtze soziologikoak ez errepikatzeko. Jokoan dagoena are garrantzitsuagoa da, biztanleriaren sektore diplomadunek ekarpen handia egiten ahal baitiote klima-mugimenduari. Mugimenduak trebetasun intelektualak eta sare batzuekiko harremanetarako bideak behar ditu, baina beste ingurune batzuetatik datozen pertsonak zapaldu gabe, horiek ere mugimenduak behar dituen beste trebetasun eta gogoeta mota asko ekartzen baitituzte.

Parekidetasuna bultzatzeko mekanismoetan oinarritu gaitzke, Alternatibaren oso eraginkorrak izan baitira. Hasiara batean batez ere gizonen osatutako talde txiki batek bultzatu mugimendua asko feminizatu zen gero, berehala eragin positiboak izan zituzten neurri batzuei esker. Bistan dena, hasteko, ardurak eman behar zaizkie emazteei, eta animazio edo bozeramaile lanetan ikusarazi. Kontrol mekanismoak ere ezarri ditugu mugimenduaren bilkuretan, non kontatzen baitugu gizonen eta emazteen zenbat aldiz hartzen duten hitza, bai eta zenbat denboraz mintzatzen diren ere. Horrela zenbatuz, desorekarik ba ote dagoen ikus daiteke, horretaz kontzientzia hartu eta erregulazioa bultzatu, oreka hobekitzeko. Itxaron-zerrenda labainkorren sistema ere erabiltzen dugu hitz-hartzeetarako: desorekak ikusiz gero, emazteen hitz-hartzei lehentasuna ematen zaie eta gizonen baino lehen mintza daitezke. Metodo horiei esker, problematika hori agerian ematen da, epe luzean, parekotasuna hobetzen ari denetz ikusten da, eta egin behar diren ahaleginak egokitzen dira behar bezalako egoera lortzeko. Gisa berean, arreta berezia jarri behar da eta neurri egokiak hartu behar dira askotariko eremu soziologikoetatik eta lurralde batzuetatik datozen pertsonen artean nagusitasun- eta ikusezintasun-mekanismoak egon ez dadin. Ahozkoan edo idatzizkoan hitz egiteko erraztasuna izan dezaketen norbanako diplomadunen ekarpenek ez dituzte beste profileko pertsonak ezkutatu eta inhibitu behar, batez ere eremu herrikoiagotik eta hain urbanizatuak ez dauden lurraldeetatik datozenak, horiek ikusezin bilakatzeko edo zilegi ez sentitzeko joera izan dezaketelako, nahiz eta mugimenduaren herri-dimentsiorako ezinbestekoak diren gauzak ekarri.

Horrela, Alternatibaren mobilizazio-metodoak erakusten du nola praktikaren bidezko hurbilketak eta sare sozial fisikoen inguruko lanak herriz herriko mobilizazio dinamikak dakartzaten, publiko dibertsifikatuak integratuz. Metodo horrek klima-mugimenduaren geruzak eraikitzen lagundu du, zirkulu militante eta politizatuetatik haratagoko pertsonak integratuz. Baina hori hasiera bat baizik ez da. Klima-mugimenduak eta mugimendu ekologistak, oro har, herriguneetako burges bohemioz osatuak izatearen irudia daukate, eta horrek izugarri geldiaraz-

ten du herriaren mobilizatzeko lana. Irudi hori desegin behar dugu eta, aldi berean, gure mugimenduetan klase sozial batzuei nagusitasuna ematen dieten eta klase sozial horiek ageriago jartzen dituzten mekanismo errealak erregulatu. Alternatiba bezalako dinamikek ahalbidetu duten oinarri herrikoa lehen oinarria baizik ez da. Lan handia dago lortu dugun heinean ez gelditzeko eta jatorrizko lana alde batera ez uzteko. Aitzitik, ahalegin handiak egin behar dira lan horretan jarraitzeko, oinarri herriko hori indartzeko eta zabaltzeko, eta biztanleriaren sektore guztiak askoz hobeki ordezkatzeko dituen klima-mugimendu baterantz joateko. Baldintza hori absolutuki bete behar da, askotan lema ideologiko gisa erabiltzen den “ekologia herrikoa” formula ez dadin gehiago funtsik kanpoko kontzeptu intelektual izan, baizik eta errealekin bat etorriko den zerbait, gure lurraldeen aniztasuna ordezkatzeko duen gizarte-mugimendu zabal batean benetan partekatutako mundu-ikuskeraren baten arabera.

3. ANTOLAKETAREN EZINBESTEKO ERAGINKORTASUNA

Alternatibaren Herrixken antolaketak zinez lagundu du Alternatibaren antolaketaren indarraren ospea zabaltzen, haren “marka” bihurtzeraino. Metodo horiek Biziren metodoetatik heldu dira: oso zorrotzak direlako fama dute. Mugimendu aurrerakoietan ongi garatuak diren beste joera militante batzuek bestelakoak dira, argi eta garbi. Izan ere, beste mugimendu horiek ordenaren eta diziplinaren kontzeptuak arbuaitzen dituzte, beren inklusiorako eta demokraziarako borondatearen kontrakoak omen direlako. Sentsibilitate eta kultura militanteak askotarikoak dira eta ikuspegi metodologiko anitzetan islatzen dira. Nik argi eta garbi defendatuko ditut metodo oso antolatu, zorrotz eta diziplinatuak, Bizirenak bezala, zeinak, pentsa litekeenaren kontra, ezinbestekoak baitira funtzionamendu demokratiko egokirako eta, aldi berean, inklusiorako eta elkarbizitzarako onak.

Alabaina, eraginkortasuna behar-beharrezkoa da klimaren erronkari aurre egiteko. Antolaketa metodoen eraginkortasunak finkatzen du gure borroken eraginkortasuna, bai eta masa-mugimendu herrikoa eraikitze eta, *in fine*, gure gizarteak eraldatzeko benetako gaitasuna ere.

3.1. Eraginkortasunaren beharra

“Bilkurak tenorez hasi eta tenorez bukatzen dira”: idazki hori gorritz ageri da Biziko bilkura bakoitzeko gai zerrendaren goialdean. Errazki pentsa daiteke erakunde bizi biltzen bilkurak direla gauza arruntena eta hutsalena, baina hori akats handia litzateke: bilkura giza kolektiboaren tresna nagusia eta zentrala da. Bilkurak egiteko moduak mugimenduaren alderdi asko baldintzatzen ditu: funtzionamendua, mugiarazten dituen publiko motak, plantan ematen ahal dituen estrategiak eta emaitzak lortzeko daukan eraginkortasuna.

Egitura askok, izan mugimendu militanteak, herriko kontseiluak edo enpresak, alderdi hori gutxietsi egiten dute, eta oso gutxi antolatutako bilkuren bidez funtzionatzen dute. Horrela, ohikoa izaten da berandu hasten diren bilkuretara joatea, non gai-zerrenda ez baita prest, parte-hartzaileek elkarri hitza moztuz eta elkar entzun gabe hitz egiten baitute, bilkurari lotu hitzaldiekin batera berriketak entzuten baitira, eta non batzuetan oihu egin behar baita entzuna izateko edo parte-hartzaile batzuk isil daitezen eskatzeko. Ongi prestatutako gai-zerrendarik eta animazio proaktiborik ezean, aipatu beharreko gaiak nahasten dira, neke da eztabaidak ulertzea, eta zaila da ikustea bilkura zertara doan. Horrelako bilkurak asko luzatzen dira, ez dira aipatu beharreko gai guztiak jorratzen, xehe-tasunetan edo gaitik kanpo erraz galtzen dira eta, beraz, gai inportante batzuk ahazten dira, azkenean. Orduan, maiz gertatzen da bilkura bukatzea erabakirik hartu gabe edo, bederen, erabaki argirik hartu gabe. Laster senti daiteke bilkura aterabiderik gabe itzulika dabilela eta errealitatetik kanpoko eztabaidetan galitzen dela, eta horrek, normalean, uxatzen ditu hasieran proiektu zehatzetan parte hartzera etorri ziren pertsonak.

Horrelakoak saihesteko, Bizik, sortu bezain laster, oso bilera antolatuak, prestatuak eta zorrozki kudeatuak plantan eman zituen. Puntualtasuna Biziren funtzionamendu-arau nagusietarikoa da. Ez ditu kolektiboaren metodo guztiak laburbiltzen baina, hala ere, haren filosofia orokorra agerian ematen du. Puntualtasuna, berez, talde alternatibo eta progresistetan ezadostasunak bereziki sortzen dituen funtzionamendu-araua da. Alde batetik, berez hertsia den araua da, eta zenbait pertsona uxatzen ditu, bertan ordenaren ezaugarri bat ikusten baitute, eta ez baitira harekin batere eroso sentitzen. Bestalde, puntualtasuna desiragarria dela kontuan hartuz ere, jende gehienari irrealia iruditzen zaio. Biziko militanteek beren antolaketa-metodoak azaldu zizkietenean beren lehen Alternatiben Herrixkak antolatzeko sortu ziren kolektibo berriei, ia denek erantzun zuten berek puntualtasunaren arau hori ez zutela sekula aplikatzen ahalko. Izan ere, haien artean, berandu etortzeko ohitura kulturalki errotuegia omen zen. Landesetan, gazte denboran han bizi bainintzen, jendeak “landestar ordu laurdena” aipatzen du, berandu etortzen dela justifikatzeko. Ordu laurdeneko berantaren arau inplizitu hori aplikatzen da horri buruz galdegin dudana lurralde gehienetan. Alta, berantaren ohitura sendo hori gainditurik, puntualtasunaren araua Alternatiba talde askotan hedatu da, lurralde askotan, eta jende gehienaren ohiturazkoaz bestelako metodo bat hedatzeko euskarria izan da. Puntualtasunak eta, oro har, metodo zorrotzek zertan aldatzen dituzte gauzak?

Lehenik, puntualtasuna erabakigarria da mugimenduaren eraginkortasunarako. Estrategiaren aldetik, denbora baliabide bat da, boluntarioen indarrak eta baliabide material eta ekonomikoak bezala. Hamar pertsona beste baten zain badaude, bost minutuz, bilkura bat hasi baino lehen, kolektiboak berrogeita hamar minutu galdu ditu. Alabaina, larrialdi klimatikoaren aurrean, ez dago denbora-

rik galtzeko. Bestalde, puntualtasunik gabe, bilkura duda-mudazko tarte batekin hasten da, non lehen etorritakoak beste zerbait egiten hasten baitira besteen zain dauden bitartean, giro bigun eta informal bat sortuz, eta hori ez da egokia talde lan eraginkorrerako. Alderantziz, bilkurak tenorez hasteak giro serio eta diziplinatua plantan ematen du, non mundu guztia une berean kontzentratzera eramaten baita. Taldea sinkronizatzen da eta bilkura molde argi eta garbian hasten da. Adimen kolektiboaz asko hitz egiten da mugimendu progresista eta alternatiboetan. Baina ezin da mugatu adimen kolektiboa aipatzera, horren formula maitatzera eta horren efektu magikoa itxaroter, hori benetan gauzatzeko metodorik plantan eman gabe. Lan kolektiboa ez da berez egiten, mahai baten inguruan biribilean eseriz eta, momentuko inspirazioaren arabera, batzuen eta besteen solasaldi batzuetatik besteetara jauzi eginez. Alderantziz, lanketa kolektiboak eraikuntza xehea eta metodo landuak behar ditu.

Biziren gai-zerrendak egun batzuk aitzinetik igortzen dira, taldekide bakoitzak denbora har dezan aitzinetik gogoetatzeko eta eztabaidetarako prestatzeko, baita proposamen zehatzekin etortzeko ere. Bilera bat ez da bereber aski den denbora bat: denbora luzeagoan egiten den gogoeta eta lan prozesu bat *bururatzeko* denbora bat da.

Tenorez hasi eta bukatzen den bilkura baten denbora mugatua dela eta, gai zerrendako gai bakoitzari emanen zaion denbora zehaztu behar da eta, beraz, aipatu beharreko gaien artean lehentasunezkoak zein diren erabaki. Denboraren ikuspegi pragmatiko horrek partaide guztiei arduraren ematen die; beren hitz-hartzeetan eraginkorra eta eraikitzailea izatera eta xehetasunetan denbora gehiegi ez iragatera sustatzen ditu.

Bilkuretan, bakoitzak txandak errespetatzen ditu eta bere aldi mintzatzen da, hitza eskatzeko eta banatzeko sistema bati jarraikiz. Inork ez dio beste inori hitzik mozten, eta ez da inoiz gertatzen denek batera hitz egiten duten egoerarik, ezta norbaitek hitza hartzen duenean besteak berrikerak xuxurlatzea ere. Horrek entzutea laguntzen du, denei hitza hartzeko aukera ematen die, eta bakoitzak bere mintzaldiak kontu handiz prestatzera bultzatzen du. Biziko bilkuretan, bolaluma eskuan daukagu askotan, eta kideak ohitzen dira erran nahi dutena prestatzera eta aitzinetik eraikitzera. Eskuz egiten diren keinu bidezko sistema bat, bereziki Act Up²¹ mugimenduan inspiratua, ahozko hitz-hartzeei gehitzen zaie, eta komunikazio kolektiboa azkartzen du.

Keinu horiei esker, bakoitzak adostasuna edo desadostasuna adierazten du entzuten ari den hitz-hartzeari buruz, berak hitza hartu beharrik gabe. Baina ho-

²¹ Act Up HIESaren aurkako elkarte bat da, eta haren ekintza ez-bortitzak oso nabarmenak izan dira 1990eko hamarkadan.

rri esker, talde osoak zuzenean neurtzen ahal du solas baten onespén maila, eta eztabaida kolektiboa zer heinetaraino ondua den. Bilkurak ez du izan behar soilik eztabaidarako denbora, baizik eta koordinatzeko eta erabakitzekeo denbora. Bilkuratik ateratzean, abian diren proiektuak konkretuki aurreratu direla sentitu behar da.

Biziren kasuan, haren izenak “bizitzeari” eta “mugimendu biziari” erreferentzia egiten baitie, eta maiz ekintza irrigarri, xeblete eta originalen bidez ilustratu baita, diziplinarekiko atxikimendu hori menturaz harrigarria izan daiteke. Pentsa zitekeen “nahas-mahas alaiko” giro bat dagoela Bizin. Eta mugimenduko beste gune askotan, egia da, besta giroa nabari da, informalagoa. Baina koordinazio bilkuretan eta horrelakoetan, aldiz, zorrotasuna eta diziplina behar dira, masiboki garatuko diren ekintzak eta estrategiak seriooki pentsatzeko.

Askotan entzuten da kopuruak indarra egiten duela. Baina hori partzialki baino ez da egia. Kopuru *antolatuak* egiten du indarra. Ez sakabanatutako kopuruak. Eta kopuru antolatu bat biltzeko, metodo zinez eraginkorrak behar dira. Gure aurkariek baino diru gutxiago daukagu, baliabide material gutxiago, giza baliabide gutxiago. Eta denbora gutxiago ere daukagu, militante gehienak boluntario gisa aritzen baitira, arratsetan eta asteburuetan, beren jarduera profesionalaz gain, sistema kapitalistak milioika pertsona lanaldi osoan enplegatzen dituelarik. Beraz, indarra ematen diguna gure antolaketa baino ezin da izan.

Sistema kapitalistari aurre egiteko, ongi ulertu behar da nondik datorren haren indarra. Kapitalismoaren sistema menderatzailea da eta haren legeek gobernatutako mundu batean bizi gara kapitalismoa bera eraginkorra delako. Zehazkiago, kapitalismoa beste sistema batzuk baino eraginkorragoa delako. Beraz, “kapitalismotik ateratzeko” ez da nahikoa “kapitalismoa apurtu” oihukatzea. Kapitalismoa gainditurik, zaharkiturik eta eraginik gabe utziko duen beste eredu bat agerrarazi behar da. Horretarako, ezinbestekoa da kapitalistak baino hobeki antolatuak eta haiek baino eraginkorragoak izatea.

3.2. *Inklusibitatea eta demokrazia: itxuren gainetik*

Eraginkortasuna ezinbestekoa izanik ere, kontua ez da, ordea, elkarbizitza eta demokrazia sakrifikatzea eta iparrorratz gisa eraginkortasuna bakarrik izatea. Pentsa daitekeenaren kontra, diziplina mugimendu baten inklusibitatearen eta demokraziaren aldekoa da. Puntualtasuna arau baliotsua da, bai eraginkortasunaren alde, bai inklusibotasunaren alde: tenorez bukatzen diren bilkurei esker, familiako edo laneko betebeharrak dituzten pertsonak parte hartzeko antolatzen ahal dira. Bilkura bat gehiegi luzatzen denean, bere haurrak tenore bat arte atxikiarazi dituen pertsona batek joan behar du, gauean lanean ari den beste batek ere, etab. Kontuan hartu gabe bilkura luzeegiek aspertzen dituzten pertsonak, eta

bukatu aitzin alde egiten dutenak. Orduan, taldearen zati batek bakarrik hartzen ditu erabakiak, eta hori baztertzaila da, ez demokratikoa. Puntualtasuna, beraz, inklusiboa da, jendea antola daitekeelako bilkuretan hasieratik bukaeraraino egoteko, erabakietan eta, beraz, mugimenduaren demokrazian parte hartzeko.

Mugimendu aurrerakoietan badago halako lilura bat demokraziaren irudi fantasmatu bati buruz, “horizontaltasunari” buruz, baina lilura hori metodo eraginkorrek garatzeko oztopo larria da. Askotan horrela gertatzen da funtzionamendu inklusiboa eta parte-hartzezkoa berezko helburu bihurtzeko borondatea dagoenean, bitarteko izan ordez. Baina demokrazia ez da parte-hartzearekin nahasi behar, uste izanez zenbat eta jende gehiagok parte hartu eztabaidan, orduan eta demokratikoagoa izanen dela.

Izan ere, demokrazia da, batez ere, erabaki komunak hartzeko eta erabaki horiek kolektiboki aplikatzeko gaitasuna. Parte-hartzaile anitz biltzen dituen eztabaida batek erraz ematen du eremu inklusibo eta demokratikoaren irudi bat. Baina eztabaida horrek, interesgarria eta aberasgarria izan arren, ez badu ez erabakirik, ez ekintza zehatzik ekartzen, ez da egiazki ariketa demokratikoa. Horrelako eztabaidak, jakina, beste funtzio garrantzitsu batzuk izan ditzakete mugimendu baten bizitzan, baina ez dira nahasi behar erabaki kolektiboak hartzera, ekintzak antolatzen eta estrategiak burutzera eraman behar gaituen ariketa demokratikoarekin.

Behin eta berriz errepikatzen den beste gaizki-ulertzea da funtzionamendu demokratikoa eta ahalik eta funtzionamendurik informalea nahastea, funtzionamendu demokratikoa edozein markotatik aske izan behar litzatekeelakoan. Pertsona batzuek, beren ingurune profesionaleko, familiako edo, oro har, gizarteko marko desegokietatik eta, batzuetan, zapaltzaileetatik ihesi, araurik gabeko espazioak bilatzen dituzte herritarren mugimenduetan. Arau- eta marko-eskasia demokraziaren lagun faltsu gisa ageri da orduan. Nahasmen horrek demokraziaren ikuskera okerra sortzen du, hots, diziplinaren aurkako ikuskera. Baina sistema demokratikoak dira, hain zuzen ere, marko eta metodo gehien behar dutenak. Alderantziz, erabakiak pertsona gutxi batzuek hartzen dituzten sistema hierarkikoak dira antolaketa metodo perfektionaturik gabe hobekien ibiltzen direnak. Sistema hierarkiko horiek, hain zuzen ere, sinpleagoak dira, parte-hartzaileen obedientzian oinarritzen baitira eta jendeak buruzagi talde txiki baten erabakiei men egiten baitie. Funtzionamendu demokratiko batean, aldiz, eraginkortasunak lotura zuzena du parte-hartzaile guztiek daukaten metodologiaren menderatzeko mailarekin. Zenbat eta demokratikoagoa izan funtzionamendua, hainbat eta gehiago eskatzen du metodologiaren kontrolaren maila handia eta, ondorioz, zorrotzasun eta diziplina maila handia.

3.3. Indar positiboa

Beldur izan gaitzke, berdin, halako metodo ordenatuek ez ote duten klima latz eta zurrun bat ezarriko, jendea uxatuz, baina Biziren esperientziak, alderantziz, erakusten du diziplina inklusiboak marko bat ezartzen duela, eta bakoitzari entzuna izatea, parte hartzea eta kolektiboan leku bat aurkitzea segurtatzen diola. Biziren dinamika etengabe handitu da urteak joan arau, gaur egun 700 kide izatera iritsiz: militante aktiboak 100 eta 200 artean dira orain, eta bi astetik behin 20 eta 40 pertsona artean biltzen dituzten koordinazio-bilkura erregularrak egiten dira. Tamaina oso handia da, hiri ertainez eta landa eremuz osatu 300.000 biztanleko lurralde “txiki” bateko elkarte baten kasuan. Metodo horiek antzeko emaitzak eman dituzte beste eskualde askotan, Alternatiba eta ANV-COP21 taldeen garapenak erakutsi duen bezala. Erakargarritasun hori, bereziki, giro langile baina aldi berean atsegin eta bero baten alde egiten duten metodo horietatik dator, errespetuzko harreman eraikitzailez eta onberaz markatuak eta irriz josiak baitira. Gainera, tenorez bukatuz, bilkura puntualak arratsa tabernan jarraitzeko aukera ematen du, beranduegi izan baino lehen. Garai informalago hori, orduan, eztabaida libreagoak izateko, lasaitzeko eta dibertitzeko aukera da. Bilkura biziki antolatuek funtzionatzen dute, bestalde, lagunen arteko momentu eta besta erregularrak daudelako inguruan, osagarri gisa, horiek ere funtsezkoak baitira mugimendua behar bezala garatzeko. Mugimenduaren bizitza bat egon behar da bilkuren inguruan: taldearen kohesioa nabarmen laguntzen du. Ezinbestekoa da kultura komun bat eta izpiritu kolektiboa garatzeko.

Alde horretatik, Euskal Herriko oinarri militantea erabakigarria izan da Biziren metodoan. “Besta bai, borroka ere bai” leloak militantzia eta besta sakonki elkartzen dituen kultura laburbiltzen du. Kontua da, alde batetik, ez militatzea besta izpiriturik gabe eta, bestetik, besta herrikoirik ez antolatzea militanteen presentziarik gabe. Urtero astebetetz milioi bat pertsona inguru biltzen dituzten Baionako bestak hiriko karrika guztietan milaka kartel militante ikusteko parada dira, adibidez. Banderolak ezartzen dira, pegatinak banatzen eta leku guztietan itsasten. Urte osoan zehar besta eta ekitaldi herrikoietan ikus daitekeen erakustaldi militantearen kultura horri esker, borroka politikoak borroka herrikoia izan daitezke, herritarren interesuneetatik bereizi eta moztutakoak izan ordez.

Galdera maiz entzuten da: militantzia bestazalea, alaia, positiboa... ez ote da kontraesana, nahasmendu klimatikoaren aurkako borrokan? Klimaren aldeko borroka, bere larritasun handiagatik, ez ote du jarrera larria inposatzen? Aitzitik, Biziren eta Alternatibaren dinamika militanteak funtzionatzen du larritasuna eta alaitasuna nahasiz eta talka bikoitz bat sortuz: nahasmendu klimatikoaren larritasuna modu zuzen eta gordinean aurkezten dute, baina aldi berean engaiamendu kementsu, bizi eta alaia gorpuzten, esperantza sorraraziz eta gure ekintza kolektiborako gaitasunean konfiantza emanez. Jendea harritu

behar da nahasmendu klimatikoaren larritasunaren aitzinean, horretaz benetan jabetzeko, baina, era berean, gogo bizia eta itxaropen indartsua sentitu behar du kontzientzia-hartze hori ekintza bihur dadin. Ikuspegi positibo hori ez da inozokeria. Erresistentzia mota bat da. Ez dugu mundu ederragoa eta zoriontsuagoa eraikiko triste egonez. Ezkertasuna sobera presente da mugimendu militante aurrerakoietan. Horrek zulo beltz moduko bat osatzen du herritarren galaxian, eta itxaropenaren indarrak desagerrarazten ditu. Alabaina, itxaropena funtsezkoa da gure borrokan. Ez da erraza zoriontsu eta alai izatea desorekei, bidegabeke-riei, eguneroko sufrimenduei eta arrisku klimatikoari buruz etengabe informa-tzen garenean, IPCCren azken txostenak irakurriz. Baina, hain zuzen ere, poza, konfiantza eta itxaropena dira horrelako egoera batetik ateratzeko erremedioak. Militantzia tristeak ezin du ezer egin mundu triste baten aurka, tristurari tristu-ra gehitzeaz aparte. Eta okerra da azken hori halabeharria dela pentsatzea: jende gehiena prest dago irribarretsu eta alai egoteko, eta hala bihurtzen da militan-tziarako bide alai eta irribarretsu bat ireki orduko. Engaiatzeko modu positibo bat proposatzen denean, jende asko engaiatzen da modu positiboan. Orduan, positibotasunak, umore onak eta bizitzeko pozak elkar sustatzen dute. Ekimen positiboak eta sutsuak behar dira gure inguruan antzeko sentimenduak pizteko eta indar kolektiboa hazteko. Hori bat dator Raymond Williamsen esapide horren izpirituarekin: “benetan erradikala izatea itxaropena posible bihurtzea da, etsipena sinesgarri bihurtu ordez”.

Diziplina eta zorrozatasuna korrante kontserbadoreei edo kapitalistei soilik dagozkien balioak izanen lirakekeela dioen ikuspegia hautsi behar da: hain zu-zen ere, diziplina eta zorrozatasuna gure arerioei utziz, gu baino indartsuagoak izaten uzten ditugu. Horregatik dira munduan, kulturaren, mundu-ikuskeran eta ekonomian nagusi. Aitzitik, diziplina inklusiboaren printzipioak onartu behar dira gure borroka aurrerakoietan, militantzian ere eraginkortasunaren kultura garatzeko. Gandhik duela mende bat idatzi zuen desobedientzia zibilaz eta ko-operaziorik eza masiboki erabiltzeaz: “Errealistak izan behar dugu. Desobedien-tzia zibila ezinezkoa da jendetzak diziplina handiko armada gisa jokatzeko ez duen bitartean²²”. Are desiragarriagoa da metodo horiek gure eraginkortasuna-ren baldintza direlako, baina baita funtzionamendu demokratiko arrakastatsuen eta indar positiboko kultura militante inklusibo, loragarri, lagunkoi eta anima-tuen baldintza ere, gorago aipatu dudana bezala. Antolaketa-metodo sendoak behar ditugu mugimendu progresistan, ez bakarrik sistema kapitalistari aurre egiteko, baizik eta eskuin muturreko mugimenduak gero eta modu sendoagoan egituratzen eta modu arriskutsuan indartzen ari direlako. Formazio-esparruak biderkatuz, tabernak eta hitzorduak sortuz, jarduteko moduak dibertsifikatuz,

²² Gandhik esaldi hau idatzi zuen 1921eko agorrilaren 25eko Young India egunkarian, eta horren pasarte bat Gandhi, *Résistance non violente*, Buchet Chastel, 1986 (ingelesezko lehen edizioa, 1951n) lanean kopiatu zen.

komunikazio-tresna gero eta landuagoak garatuz, eskuin muturreko mugimenduek gero eta eremu handiagoa irabazten dute gudu kulturalan, eta gero eta indar militante antolatuagoak garatzen dituzte. Beraz, aurre egin beharko diegu, eta eremua berreskuratu, aldi berean bi frontetan: kapitalismoaren eta eskuin muturraren aurka, bi proiektu politiko horiek, bakoitza bere gisara, gizarte demokratiko, ez-bortitz, tolerante, solidario eta kooperatiboaren aurka doazelako.

3.

BESTE MUNDU BAT POSIBLE DA

Globalizazio kapitalistaren kontakizun nagusia krisian dagoen garai honetan, munduaren hiru ikuspegi daude aurrez aurre: kapitalismo berdea –bere irudia berriaz asmatu nahi duena–, eskuin muturra, eta ekologia erradikala. Dauden alternatiba ekologiko eta solidarioek egungo gizartea baino askoz ere desiragarriagoa den gizarte bat irudikatzen du bidea ematen dute. Teknikoki posible baina politikoki lortzen zaila den beste mundu hori etor dadin, oroz gainetik, horretan sinetsi behar da, ezkortasuna deseginez eta beren gaitasuna erakutsi duten aldaketa-mekanismotan oinarrituz.

1. KONTAKIZUNAREN GUDUA

Zentzuari buruzko krisian den gizarte globalizatu honetan, kontakizun berriak egituratzen eta kontrajartzen dira etorkizuneko mundua sortzeko erabakigarria izanen den gudu kulturalen. Emmanuel Macron lehendakariaren potretak (argazkiak) udaletxeetatik kendu zituzten ANV-COP21eko aktibistek erakutsi zuten irudiaren gudu funtsezkoa dela gudu kultural horretan.

1.1. *Macron ken dezagun!*

2019ko otsailaren 21ean, ostegunarekin, ANV-COP21eko militanteak Lyongo, Parisko, Biarritzeko eta Ustaritzeko lau udaletxetan sartu ziren, aldi berean. Macron lehendakariaren potret ofiziala paretatik kendu eta eramane zuten. Operazioak minutu batzuk baino ez zuen iraun: ekintza aldarrikatzeko argazki bat ateratzeko denbora, potreta agerian zutela, “Klima, justizia soziala: non dago Macron?” mezua erakusten zuen pankarta baten ondoan.

Orduan, Txaleko Horien mugimenduaren eta klimaren aldeko martxen erdian geunden eta mugimendu horiek trantsizio ekologikoaren eta justizia sozialaren gaia eztabaida publikoan agerian ematen zuten. “Potret kentzaileen” ekintza ez zen kasualitatez otsailaren 21ean gertatu. “Mendeko Auziak”, GKE batzuek²³ Estatuaren “ekintza klimatikorik eza” salatzeko jarritako helegite judizial batek Frantziako Estatuaren gobernua erreakzionatzera behartu zuen. Baina gobernuak

²³ *Fondation pour la Nature et l'Homme, Greenpeace, Notre Affaire À Tous, Oxfam* erakundeak.

iragarri zuen bere politika klimatikoa ez zuela aldatuko, eredugarritzat jotzen baitzuen, nahiz eta Frantziako Estatuak COP21ean hartutako engaiamenduak ere ez zituen betetzen. Klimaren inguruan mobilizatzen eman genituen hilabeteen ondotik, gobernuaren erantzun hori onartezina zen. Horri erantzun zion potretan kentzaileen ekintzak: *“Macronek COP21en helburuak ez ditu betetzen? Macron kenduko dugu!”* Udaletxeetako potretak kentzean, ekintza horiek pareta huts uzten zuten, Macronen politika klimatiko eta sozialaren hutsa irudikatuz.

Agintarien erreakzioak berehalakoak izan ziren: lau ministrok²⁴ ekintza gogor gaitzetsi zuten. Ekintzak Emmanuel Macronen Gobernuako ministroen haserrea eragin zuen, “onartezin”, “ezin onetsizko” eta “Errepublikaren ikurren kontrako eraso” bezala kalifikatu zuten eta Jean-Michel Aphantie kazetaria Macronen potreta buruz behera ezartzea “hilketarako deiekin” konparatzeraino joan zen.

Egia errateko, lehendakariaren potreta ez da Estatuaren sinboloa eta, ekintzaren kariatara, askok deskubritu zuten ez dagoela legezko betebeharririk udaletxeetan potreta horiek erakusteko, nahiz eta horretara ohituta gauden.

Bestalde, lehendakariaren potret ofiziala salgai dago Eliseoko dendan, 8,70 euroko prezioan. Potreta kentzeko ekintzak, a priori, oso kalte txikia eragiten du: kostu materiala hutsaren parekoa da, eta udaletxe batean potret ofizialik ez egoteak ez du inola ere eragozten Errepublikako erakundeen funtzionamendua. Beraz, ez dago eragin konkretu esanguratsurik Emmanuel Macronen estatu edo gobernuarentzat. Eta, hala ere, errepresio oso bizia hasi zen, berehala: sare sozialetan identifikatutako ekintzaileak atxilotzea eta komisarietan atxikitzea, potretak beren eskuekin atera zituzten pertsonen nortasuna aktiboki bilatzea, atxilotutako militanteen DNA kasik sistematikoki biltzea, etxeak eta elkarteak miatzea (potretak aurkitu nahiz), xantaiak, presioak eta auzipetzeak biderkatu ziren. ANV-COP21eko emazte ekintzaile bat goizeko seietan atxilotu zuten metrailetaz armaturiko jendarmeez, eta komisariara eramane zuten, bere seme-alaba adingabeak etxean bakarrik utzirik. Beste bat lantokian atxilotu zuten, lankideen aitzinean. Beste batzuek ustezko zerbitzu administratiboen telefono-deiak jaso zituzten, non, azkenean, gero eta galdera susmagarriagoak egiten baitzizkieten, inteligentzia zerbitzuen operazioak zirela pentsatzera bultzatuz. Jendarmeriaren Inteligentzia Kriminaleko Zerbitzu Nagusia mobilizatu zen, eta Jendarmeria Nazionaleko Zuzendaritza Nagusiaren zuzentarau bat zabaldu zen, jendarmeei kexak jasotzea eskatuz, “lapurreta larriagotuagatik prozedura judizial bat sistematikoki irekitzen zela ziurtatzeko”, eta “Terrorismoaren Aurkako Bulegoarekin harremanetan jartzeko, elkartearen erantzukizun morala bilatzeko moduak zehazteko”. Zuzentarau hori, zehazki, jendarmeez auzapezei egindako bisitetan

²⁴ François de Rugy, Ekologia ministroa, Bruno Le Maire, Ekonomia ministroa, Franck Riester, Kultura ministroa eta Sébastien Lecornu, Lurralde Elkargoen ministroa.

islatu zen, salaketa jartzera “gonbidatzeko”, hainbestera non auzapez batzuek uste izan baitzuten horretara behartuak zirela. Lehen epaiketa Bourg-en-Bres-sen izan zen, maiatzaren 28an, hots, ekintzen kanpaina hasi eta hiru hilabetera.

Errepresio horrek zinez neurritz kanpokoa dirudi, euro gutxiren kostua duen kartel soil baten “lapurreta” dela eta. Baina, orduan, zergatik errepresio indar-tsu hori? Zein da ekintza horrek halako erreakzioa eragiteko hunki zuen puntu minbera? *Irudia*, bistan dena. Eta ez edozein irudi: lehendakariaren irudi ekolo-gista. Hori zen helburua, jakina. 2017an lehen agintaldia hasi zuenetik, Emma-nuel Macron bere irudi ekologista eraikitzen aritu da, oso modu trebean. Donald Trumpek iragarri zuenean Estatu Batuak Parisko Akordiotik aterako zituela, Macron haren aurka agertu zen komunikabideetan eta nazioartean “*Make our planet great again*” leloa erabiliz. Orduz geroz aukera guztiak baliatzen ditu bere burua klimaren munduko lider gisa aurkezteko. Beraz, potretak kentzeko ekint-zek irudi engainagarri hori irauli eta desegin nahi zuten.

Potretak kendu zituzten ekintzaileen kontrako errepresioak bi gauza erakus-ten ditu. Lehenik, errepresio politikoa da: ekintzaren pisu politikoa da erreprim-itzen dena, eta ez lapurreta delitua, horrek kostu material anekdotikoa baitu eta, bereziki, inor ez baitu kaltetzen (ez da zehazki jabetza pribatu bat). Bistan da, norbaitek beste kartel bat lapurtuko balu udaletxe batean, horrek ez luke ino-la ere errepresio mota hori ekarriko. Lehendakariaren potretaren sinboloa da, beraz, ekintza horri irispede politikoa ematen diona. Beraz, erreprimitzen zena ekintzaren mezua zen, haren zentzu politikoa.

Bigarrenik, horrek agerian eman zuen Emmanuel Macronen ekologia dis-kurtsoari bakarrik dagokiola. Hori da gobernuak babesteko duen gauzarik ba-liotsuena, hori baita, ekologiar dagokionez, daukan gauza bakarra. Komunikazio alorreko gudu bat? Lekukotasun ekintza ahul soil bat? Ez, zeren irudiak garrantzi handia baitu: lehendakariaren hitzaldi ederren atzean, bere politikan ekintza kli-matikorik ez izatea oso serio hartzen dugun arazoa da. Lehenik, onartezina da munduko bosgarren potentziaren lehendakariak gizateriaren erronka garran-tzitsuenari aurre ez egitea, Frantziako Estatua bezalako herrialde batek dituen baliabide eta aukera guztiak ikusirik. Horrelako erantzukizun politikoak dituzu-nean erronka horri hain gutxi aurre egitea jarrera kriminala da. Baina Emmanuel Macronek ekintzarik eza baino okerragoa egiten du: ezer ez egiteaz gain, *zerbai-tetan ari dela sinetsarazi nahi du*. Hori eginez, arazoaren zailtasuna bikoiztu egi-ten du, herritarrek anesthesiatuz. Horrela, are gehiago zailtzen du herritarren mo-bilizazioa, hain zuzen ere gizartearen mobilizazio orokor bat behar dugun unean. Etxea erretzen ari den bitartean, bizilagunei sinetsarazten die sua itzaltzen ari dela, olio botatzen duen bitartean. Bi edo hiru aldiz da kriminala.

Potretak kendu zituzten ekintzaileen kontrako errepresioak, hala ere, ez zuen ukan espero zen eragina, alderantziz baizik: nahiz eta mehatxuak berehala gau-

zatu, potretak kentzeko ekintzak ugaltu egin ziren. Beste dozenaka ekintza burutu ziren, Biarritzeko G7rako iragarri “potreten martxa” bat prestatzeko, Emmanuel Macronek G7a baliatu nahi zuelakoan bere burua “Lurraren txapeldun” gisa agertzeko. Orotara, ekintzaileek 150 potret baino gehiago kendu zituzten, poliziak 86 miaketa egin zituen, 242 pertsona galdekatu, 128 pertsona komisariara eramane, eta 84 ekintzaile epaituak izan ziren, 50 bat epaiketatan. Epaiketa horietarik bakoitza mintzaleku mediatiko bihurtu genuen, zientzialariak eta beste pertsona ospetsu batzuk bertan lekukotasuna ematera gonbidatu. Epaiketa batzuetan, epaileek ANV-COP21eko militanteak kargugabetu zituzten, ordura arte sekula erabili gabeko adierazpen askatasunari buruzko motibazioak onartuz, eta epaile batek desobedientzia zibilaren beharra aipatu zuen, larrialdi klimatikoa dela eta. Lehen aldia zen ekintza bat horrela justifikatzen zela²⁵.

Gudu juridiko hori, batez ere, irudiari buruzko borroka izan zen Emmanuel Macronen gobernuaren eta potret-kentzaileen artean. Oro har, klimaren aldeko martxak, Mendeko Auzia, gazteen mobilizazioak eta bortizkeriarik gabeko beste ekintza asko antolatzen dituztenek bai eta gobernuaren politikak deszifratzeko lana egiten dutenek, hots, lehendakariaren gezurrezko diskurtso ekologistak indargabetzeko aktiboki lan egiten duen klima-mugimendu osoak eramane zuen borroka.

Eremu sinbolikoan burutzen diren ekintza horiek guduaren puntu erabakigarri bati ekiten diote: *greenwashing* delakoari, erran nahi baita itxura hutsezko diskurtsoari. Izan ere, gaur egun klima suntsitzen ari diren multinazionalak eta gobernu kapitalistek orokortua duten *greenwashing*-a berniza da, eta horri esker nahasmendu klimatikoa eragiten duen sistema ekonomikoak bere logika hiltzailea segitzen du eta bere burua zalantzan jartzetik babesten.

1.2. “Kapitalismo berdearen” irtenbide faltsuak

Aldaketa klimatikoa eragin duen sistema ekonomiko garaikide, kapitalista, es-traktibista, produktibista eta kontsumistak, gaur egun arazo klimatikoa larriagotzen jarraitzen duenak, aldaketaren kontakizun bat proposatzen du. Konponbideak proposatu nahi omen ditu arazoa sortzen duten oinarriak aldatu gabe: hazkundearen dogma, irtenbide teknikoaren ameskeria, neoliberalismoa... Horrela, karbonoaren merkatuek isuriak erregulatu nahi omen dituzte, teknologia berriak, hala nola energia berriztagarriak garatu nahi dituzte, gehiegizko kontsumoaren, hazkundearen eta lehiakortasunaren logikan segituz, eta karbono isuriak bildu nahi omen dituzte karbonoa atzemateko teknologia hipotetiko batzuei esker. Laborantza industrialak genetikoki eraldatutako landareak garatzen ditu,

²⁵ “Macron ken dezagun” kanpainako informazioa www.decrochons-macron.fr webgunean eskura daiteke.

pobretu eta ez emankor bilakatu diren lurretara, lehorteetara, eta orain pestizidei ihardukitzen dieten “belar txarren” eta intsektu “kaltegarrien” kontra egokituak direlakoan. Bizkitartean, laborantza industrialak berak ditu arazo horiek sortu. Energia nuklearra karbono gutxi sortzen duen energia saihestezin gisa gorai-patzen da, dakarren arriskua osoki ukatuz. Are gehiago, fusio nuklearra etorkizuneko energia mirakulutsu, seguru, ia mugagabe eta merke gisa saltzen da, gure arazo energetikoak konponduko lituzkeelakoan. Teknologia hori, ordea, ez dago inondik inora pikoan, eta erabat epez kanpokoa da, erronka klimatikoaren ur-gentzia ikusirik. Muturreko proposamenen artean geoingeniaritza dago. Horrek, adibidez, atmosferan partikula batzuk masiboki hedatzea proposatzen du, eguzki izpiak islatzeko moduak aldatzeko. Proiektu transhumanistak, berriz, giza izaera bera aldatu eta gainditu nahi du, bioteknologiaren, nanoteknologiaren, informatikaren eta zientzia kognitiboen teknika konbinatuen bidez.

Gisa horretan, alaiki bizi gintezke mundu hondatu, erre eta intoxikatu batean, erradioaktibitatea jasateko, ur kutsatua edateko edo muturreko beroei aurre egiteko gaitasun biologikoa garaturik... hilezkorrak izateaz gain, horrela, Prometeoren konplexuaren gailurrera iritsiz. “Hazkunde berdearen” aldeko pertsona guztiak ez doaz horraino, baina bada logika komun bat irtenbide teknikoen ameskeriaren aldaera guzti horietan: gure ingurunea aldatzen jarraitzea, lasterketa eroan, ingurunea gure bizimodu artifizialeara eta lurrez kanpokora egokitzeko, gure bizimodua planetaren mugetara eta oreka ekologikoetara egokitu beharrean eta beste bizimoduekin leku harmoniatsua berreskuratzeko helburua izan ordez.

Hazkuntza berdearen kontakizunak abantaila nabarmena du gaur egungo gudu kulturalean: jendeari hitzematzen dio ez ditugula gure ohiturak aldatu behar eta gure egungo bizimoduaren estandarrak eta erosotasuna atxikiko ditugula. Ikuspegi horren arabera, iraultza energetiko bat egin behar da bai, baina energia fosilen ordez nuklearra eta berriztagarriak erabiliko lirateke, eta ez litzateke ezer aldatuko gure energia kontsumitzeko moduan: etengailuak sakatzen jarraituko genuke, gogoetarik egin gabe. Garraio mailan iraultza bat egin beharra dago bai, baina auto termiko guztien ordez auto elektrikoak jarriko lirateke, eta ez litzateke ezer aldatuko gure joan-jinak egiteko moduan. Hegazkinaren erabilera zalantzan jarri behar da bai, baina kontua litzateke “hegazkin berdea” sortzea, hidrogenoz edo frijitzeko olioaren hegan egingo lukeena, gure ohituretan ez dadin ezer aldatu, denbora guztian, leku guztietan eta ahalik eta azkarren mugitzeko. Etab.

Kontakizun horrek badu abantaila demagogiko bat: jendeari hitzematzen dio ez dugula gure bizimodua aldatu behar, dena tekniken ordezkapenean oinarrituko baita, eta ez sistemaren eta gure bizimodu kolektiboaren oinarrien aldatetan.

Hazkunde berdearen ikuspegiarekin proposatu ustezko konponbide horiek, egiazki, gezurrezkoak dira, hiru arrazoi nagusirengatik.

Lehenik, osoki dudazkoak dira: berehala ekin behar da klima-aldaketa murrizteko, eta ez da egon behar balizko aurrerapen teknikoen zain, adibidez karbono biltzeko teknikak edo fusio nuklearra itxoitzen.

Bigarrenik, teknologia horiek potentzialki arriskutsuak dira: jada ez da frogatzekoa nuklearra arriskutsua dela, Txernobyngo eta Fukushima hondamendien ondotik. Baina beldurgarriak dira, halaber, geoingeniaritza tekniken bidez atmosfera eraldatzeko esperimenteren ondorio potentzialki suntsigarriak, edo landare eta animalien genoma eraldatzeak ekosistemetan eta edozein bizidunetan duten eragina. Nahasmendu klimatikoa ez da zerutik heldu: ez da fenomeno naturala, sistema ekonomiko berezi batek eragindako hondamendi industrialak baizik. Beraz, sistema hori aldatu behar da eta, batez ere, ez da lasterketa eroan sartu behar. Albert Einsteinek zioen bezala, “ez da arazo bat konpontzen sortu duten pentsamoldeen bidez”.

Hirugarrenik, promesa neoliberal eta teknozientifiko horiek ziurrak eta seguruak balira ere, nolahi ere, ez lituzkete ekarriko alternatibek sor ditzaketen beste onurak, eta mundu gaixo eta zorigaiztoko honetan harrapatu izango gintuzkete: auto-ilarak beti, baina auto elektrikoetan, auto termikoetan izan ordez; transgenikoz ekoiztutako janari-zaborra, laborantza industrial “konbentzionalak” ekoizti janari-zaborraren ordez; eta mundua publizitatez eta gehiegizko kontsumoz itorik segituko luke, mundu finitu batean hazkunde infinitu baten bilaketa absurduarekin, lehia, dominazioa, bidegabekeria, naturarekiko eta bi-ziarekiko deskonexioa nagusiturik...

Zein zinikoa litzatekeen, hainbat hamarkadatan ekologiaren gaia lehen mailan jartzeko borrokan aritu ondoren, kapitalistek lortuko balute beren ikuspegi engainagarria sinesgarritzat eta desiragarritzat saltzea! Horrek aukera guztiak kenduko lizkiguke hondamendi ekologiko eta humanitario okerrenak eragozteko.

1.3. Mundua ikusteko moduen arteko gatazka

Gaur egun, egoera arras bestelakoan gaude, aurreko hamarkadetan ekologistek zeukatenaren aldean. Hirurogeita hamarreko hamarkadan, 2000koaren hastapena arte, gutxi gorabehera, ekologistek suntsipen ekologikoari buruzko alerta-jotzaile gisa jardun zuten. Ekologia gai marjinala zen, hitzaren bi adieretan, guti aipatzen baitzen eta, aldi berean, gutxietsia eta militante bitxi eta xebleen kezkatzat hartzen baitzen. Hots, militante horiek ezin ziren serioski hartu, eta gaia bera ere ez. Gorago aipatu bezala, ekintza ikusgarrien bidez noizean behin ekologiaren gaia komunikabideetan sartzea lorpen gisa ikusten zen, batzuetan balentria gisa ere bai. Hori ekologisten eginkizun nagusietako bat izan da hainbat hamarkadatan. Eta nahiz eta hori ez zen aski izan atzeraezinezko muga mailak

gaintzea ekiditeko, biziki eskertzen ahal ditugu garai hartan kontzientzia kolektiboan oso behetik abiatzen ziren ideia ekologistak aitzinarazi zituztelako: ekologismoaren gaia gaur egun hain zentrala izatea, hein handi batean, ekologistek hamarkadetan behin eta berriz burutu dituzten alerta-ekintzen emaitza da.

Gaur egun, beraz, guztiz bestelako egoeran gaude, non ekologia, oro har, eta klima, bereziki, nonahi aipatzen baita. Nahiz eta deitoragarria izan gai horiei emandako leku mediatiko oraindik eskasa (2022an Frantziako Estatuan ez zen % 5etik gorakoa), eta sortzen duen arreta oraindik urriegia, egoera guztiz berrian gaude, dudarik gabe. Pentsako artikulu batzuek ia egunero aipatzen dute arazoa. Alderdi politiko guztiek badute horretaz zerbait errateko. Jende guztiak badauki –sakonki informaturik egon edo ez– larrialdi klimatikoa eta mehatxu ekologikoak oso larriak direla. Eragile politiko eta ekonomiko guztiek klimari buruz hitz egiteak erakusten du gaur egun arazoa kasik modu adostuan onartua dela, Frantziako Estatuan bederen.

Baina arazoaren existentziari buruz adostasun zabala izanik ere, proposatutako soluzioak, aldiz, oso ezberdinak dira. Gaur egun, munduaren hiru ikuspegi nagusi daude lehian, non gai ekologikoak eta klimatikoak oso modu aldakorrean integratzen baitira: kapitalismoarena, itxuraz “hazkunde berdearen” ideien inguruan berpizten ari dena, batez ere bere oinarriak zalantzan ez jartzearen eta globalki lehen bezala jarraitzearen; eskuin muturrarena, bigarren maila batean problematika ekologiko batzuk txertatzen dituen, hala nola “lokalismoa”, bere buruari bakarrik kasu ematen dion ikuspegiarekin bateragarria baita, baina funtsezko erronka ekologikoei buruz oso atzerakoa dena; eta ekologia erradikal eta herrikoia, sistema errotik aldatu nahi duena, aldaketa hori nazioarteko justizia sozialarekin eta ingurumen alorreko justiziarekin uztartuz.

Horrek borroka ekologistaren funtsa sakonki aldatu du. Jakina, alerta jotzen jarraitu behar da, baina orain desafioa batez ere mundu-ikuskeren arteko liskar horretan dago, bakoitzak sinesgarriena eta desiragarriena bezala agertu nahi duelako.

1.4. Eskuin muturraren eta muturreko kapitalismoaren arteko estoka

Gaur egun, eskuin muturraren eta muturreko kapitalismoaren arteko ataka batean harrapatuta gaude, bi ikuspegi horietako bakoitzak arrisku handiak dakartzalarik. Kapitalismoak, munduko eredu nagusia izaten jarraitzen duenak, muturrera eramaten du planetaren bizigarritasun-baldintzak suntsitzen dituen bere logika kaltegarria, ikuspegi egoistak elikatuz, bakoitza bere buruaren alde ari dela, elkarren arteko lehian, gizartean desorekak eta bidegabekeriak sortuz. Eskuin muturra hazten da globalizazio kapitalistak sortutako sufrimenduaz elikatuz: elkarbizitzaren oinarriari erasotzen dien ideologia zabaltzen du, gutxiengoei

eta kultur desberdinei buruzko intolerantzia eta gorrotoa areagotuz. Halaber, ikuspegi berekoi eta diskriminatzailea elikatzen du, oinarri identitario, erlijioso eta etnikoan bermatuz, arrisku klimatiko eta ekologikoaren aitzinean ezer sinesgarririk proposatu gabe. Muturreko bi ikuspegi horiek berekoikerian oinarritzen dira, kolektiboan baino gehiago, lehian lankidetzan baino gehiago, diskriminazio sozial edo identitarioetan tolerantzian eta elkarlaguntzan baino gehiago.

Kapitalismoa paradigma nagusi gisa mantentzen da bere mutazio-gaitasun oso onei esker: ironikoa eta nahiko mingotsa da familia ekologistarentzat, zeinak erresilientziaren kontzeptuari garrantzi handia ematen baitio, baina kapitalismoa oso sistema erresilientea da, eta mutetzen da sortzen dituen hondamendietara egokituz (2008ko finantza-krisia, 2020ko pandemia, etab.), eta horrela beti eredu nagusi gisa mantentzea lortzen du.

Eskuin muturra, berriz, modu arriskutsuan indartzen ari da munduko leku askotan, baita Frantziako Estatuan ere, non 2022an lehendakaritzarako hauteskundeen bigarren itzulira iritsi baita, hirugarren aldiz bost hauteskundeetan, modu egonkorrean agertuz bigarren indar politiko gisa, ultraliberalen atzetik. Boterearen atarian hirugarren aldiko porrot eginik ere, eskuin muturrak garaipe garrantzitsuak lortzen ditu, zalantzarik gabe, gudu kulturalari dagokionez: eztabaida publikoa bere gaien inguruan egituratzea lortzen du eta bere ideiak gero eta gehiago normalizatzen eta jendarteratzen ditu.

Horrela, ekologiari eta klimari buruz hitz egitea zaila zen garai batetik, eragile gehienek horretaz hitz egiten duten aldi batera pasatu gara. Zoritxarrez, gaizki aipatzen dute, eta horrek nahasmena sortzen du. Hots, informazio eskasetik desinformaziora pasatu gara. Ekologia gai nagusi bilakatu den honetan, orain, bi desafio daude jokoan. Lehenik, nahasmena saihestu behar da, kontrako norabideetan doazen ekologiaren ikuspegiak bereiziz. Eta batez ere, beharrezkoa da ekologia erradikal eta herrikoia ikusmoldearen sinesgarritasuna eta desiragarritasuna begien bistakoak izan daitezen eta horrek gehiengoaren atxikimendua lor dezan.

Zein da, orduan, ekologia erradikal eta herrikoia ikusmoldearen arabera eraiki genezakeen mundu hori?

2. ALTERNATIBAK: BESTE MUNDU BAT POSIBLE DA!

“Beste mundu bat posible da!” Mugimendu altermundialistaren lelo hori, 2000ko hamarkadaren hasieratik, mugimendu aurrerakoien ekosistema osoan errotzen ari da. Liburuxken, liburuen eta film dokumentalen bidez, baita etorkizuneko gizartea aurretik erakusten duten Alternatiben Herrikkak bezalako mobilizazioei

esker, gizarte alternatibo bat pixkanaka marrazten ari da imaginario kolektiboan. Hona hemen proposamen zehatzago bat, ikusteko gizarte honek zer itxura izanen lukeen oraingo alternatibak norma bilakatuko balira, garraioen, lurralde antolaketaren, nekazaritzaren, kontsumoaren, turismoaren eta bidaien alorretan.

2.1. Hipermugikortasunetik ateratzea

Gaur egungo garraioen antolaketak eta mugikortasunaz dugun ikusmoldeak joan-jinak manera indibidualistan antolatzea eragiten dute, eta horrek presa, estresa eta hipermugikortasun-giroa sortzen du, auto-ilarak, urduritasuna, oldarkortasuna eta nekea ekarriz. Eredu horrek abiaduraren gurtza mantentzen du, jendea gero eta presatuago, estresatuago eta zapalduago egotera bultzatzen du, eta gero eta azkarrago, urrunago eta maizago joateko ametsa pizten du. Alderantziz, garraio eztiak orokortzea gizarte mantsoagoa, lasaiagoa, trankilagoa eta atseginagoa garatzeko modua litzateke, non kaleak oinezkoek animatuko lituzketen, txirindulariak lasai ibiliko liratekeen pista seguruetan, eta non espaloiak irisgarriak liratekeen haur-karrozentzat, mugikortasun urriko pertsonentzat eta aulki gurpildunentzat. Goizetan eta arratsaldeetan, “oinetzko busak” ikusiko lirateke: haur lerro txiki horiek etxez etxe osatzen dira, egunez egun txandakatzen diren gurasoz inguraturik, haurrak eskolara laguntzeko, elkarrekin oinez joateko aukera emanaz, bakoitza auto indibidual batean joan ordez. Salgaiak eramateko, zama garraiorako trizikloak erabil daitezke, furgonetan ordez. Triziklo horiek elektrikaz lagundurik izan daitezke. Txorien kantuak entzun daitezke, haizearen hotsa, autoetatik askatutako aparkalekuetan eta karriketan instalatu terrazetan jarritako jendearen ahots eta algarak. Autoak, berriz, hiritik kanpoko aparkalekuetan leudeke; garraio publikoak, tranbiak eta autobusak erabil daitezke aparkaleku horietara joateko. Hirian ibilgailu gutxi batzuk ikus daitezke oraindik: zerbitzu publikoenak, suhiltzaileenak eta abar. Herriak elkarren artean lotzeko trenak leudeke, herri txikietako geltoki guztietara berriz joanen liratekeen hurbileko eta eskualdeko lineen bidez, merkantzia batzuk ibaietatik garraiatuko lirateke, molde arrazoituan.

Baserri-eremuan, banakako auto-kopurua asko murriztea zailago da, baina hor ere gauza asko alda ditzakegu, onura handiak ekarriz. Autokidetzaren normalizaziotik hasiz. Izan ere, autoek isurtzen duten karbono kantitatea zati lau egiteko, aterabide erraza da: lau pertsona autoan, bakar baten ordez! Auto elektrikoa ezin da aterabide orokorra izan auto termiko guztiak ordezkatzeko. Aterabide-multzo baten parte da eta arazo batzuei erantzuten die; adibidez, artisauentzat, anbulantzientzat, etab. Norbanakoen kasuan, oso interesgarria da autopartekatzea garatzea, autorik gabe moldatzea zailegi den eremuetan: familia multzo batek auto bera erabil dezake, elkarren artean antolatuz. Baina, batez ere, lurraldearen antolaketa da sakonki aldatu behar dena, joan-etorrien beharra murrizteko. Izan ere, bizileku, lan, zerbitzu eta aisialdi lekuetatik urruntzeak

bilakatzen ditu pertsonen joan-etorriak ezinbesteko eta etengabeko. Karbono gutxi isuriko duen gizartean, aktibitateak birkokatuak izanen dira: herriak berriz bizirik izanen dira, eskolak egongo dira, denda txikiak, merkatuak, eskulangintza eta laborantza, zerbitzu publikoak, hala nola postetxeak, haurtzaindegiak, etab. Orduan, joan-etorriak anitzez motzagoak izanen dira, eta anitzez aiseago pentsatzen ahalko da oinez, bizikletaz, bizikleta elektrikoaz, zama garraiorako bizikletaz eta abarrez ibiltzea. Zaborrak bil daitezke zaldiek eta astoek tiratutako orgak erabiliz, kamioien bidez egin beharrean. Zaldi, mando eta astoek, bestalde, bide bazterrak zaintzen ahal dituzte belarra janez, eta horrek udalen traktore garestiak ordezkatzeko ahalbidetzen du. Batzuek hori Erdi Arora itzultzea dela pentsatzen dute... baina zenbat jende ez da liluratzen astoak eta zaldiak gurutzatzean? Bereziki haurrak, pozik joanen bailirateke eskolara astoek tiratutako karroetan, autobusetan joan ordez! Abereek tiratzen dituzten karroak edo ibilgailu elektriko txikiak ogia eramateko ere erabil daitezke: ogi makila bana erosteko okindegiraino banaka joatera behartzen gaituen sistema atomizatu horren ordez, ogia herrian banatzeko bira batek joan-etorriak biziki kolektibizatzen eta murrizten ditu. Eta sistema hori orokortu daiteke beste produktu batzuk eramanez, hala nola herriko baratzezainek saltzen dituzten barazkien saskiak, egunkariak eta abar.

Jarduera ekonomikoak eta zerbitzuak birkokatuak eta elkarrengandik nabarmen hurbilduak baldin badira, baserri-eremuan bizikleta egunero erabiltzea ez da gehiago kirolari heroikoen kontu hutsa izanen, eta jende gehienarentzat posible bihurtuko da. Bistan dena, enplegua ere birkokatu behar da, hein batean telelanaren garapenari esker, “coworking” espazioen garapena susta baitezake, baina baita beste jarduera batzuen garapenari esker ere, hala nola birziklatzearen eta konpontzearen ekonomiarena, edo laborantzearena.

Hipermugikortasunaren ideologiatik ateratzeak, beraz, baserri-eremuak ere eraldatuko ditu, modu nabarmenean. Hipermugikortasunaren ereduak gure baserriak husten ditu, gazteek ez baitute bertan lanbide eta etorkizunik aurkitzen, lurralde horiek lotarako herri bilakatzen ditu, jendeak egunero bere autoa hartzen baitu hirian lan egitera joateko. Jarduerak birkokatzean, aldiz, baserri-eremuak berpizten dira: jendetsuak, dinamikoak, aktibitate ekonomiko eta kulturez aberatsak, belaunaldi anitz biltzen dituztenak... baserri-eremu biziak eta jendetsuak, sinpleki!

2.2. Laborantza herrikoari bere balioa berriz emanik

Paisaiak ezberdin ere irudikatu behar dira, beste laborantza mota batek moldaturik: etxalde txikiek eta polilaborantza ekologikoak gaina harturik eta etxalde industrialak eta monolaborantza intentsibo handia bazterturik. Pestiziden eraginpean egoteko beldurrik gabe bizi gaitzeko, ingurune osasuntsu batean, non

lurra, ibaiak eta airea pestizidaz eta ongarrri sintetikoz kutsatzeari utzi diogun. Laborantza herrikoi eta ekologikoak, laborantza industrialera desagerrarazi behar duenak, ehunka mila langile gehiago behar ditu. Hori, baldintza klimatiko gogorragoek lan fisiko horiek asko zailduko dituztelarik, batez ere biziago eta sarriago gertatzen hasiak diren berote-garaietan. Laborantza-aniztasun handiagoa ageri da, batez ere “barietate zaildu” deiturikoen erabilerari esker, zeinek klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko joera handiagoa baitute. Erronka hori aukera bihurtu behar da: ezin da eraldaketa hori pentsatu laborantza-lanaren antolaketa eta laborantzak gizartean duen lekua sakonki berrikusi gabe. Txandakatze- eta lankidetzeta-sistemek aukera eman behar diete laborariei, nekazariei, goizetik gauera zazpi egunetarik zazpitan lanik ez egiteko, atsedeen egunez gozatzeko eta oporrak hartzeko. Horrez gain, lurra lantzea behar bezala ordaindu behar da hartatik duintasunez bizi ahal izateko.

Laborantza herrikoi eta biologikoak lurraldeko biztanleen janaria ekoitzeko behar du, esportaziora edo laborantza industrialera bideratu ordez: birkokatze horri esker, zirkuitu motzak garatzen ahal dira, non jendeak bere janaria erosten duen janari denda txikietan, merkatuetan, AMAPetan²⁶, edo zuzenean etxaldeen, batzuek proposatzen baitute barazkiak eta fruituak bertan biltzea ere. Janariarekin, lurrarekin eta laborarien munduarekin harreman erabat ezberdina sortzen da. Askotan etxetik oso urrun ekoizten diren eta maila ekologiko eta sozialeko ekoizpen-baldintza ezezaguneko merkantziak erosi ordez, gure etxe ondoan ekoizten den janaria jan dezakegu, ezagutzen ditugun gure herrietako biztanleen lanaren emaitza, eta ekoizleekin hitz egin dezakegu erosketak egiten ditugunean. Orduan hobeki ezagutzen dugu erosten dugunaren eta jaten dugunaren balioa, eta elikatzen gaituzten lurra eta laborarien lana hobeki errespetatzera eramanez gara. Gaur egun, naturarekiko, ekosistemekiko, oreka ekologiko handiekiko eta beste espezie bizidunekiko dugun lotura eskasa ere gure gizartea gure ingurunea suntsitzera eramaten duten arrazoietakoa bat da. Elikadura bezalako oinarriko loturen bidez, harreman harmoniatsuagoak berreskura ditzakegu naturarekin eta lurra lantzen eta babesten duten gizon-emazteekin.

Giza tamainako baserriak sostengatuz, animaliei jasanezineko ankerkeriazko oinazeak eragiten dizkien eta berotegi efektuko gas asko isurtzen duen abeltzaintza intentsiboa geldiaraz dezakegu ere. Horrek erran nahi du kontsumitzen ditugun animalia-jatorriko produktuen kopurua anitz murriztu behar dugula. *B&L Évolution* ikerketa bulegoaren arabera, haragi eta esneki kontsumoa zati hiru egin beharko litzateke Frantziako Estatuan, berotzea + 1,5 °C-tan mugatze-

²⁶ Laborantza Herrikoien Mantentzeko Elkarteak (frantsesez: *Association pour le Maintien d'une Agriculture Paysanne*), ekoizleen eta kontsumitzaileen artean salmenta zuzenak antolatzen dituztenak, maiz aldez aurretik erosten diren saskiak proposatuz, harpidetzeta-sistemaren bitartez.

ko helburua bete dadin²⁷. Beraz, beherakada handia behar da, batez ere haragia-ekin eta gasnarekin lotutako sukaldaritza-tradizio handiak dituen Frantziako Estatua bezalako herrialde batean. Baina haragi gutxiago, kalitate hobeko haragia ere izan behar da. Bestalde, haragiak gure elikaduran duen lekua, bistan da, heziketa- eta egokitze-kontu bati lotua zaio: zinez posible da sanoki elikatzea dieta askoz begetalagoaren bidez eta, berdin, baita osoki beganoagoaren bidez ere, nahi dutenentzat, eta plater oso onak eta hazkurritsuak jatea. Horrek erran nahi du jakiak beste modu batez prestatzen jakitea edo ikastea, haragia osagai nagusitzat sistematikoki hartu ordez.

Animalia-jatorriko produktuen kontsumoa murrizteak, gainera, gaur egun animaliek sistema intentsiboetan jasaten duten muturreko sufrimendua eragiten ez duten hazkuntza- eta hiltze-baldintzak ahalbidetzen ditu. Animaliak izaki bizidun sentiberak dira, eta jasanezinak diren baldintza horiek, aldi berean, deshumanizazioa eragiten die sektoreko langileei eta gizarte osoari. Gandhik zioen bezala, “abereak tratatzeko moduak erakusten du herri baten zibilizazio-maila”. Beraz, abeltzaintza intentsiboaren ordez, abereak errespetatzen dituen abela-zkuntza garatzea aurrerapen moral handia da eta bizidunekiko harreman kontzienteagoa eta begirunetsuagoa sustatzen du.

2.3. *Desazkunde materiala: neurritasun zoriontsurantz*

Alternatibak, bestalde, energia berriztagarriak ere dira, baina gaur egun energia neurrigabeki erabiltzen duten ereduetatik atera beharko da, hala ere. Energia berriztagarriak ezinbestekoak izanik ere karbono gutxi sortzen duen gizarte baterako, ez dira nahikoak izanen gaur egun energia fosilek eta nuklearrak ahalbidetzen duten ekoizpen-ahalmena osoki ordezkatzeko. Beraz, energia gutxiago ekoiztea eta kontsumitzea da kontua, eta gizarte antolatzea *NegaWatt*²⁸ elkarteak bereziki azpimarratzen duen filosofiari jarraikiz: neurritasuna, eraginkortasuna eta berriztagarriak garatuz. “Neurritasun” hitza zerrendako lehen tokian izatea ez da kasualitatea: ahalegin handienak ekoizpena eta kontsumoa murriztera bideratu behar dira. Gero, garrantzitsua da eraginkortasun energetikoa hobetzea ere, gailu eraginkorragoak, eraikin isolatuagoak eta beste erabiliz. Azkenik, kontsumitzen dugun energia %100 berriztagarri ekoizti beharko da.

²⁷ *B&L Évolution* ikerketa bulegoak argitaratu duen “Nola eraman Frantziako Estatua 1,5 °C-ko ibilbide batera?” txostenak kalkulatu du Frantziako Estatuan haragiaren eta esnekien kontsumoa % 10ez murriztu behar dela urtero 2020tik 2030era bitartean, pertsonako eta urteko 25 kilora iritsi arte, jakinez 2018an pertsonako 90 kilo inguru kontsumitu direla.

²⁸ *NegaWatt* energia arloko adituak biltzen dituen elkarte bat da, non trantsizio energetikoa nola egin daitekeen gogoetatzen baita.

Ba ote du abantailarik neurritasunaren inguruan antolatutako gizarte batek? Hurbilketa horrek energiaren erabileraz gogoetatzera garamatza, eta azkenik desiragarriak ez diren aktibitate batzuk berriz pentsatzera. Adibiderik garbiena, dudarik gabe, espazio publikoan ugaritu diren publizitate-pantailena da. Elektrizitate asko kontsumitzen dute, ez funtsezko beharragatik, ezta bigarren mailako beharragatik ere, baizik eta gure eguneroko bizitzan eragin kaltegarria duen aktibitate baterako, egun osoan mezu oldarkorrak, intrusiboak inposatuz, munduaren ikuspegi kontsumista eta lehiakorra erakutsiz. Publizitate-pantaila horiek guztiak kentzeak, berdin espazio publikoko iragarki guztiak ere, gure bizikaltatea hobetuko luke; gainera, gizarte hau mundu frustratu eta zorigaiztoko bilakatzen duten sistema kapitalistaren agindu toxikoetatik, estandar indibidualistetatik, gizonezkoen aldekoetatik eta sexistetatik askatuko gintuzke. Publizitateari begiratu ordez, gure inguruko paisaiei eta inguruari arreta gehiago eskaintzen ahalko diogu, zaintzen ahalko ditugu eta egunerokoan haietaz gozatzen ikasten ahalko dugu. Publizitate-pantaila batzuk onar daitezke, benetan interes publikokoak diren informazioak komunikatzeko, herritarren jardueri, kulturari eta arteari buruz, adibidez.

Bideo, telesail eta film gutxiagori ere begiratu diegu; horien kontsumoa handitu egin da interneten, eguneroko ohituretan abiadura oso handian nagusitu diren *online* plataformen bidez... baina benetan malurusagoak izanen gara pantailen aitzinean denbora gutxiago pasatzen badugu? Gure gizartea ez ote da zorionsuagoa izanen, pantailen aitzinean galdutako milaka ordu horien ordez beste hainbeste ikuskizun bizi, antzezlan, ipuin kontaketa, kontzertu akustiko, mahai-joko baldin badira? Ez ote gara liluratuagoak izanen zeruko izarren doako ikuskizunari begira, are distiratsuagoa izanen baita gau-argi soberakinak itzaltzen badira, bereziki landa eremuetan? Energia aurreztuko da eta, aldi berean, mundu honen edertasuna zainduko. Zerua garbiturik legoke, gainera, gizartearen gehiegizko digitalizazioaren ondorio diren eta espazioa kutsatzen duten sateliteen “konstelazioak” desagertuko balira.

Beraz, energiaren gehiegizko kontsumotik atera behar da maila globalean, eta aldi berean, jende guztiari energiarako sarbidea segurtatu behar zaio, oinarritzko beharrak asetzeko gisan. Nola bereiz daiteke funtsezko beharrari, bigarren mailako beharrari edo xahutzeari loturik zaiona? Modu demokratikoan antolatu behar dugun gizarte-eztabaida da.

Erabilpen egokiaren eta erabilpen desegokiaren printzipioak energia eskuratzeko baldintzak kudeatzen lagunduko gaitu, baita ura eskuratzeko baldintzak finkatzen ere: edateko, janaria prestatzeko, garbitzeko erabiltzen dugun uraren prezioa ez da auto bat garbitzeko edo igerileku pribatu bat betetzeko erabiltzen dugun uraren prezioaren parekoa izan behar. Gizarte ekologiko eta parekide batek, pertsona guztiak babestuko dituenak, pertsona bakoitzari aukera emanen

dio ur- eta elektrizitate-kantitate jakin bat eskuratzeko, prezio apalean, berdin dohainik ere oinarrizko beharretarako. Gero, prezioa progresiboki igoko da kontsumitutako kantitatearen arabera.

On izanen zaigu energia berriztagarriak kooperatiba herrikoi gisa edo herri mailan garatzeko: erresilientzia garatzeko modua da, maila lokalean kontrolatuak diren elektrizitate-ekoizpenerako baliabideei esker, baina, aldi berean, erantzukizuna gure gain hartzeko eredu bat da ere. Horrela, gure herrian erai-kiak izanen diren aerosorgailu, presa hidroelektriko edo eguzki-panelen eragin negatibo eta positiboak hobeki ebaluatuko ditugu. Gainera, horrek lagunduko digu sortutako energiak zer egin nahi dugun kolektiboki erabakitzen. Orduan, elektrizitate gehiago kontsumitu nahi dugun bitartean aerosorgailuei uko egite-ra bultzatzen gaituzten arrazoibide kontrajarrietatik aterako gara! Hala ere, ez dugu lokalismo mota batean edo lurralde itxien ikuspegian erori behar: energia ekoizteko gaitasunak ez dira berdinak eremu batetik bestera eta, beraz, lurraldeen arteko elkartasuna garatzea garrantzitsua da.

Azkenik, %100 berriztagarria den ereduak berekin dakar energiaren aldetik askoz ere neurritsuagoa den gizartea, baina aukera ematen digu, ere, eskualde osoak luzaroan erradioaktibo eta bizigabe bilaka ditzaketen hondamendi nuklearrren betiko arriskutik askatzeko.

Bestalde, karbono gutxi isurtzen duen gizartea sortzeko, gure kontsumo materiala murriztu behar da ere, eta hori gure bizimoduaren berrantolaketa salbagarriaren oinarria izan daiteke. Kontua ez da bizimodu aszetikoa sustatzea, baizik eta egiten, edukitzen eta erabiltzen diren objektuei balioa eta zentzua ematen dien gizarte bat sustatzea. Kontua ez da, halaber, jadanik gutxi edo aski ez duten herriak are gutxiago edukitzera bultzatzea. Desazkunde materialak ondasun materialen banaketa hobe suposatzen du. Jasagarritasunaren eta konpongarritasunaren gizartea izanen da, non hozkailu bat ez baita hondatzeko eta 5 edo 7 urteren buruan ordezkaturia izateko programaturia, baina gailuak konpongarriak izateko pentsatuak baitira, hamarkadak iraun ahal izateko. Eredu horrek, gauzak egiteko material eta energia gutxiago kontsumitzeaz gain, sektore ekonomiko oso bat garatuko luke konponketa-jardueraren inguruan.

Orduan, etxetresna elektrikoak konpontzeko tailerrak ugaltzen ikusiko genituzke, baina baita elektronika tailerrak, bizikletak konpontzekoak, jostekoak, etab. Zentzua duten beste hainbeste lan, benetako balio sozial eta ekologikoa daukatenak, eta deslokalizatzen ahal ez direnak. Ohartzen gara gizartea ikuspegi ekologikoaren arabera antolatzeak, neurritasunaren eta eraginkortasun energetikoaren inguruan, enplegua sor dezakeela, kalitatezko enplegua, gainera.

Beraz, desazkunde materialak ez du erran nahi bizi-kalitatea galtzea. Aitzitik, aukera da balio materialistegiarekin hausteko, eta zaharkitze programatuak,

gehiagizko kontsumoak, xahutzeak, eta hondakinen ekoizpenak lotzen dituen infernuko zikloak bultzatu alienazioetatik askatzeko... Eredu toxiko horrek kutsadura orokorra sortzen du ibaietan eta ozeanoetan, gure irudimeneren kutsadurarekin batera. Berriz ere, “ondasun gutxiago, lotura gehiago” leloak zentzu osoa hartzen du hemen.

2.4. Gure lurraldeetan bizitzea

Etxebizitzaren gaia enblematikoa da desafio ekologikoen eta justizia sozialeko desafioen artean: eraikinak energiaren aldetik berritzeko obra handi batek energia gutxiago kontsumitzea ahalbidetuko du, erosotasun termiko berdina atxikiz. Baina, Frantziako Estatuan, milioika pertsona ere aterako ditu energia-alorreko prekaritateak, non neguan hotza eta udan beroa pairatzen baitituzte... eta non horietako batzuk beroteetan hiltzen baitira²⁹. Emaizta termiko oso txarreko etxeek populazio prekarioenak muturreko nahasmen klimatikoaren eragina bete-betean jasaten uzten dituzte. Bizkitartean, nahasmen horiek biderkatu egingo dira. Energiaren kontsumo globalaren murriztearen arazoak, beraz, ahaleginen banaketa zuzen bat hartu behar du kontuan: gure herritar batzuk beren bizitokian hotzarengatik sufritzen ari diren bitartean, kanpoko terrazak neguan berotzea onartezina da, bai maila ekologikoan, bai maila sozialean. Duintasunez bizitzeko benetako beharretan oinarrituz, aldi berean neurritsuagoa eta bidezkoagoa izanen den gizarte bat antola dezakegu, zeina jende guztia klima-desorekaren eraginetatik babesteko gai izanen baita.

Elkarlan sistemen, ondasun komunen³⁰, partekatzearen inguruan antolatua izanen den gizarteak, bizileku kolektiboak eta etxeko ekipamenduak elkarren artean kudeatuko ditugu, gero eta gehiago. Adibidez, etxetresna elektrikoak erabilera, hala nola garbigailuena, etxebizitza anitzen artean partekatuz, edo gune komunak partekatuz, hala nola sukaldeak, tailerrak, ibilgailuak... Beste kasu batzuetan, etxeak osoki parteka daitezke. Horrek ere energia aurrezteak dakar, ekipamendu gutxiago, baina egungo sistemaren muturreko indibidualismotik ateratzen gaituzten bizi-ikuspegi kolektiboak ere irekitzen ditu. Desafio klimatikoak gure lankidetzarako, elkartasunerako eta elkarri laguntzeko gaitasuna probatuko du.

Belaunaldien arteko bizitegi kolektibo berriak gara ditzakegu, hainbeste pertsonak isolamendua pairatzen duten egoera zentzugabe honetatik ateratzeko:

²⁹ 14 milioi pertsona baino gehiagok etxebizitza arazoak zeuzkaten 2022an, Abbé Pierre fundazioak argitaratu Frantziako Estatuko etxebizitzaren egoerari buruzko 27. txostenaren arabera.

³⁰ Ondasun komunak erabileran eta ez pribatizazioan oinarritutako jabetza mota batean oinarritzen dira. Komunitate batek partekatutako, kudeatutako eta modu kolektiboan mantendutako baliabideak dira. Ibai bat, presa bat, patente bat... komunak izan daitezke.

gizarte eboluzionatu batek ezin ditu utzi adinekoak beren bizitzaren bukaeran bakardadea pairatzen, guraso bakartuak eta bereziki ama isolatuak egunerokoan dena kudeatzeko gorriak ikusten, eta gazteek etxebizitzak nekez aurkitzen, eta ezin du onartu heriotza-kausa nagusietako bat suizidioa izan dadin. Isolamendua, bestalde, gizartearen nozioaren kontrakoa da, ontsalaz gizartea elkarrekin, eta ez elkarrengandik aparte, bizi diren jendez osatu talde bat baita. Elkarrekin bizitzeko modu berri bat izan daiteke gutako asko zorigaiztoko bihurtzen gaituen gizartearen atomizazioa, indibidualismoa eta egoismoa sendatzeko bidearen zati garrantzitsu bat. Berriz ikasi behar dugu elkarrengandik hurbil bizitzen eta egunerokoan elkarri laguntzen. Hor ere neurritasunaren ideia ez da zigortzailea edo askatasuna kenduko ligukeen zerbait, baizik eta alienazio indibidualistatik askatuko gaituena eta loratzen lagunduko diguna.

2.5. Munduari irekitzea: denborarekiko gure harremana aldatzea

Gizarte zinez birkokatu batean, bidaiatu ahal izaten jarraitu beharko dugu. Alde horretatik, hegazkinik gabeko bidaiak espazioan eta denboran berriz kokatzeko perspektibak irekitzen dituzte. Lehenik, distantzia laburreko bidaiak berriz ezagutu behar dira. Bereziki Frantziako Estatuan, non paregabeko aniztasun geologiko eta ekologikoa baitago. Izan ere, klima askotarikoak aurkitzen dira, ozeanikoa Atlantikoko kostaldean eta Mediterraneokoa hego-ekialdean, non erabat ezberdinak diren landarediak sortzen baitira. Aniztasun geologikoak, adibidez, adinak leundutako mendiak eskaintzen dizkigu Erdialdeko Mendigunean, bai eta erliebe gorabeheratsuak ere Alpeetan eta Pirinioetan. Arroilak, ibaiak, oihanak, natur erreserbak badaude... Nork bisitatu du Frantziako Estatuko paisaien aniztasun osoa, Europakoak aipatu ere gabe, edo Frantziako Estatuko mugako herrialdeetakoak, gutxienez? Lehen gauza, beraz, aniztasun zoragarri horrek eskaintzen dizkigun paregabeko posibilitateak aintzat hartzea da. Berotegi efektuko gas gutxi edo batere ez isuriz egin ditzakegun bidaiak dira, trenez edo bizikletaz, adibidez. Bizikletaz bidaiatzea, bereziki, emeki bidaiatzea da, inguratzen gaituenari begiratzeko denbora hartzea, eta mundu “modernoak” hainbeste galarazten digun lasaitasuna berriz sentitzea.

Urrunago dauden lurraldeetarako, helmuga asko eskaintzen dituen trenaz gain, zergatik ez dugu kontinenteen artean berriz ere itsasontziz bidaiatzen? Zergatik ez pentsatu aerostato gidatuak eraikitzen berriz hastea? Garraibide horiek kontinenteak lotzen dituzte, hegazkinak egiten duen bezala, salbu –emisioak murrizteaz gain– denbora gehiago hartzen dutela. Baina oso azkar bidaiatzea, ordu gutxitan munduaren beste puntan egotea, ez da bidaiatzea. *Zapping* moduko zerbait da, etengabeko asegabetasuna duen gizarte honen irudikoa, zeinak bultzatzen baikaitu lekuak kontsumitzera, janari txarra kontsumitzen den bezala, edo telefonoaren pantaila azaletik arakatzen den bezala, hots, hipnotizatuturik bezala. Bidaian, bideak helmugak bezainbateko garrantzia eduki behar du.

Horrek denboraren kontrola berreskuratu behar izatera garamatza, eta gizarte honetako presatik, ezinegonetik, estresetik eta zapalkuntza sentimendutik atera behar izatera. Benetan bidaiatzeko, edo –nahiz eta ez joan– oporretan benetan atseden hartzeko, denbora gehiago behar da. Hori da, dudarik gabe, aberastasunik handiena, azken finean: bizitzeko, atseden hartzeko, ikasteko, lantzeko, elkar ezagutzeko, noraezean ibiltzeko, sortzeko denbora izatea... Zinez zentzugabea da hainbeste aurrerapen tekniko eta automatizazio lortu izana, astean eta bizitzan zehar denbora gehiago lan egitera eramaten gaituen logikan harrapaturik egoteko. Orduan bai, tren, itsasontzia, bizikleta, agian aerostato gidatu berriak, hegazkina baino mantsoagoak dira. Baina garraiobide ezin hobeak izanen dira gizarte mantsoago baterako, non bidaiatzeko aukera izanen baitugu, ez asteburu espres baterako, ez “deskonprimatze” aste baterako, baizik eta hainbat aste edo hilabetetarako, mundu honetako bizitzaz eta edertasunaz gozatzeko, eta benetako bidaiak egiteko, beste kultura, beste paisaia, beste usain batzuekiko topaketak benetan ahalbidetzeko.

Denbora gehiago izatea lan gutxiago egitea da. “Lan gehiago egin diru gehiago irabazteko” lelo ezagunaren kontrara, lan gutxiago egitea da kontua, denek lan egiteko, eta *denbora gehiago* irabazteko. Lan gutxiago egiteak aukera ematen digu gutxiago ekoizteko, beraz baliabide gutxiago kontsumitzeko eta beraz gutxiago kutsatzeko. Horrela, lanaren eta aberastasunaren banaketak gizarte ekologiko baten printzipio nagusia izan behar du, gizarte hori berdintasunezkoa, bidezkoa, kooperatiboa eta gogo-aberasgarria izan dadin.

Gaur egungo sistemaren paradoxa da aldi berean globalizatu izatea eta egoismoa eta lehia bultzatzea. Alderantziz, gizarte ekologiko bat, zinez birkokatua, non lurraldeak askoz ere autonomoagoak baitira energiaren, elikaduraren eta ekonomiaren alorretan, lurraldeen arteko banaketa eta trukaketa ahalbidetzen duen gizarte ere bada, munduari irekia zaiona. Are funtsezkoagoa da, aldaketa klimatikoaren eraginek muturreko gertakari klimatiko gehiago ekarriko dizkigutelako eta, haiekin, suntsiketak etorriko direlako (uztak, azpiegiturak, ekoizpen elektrikorako baliabideak, etab.). Horrek lurraldeen arteko elkarlaguntza eta elkartasuna ezinbesteko bilakatzen ditu. Lehenik, hurbileko lurraldeen artean, hor baitugu erreakzionatzeko gaitasunik handiena, baina baita mundu mailan ere, nahasmendu klimatikoak planeta mailako elkartasunaren desafioaren parean jartzen gaituelako. Eskualde osoak ez abegitsu bihurtuko dira, baita bizigabe ere, eta gero eta pertsona gehiago behartuak izanen dira beren lurraldeak uztera eta beste leku batzuetan bizitegia bilatzera. Errefuxiatu klimatikoen etorreraren aitzinean hartuko dugun jarrerak baldintzatuko du nolako gizarte motatan biziko garen eta gizarte hori zer balio sakonetan oinarrituko den. Harresien eta zubien artean aukeratu behar dugu: gure baitan hetsiak izan ala besteei irekiak izan, egoismoa ala elkarlaguntza. Harresiek eta alanbreek ez dute eragotziko, inondik ere, dena galdu duten eta jada ezer galtzekorik ez daukaten pertsonen zeharka-

tzea, nola edo hala. Hesi horiek jendea geldiarazi dezakete, gehiago zauritu, eta babesa bilatuko dutenen zati bat hiltzen utzi... eta harresien beste aldean bazterketa eta segregazioa banalizatu daiteke, axolagabekeria, intolerantzia, xenofobia, beldurra eta bestearenganako gorrotoa sustatuz. Harresiek ezin gaituzte babestu: kondenatu besterik ezin gaituzte egin, eta gu geu ere balio nazkagarrietan harrapatu. Izan ere, harresiek ustez babesturiko eremuen barnean, norik pentsa dezake gizarte lasai, baketsu, loratu, moralean bizi gaitetzkeenik? Aitzitik, harre-
ra, elkar laguntzearen eta elkartasunaren kulturak, mugen logikatik haratago eramanez, ahalbidetuko digu klimaren nahasmenduari aurre egitea eta bestelako gizarteetan bizitzea. Tolerantziatzeko, bakezko, haurridetasunezko eta demokraziatzeko gizarteetan: azken batean, benetako aurrerabidean dauden gizarteetan.

2.6. *Sistema alda dezagun, ez klima!*

Beraz, alternatiba hauek garatuz egin dezakegun aldaketa alimalekoa izan daiteke. Ez da indibidualki onartuko genukeen bizimodu-aldaketa soila. Ez da aldaketa tekniko hutsa, baizik eta gizartearen berrantolaketa, hots, sistema-aldaketa. Zentzu horretan, Alternatibak bere egin du Kopenhagen 2009ko klimaren aldeko mobilizazioetan agertu zen lelo hau: “Sistema alda dezagun, ez klima”.

Sistema-aldaketa horrek irismen handia dauka: balio-aldaketa biziki garrantzitsuak eragiten ditu, aipatu berri ditudan bezala...

Paradigmaren eta gure bizimodu kolektiboaren aldaketa *erradikala* da. Hoberenaren alde egin daiteke, partaidetza bidezko eta solidarioko gizarte baten alde, kooperatiboa, non pertsona bakoitzak fisikoki eta mentalki elikatzen duen lana eskura daukan, bizitza osoa bizitza bera galtzen eman gabe. Gizarte bat non baliabideak eta espazioak berdintasunez partekatua diren, non pertsona bakoitzak etxebizitza bat, edateko ura eta kalitatezko janari osasungarria daukan, non pertsona bakoitzak kultura, hezkuntza eta osasuna eskura dauzkan.

Gizarte mota hori, jadanik abian diren baina oraindik bazterrekoak diren herriar ekimenetan ernatzen ari dena, gaur egun bizi duguna baino askoz ere desiragarriagoa eta zentzuz beteagoa da. Planetaren bizigarritasun-baldintzak eta munduaren edertasuna suntsitzen dituen sistema kontsumista, indibidualista eta lehiakorretik ateratzea ahalbidetzen du, ikusirik, gainera, sistema horrek sortzen dituela, aldi berean, gaixotasunak, alienazioak, prekaritate- eta pobrezia-egoerak, gizarteko bidegabekeriak eta menderatze- eta baztertze-egoerak... Beraz, *nahasmendu klimatikoaren inperatiborik ez balego ere*, alternatiba horiek garatzeko eta beste gizarte mota hori eraikitzeko gogoia badaukagu!

Hortik, gainera, aurrea hartu behar zaie idealistak eta inozoak garela diotenei. Ez ote da amets hutsa hain aldaketa garrantzitsuak espero izatea kapitalismoa bezalako sistema boteretsu baten parean? Eta benetan espero ote daiteke horre-

lako metamorfosia gerta dadin erronka klimatikoari aurre egiteko behar bezain laster? Pentsa daiteke helburua anbiziotsuegia dela eta ez duela balio saiatzea, baina historia bihurgunez, hausturaz, azelerazio unez eta gizartearen eraldaketa erradikalez beterik dago, eta horien aldean gure gizartearen halako metamorfosia ez da batere utopikoa.

3. ETSIPENETIK ATERATZEA

3.1. *Etorkizuneko munduak*

Hainbat gertaera historikok inspiratu gaitzakete a priori ezinezkoa dirudien aldaketa bat sustatzeko dauzkagun gaitasunak neurtzeko. Usu aipatzen da nola, Bigarren Mundu Gerraren denboran, Amerikako Estatu Batuek gerra-ekonomia garatu zuten, non biztanleriaren mobilizazio masiboak ekoizpen-bideen, kontsumo-moduen eta bizimoduaren berrantolaketa ekarri zuen hilabete gutxiren buruan. Soropilak eta alfer utzitako eremuak “garaipenaren baratze” bihurtu ziren, eta 20 milioi “garaipenaren baratzezainek” barazki-ekoizpen nazionalaren %30 eta %40 artean ziurtatu zuten. Detroiteko automobil-kate ospetsuak birmoldatu zituzten tankeak eta bonbaketariak eraikitzeko. Gasolinaren errazionamenduak eta autoaren erabilera indibiduala uzteko presio oso indartsuek aldaketa sakonak eragin zituzten garraioetan: tranbiak eta autobusak mukurua betetzen ziren, autokidetza eta auto-stopa masiboki garatu ziren, ehunka mila langile bizikletaz joaten ziren fabrikara edo bulegora, eta zaldiek tiratutako gurdiak berriz erabiltzen hasi ziren.

Bere autoan bakarrik gidatzen zuenak isunak eta lelo iraingarriak jasaten ziotuen: “Bakarrik gidatzen duzunean, Hitlerrekin gidatzen duzu!” bezalako leloak zabaldu ziren. “Kontsumo arrazionaleko” politika bat eraman zen herritarrak behar zena soilik erostera animatzeko, eta informazio-zentroak ezarri ziren, elikagaien kontserbazioari edo etxetresna elektrikoek konponketari buruzko aholkuak emateko. Oihala zorrozki aurreztu behar izan zuten, uniformeak, oihaltxolak, mantak eta paraxutak masiboki egiteko. Horrek modaren iraultza ekarri zuen: jantziak atxikitzea eta haien iraunkortasuna lehentasunetan sartu zen, baina baita arropa estandar motzagoak ere, oihal gutiago erabiltzeko.

Aldaketa erradikalak, lankidetza eta elkartasun izpirituan gertatu zirenak, auzoen eta lankideen arteko loturak sendotuz, aktibitate kolektibo anitzen bidez, hala nola josteta tailerrak, baratzezaintza, autokidetza, etab. Nahiz eta horrelako testuingurua ez dugun desiratzen eta, jakina, ez dugun nahi berriz gerta dadin, nola ez ikusi inspirazio iturri bat gizartearen berrantolaketa erradikal eta distiratsu horretan, birziklatzearen, neurritasunaren eta nork bere buruaren beharrak asetzeko printzipioen inguruan, gaur egun larrialdi klimatikoaren

testuinguruan egin behar den metamorfosirako? Funtsean, desafio klimatikoak planetari ekartzen dion arriskua gerrak estatu bati ekartzen dionarekin konpara dezakegu. Ekonomia bideratzeko eta denbora oso laburrean aldaketa erradikalak plantan ezartzeko gaitasun hori gogoratzeak honako galdera hau egitera garamatza: zergatik ez dugu horrenbeste egiten gizadiak inoiz jasan duen arriskurik handienaren aurrean? Berrikiago, COVID-19 pandemiak, 2020an, neurri guztiz ikusgarriak ekarri ditu, hala nola aireko zirkulazioa debekatzea edo autoen zirkulazioa zenbait perimetrotan mugatzea. Neurri horiek osoki pentsaezinak ziren, eta osoki ezinezko irudituko zuten pandemia baino lehen aipatu izan balira. Krisi horrek sistemaren aldaketa erradikalari lotu ideia nagusi batzuk agerian jarri ditu.

Jendearen eguneroko bizitzan pragmatikoki planteatu diren funtsezko eta ez-funtsezko beharren gaitik has gaitezen. Galdera horrek, konnotazio militanteetatik aldentuta eta molde entzungarrian, honako ideia erradikal hauek formulatu ditu: desazkundera, nahitarako sinpletasuna, neurritasuna, “ondasun gutxiago, lotura gehiago” leloa eta abar. Funtsezko eta ez-funtsezko beharrak bereiztea bera iraultzailea da gaur egungo paradigma ekonomikoan. Izan ere, paradigma hori funtsezkoak ez diren behar berriak etengabe asmatzean oinarritzen da, erauzteko-ekoizteko-kontsumitzeko-botatzeko makina ibilarazteko. Ekoizti behar dena eta benetan behar duguna zer den galdetzea, eta beharrezkoa ez dena edo kaltegarria dena nola geldiarazi gogoetatzea, paradigma aldatzearen zentzuan doa, argi eta garbi.

Lan onuragarrien eta kaltegarrien kontua aipatu zen, nahiz era horrek, pandemia aitzin, ez zuen zentzurik izanzen nagusi zen ekonomiaren paradigmari, non jarduera baten errentagarritasuna aski baita jarduera horri zentzua emateko, haren ondorio sozial eta ekologikoak alde batera utzita. Jende askok bere esker ona adierazi nahi izan zien osasun arloko langileei, baina baita “kualifikaziorik gabeko” eta normalean gutxietsitako lanpostuei ere, hala nola supermerkatuetako kutzazainei edo zabor biltzaileei. Horretan ere perspektiba irauli zen. Jendea ohartu zen begirune gehien merezi dutenak ez direla ongi jantzitako edo ongi ordainduriko lanbideak dituzten pertsonak, biziki “kualifikatuak” diren lanbideak, eskuak garbi dauzkatena, “arriskuak” hartzen dituzten enpresariak. Begirune hori anitzez gehiago merezi dute gure bizitzarako, gure osasunerako, gure duintasunerako ezinbestekoa dena segurtatzen dutenak: higiena, zaintza, elikadura... Lanbide errespetagarriak eta ohoragarriak, merituak, lekuz aldatu ziren, orduan. Garai hartan, heroiak ez ziren gehiago industriako kapitainak, artista izarrak, telebista aurkezleak, baizik eta apaltasunez besteen zerbitzura lan egiten zuten pertsonak. Hori ere balioen iraulketa ikusgarria da.

Birkokatzeari, autonomiari, subiranotasunari, nork bere buruaren beharrak asetzeari, zerbitzu publikoei buruzko gaiak, baita globalizazio mota bati uko egi-

teari buruzkoak ere, neurri batean, beste molde batez gogoetatu ziren. Eskuina/ezkerra eztabaida zaharrean, zerbitzu publikoak defendatzeak, eskuineko herri erreakzionarioenaren begietara, hau erran nahi du: ezkertiarra izatea, lagundua, pribilegiatua, ongizate estatu zaharkituaren aldekoa, aldaketaren kontrakoa, sindikalista atzerakoia. Baina tamaina horretako osasun krisi-egoeran, adostasun oso zabala lortu da osasun sektorea merkatuaren logikatik kanpo egoteko beharrari buruz, zerbitzu publiko batek bermaturik. Garrantzitsuena, orduan, inor ez abandonaturik uztea zen. Alta, krisiaren aitzineko egunetan, neoliberalismoaren basa-oihaneko legea oraino indarrean zegoen eta onargarriztat jotzen zen. Baina araugabetzearen, merkatu librearen, merkatuaren esku ikusezinaren, lehia aske eta ez faltsutuaren eta abarren sistemak bere mugak erakutsi zituen krisia hasi orduko.

Horrek konplexurik gabeko gobernu kapitalista bat bultzatu zuen bere ideologiak agindu behar zionaren alderantzizkoa egitera: maskaren errequisizioak egitera, gel hidroalkoholikoaren prezioa arautzera, enpresak nazionalizatzeko aukera aipatzera, osasun zerbitzu publikoarentzako murrizketak gelditzera, dirulaguntzak ematera...

Jende asko ohartu zen nolako mendekotasun-egoeran gauden, eta horrek zer kalteberatasun sortzen digun, maskarak edo botikak izateko geure baliabideak ez dauzkagunetik. Munduaren beste muturrean gertatzen denaren menpe egon gaitezkeela pentsatzeak segurtasunik ezean jartzen gaitu. Krisi garaian ezinbestekotzat jotzen dugunaren ekoizpena guk geuk segurtatzeko modua berreskuratzeko nahia dakar: pastak, arroza, komuneko papera, maskarak, medikamentuak, gure higiena bermatzeko nahikoa, jatekoa... guk geuk segurtatu behar ditugu.

Bizidunekiko gure oinarritzko lotura, natura basatiari uzten zaion espazioari buruzko gogoeta, biodibertsitatea zaintzeko beharra eta zeharkatu behar ez ditugun muga ekologikoak (bestela ondorioak jasanen baititugu)... Horrelako hausnarketak ere sortu ziren, denbora batez, kontzientzia kolektiboan. Gizartearen zati handi batek ulertu zuen guk geuk erein genuela krisiaren hazia. Ekosistemen funtzionamenduak eta planetako bizimoduak giza espezieari eman abisua zen. Antropozenoan³¹ sartzearekin batera, azkenean, antropozentrismoa dudan ematen da.

Planifikazioaren ideia, ordu arte kapitalistek deabruzkotzat zeukatena, normalean merkatu librearekin bateraezina dela baitiote, errespetagarri bilakatu zen, eta beharrezkotzat ere jo zen hurrengo krisiei hobeki aurre egiteko.

³¹ Antropozenoa, edo "Jendearen Aroa", garai geologiko baten proposamena da. Garai hori hasten da jendeak geologian eta ekosistemetan duen eragina, Lurraren historiaren eskalan, esanguratsua bihurtzen den unean.

“Geroko munduari” buruzko eztabaidak eta ametsak berpiztu ziren, eta “anormalera” ez itzultzearen garrantzia agerian gelditu zen.

Jakina, mundua “normaltasunera” itzuli zen, pandemia hobeki kontrolatu ahala. Sistema horrek beti berera itzultzeko gaitasuna balu bezala. Menturaz, aukera bat galdu da zerbait benetan finkatzeko, balio- eta perspektiba-alderantzizkatze horiek atxikitzeko, parentesi baten denboran ulergarri bilakatu ziren aldaketa erradikal horiek gauzatzeko, gauzak luzaroan sakonki aldatzeko. Damu izan gaitezke krisi horren denboran zenbait gauza egiten jakin ez dugulako. Baina, batez ere, ez da ahantzi behar nolako aldaketa ikusgarriak gerta daitezkeen, eta gauza pentsaezin batzuk, bat-batean, errealitate bihur daitezkeela biziki fite, baldintza batzuetan. Bestalde, ez dezagun zalantzarik izan horrelako garai batek arrasto sakonak uzten dituela eta ideia erradikalak askoz ulergarriago bilakatu dituela.

Badago, gure kontzientzia kolektiboan, pandemia horretan ireki diren posibilitateak atxikitzen dituen beste memoria mota bat. Horrelako gertakariak ondorio ikusgarriak dituzte epe laburrean, zeinek laster desagertuko direla irudi bailukete, baina baita hain ikusgarriak ez diren sakoneko efektuak ere, azpiz eragiten segitzen dutenak. Guri dagokigu kontzientzia berri horretan oinarritzea, ez delako pentsa litekeen bezainbat desagertu.

3.2. Klimaren aldeko Herritar Konbentzioaren ahalmena

Klimaren aldeko Herritar Konbentzioa ere esperientzia oso argigarria izan da aldaketa-mekanismo batzuk ulertzeko. Hasiera batean, proiektu horrek mesfidantza sortu zuen militante ekologista eta antikapitalista askorengan, segur baitziren –edo beldur baitziren– Emmanuel Macronek prozesu hori manipulatu eta neurri bigunak aterako zituela, kontua bere irudia berdatzeko baliatuz. Eta segur aski, Emmanuel Macronek neurri aski ahulak aipatzen entzun nahi zituen, horiei esker bere urrats txikien politikaren egokitasuna erakutsiko baitzuen. Baina, prozesu horren ondorioz proposatu neurriak uste baino anbiziotsuagoak izan ziren. Izan ere, konbentzioan parte hartu zutenetik askoren kasuan, nahiz eta hasieran kontzientzia-maila eta erradikaltasun-maila nahiko apala edo moderatua izan (beraiek erranik), formazio-prozesuak, adituek emandako informazio faktikoek eta klimaren egoerari buruzko diagnostikoak konbentzitu egin zituzten. Ondorioz, hasieran onartzeko prest egongo zirenak baino neurri askoz ere erradikalagoak proposatu zituzten. Hilabete gutxiren buruan, beraz, herritar horiek gai izan dira nahasmendu klimatikoaz eta sistema errotik aldatzeko beharraz zuten ikuspegia sakonki aldatzeko. Horrek erakusten digu, halaber, aldaketa azkarrak gerta daitezkeela, baldin eta informazio nahikoa ematen bada, esparru kolektibo bat plantan ezartzen bada, eta jendeari eginkizun aktibo eta arduratsu bat ematen bazaio.

Emmanuel Macronek, Eliseoko lorategietan, adierazi zuen konbentzioko kideen proposamenek lasaitzen zutela, erranez ez zutela desazkundearen alde egiten. Baina, egiazki, neurri horiek ez zitzaizkion komeni. Hori dela eta, Konbentzioaren proposamenak “iragazkirik gabe” aplikatzeko hitza jan zuen, azkenean hiru “joker” iragarri, eta, ondoren, bere gobernu eta gehiengo parlamentarioa utziz Konbentzioaren proposamenak haien mamiaz eta irismenaz husten. Horrek berresten du, halaber, Emmanuel Macron bezalako buruzagi politikoen benetako hautua klimaren aldeko ekintza ahula dela, funtsean eremu neoliberearen hautua den bezala.

Gauza bat, hala ere, egia zen: 150 herritarrek ez zuten benetan Frantziako Estatuko gizartea ordezkatzeko. Jakina, zozketak nolabaiteko aniztasuna eta zilegitasuna ematen zien, baina konbentzioko kideen ikusmoldea aldatu duen prozesuak ez du Frantziako Estatuko gainerako gizartea inplikatu, horrek ez baititu informazio horiek ukan, ez eta eztabaida kolektibo eta erantzukizuneko eginkizun horiek bizi izan. Hain segur, gizartearen parte handi batek atzera botako zituen hitzarmenak proposatutako neurri aski erradikal asko. Konbentziok hori bazekien, bere kabuz kendu baitzuen errepedeetako abiadura mugatzeko proposamena, potentzial polemikoegia zeukalako, iritzi publikoa kontra izanzen zuelako eta gainerako guztia ezkutatzeko arriskua zekarrelako, eztabaida neurri bakar baten inguruan zentratuz. Beraz, gezurra litzateke erratea gizartearen gehiengoak onartuko zukeela neurri horiek “iragazkirik gabe” aplikatzea, konbentziok zozketan osatua izateagatik nolabaiteko zilegitasuna zeukalakoan. Errealitatean, konbentziok eraman zen eztabaida, zoritxarrez, ez zen gizarte osoaren mailako eztabaida izan. Baina horrek ez du justifikatzen gobernuak konbentziok lana zangopilatu izana. Aitzitik, emaitza horren alde egin behar zen, ikusi behar zen aitzinamendu bat zela, horrek potentzial bat adierazten zuela, eta konbentziok prozesua orokortu behar zen lurralde mailan. Adibidez, herrialdean klimaren aldeko beste mila Herritar Konbentzio antolatu behar ziren, departamendu bakoitzean, ariketaren perimetroa eta irismena zabaltzeko. Izan ere, kalitatearen aldetik, ariketa horrek bere eraginkortasuna frogatu du eta erakutsi du denbora laburrean neurri erradikal eta adimentsuekiko atxikimendua sor daitekeela!

COVID-19aren pandemian izandako aldaketa ikusgarriak, batez ere, bortxaturik egin dira, eta herritarrek, oro har, obedienciaz gatik onartu dituzte. Aldeantzean, Klimaren aldeko Hitzarmen Herritarrek berresten du aldaketa erradikal hautatuak ere gerta daitezkeela, kolektiboki landuak, haien obratzea atxikimenduetatik bultzatuz, bortxaz inposatu ordez.

3.3. Arrazoimenaren baikortasuna

Etsipenari aurre egitea

Esperientzia horietan guztietan oinarritu behar da hurrengo ekimenak modu gogotsu eta positiboan abiarazteko. Eta horretarako, beti borrokatu behar da ingurune politizatuan eta militante ekologisten artean oso indartsu dagoen egiturazko etsipenaren kontra. Gehiegizko autokritikarako joera dago, diskurtso ezkorretarako joera, dena galdua dela dioten kontakizunetarako joera, zeinek gure indar erlazioaren maila oraindik ahulegia azaltzen baitute, parte esanguratsu batean.

Datorren porrotaz konbentzitua izatea da porrota segurtatzeko lehen baldintza. Gehiegi sinesten diren profeziek azkenean egia bihurtzeko duten ahalmena ulertu behar da: positiboek ezinezkoa eginarazten ahal digute, eta negatiboek, berriz, gure indarrak ahitu eta dinamikak hautsi ditzakete, indar eta dinamika horiek beren ahalmenaz baliatu baino lehen. Kritikak beharrezkoak eta baliagarriak dira, bistan da, batez ere eraikitzaileak baldin badira. Baina datorren porrotaz konbentzitua izatea beste gauza bat da: energia kentzen digu eta gure aldea ahultzen du, nahi ala ez. Porrotaren ideia sustatzen duten diskurtsoak zabaltzen ditugunean, eremu kapitalista ekozidaren aliatu objektiboa gara, nahiz eta horretarako borondaterik ez ukan.

Zenbat aldiz entzun dut gure eremuan “50 urte huts egiten daramatzagula” dioen diagnostiko oker hori? Analisi hau egiten dutenek argi eta garbi pentsatzen dute ez ditugula gauzak behar bezainbat aldatu orain gertatzen ari diren hondamendiak saihesteko. Baina, ahanzten dute ekologia politikoa ez dela kapitalismoaren abiapuntu beretik abiatu. Pentsamolde ekologista garatu behar izan da jadanik orokortua zen ideologia nagusi baten kontra eta, ikuspegi horretatik, kontzientzia ekologista gaur egungo mailara iritsi izana oso garaipen garrantzitsua da. Porrot izatetik urrun, ezinbesteko baldintza da, eta horretan oinarritu behar dugu haratago joateko.

Erronka handiak gainditu ditugu, jadanik

Behin betiko porrota ondorioztatzeko modu hori, bestalde, okerra da, historia-ri begiratzen bazaio. Historia oso gutxitan gertatu da pentsatuko zen bezala, eta inoiz ez modu linealean, baina bai haustura uneekin eta bizkortze faseekin. Inork edo ia inork ez zuen espero Alemaniako populazioak 1989an Berlingo harresia eroraraziko zuenik, Tunisiako herriak 2011n “Udaberri Arabiarrean” orokortuko zen iraultza piztuko zuenik, edo pandemia batek 2020an planeta osoa etxetik atera gabe atxikiko zuenik. Gure eginkizuna ez da gaur egungo ibilbideek eramaten gaituzten helmugaz iragarpenak egitea. Alde batetik, ibilbideak ez dira linealak eta, batez ere, ez gara historiaren ikusleak, aktoreak baizik.

“Arrazoimenaren ezkortasuna borondatearen baikortasunarekin uztartu behar da” idatzi zuen Antonio Gramscik. Baina arrazoimenaren baikortasuna ere badago. Zergatik ez litzateke gure gizartearen eraldaketa –jadanik existitzen diren alternatibetatik abiatu- azken hamarkadetan egin ditugun beste balentria batzuk bezain egingarri? Nola imajinatu ez garela gai autorik gabeko hiriak antolatzeke, astronautak ilargira oinez ibiltzera bidaltzeko gai izan garenean? Milaka milioi pertsona konektatzen dituzten sare sozial digitalak plantan ezarri ditugu, eta ez ginateke gai izanen mundu mailako lankidetzak bat antolatzeke eta planeta osoko jendearen interes orokorra jokoan ematen duen erronka bati aurre egiteko? Inbertsio handiak egiten ari gara adimen artifizialean, eta ez ginateke gai izanen gure giza adimen osoa erabiltzeko izaki bizidunentzat planetaren bizigarritasun-baldintzak babesteko? Duela 13.000 milioi urte lehen izarrek hedatutako argia detektatzeko gai den James-Webb teleskopio espaziala bidali dugu, eta ez ginateke gai izanen datorren menderako trantsizio bat planifikatzeko?

Giza komunitateak, gure espezieak inoiz jasan duen arriskurik handienari aurre egiteko planeta mailan antolatzeke erronkaren parean, gure zibilizazioa iraultzeko behar diren tresna guztiak dauzka. Ezagutza zientifiko eta teknikoak dauzkagu, mundu mailako komunikazio- eta koordinazio-gaitasunak, adimena, irudimena eta sormena dauzkagu erronka horri aurre egiteko. Gaitasun horiek aho bikoak dira. Hain segur sekula parekorik izan ez dituzten sunsiketarako eta ekozidiorako gaitasun ikaragarriak dituen espeziea gara, gaur egun Antropozenoaren aroan sarturik, non gure planeta osatzen duten indar geologikoen pareko potentzia baitugu. *Manhattan* proiektuaren inguruan lankidetzak masibo bat antolatzeke gai izan gara bomba atomikoa sortzeko, eta horrek, orain, gure planeta erabat sunsitzeko ahalmena dauka. Baina gaitasun hori, adimen hori, koordinazio-gaitasun hori guztia berdin erabil dezakegu helburu egokiak lortzeko.

Gure historia zorabiagarriari begira, beraz, nola pentsa gure sistema eraldatzeko gai ez garenik, jadanik existitzen diren eta, funtsean, nahiko sinpleak diren alternatibetan oinarrituz? Alternatibak eta beste ekimen batzuek deskribatzen duten mundu hobea ez da utopia bat, ez dago ziurtasunik gabeko asmakizun teknologikoen menpe, eta ez da soilik balio eta ametsetan oinarritzen. *Teknikoki posible da*, jadanik hor dauden baina oraingoz gutxiengoan diren eta bazterrean garatuak diren praktketan oinarritzen baita. Modu masiboan garatuz, alternatiba horiek arau bihurtu daitezke, eta gizarte hau errotik eraldatu dezakete. Beste mundu horren haziak, beraz, hor daude jadanik, gaur egungo munduan. Horregatik, guk ere aldarrikatzen dugu Edgar Morin-ek aukeratutako *metamorfosi* terminoa. Tximeleta beldarra ez bezalako organismoa da, beldarrak ez dauzkan propietateak dauzkana eta, hala ere, beldarrean badaude tximeleta osatzeko elementu guztiak. Gauza bera da eraiki nahi dugun gizarte hobearen kasuan: gaur egungo gizartearekin alderatuta, erabat bestelakoa da eta, hala ere, gizarte hobe horren osagai guztiak hor daude, bertan, sortzeko puntuan, sistema nagusitik kanpo garatzen diren alternatibetan.

Alternatibak existitzen direnez, zeren zain gaude martxan jartzeko?

Horrek ez du erran nahi mundu hori sortzea erraza denik. Izan ere, nahiz eta teknikoki posible den, gizartea osoki berrantolatu beharko da, elkarrekin bizitzeko modua sakonki aldatu, gure imajinarioak aldatu eta ordezkatu: azken batean, paradigma aldatu.

Ez dut erraten erraza denik, erraten dut posible dela, eta behar den adimen osoa, sormen guztia, jakintza guztia daukagula gizarte berri bat antolatzen, berotegi efektuko gasen emisioak izugarri murrizteko eta, aldi berean, mundu hobea eraikitzen. “Aldaketa handiek hasieran ezinezkoak dirudite, eta bukaeran saihestezinak” zioen Bob Hunterrek, Greenpeaceko sortzaileetako batek, ekologiak iritzi publikoan gaur egun daukan zentralitatea oraindik ez zeukan garaian. Beste mundu hori desiragarria da, posiblea, eta baita saihestezina ere mende honetako erronkari aurre egiteko.

Ororen buru, klima-aldaketaren ukatzeko bi molde bereiz litezke: klima-aldaketaren errealitatea ukatzea, eta erronka horri aurre egiteko aukera ukatzea. Izan ere, itxaropen-seinaleak, klima-aldaketari buru egitea lortzeko aldaketarako tresna indartsuak daudela erakusten duten zantzuak, milaka daude. Ez dakit *noraino* iritsiko garen, baina ziur nago posible dela, eta *egin dezakegula*.

Horretarako, hala ere, klima-mugimenduak indar gehiago hartu behar du. Garapen bat bizi izan dugu, alderdi batzuetarik ikusgarria izan da, baina askoz urrunago joan behar da. Heldu den hamarkada erabakigarria izanen da klima-mugimendua askoz gorago joan dadin eta gure gizartean aldaketa erradikalak eragiteko gaitasuna ukan dezan. Zein dira hurrengo helburuak, mugimenduaren masifikazioaren eta gure indar harremanaren handitze esanguratsua lortzeko bidean?

4. DATORREN HAMARKADARAKO HURRENGO URRATSAK

Nola pentsatu klimarako erabakigarria izanen den datorren hamarkada? Zer atxiki behar da aurreko hamarkadatik, klima-mugimendua orduan eraiki baitzen? Zer ekarpenetan oinarritu gaitezke, eta zer urrats berri egin behar ditugu datozen urteetan? Zer ezarri behar da plantan klima-mugimendua gara dadin, mailaz aldatzeko eta aldaketa handiagoak lortzeko?

1. ZERTAN DAGO KLIMA-MUGIMENDUA?

1.1. Klima-mugimenduaren historia

Klima-mugimendua gaztea da eta, aldi berean, dozena bat urteko historia aberats eta trinko batek elikatzen du. Heldu den hamarkadan proiektatzeko, garrantzitsua da historia horretan kokatzea. Frantziako Estatuan, klima-mugimenduak zazpi fase bizi izan ditu, goraldiak eta beheraldiak tartekatuz. Laburki azalduko ditut.

Lehen fasea Kopenhageko klimaren aldeko COP15 gailurraren inguruan hasi zen. Jakina, lehenago ere beste ekitaldi asko izan ziren, baina urte horretan zerbait hasi zen. Bertan, klimaren aldeko nazioarteko lehen mobilizazio handiak ikusi ziren, gaur egun “klima-mugimendua” deritzonaren sortzaile. Goi-bilera horren helburua zen klimaren aldeko nazioarteko akordio bat lortzea, anbizio handikoa, bidezkoa eta juridikoki loteslea. Lehen aldiz, gizarte zibileko erakunde eta sektore ugari bat egin zuten nahasmendu klimatikoari buruzko diagnostiko bateratu baten inguruan. Orduan, erronka klimatikoa funtsezko fenomenotzat hartzen hasi zen, gainerako erronka guztietan eragingo zuena, bai ingurumenarekin lotutako gaietan, bai gai humanitarioetan, bai justizia sozialean, bai nazioarteko justizian. Horrela, 2009an, gaur egun oraindik indarrean diren oinarri politikoak ezarri ziren. Klimari buruz sekula ikusi ez zen dinamika bat abiatu zen, kolektibo berri anitz sortu ziren, bereziki *Urgence climatique, justice sociale* mugimendua, Frantziako Estatuan, edo *Bizi*, Euskal Herrian. Goi-bileraren garaian, ekintzek eta mobilizazioek negoziazioetako bi asteen erritmoa eman zuten, eta ehun mila pertsona inguru bildu zituzten manifestazioak izan ziren. Klimaren gaiaren inguruan ez zen sekula horrelakorik ikusi. Baina goi-bileraren bukaerako negoziazioen porrotak motibazioa deuseztatu zuen, eta efektu negatiboa mobi-

lizazio horiek bultzatu zituen itxaropenaren heinekoa izan zen. 2008-2010eko subprime hipoteken krisiak krisi ekonomikoa eragin zuen eta horrek klima desagerrarazi zuen eremu mental kolektibotik. Ondorioz, herritarrek motibazioa galdu zuten eta dinamika errekatik behera joan zen.

Bigarren fasea beheraldia izan zen, Frantziako Estatuan 2010 eta 2013 artean luzatu zena. 2010ean, Cancúngo COP16ari oihartzuna emateko Frantziako Estatu- tuko Cancon-en antolatu gailur alternatiboak mila pertsona eskas bildu zituen, nahiz eta nazio-mailako erakunde altermundialista eta ekologista nagusiak inplikatu. Gero, klimari buruzko mobilizazioak antolatzeke ahaleginak berak desagertu ziren, eta 2011. urteak pentsarazi zigun nahasmendu klimatikoa erabat desagertu zela eztabaida mediatikotik, eta ingurune politizatu eta militanteetan ere ez zela gehiago ardatz garrantzitsua.

Hirugarren fasean, dinamika berpiztu zen, 2013tik goiti, 2015erako pentsatua zen COP21aren perspektiban, hori nazioarteko negoziazioen epe berria bezala iragarria baitzen, klimarako akordio bat lortzeko esperantza piztuz. Orduan, militanteak COP hori modu berri batez ikusten hasi ziren, oinarri gisa erabiltzeko xedea harturik, berezko helburu gisa erabili orde. Helburua zen COP21en emaitzaren menpe izanen ez ziren eta goi-bileraren biharamunean geldituko ez ziren dinamika berriak sortzea. Helburua lortu zen, *Alternatiba eta Action Non-Violente-COP21* mugimenduei esker. Mugimendu horiek, goi-bileraren inguruan abiatu ondotik, aktibo izaten jarraitu zuten, eta hurrengo urteetan ere klima-mugimenduaren eraikuntzan parte hartu zuten.

Laugarren fasea 2016tik 2018ra hedatu zen. Mugimendua nolabait moteldu zen. COP21aren ondoko garaia prestatua izan bazen ere, epe egituratzaile berri- rik ez izateak zaildu zuen mugimendua eraikitzen segitzea. Maila estrategikoan, mugimendua haztamuka bezala zebilen, baina etengabe hazten eta egituratzen, praktika militanteetan bortizkeriarik gabeko ekintzak eta desobedientzia zibila garatuz, hala nola Aulki bahitzaileen kanpaina edo Klima-Kanpamenduak abiatuz. Klima-Kanpamenduek formakuntza-garai erregularrak proposatzen dituzte gaur egun oraino, klima-mugimendua sendotuz.

Bosgarren faseak, 2018-2020an, beste goraldi bat ekarri zuen, nazio- eta nazioarte-mailako fenomenoek ezohiko konbergentzia baten ondorioz. IPCCk 1,5 °C-ko helburuari buruzko txosten berezia argitaratu zuen, eta Nicolas Hulot-ek Ekologia Ministro kargua utzi zuen. Bi gertakari horiek Frantziako Estatu-ko klimaren aldeko martxan mugimendua piztu zuten, urte eta erdiko mobilizazio- garaia ekarriz. Alternatiba Tourrak, bizikleta kolektiboetan egindako 5800 ki- lometroko itzuliak, militantzia klimatikoaren lurralde mailako sarea sendotu zuen, Frantziako Estatuan eta mugako herrialdeetan 200 etapa antolatuz. Lau hilabeteko epean, milaka pertsona bortizkeriarik gabeko ekintzan eta desobe-

dientzia zibilean trebatzeko aukera eman zuen eta, aldi berean, milaka elkarteren eta alternatiben eramaileren arteko loturak sortu zituen. Greta Thunberg ezagun egin zen, irudi mediatiko bilakatu, eta ikasle gazteek eraman klimaren aldeko greben mugimendua ekarri zuen. Kolektibo berriak sortu ziren, hala nola *Citoyens Pour Le Climat*, martxen antolaketaren inguruan, *Youth For Climate* eta *Fridays for Future* ikasle gazteen greben inguruan, edo *La Fresque du climat*, IPCCren txostenen dibulgazio-lan handia egiten duena. Bortizkeriarik gabeko desobediencia zibileko nazioarteko mugimendu berri bat sortu zen: *Extinction Rebellion*; eta Frantziako Estatuan inoiz ikusi gabeko epaiketa olde bat gertatu zen gobernuaren diskurtso bikoitza salatzen zuten ANV-COP21eko ekintzaileak erreprimitzeko, horiek presidentearen erretratuak udaletxeetatik kentzen zituztelarik. *L’Affaire du siècle* ekimenak marka guztiak hautsi zituen petizio bat ekarri zuen Frantziako Estatuan, 2 milioi sinadura baino gehiagorekin, eta ekintza judiziala abiarazi zuen, zeinak Estatuaren lehen kondena eragin baitzuen, klimaren inguruan ezer ez egiteagatik, hain zuzen ere.

Frantziako Estatuan, klima-mugimenduaren eta Jaka Horien arteko loturek ekologiarren eta justizia sozialaren arteko konbergentziaren aldeko mezua zabaldu zuten. Gertakari horiek guztiak hilabete gutxi batzuen epean gertatu ziren, eta horrek klimaren gaiaren presentzia oso handia sortu zuen. Fase honek hainbat ondorio izan zituen: klima-mugimendua zabaldu eta dibertsifikatu zen, bere baitan askoz ere kolektibo ezberdin gehiago bilduz. “Mugimendu sozialen” fase bat ezagutu genuen orduan, ez egitura antolatuek bakarrik bultzaturik, baizik eta mugimendu horren beraren logika informal, deszentralizatu eta espontaneoak sustaturik. Ekintza txikien iruditeria gutxietsia zen, Emmanuel Macronen gobernu neoliberalaren urrats txikien politikarekin parekatutik, eta sistemaren aldatuta erradikal baten ikuspegia hein handi batean partekatua izaten hasi zen.

Seigarren fasea 2020ko martxoan hasi zen, COVID-19 pandemia eta bi konfinamenduak gertatu zirelarik, horiek mobilizazio masiboen geldialdia ekarri baitzuten eta ekintza militanteen maiztasuna asko moteldu. Dinamika militantea askoz ikusezinago bilakatu zen orduan, baina, aldi horretan, klimaren gaia ez zen eztabaida publikotik desagertu. COVID garaiko unerik gogorrean ere, pandemia aktualitatean osoki nagusi zenean, klimari buruzko artikulua beti erregulariki argitaratzen ziren. Badirudi gaia behin betiko errotuta dagoela eta aktualitatearen ardatz bat dela, nahiz eta zoritzarrez gehienetan bigarren mailan egon. Gaiaren iraunkortasuna komunikabideen interes handiagoari eta gaiaren trataera serioago eta zehatzagoari lotua zaio, bereziki, bai eta komunitate zientifikoaren mobilizazio aktiboagoari, zeina eztabaida publikoan ageri baita. Klimatologoak bereziki, hala nola Valerie Masson-Delmotte edo Christophe Cassou, ikusgarriagoak dira, eta larrialdi klimatikoari buruzko solas argiak eta zorrotzak zabaltzen dituzte entzule eta irakurle anitz dituzten hedabideetan. Ikusten da

klima-mugimendua hedatzen ari dela dinamika militanteetatik eta herritarren ekintzatik haratago, eta gizarte-fenomeno zabalagoa bihurtzen ari dela.

Zazpigarren fasean, klimaren aldeko ekintzak lehen planora itzuli direla ageri da, gehienetan balentria moduan, museo handietako margolan ospetsuenen gainera zopa botatzean bezala. Kolektibo berriak sortu dira, hala nola *Dernière Rénovation* Frantziako Estatuan edo Just Stop Oil Erresuma Batuan. Desobediencia zibileko ekintzak aktualitatean erregularatasun handiagoz agertzen hasi dira berriz, Frantziako Estatuko Tourra edo Roland Garros norgehiagoka trabatu zituztenean bezala, eta zientzialariak ere ekintza nabarmenagora igaro dira, hala nola Scientifiques en Rébellion kolektiboa. Oraingoan, alerta-ekintzek markatzen dute nagusiki aldi hori; alternatibei buruzko diskurtsoa, berriz, askoz gutxiago entzuten da, eta askoz gutxiago agertzen da klima-mugimenduaren ardatz egituratzaile gisa.

Laburpen honek klima-mugimendua etengabe aldatzen ari den fenomeno gisa ikustea ahalbidetzen du. Horrek bultzatu behar gaitu zaindu beharreko elementu iraunkorrek eta eboluzionatzera behartuak diren elementuak hautematera. Halaber, aztertu behar dugu zer lan berezi egin behar den goraldi-faseetan eta beheraldi-faseetan, txandakatzen baitira.

Bestalde, gaur egun klima-mugimenduak osatzen duen askotariko panoraman, mugimendu mota ezberdinak bereizi behar ditugu, bakoitzaren eginkizun espezifikoak zein diren ikusi, eta pentsatu nola izan daitezkeen elkarren osagarri.

1.2. Goraldietan eta beheraldietan aitzinatzen segitzea

Garrantzitsua da klima-mugimenduan gertatzen diren goraldien eta beheraldien mekanikaz ohartzea, ahal den neurrian, indar harremanak ez gaizki ebaluatzeko. Goraldi garaian mugimenduarekin bat egiten duen pertsonak pentsa dezake mobilizazioa erraz egiten dela, ikusi gabe mobilizazioaren indarraren parte handi bat menderatzen ez den eta iragankorra izanen den dinamika espontaneo bati lotua zaiola. Orduan, mugimendua azkartzeko edo erradikalizatzeko gogoia izan dezakegu, gure baliabideek epe ertainean benetan ahalbidetzen dutena baino azkarrago. Gure indarrak direna baino handiagoak direla pentsa daiteke, baita aldi baterakoak baino ez diren dinamika batzuen iraunkortasuna eta egonkortasuna direna baino sendoagoak direla ere. Aitzitik, beheraldi garaian, erraz pentsa daiteke ezer ez dela posible, nahiz eta historiak erakusten digun iraunkortasunak eta etengabeko lanak fruituak ekartzen dituztela. Jakina, mobilizazio-lana zailagoa da beheraldietan, emaitzak ez dira hain ikusgarriak, motelago goazela sentitzen dugu, baina fase horiek ere beharrezkoak dira. Aurrera egiteko, ezin dugu itxoin haizeak gure aldera jo dezan: korrontearen kontra egin behar denean ere

aurrera egin behar da. Edozein egoeratan aurrera egiteko gaitasuna izan behar da: konstantzia erronka bat da.

Klima-mugimendua epe luzera pentsatuz, aldaketaren aurrean hartu beharreko jarreraren kontrako beste bi oztopo ikus daitezke. Lehen oztopoa da behar bezainbat ez eboluzionatzea, antolaketa mota batean eta militantzia mota batzuetan gehiegi errotzea, testuinguru jakin batean egoki garatu baitira, baina beste aldi batzuetarako ez baitira egokiak. Oztopo horren sintomak dira ekiteko modu zaharkituak eta militante berriak integratzeko gaitasun eskasa. Izan ere, militante berriek, integratzen duten mugimendu batean ezer aldatu ezin badute, ezin dute berena bezala sentitu. Mugimendu militante bat ez baldin bada aski berritzen eta gehiegi zahartzen baldin bada, gurpil zoro bat sortzen da: zenbat eta militante zaharragoek osatu, orduan eta jende gazte gutxiago erakartzen du. Azkenean, soilik adineko jende osatua baldin bada, ia ezinezkoa egiten zaio bere burua berritzea, bere indar militanteak garatzea, bai eta praktika militante berrietara egokitzea ere.

Alderantziz, mugimendu batek militante berri anitz erakartzen dituenean, indar ukalezina da, baina, hala ere, horrek bere alde txarra ere badu. Arriskua da dena berriz asmatu nahi izatea, dena hutsetik hasi nahi izatea, iraganeko esperientziak eta gogoetak kontuan ez hartzea, eta bere historia ezagutzen ez duen mugimendu amnesiko baten gisa jokatzeko, inolako jarraipenik gabe. Horrek iraganeko garaipenetatik eta porrotetatik ez ikasteko eta, beraz, behin eta berriz akats berberak errepikatzeiko arrisku larria dakar.

Beraz, funtzionamenduak doitu behar dira, militante hasiberrien eta zaharriagoen parte-hartzea orekatzeko. Baina, orokorkiago, adin nahasketaren alde egin behar da ere; horrelako nahasketa erabakigarria da aniztasun soziologikoa bermatzeko, eta masa-mugimendu herrikoia eraikitzeke ere bai. Izan ere, masa-mugimendu herrikoirik ezin da eraiki adin kategoria bakar batean oinarritzen bada.

Klima-mugimenduaren eraikuntzaren fase orotan, garrantzitsua da jarraipenean eta historian kokatzea. Ez Bizi eta ez Alternatiba ez dira ezerezetik sortu. Bizi mugimendua, 2010eko hamarkadaren hastapenean frantses militanteen panoraman hain salbuespenezkoa izan zena, non originala eta berria baitzen, eta oraindik ere jende askorentzat inspirazio-iturri dena, mugimendu ezberdinek sortutako ondare militante aberats batez baliatu zen, bera ere. Bizik krisi ekologikoaz egiten duen diagnostikoa ekologia politikotik eta Greenpeace eta Lurraren Adiskideen Sarea bezalako erakunde historikoetatik dator. Egiten duen kritika sistemikoa Attac-ek eta 1990eko eta 2000ko mugimendu altermundialistak egindako kapitalismoaren azalpenetik dator. Egiten duen aditu-lana *Réseau Action Climat* sarearen lanean eta Fondation pour la Nature et l'Homme fundazioaren "Itun Ekologikoan" oinarritua da. Biziren ikuspegia Herve Kempf

(*Comment les riches détruisent la planète*), Geneviève Azam (*Le Temps du monde fini, vers l'après-capitalisme*), Maxime Combes (*Sortons de l'âge des fossiles !* liburuaren egilea eta *Urgence climatique, justice sociale* kolektiboen animatzaileria), Susan George (*Leur crise, nos solutions*), Jean-Marie Harribey (*La Richesse, la valeur et l'inestimable, Fondements d'une critique socioécologique de l'économie capitaliste*), eta Corinne Morel-Darleux (*Nos colères fleuriront : arracher les mauvaises herbes du capitalisme vert*) bezalako intelektualen lanaz elikatu da. Intelektual horiek Manu Robles-Arangiz fundazioak Euskal Herrian antolatu hitzaldietan parte hartu zuten, eta horrek guztiak Biziren sortzea ekarri zuen. Biziren ekintza-metodoak, usaiak kanpokoak eta umoretsuak, Demoen mugimendutik heldu zaizkio. Haren antolaketa zorrotzak, lehen aipatu dudana bezala, Act Up-en eredia hartu du, Act Up-en sortzaile izan zen Didier Lestrade-ren ekarpenari esker. Biziren irudi-estiloa Greenpeaceren estiloan oinarritua da. Bortizkeriarik gabeko estrategia lantzeko, Larzac-eko borrokaren, bortizkeriarik gabeko nekazari mugimenduaren eta Euskal Herriko intsumisioaren aldeko mugimenduaren historiak erabili ditu, Jean-Marie Mullerren lan teorikoa (*Stratégie de l'action non-violente*) baita *Mouvement pour une Alternative Non-Violente* mugimenduarena, etab. Bizi mugimendua, beraz, jarraipen batean kokatzen da, herentzia batez baliatu da, bera ere laborategi izan aitzin. Gero, berak, bere al-dian, esperientzia berriak eta praktika berriz asmatuak, hobetuak, ekarri ditu. Ondotik, beste ekimen batzuk Biziren ekarpen horietan oinarritu ahal izan dira, bereziki Alternatiba eta ANV-COP21.

Bizi mugimenduak erran ohi du ez duela nehoiz deus asmatzen, baina beti birziklatzen duela beste gai batzuei buruz egin dena, beste leku batzuetan, beste herrialde batzuetan, beste garai batzuetan. Asmatzeko, sortzeko eta originala izateko gaitasunak ezin ukatuzko indarrak ematen ditu, baina, horrez gain, ez da gutxietsi behar inolako originaltasunik ez duten baina ordezkaezinak diren militantzia-teknika tradizional batzuen garrantzia. Horiek alde batera uzteko joera dago, zaharkituak lirakeelakoan, baina hori uste okerra da. Horrela, mugimendu ekologistaren zati handi batek luzaz baztertu ditu kartelak itsasteko, eskuorriak banatzeko, atez ateko teknika zaharrak. Alta, teknika horiek *online* lortu ezin diren emaitzak ekar ditzakete. 2013ko Baionako Alternatiben Herrixkaren antolaketa teknika tradizional horietan oinarritu zen eta, Alternatiba sarearen bidez, lurralde anitzetan teknika tradizional horiek gaur egungo praktiketan berriz sartzeko lagundu zuen.

Oreka bilatzea mugimendu guztien erronka garrantzitsuenetarik da, ebo-luzionatzeko, geldirik eta zaharkiturik ez egoteko, eta amnesikoa eta funtsik gabea ez izateko.

1.3. Erakundeen aniztasuna

Gaur egun, beraz, klima-mugimendua asko garatu eta dibertsifikatu da Frantziako Estatuan. Mugimenduen aniztasun hori, usu, sakabanaketa gisa ikusten da. Maiz entzuten dira bat egiteko deiak, baita erakundeak fusionatzeko deiak ere, nire ustez okerra den diagnostiko batean oinarrituz: horren arabera, mugimendu globala ahulegia litzateke “zatituta” egongo litzatekeelako.

Lehenik, sortu diren mugimendu berriek indar berriak ekarri dituzte. Kasu gehien-gehienetan, oraindik militatzen ez zuten pertsonak erakarri dituzte. Beraz, mugimendu gehiagoren batuketa dago, eta ez ustezko “mugimendu global batu” baten zatiketa, azken hori errealitatearekin inola ere bat ez datorren eraikuntza intelektuala baita. Ez da inoiz izan aurretik zegoen eta orain hainbat joeratan zatiturik dagoen mugimendu handi baturik. Mugimendu asko daude, eta horietako bakoitzak indar eta harri berriak ekartzen dizkio elkarrekin eraikitzen dugun askotariko mugimenduari.

Bigarrenik, aniztasun hori aberastasuna da, mugimendu horiek guztiek pertsona ezberdinen profilekin bat datozen funtzionatzeko modu ezberdinak baituzte. Pertsona batzuek ez dituzte batere maite Bizi edo Alternatibaren metodo diziplinatuak, baina beste mugimendu batzuetan aurkitzen ahal dituzte gehiago komeni zaizkien giroak, hain ordenatuak ez diren eta informalagoak diren metodoak. Hori are baliagarriagoa da funtzionamendua asko moteltzen baita, usu, metodologia-eredu desberdinegiak dituzten pertsonak mugimendu bakar batean biltzen direnean: gatazkak gertatu ohi dira, batzuetan jarduera gelditzera. Hainbeste mugimendu ezberdin izanik, ate gehiago irekitzen ditugu jende gehiago erakartzeko, gure estrategien aniztasunak aukera ematen dio militante bakoitzari esparru egokia aurkitzeko eta, ondorioz, denbora luzean inplikatzeko.

Hirugarrenik, mugimendu horietan ekintza-modu ezberdinak aurkitzen dira eta bakoitzak alde onak eta txarrak baditu, aldi berean. Adibidez, *Greenpeace* epe luzean garatutako kanpainen bidez ari da lanean, eta horrek zailago egiten dio ekintza erreaktibo eta puntualak egitea aktualitateak horretarako aukera ematen duenean. ANV-COP21 edo *Extinction Rebellion* aldiz, malguagoak dira eta horretarako egokiagoak. Bestalde, epe luzerako kanpainen ahalbidetzen dute adituak izatea eta estrategia landuagoak garatzea... eta ekintza puntual oportunistak egin behar direnean, askotan, ANV-COP21ek dei egiten die *Greenpeace*, *Amis de la Terre* edo *Réseau Action Climat* bezalako GKEei, haien adituen gaitasunetan bermatzeko. Erakunde legalistek, hala nola *France Nature Environnement* edo *Fondation pour la Nature et l'Homme* mugimenduek, ez dute desobediencia zibila erabili nahi eta, ondorioz, ekintza-mota estrategiko batzuk ezin dituzte erabili; baina, bestalde, erakundeek errespetatzen dituzte. Horrek aukera handiagoa ematen die araudi eta lege alorretan eragiteko, eta alor horiek ere es-

trategikoak dira. Ekintza-moduei buruz egiten den hautu estrategiko bakoitzak alde onak eta txarrak badauzka, nahitaez. Ekintza-modu horien aniztasunak abantailak ekartzen ditu, maila guztietan, eta mugimendu orokorraren erresiliencia ahalbidetzen du, mugimendu baten ezintasunak beste baten abantailen bidez konpentsatuz.

Azkenik, ikuspegi politikoari dagokionez, klima-mugimendua aski homogeneoa da oro har: sistema kapitalista auzitan jartzea eta aldaketa erradikalak aldarrikatzea, baita larrialdi klimatikoa justizia sozialaren beharrekiko artikulatzea ere, iritzi adostuak dira klima-mugimenduaren zatirik handienean. Beraz, mugimenduen ezberdintasun hori abantaila da, baldin eta mugimendu mota bakoitzak ukan ditzakeen eginkizun ezberdinak ongi bereizten badira. Zentzu horretan, “mugimendu” hitzak, bereziki lausoa eta polisemikoa baita, eginkizunen bereizketa, artikulazioa eta osagarritasuna zailtzen ditu.

1.4. Mugimenduen izaera

“Mugimendu” terminoa hainbat fenomeno oso ezberdin adierazteko erabiltzen da. Hasteko, “mugimendu sozialak” aipatzen dira mobilizazio-fenomenoak izendatzeko, hala nola Jaka Horienak, Gaua Zutik edo Suminduenak. Mugimendu espontaneoak izan ziren, zeinak eragin zituzten gertaerak inork ez baitzituen kontrolatu edo erabaki. Hortik dator haien izaera, berez antolatua edo, hobeki erranik, aski modu informalean antolatua, baina horrek, beste arrazoi batzuekin batean, iragankor bihurtze ditu ere. Olatuak bezalakoak dira, pasatzean gauza asko eramán ditzaketanak eta azkenean ezabatu egiten direnak, nahiz eta gero sakonak izan daitezkeen aztarnak utzi. Horrelako mugimenduetan askotan badago bozeramaile ofizialik ez izateko borondatea, nahiz eta praktikan “pertsanak” agertzen diren eta zeregin hori betetzen duten, baina manurik gabe eta publikoki erabilitako diskurtsoaren lanketa kolektiborik gabe. Aldarrikapenak oso azkar alda daitezke, Jaka Horien mugimenduekin gertatu zen bezala, erregaien gaineko zerga baten aurka piztu baitzen, erreforma demokratiko baten aldeko aldarrikapenak zabaldu aitzin.

“Mugimendu sozialak” ere aipatzen dira sindikatuek bultzatutako mobilizazioak izendatzeko, hala nola grebak eta manifestazioak. Beste fenomeno hori, jadanik, oso ezberdina da, talde identifikatuek, bozeramaile ofizialek, antolaketa formal batek, manifestazioetako ordena zaintzeko taldeek eta abarrek planifikatutako gertakariak baitira.

Esapide bera erabiltzen da, bestalde, “mugimenduak” izendatzeko, hala nola *Extinction Rebellion*, *Colibris*, *Action Non-Violente-COP21* edo *Alternatiba*. “Mugimendu” horiek, alde batzuetatik, *Greenpeace*, *Amis de la Terre* edo *Attac* bezalako GKEetatik hurbilago daude, nahiz eta ez diren GKE gisa definitzen. Arrazoi

nagusia da, hain segur, funtzionamenduaren aldetik bereizten direla. “Mugimendu” batek GKE bat baino malguagoa, inklusiboagoa, “herritarragoa” izan nahi du. Izan ere, GKEek administrazio kontseilua, ordezkari-tza sistema eta abar dauzkate, hots, funtzionamendu formalago eta klasikoagoa. GKEek kide-tza esplizitu eta ofizialeko sistema daukate, “mugimenduek” kideak modu informalean, kide-tzari-rik gabe integratzen dituzten bitartean. Horrela, forma hibridoagoak dauzkate, GKE “klasikoen” eta “mugimendu sozial espontaneo-en” artean kokatuz. Alde malgua, moldagarria eta informala dute, azken hauek bezala, baina antolatua-goak dira, GKE “klasikoetara” hurbilduz, eta horrek irauteko ahala ematen die. Engaiamendu moldeen berritzeko gogo handi bati erantzuten diote, molde zahar-rak, jende askoren ustez (oker edo zuzen) gaindituak baitira. Nahiz eta, egiazki, ustez klasikoak diren GKEak ere mugimendu “herritarrak” bezain herritar di-ren: elkarte eta GKEetan formalki sartzen diren pertsonak, bistan da, beste mu-gimendu batzuetan modu informalean aritzen direnak bezain “herritarrak” dira. Bestalde, GKEek funtzionamendu berritzaileak esperimentatu ditzakete, eta “mugimendu” informalekoak asanblada bidezko funtzionamenduetan sortu ohi diren tranpa klasikoetan eror daitezke. Beraz, bi egitura mota horiei buruz ukan ditzakegun ideiak kontu handiz hartu behar dira.

Azkenik, “mugimenduak” zentzu zabalagoan ere hitz egin daiteke: “mugimen-du ekologistak” ez du inolako elkarterik izendatzen, ezta “mugimendu feminis-tak” edo “arrazakeriaren aurkako mugimenduak” ere, azken horiek ere elkarte eta mugimendu herritar ezberdin ugari osaturik baitaude. Izan ere, esapide horren bidez iritzi publikoan dagoen mugimendu zabalago bat izendatzen da: gai jakin baten inguruan biltzen diren ideia multzo baten mugimendua, iritzi pu-blikoan bere lana egiten duena eta gure kultura, imajinarioa eta ohiturak alda-tzen dituena.

Ezberdintasun estruktural horien ondorioz, ezin dira mugimendu mota ez-berdin hauetatik gauza berak espero izan. Horrek erran nahi du mugimendu batek ez duela dena berak bakarrik egiteko bokaziorik, baina beste mugimendu batzuen ekarpenekin artikulatu daitezkeen osagai jakin batzuk ekar ditzakeela.

Alternatiba bezalako mugimendu herritar antolatua-*ak* behar ditugu, engaiat-zeko molde “espontaneo-en” eta GKEek edo sindikatu-*ek* lantzen dituzten estra-tegia kolektibo landuagoen arteko lotura egiteko. Funtsezkoa da mugimendu so-zial espontaneo-en aitzinean erreakzionatzen jakitea; izan ere, iragankorrak izan arren eta haien estra-tegiak gutxi kontrolatu arren, fenomeno horiek eragin han-dia dute iritzi publikoan, denbora laburrean. Ondorioz, historiaren bizkortze-faseak ekartzen dituzte. Alabaina, alde batetik, oihartzun handiko aldaketak era-gin ditzaketan olatuen eragina dago eta, beste alde batetik, uraren lan iraunkorra, ibaietako arro-*ak* eta hondoa zulatzeko gai dena: bi fenomeno horiek ahaltsuak dira, bakoitza bere moduan.

Gertaeren eta mugimendu globalaren bilakaeraren arabera, mugimendu horien eginkizunak doitu eta garatu daitezke. Hala nola, Alternatibaren kasuan, urteetan “ezerezetik” eraikitako herritarren mobilizazioen sortzaile izan ohi baitzen, 2018ko irailean sortutako klimaren aldeko martxen dinamikak egoera aldatu zuen. Zeren, handik aurrera, ez baitzen egutegia gehiago kontrolatzen. Martxen datak Facebooketik ateratzen ziren, kontzertaziorik gabe, eta aurreikusitako beste jarduera gehienak egokitu edo bertan behera utzi behar ziren. Orduan, Alternatiba talde askok pentsatu zuten klimaren aldeko martxa horietan jokatzeko zena, Jaka Horien mugimenduaren osagarri, beste jarduerak baino garrantzitsuagoa zela. Beraz, talde anitzek beren planak berrantolatu zituzten, eta martxak antolatzen zituzten kolektiboetan sartu ziren, antolaketaerako zeukaten esperientzia ekarriz eta lurralde batzuetan animazio-lan garrantzitsua eginez.

1.5. Eginkizunen eta jarduteko moduen osagarritasuna

Askotan, militanteek ekintza-modu batzuk lehenesteko joera izaten dute, beste batzuk gutxiago erabiliz, baita batzuk fetitxe bihurtzeko joera ere, arreta merezi duten bakarrak direlakoan. Alta, hobe dugu eginkizun osagarri andana bat etengabe ziurtatuta egon dadin, gure mugimenduen aniztasunari esker. Mobilizazio jendetsuak behar ditugu militanteak ez diren publikoak modu zabalean integratzeko. Bortizkeriarik gabeko ekintzak behar ditugu, engaiamendu maila anitz proposatuz: ofentsibarako traba- edo blokeo-ekintza ahalbidetzen dituzten maila altuak, eta hasiberrientzat errazagoak diren beste maila batzuk. Ekimenak behar ditugu alternatibak masiboki garatzeko. Aise adosten diren gaien inguruan jende anitz bilduko duten mobilizazioak behar ditugu eta, denbora berean, gure gaiak eztabaida publikoan aitzinarazteko, desadostasunak onartuko dituzten ekintza erradikalagoak behar ditugu. Eginkizun horiek guztiak beharrezkoak dira baina, klima-mugimenduaren eboluzioaren fase guztietan, batzuk ez dira beti segurtatuak. Sarritan, ekintza-modu bat beste bat baino gehiago balioestera daramaten moda-efektuak badaude. Jakin behar da, noski, moda-efektuez baliatzen, ahalik eta hobekien erabiltzen, baina hori ez da nahikoa estrategia oso baten gauzatzea bermatzeko. Lan proaktiboa ere egin behar dugu eginkizun horiek guztiak molde konstantean segurtatzeko, moda-efektutik eta hedabideek ekintza-moldeei buruz daukaten interes aldakorretik kanpo. Oraingo fasean, adibidez, 2018 eta 2019an biziki erakargarriak izan ziren mobilizazio jendetsuek indar anitz galdu dute, klimaren aldeko martxak bakanago burutu baitira, eta ikasleen grebak ez baitira hain handiak izan. Gauza bera gertatu zen 2010eko lehen urteetan biziki arrakastatsuak izan diren alternatiben kasuan, orain itzalean garatzen ari baitira.

Alderantziz, gaur egun, desobedientzia zibileko ekintzen moda-efektua eta erakargarritasuna ageri da, eta deiadarra jotzeko ekintzak lehen planoan daude. Alerta-ekintza horiek, adibidez errepideak blokatuz edo museoetako pintu-

ren gainera zopa jaurtikiz burutzen direnak, alarma pizteko balio dute. Bistan da erabilgarriak direla: anormaltasun baldintzak sortzeko balio dute. Alerta-ekintzak aspalditik erabili izan dira mugimendu militanteetan eta, hein handi batean, kezka ekologistak eztabaida publikoan finkatzen lagundu dute. Ekintza horiek beharrezkoak dira gaur egun gizarte osoak gogoan har dezan nahasmendu klimatikoa bertan daukagula eta ohiz kanpoko zerbait bizitzen ari garela. Baina deiadarra jotzea ez da nahikoa, eta ekintza-modu hori kaltegarria izan daiteke zenbait publikori buruz, gorago aipatutako beste ekintza-moduekin osatzen ez bada. Erregulariki, desoreka dago asko erabiltzen diren ekintza-modu batzuen eta baztertuak diren beste batzuen artean. Desoreka horien arrazoietakoa bat da militanteek, beren jarduteko moduen aukeratzeko, beren emozioetan oinarritzeko joera dutela, azterketa estrategiko hotzean oinarritu ordez. Nahasmendu klimatikoaz kontziente izateak antsietate handia sortzen duenez, aktibista asko larritasun hori transmititzen duten ekintzak egiteko joera dute, eta ekintza horiek izu-sentsazioa sor dezakete. Ekintza, orduan, ez da estrategia landu bat gauzatzeko bide bat, baizik eta emozioak adierazteko eta nork bere inguruan transmititzeko modua. Baina benetan nahi ote dugu jendea ikara dadin? Egiazki, ez: helburua da jendea mobiliza dadin eta ekin dezan. Soilik alertaren aldeko apustua egitea, antsietatea eta izua transmitituz, sutan dagoen eraikin batean alarma jotzea bezala da, handik irteteko planik ukan gabe eta bertan dauden pertsonen zer egin ez dakitela. Bizkitartean, arrisku egoeran ez dugu izu-erreakziorik behar, gauzak okertzeko arriskua ekarriko bailukete. Aitzitik, erreakzio koordinatua behar dugu. Beraz, irteera-plan bat proposatu behar da, hots, alde batetik, alternatibak eta, bestetik, jarduteko eta engaiatzeko modu zehatzak. Beraz, gure ekintzak gidatu behar dituena ez da sentitzen dugun emozioa, eta ez bakarrik ekintza horiek besteengan sor dezaketen emozioa, baizik eta ekintza horiek militanteak ez diren pertsonen engaiamendua pizteko ukan dezaketen eragina. Ekintza bat baliagarria da, batez ere, engaiamendu baliagarri bat pizteko gai baldin bada. Mugimendua masifikatzea eta ahalik eta populazioko sektore gehien hartzea denez erronka, ekintzak baloratzeko irizpide nagusia engaiamendua sortzeko gaitasuna izan behar da. Eta hori, gorago aipatu eginkizunen sorta osoan, estrategia oso baten alderdi guztiez baliatzeko gisan.

Erronka da, beraz, ekintza-erregistro guztiak hobeki erabiltzea, molde konstanteagoan, baina baita horietako bakoitza indartzea ere. Heldu den hamarkadan kokatu behar dugu, gorago joateko helburuak identifikatuz.

2. HAMARKADARAKO IKUSPEGI ESTRATEGIKOAK

Nola heldu datorren hamarkadari? Non daude lehentasunak klima-mugimenduaren segidarako? Proposa daitezkeen bideen artean, denborari eta ziurgabetasunari lotu nolabaiteko beldurra dago. Oso zaila da etorkizunean kokatzea,

nahasmendu klimatikoaren testuinguruan, ezegonkorra baita eta antsietatea sortzen baitu. Eta are gehiago nahasmenduak etengabe jasaten ari garenean, hala nola 2008ko subprime hipoteken krisia, 2015eko atentatu terroristak, 2018ko Jaka Horien mugimendua edo 2020ko COVID-19 pandemia. Gertakari horiek testuinguru politiko, sozial, ekonomiko eta kulturala sakonki aldatu dute eta, aldi bakoitzean, klimaren aldeko mobilizazioa egiteko edo ez egiteko baldintzak birmoldatu dituzte. Beraz, epe luzeagora proiektatzea bereziki zaila da, baina, hala ere, proiektatze hori ezinbestekoa da masa-mugimendua eraikitzen jarraitzeko. Egoera mugikor batean gaudenez, denbora kontrolatzeko, larrialdia eta epe luzea kudeatu behar ditugu, biak batera, ziurgabetasuna euskarri bihurtuz.

2.1. Epe luzerako larrialdia

Kemena atxikitzea eta ekintza boluntario eta positiboan sartzea erronka bat da, berez, klimaren aldeko borrokan. Etsipenera bultzatzen gaituzten arrazoibide ugari inguratzen gaituzte: indar harremana kontra daukagu eta iruditzen zaigu sistema hori ezingo dugula aldatu, pentsamoldeak aldarazteko zailtasuna egunero ikusten dugu, ezin da ulertu klimaren gaia telebistako albiste-emankizun guztietako lehen gaia ez izatea (izan ere, egunero aipatu beharko litzateke, gertakari historiko nagusia delako). Batez ere, denborarekin eta larrialdiarekin daukagun harremanak markatzen gaitu. Denbora izanen bagenu, aurrean daukagun zailtasun guztiak denbora luzeagoan proiektatu ahal izanen genituzke, denbora izateak edozer ahalbidetu eta edozer ekar baitezake. Baina nahasmendu klimatikoaren aurrean, larrialdia da itogarriena: denbora mugatuaren kontzientzia, atzerako kontaketak eragin ikara, denbora eskas dela jakiteak sortu herstura. Denbora ulertzea, beraz, bereziki erabakigarria da, nola militatu erabakitzeke.

2009an jada, ez ote zen erraten hamar urte geneuzkala ekiteko? Hamar urte baino gehiago iragan dira, eta ez dugu lortu nahasmendu klimatikoa eragozte. Beraz, dena ez ote da galduta? 2018an, Antonio Guterres NBEko idazkari nagusiak ez ote zuen erran bi urte besterik ez geneuzkala ekiteko? Epe hori iraganik, geratzen ote da zerbait salbatzeko? Eta IPCCren 2022ko apirileko azken txostenaren kariatara entzuten da orain hiru urte baizik ez ditugula ekiteko³². Orduan, hiru urteko epean lortu behar ote dugu dena? Hots, klimaren aldeko borroka ez ote da galdua?

Bai eta ez, egia erran. Nolabait, klimaren aldeko borroka benetan galdua da, aldaketa klimatikoa hasia dela kontuan harturik, hori atzeraezina den fenomeno baita eta jadanik eragotzi ezin diren ondorioak eragiten baititu. Gaur egun 1,1 °C-ko berotze globalean gaude, eta ezin dugu ezeztatu. Bataila hori, hots,

³² Hori hedabideetan eta sare sozialetan modu masiboan zabaldu den erran-moldea da, IPCCren txostenaren egileek kritikatzan dutena, sinplifikazio engainagarria delakoan.

aldaketa klimatikoaren hastea eragozteko gudua, dagoeneko galdua da, eta, dagoeneko, ondorio ekologiko eta humanitario katastrofikoak dauzka munduko leku askotan. Zertan dago berotzea +1,5 °C-ra mugatzeko helburua? Izan ere, klimatologoek gure gizarteak egokitzeko baldintzak atxikitze gaitasunak behar ez den mailatzat jotzen dute, baina ahots anitzek erraten digute dagoeneko helmenetik kanpo dagoen helburua dela... Oraindanik +2 °C-ko helburuaren alde borrokatzea etsi behar ote dugu? Helburu horrek hegoaldeko herrietako eta uharteetako eskualde batzuk sakrifikatuko lituzke, baina munduko eskualde gehienetan “zentsuzko” egokitze-gaitasunak mantenduko lituzkeela uste da... Baina aukera etikoa ote da?

Denboraren arazo hori, psikologikoki bederen, “hamarren bakoitza garrantzitsua da” formularen bidez konpontzen da. Bai, borrokan jarraitu behar dugu berotzea +1,5 °C-ra mugatzeko, ez baitago moralki onargarria den beste aukerarik, nahiz eta badakigun hori lortzeko aukera gutxi dagoela. Azkenean helburu hori lortu ezin bada, +1,6°C-ko helburua lortu behar dugu, eta, ondotik, +1,7 °C-koa, gradu hamarren bakoitzak milioika bizitza gehiago joko baititu, eta milaka espezie galzorian edo desagertzeko arriskuan jarriko baititu.

Borroka klimatikoa ezin da pentsatu modu bitar hutsean, non uste baita behin betiko atalaseak badaudela eta horien arabera dena irabazi edo dena galduko dela. Dagoeneko asko galdu dugu, gehiegi; baina oraindik askoz gehiago gal dezakegu, eta atalase askoz larriagoak gaindi ditzakegu.

Arrazoi genuen esaten genuenean hamar urte geneuzkala ekiteko, hau da, orain gauden egoeran egotea eragotz zezaketen neurriak hartzeko, baina ez dugu lortu. Hamarkadako gudua galdu dugu, eta horrek mendeko gudura garamatza orain. Nahasmendu klimatikoaren hasiera eragotzi ez dugulako, bi norabidetan borrokatu beharko dugu mende honetan zehar: alde batetik, aldaketa klimatikoaren alde saihestezinera egokitzeko eta, bestetik, haren eraginak arintzeko, beti, hondamendiaren tamaina ahal den neurrian mugatzeko.

François Gemenne-k, ingurumen- eta klima-migrazio gaietan aditua den politologoak eta IPCCren txostenaren egilekideak, gauden egoera ongi laburbiltzen duen formula bat erabili du³³: “ibilgailua errepedetik irten da dagoeneko, orain itzulipurdien kopurua murriztea da kontua”. Nork erran dezake itzulipurdien kopurua ez dela garrantzitsua, errepedetik irten eta gero? Itzulipurdi bakar bat edo hamar bat egitea berdin dela? Itzulipurdien kopurua mugatzeko ahalmena, klima-aldaketaren tamaina mugatzeko ahalmena, funtsezkoa da. “Dena edo ezer

³³ «Klimari buruzko IPCCren txostena: “Ibilgailua errepedetik irten da dagoeneko, orain itzulipurdien kopurua murriztea da kontua”, dio txostenaren egile batek», France Info, 2022ko otsailaren 28a.

ez” logika batean inola ere laburbildu ezin den aukera horri –eta erantzukizun horri– eusten diogu.

Maiz gogoetatzen dut zer erranen diedan orain haurtzaindegira eta eskolara joaten diren haurrei, 2050ean, hogeita hamar urte izanen dituztenean. Ezin dut imajinatu aldaketa zailegia iruditu zitzaigula erratea, 2050ean are zailagoa izanen baita, bistan da. Ezin dut inola ere imajinatu ezinezkoa zirudiela erratea, oraingo ibilbidea asko zuzentzeko behar diren ezagutza guztiak eta hainbeste gaitasun tekniko dauzkagunean, gaur egun. Oraingo ekintza ezak, egunerokoan dauzkagun oztopoak (egiazkoak izanik ere), hain ezdeusak irudituko zaizkie, 2050ean jendeak biziko dituen ondorio konkretuen aldean! 2050ean, klimaren aldeko borrokak gaurkotatzen izaten jarraituko du: atalaseak gaindituak izan edo ez, borrokak jarraituko du, mundu guztiak aurre egin beharko baitio. Borroka hori zailagoa edo errazagoa izanen da, eskura ukanen ditugun baliabideak eraginkorragoak izanen dira edo ez, orain, aurten, hamarkada honetan egina izanen dugunaren arabera. Egia da ez dugula lortu aski goiz balaztatzea, ibilgailua errepidetik irten zedin eragozteko, baina ez dugu horregatik balaztatetik gelditu behar, alderantziz baizik. Gaur egun, jokoan dagoena ez da hondamendiaren aukera, hondamendiaren *tamaina* baizik.

Beraz, larrialdia badago eta, aldi berean, premiazkoa da denbora luzean proiektatzea. Larrialdi hori emozionalki bizitzeak eragiten duen mina badago eta, aldi berean, klimaren aldaketaren fenomenoak baldintzatuko duen mende batean proiektatzeak sortzen duen ezinegona. Orduan, *larrialdia epe luzean* ulertu behar dugu. “Dena edo ezerez” bitarretik irten eta abiadura- eta iraupen-lasterketak uztartu, klima-belaunaldiko kideen bizitza osoa iraungo duen borrokan. Erronka klimatikoaren denborazkotatzen berezi eta kontraesankor horrek adone berezia eskatzen du. Adone hori engaiamendu kolektiboan aurki dezakegu, elkartasunaren, elkar laguntzearen, lankidetzaren, tolerantziaren, erresistentziaren, bortizkeriarik ezaren inguruan, esperantzen ausardia ere ukanez.

2.2. Ziurgabetasunaren ziurtasuna

Borroka klimatikoaren etorkizunean kokatzeko bigarren zailtasuna bizi dugun garaiaren ezegonkortasun handitik dator. Lehen erran dudana bezala, gero eta gehiago aurreratzen ari gara testuingurua bat-batean aldatzen ari den garai baterantz, zurrunbiloen artean: finantza-krisia, autoritatearen gogortzea, muturreko gertaera klimatikoa, atentatu terroristak, sistemaren kolapso moduko zerbait, hondamendi nuklear bat, Trumpen eta Bolsonaroren hautaketak, gerra baten hastea, pandemia, energia-krisia...

Ziurgabetasun-egoera hori oso deserosoa da, eta bereziki zailtzen du epe ertain eta luzerako planak eta estrategiak lantzea. Beraz, ziurgabetasun hori

abiapuntu bihurtu behar da. *Ziurgabetasunaren ziurtasuna* lortu eta gogoan hartu behar da ondoko ideia: izan dezakegun ziurtasun bat behintzat badago, ziurgabetasun egoera honetan gaudela! Baldin badakigu ezin ditugula ezagutu gertakarien segidari buruz erabakigarriak izanen diren gertakari gehienak, badakigu, halaber, biziki malguak eta moldagarriak izateko moduan antolatu behar garela, gaurkotasunera egokitzeko eta erreaktiboak izateko. Zailtasunak helduleku bihurtzea are garrantzitsuagoa da, zeren eta nahasmenduak ez baitira beti hondamendiak, eta gertaera mesedegarriak ere izan baitaitezke. Adibidez, herri-tarren mugimendu bat, iritzi publikoa aldatzen den momentu bat, mugimendu sozial berri bat (hala nola Suminduak, Occupy, Gaua Zutik, Jaka Horiak, Gazteak Klimaren Alde), politika aldaketa mesedegarri bat, ustekabeko aliantzetarako aukerak izan daitezke. Bestalde, gure arerioek hunkitzen dituzten eskandaluak eta egiten dituzten akatsak ere izan daitezke. Edozein kasutan, erreaktiboa izan behar da, gertakari horiek sortzen duten energia eta sentimenduak ahalik eta hobekien erabiltzeko, eta mugimendu espontaneoan eta indar antolatuen arteko aliantzarik hoberenak aurkitzeko, horiek mobilizazio konkretu bilakatzeko gisan. Historiaren haustura edo azelerazio momentu askok egoera alda dezakete, aste gutxitan. Horrelako edozein talkak aldaketa garrantzitsuak eragin ditzake norabide batean edo bestean: liberalismo gehiagorantz, gogortze autoritario-rantz, eskuin muturraren progresiorantz, bortizkeriaren gorakadarantz edo, alderantziz, guk nahi dugun bezala, gizarte ekologiko, justu, baketsu eta solidarioagorantz. Egoera horietan, gertaeretara egokitzeko eta erantzuteko ditugun gaitasunak dira aukerak baliatzeko eta aldaketa garrantzitsuak zentzu positiboan laguntzeko posibilitatea ematen digutenak. Zenbat eta handiago izan talka klimatikoak, ekologikoak, sozioekonomikoak, orduan eta gehiago beharko dugu egokitzeko, asmatzeko, elkarri laguntzeko gai izanen den sare bat.

2.3. Erresistentzia-, erresilientzia- eta elkartasun-sarea

Zurrunbiloen mentura horren aurrean, ekar dezakegun erantzunetako bat talde sare deszentralizatu gisa antolatzea da, talde autonomoak baina elkarri lotuak bilduz. Talde autonomo eta erresilienteak behar ditugu, beren lurraldeetan erro-tuak eta tokian tokiko errealitateari egokituak, baina balio eta metodo komunenguruz inguruan garatzen direnak, eta ikuspegi politiko orokor bat partekatzen dutenak. Horri esker, sareak koordinazio-gaitasunak ukan ditzake, gure lurraldeez hara-indiko helburu estrategiko komunenguruz inguruan gure indarrak biltzeko gaitasuna ere; beraz, maila orokorrean ere ekiteko gaitasuna, eta ez bakarrik tokiko mailan.

Hiru ardatz osagarri nagusik gida dezakete horrelako talde-sare baten garapena eta ardatz horiek mugimendu ekologistetan jadanik ongi garatuak diren hiru balioekin bat datoz: erresilientziarekin, erresistentziarekin eta elkartasunarekin.

Lehen ardatza, erresilientziarena, alternatiben garapenari dagokio. Alternatibak beti izanen dira testuinguru aldaketetara egokitzeko dugun gaitasunaren muina: beste manera batez bizitzeko bide zehatzak dira (janaria, energia, garraioa eta abar) eta, lurralde baten mailan garatuz geroz benetan sistema bat eraiki dezaketenak. Kontua da gure lurraldeen erresilientzia oso konkretuki erakitzea, alternatiba operatibo eta aski masiboak plantan ezarriz, gure bizimoduak egokitu ahal izateko, klima nahasi ahala, kolapsoa areagotu ahala, liberalismoak edo finantza-krisiek zerbitzu publikoak desegin ahala.

Nahiz eta alternatibak gero eta ezinbestekoagoak izanen diren, nahasmendu klimatikoa larriagotuko delako menturak ez digu borroka bertan behera utzarazi behar, soilik egokitzeko helburua ukanen lukeen estrategia bati heltzeko, edo estrategia lokalista huts bati, edo berdin biziraupen-logika bati ere. Aitzitik, alternatibak eta erresistentzia elkarrekin eramanen dituen logikak gero eta garrantzi handiagoa izanen du, bai eta egokitzapena eta arintzea sustatuko dituzten ekintzek ere.

Bigarren ardatza, beraz, erresistentziarena da. Nahasmendu klimatikoa eta suntsiketa ekologikoa larriagotzen duten proiektu eta jarduerak eragozteko dugun gaitasunari dagokio. Klimaren gudua ez da 2030ean bukatuko, ez 2050ean, ezta 2100ean ere. Hamarkada asko iraungo duen garai batean sartu gara, eta berotegi efektuko gasen isuriak mugatzeko aukera beti egongo da indarrean, orduko berotze globalaren atalasea edozein izanik ere. Energia fosil ugari dago oraindik lurrian eta proiektu klimatizida potentzial asko, gara edo gera daitezkeenak, egoera araberean larriagoturik edo geldiarazirik. Debekaraziko edo itxiaraziko dugun energia fosilen edozein hobi, eragotziko dugun edozein proiektu klimatizida, garaipen partziala baina oso zehatza izanen da nahasmendu klimatikoa mugatzeko bidean. Aireportuen hedatzeak, Amazonen eta e-merkataritzaren biltegiak, merkataritza-eremuak, autobideak, laborantza industrialari esleitu ur erreserba erraldoiak, etxalde industrialak, meategiak, oihanen suntsitzeak... Mota guztietako proiektu klimatizidak eramaten dira oraino, eta horiek erresistentziak eta borrokak pizten dituzte lurralde anitzetan, gero eta lotuagoak direnak, esperientziak trukatzeko eta baliabideak elkartzeko. Konexio oso baliotsuak dira, gure gaitasunak handitzeko eta garaipen zehatzak lortzeko, proiektu horiek burutzea eragotziz.

Hirugarren ardatza elkartasunarena da, eta hori defendatu egin beharko da atzerakada identitarioen aurrean, klanen, lehiaren eta indibidualismoaren logiken aurrean, intolerantziaren aurrean, zeinak erraz larriagotu baitaitezke, bai liberalismo autoritarioaren eskutik, bai eskuin muturraren eskutik, gaur egungo sistema kolokan jartzen baldin bada. Europako migrazio-krisiak ondorio humanitarioen adibide tragikoa eman digu azken urteetan, eta ikusten dugu zer gerta daitekeen axolagabekeria eta berekoikeria jartzen direnean harreraren, senide-

tasunaren eta elkartasunaren balioen gainera. Talka bakoitzean aukera dago indibidualismoa, lehia eta berekoikeria, edo elkarlaguntza, anaitasuna eta elkartasuna nagusitzeko. Baina, larrialdi- eta ezegonkortasun-egoeran, elkartasunak antolaketa sendo bat eskatzen du. Beraz, horretarako antolatu behar dugu. Zaila da aurreikustea etorriko zaigun berotze-atalasea, gure zibilizazioaren berotze klimatikoa edo kolapsoa gertatuko den ala ez, baina aro berri baterantz goaz, non bizi-baldintza “zibilizatuak” arriskuan egonen baitira. Zoritxarrez guretzat, gizateriaren historiaren bihurturik beldurgarri honetan bizi den belaunaldikoak gara. Baina, gure mugimenduen bitartez, sare antolatua, eraginkorra, demokratikoa, ona eta solidarioa garatzeko aukera ere badugu. Halako sare bati esker, konfiantza atxiki dezakegu oraino, etorkizun zalantzati eta larriaren aurrean. Ikuspegi horretatik, gero eta modu sendoago eta eraginkorragoan garatzen jarraitu behar dugu, elkartasuna balio nagusitzat harturik: elkartasuna gure taldeen barnean, elkartasuna gure taldeen artean, eta elkartasuna gure taldeetatik kanpo ere. Sarean lan egin behar dugu, Bigarren Mundu Gerraren denboran Erresistentziak sarean funtzionatzen zuen bezala: erresistentzia-, erresilientzia- eta elkartasun-sare bat.

2.4. Lurralde mailako sarea eta sare soziologikoa

Era berean, talde horiek errotuta dauden lurralde kopuruak eta aniztasunak indarra ematen diote taldeen sareari. Klimaren aldeko martxen eta Jaka Horien indar handienetako bat beren mobilizazioak hain deszentralizatuak izatetik heldu zen, baita tamaina guztietako hiri anitzetan antolatzen ere. Horrek eman zien mugimendu horiei dimentsio masiboa eta iritzi publikoan eragin indartsua ukaiteko aukera, mobilizazioak nonahi gertatzen baitziren: edozein lekutan bizi ginela ere, gure etxe ondoan bazeuden. Lekuan lekuko errotze hori ezinbestekoa da mugimendu batek herri-dimentsioa ukan dezan. Ezin da eraginkortasunez jokatu Paristik edo metropoli handietatik soilik: ehunka lurraldetatik, hiri handi eta txikietatik, aldirietatik eta baserri-eremuetatik jardun behar da. Hori ezinbesteko baldintza da mugimendu sozial espontaneoan azkartze-faseekin egokitze, eta talka eta aukeren aurrean modu koordinatu eta eraginkorrean erreakzionatzeko gai izateko: leku guztietan izan behar da jende antolatua, metodikoa, formatua, ikuspegi estrategiko bat duena.

Bestalde, lurralde-aniztasun horrek aniztasun soziologikoa dakar, eta hori funtsezkoa da masa-mugimendu herrikoi bat eraikitze. Biztanleriaren kategoria guztiak ez dira berdin ordezkatuak lurralde guztietan, eta egoera sozioekonomikoak eta jendearen eguneroko kezkek ez dira lurralde guztietan berdinak. Beraz, lurralde anitzetan txertatua den eta aniztasun soziologikoa duen mugimendu batek askoz gaitasun handiagoa dauka askotariko biztanleria batean mobilizazio, aldarrikapen eta kontakizun komunak garatzeko. Horrek mugimenduari aukera ematen dio populazio zabalaren ordezkarizateko. Mugimen-

duen arteko konbergentziaz edo “borroken konbergentziaz” asko hitz egiten den bitartean, masa-mugimendu baten eraikuntzarako garrantzitsuena dena beste konbergentzia-modu askoz sakonagoa da: biztanleriaren askotariko sektoreen interes anitzen konbergentzia gauzatu behar da mobilizazio komunaren inguruan. Jendetsua izateko nahiz herrikoia izateko, lurraldeen saretze fin eta garatu hori ezinbesteko baldintzetako bat da, beraz, masa-mugimendu bat sortzeko.

Hori herritar mugimendu antolatuen eta GKEen eginkizunen parte da, tokian tokiko talde egituratu eta iraunkorren garatzeko daramaten jarduerarengatik: izan ere, talde horiek beren lurraldeetan finkatuak dira, lekuan lekuko problematikak ezagutzen dituzte, baita herritarrek beren bizilekuetako erronkez dituzten pertzepzioak ere.

2.5. Ekologia herrikoia praktikan

Hedapen soziologikorako lana burutzeko, klase herrikoen gaiari ere konkretuki heldu behar zaio. Alde horretatik, Alda mugimenduaren esperientzia oso interesgarria da. Bi urte eskasetan, Euskal Herrian abiatu den klase herrikoen mobilizazio- eta defentsa-mugimendu berri horrek azken urteetako garaipen ekologiko eta sozial handienetako bat lortu du. Espekulazioak, bigarren etxebizitzaren ugaltzeak, Airbnb bezalako sasoiko etxebizitza alokatuen emendatzeak eta zenbait jaberaren iruzurrezko praktiken ugaritzeak areagotutako etxebizitza-krisiaren testuinguruan, gero eta gehiago dira Euskal Herrian etxebizitza bat aurkitu ezin duten pertsonak eta familiak. Etxebizitzaren eskasia eta ezin ordaindutako prezioak direla eta, biztanleriaren zati gero eta handiagoa gero eta urrunago bizi da bere lantokitik, edo gero eta denbora luzeagoak igarotzen ditu etxebizitzarik gabe. Batzuek herrialdetik alde egiten dute, beren lana eta beren bizitza giblean uzten dituzte, eta beste batzuek urtearen zati batean beste norbaiten etxean edo karabana batean bizi dira, edo beren autoan lo egiten dute. Krisialdi latz horretan eta testuinguru sozial leherkor batean, Aldak larrialdi sozialeko lan bat egin du. Izan ere, ez ditu bakarrik maizter prekarioen kanporatzeak eragotzi, baina bi garaipen egiturazaila handi lortu ditu etxebizitzaren alorrean, merkatuaren “esku ikusezinak” kaltetutako egoera molde iraunkorrean arautzeko. Alabaina, Aldak kanpaina eraman du eta, alde batetik, iruzurrezko alokatze-kontratuen aurkako batzorde bat sortzea lortu du, Estatuaren eskutik, Frantziako Estatuan inoiz ikusi ez zen egitura bat. Bestetik, konpentsazio-mekanismo baten abiatzea ere erdietsi du; mekanismo horrek asko zailtzen du urte osoko etxebizitzak Airbnb moduko bizitegi turistikoko bilakatzea. Neurri hori, 200.000 biztanletik gorako metropoli batzuetan jadanik aplikatua zena, lehen aldiz aplikatuko da herri txiki eta ertainez osatutako lurralde batean. Gainera, anbizio handiko bertsio batean aplikatzen hasi da, 2023ko martxoaren 1etik aitzina, Airbnb, Abritel eta gisa bereko plataformentzat arriskutsua den aurrekari bat sortuz. Alokatzeko den bizitegi turistikoko bakoitzeko, jabeek bizitokitza erabilia ez zen egoitza bat egoki-

tu eta urte osoan alokatu behar dute (azalera bera, kokaleku eta erosotasun mota bera, etab.). Neurri horrek, onartu orduko, gelditu du bizitegi turistikoko bihurtzeko xedez erosten ziren urte osoko etxebizitzaren erosketa masiboa eta, 2026rako, dagoeneko Airbnb iraunkor bilakatuak diren 11.000 etxebizitzetara ere eragingo die. Orotara, konpentsazio-mekanismoak 20.000 etxebizitza atxikitzea edo berreskuratzea ahalbidetu beharko luke, etxebizitza sozialen kantitateak kopuru hori gaintzen ez duen lurralde batean. Garaipen sozial handia da, baita garaipen ekologiko handia ere, eraiki beharko ez diren horrenbeste etxebizitzak baitira eta, ondorioz, dagozkien lurrak ez baitira artifizializatuko eta horri lotu berotegi-efektuko gasak ez baitira isuriko! Lurra betoiz estaltzearen eta artifizializazioaren aurkako borroka kezka ekologikoen lehentasunetan dagoen garai honetan, eta mugimendu ekologista klase herrikoiei buruz gehiago irekitzeko beharra gero eta premiazkoagoa denean, garaipen handi bat daukagu hor, iraunkorra, eta ongi erakusten duena ekologia herrikoa zer izan daitekeen.

Oldar berean, Aldak gehiengo osoa lortu du Ipar Euskal Herriko HLMetako³⁴ maizterren ordezkarien hauteskundeetan, 2022an, auzotegi herrikoien bihotzean eta bertako biztanleen inplikazio zuzenarekin. Garaipen konkretu horiek klima-mugimendua hainbat alderdi estrategikotan indartzen dute.

Lurra betoiz estaltzeari lotuak zaizkion berotegi efektuko gasen isurtzeak murrizteaz gain, klase herrikoietako dinamiken eta borroka ekologisten arteko uztarketa sustatzen dute, gisa horretan mugimenduaren zabaltze soziologikoan lagunduz eta gehiengo kultural eta politiko bat eraikitzea erraztuz. Ekintza-dinamika kolektiboen eta autoantolaketa-metodoen bidez lortuak izanik, gudu eta garaipen horiek oinarri baliotsuak ezartzen dituzte klase herrikoietan elkartasuna antolatzeko. Nahasmendu klimatikoaren ondorioek gehien pairatzen eta pairatuko dituztenak izanez, klase herrikoiek egokitzeko eta lankidetzan aritzeko gaitasun handia behar dute eta beharko dute.

Aldaren esperientzia berri hori Biziren eta Alternatibaren logika erabiliz eraiikia izan da. Izan ere, haren sortzaileen parte bat Bizi mugimenduko eta Alternatibako militanteak ziren. Esperientzia horrek berriz ere berresten du gorago deskribatu lan metodoen egokitasuna, askotariko publikoak mugiarazteko funtzionatzen baitute, baita klase herrikoietan ere. “Ekologia herrikoa” formula denean ahotan denean baina mugimendu ekologistari klase herrikoiak mobilizatzea hain zaila egiten zaionean, on da jakitea lan-metodo egokiak eta eraginkorrak badaudela. Orain, premiazkoa da hitzetatik ekintzetara pasatzea eta horrelako lan konkretuak orokortzea, ekologia herrikoa errealitate bilakatzeko.

³⁴ Alokairu apaleko bizitokiak (frantsesez: Habitation à Loyer Modéré).

2.6. Aliantzak biderkatzea

Mugimenduaren masifikazioa aliantzak zabaltzetik ere pasatu behar da. Mugimendu militanteen artean ez ezik, klimaren aldeko borrokan parte hartzen duten alderdi politikoetako eta sindikatuetaiko militanteekin ere loturak egin behar ditugu, baita gizarteko beste hainbat sektoreekin ere: goi administrazioarekin, zientzialariekin, sare erlijiosoekin, kultur eta kirol elkarteekin, eta gure proiektuaren kontrakotzat jo daitezkeen sektoreekin ere, hala nola industriarekin, finantzaren munduarekin, poliziarekin, armadarekin, etab. Aliatuak behar ditugu haien artean.

Har dezagun poliziaren adibidea, militanteen artean oso gai eztabaidatsua baita. “Denek gorroto dute polizia” leloa manifestazio ugaritan entzuten da, azken urteotan. Baina nora eraman gaitzake lelo horrek? Zer eraikitzen du? Zer ekartzen digu? Poliziaren bortizkeriagatik eta errepresio-operazio bortitzengatik haserrea adieraztea guztiz legitimoa da. Baina haserre legitimo baten adierazpenaz kanpo, lelo horren ondorio estrategiko nagusia polizia bloke homogeen gisa batzea da. Alta, polizian, jendarmerian edo armadan bezala, iritzi ezberdineko jendea badago, neurri batean bederen. Bloke homogeen gisa markatzen ditugunean, berez beste bloke batzuen aurkakoak daudela adieraziz, bloke gero eta homogeenagoak sortzen laguntzen dugu, gero eta batuagoak, blokeen arteko borrokan parte hartzeko gero eta deliberatuagoak. Gure interesa guztiz alderantzizkoa da: poliziaren erakundean dauden desadostasunetan oinarritu behar dugu elkar ulertzeko eremuak sortzeko, guregandik hurbilen dauden pertsonetik sinpatiak eta, ahalaz, aliantzak sortzeko. Ez da indar harremanen ikuspegi inozoa izan behar: ikerketek erakutsi dute eskuin muturraren aldeko boto-tasa handia dela polizian, eta gehiegikeria arrazista larriak gertatzen direla. Bestalde, polizia, berez, obedienciaaren inguruan antolatua da eta, beraz, oso zaila eta gehienetan ezinezkoa da borroka edo manifestazio puntual baten aliatu bihurtzea. Baina epe luzeagoan, lerroak mugi daitezke. Gainera, polizia batzuk dira beren erakundean gertatzen diren gehiegikerien berri ematen dutenak, alerta-jotzaile bihurtzeko arriskua hartzen dutenak, eta erakundearen barnean borroka eramatzen dituztenak. Beraz, jadanik badaude aliatuak polizian, baita jendarmerian eta armadan ere. Jaka Horien mugimenduaren hasieran, jendarme batzuek kasuak kendu zituzten, elkartasuna adierazteko, herritarren zailtasunak eta mugimenduaren aldarrikapenak partekatzen zituztelako. Oso etorkizun ederra ukan zezakeen konbergentzia bat bazegoen, orduan. Gero suntsitu zen, biolentziaren logika finkatu zenean eta horrek kezka komunak zituzten pertsonak aurkako alderdi bateraezinetan banatu zituen. Bizkitartean, boterea oso zailtasun handitan egongo zen jendarmee eta poliziak gero eta laguntasun handiagoa izan balute Jaka Horien mugimenduarekin: nahitaez huts egin edo desobeditu gabe, segurtasun-indarrek bide asko aurkitzen ahalko zituzten aginduak saihesteko edo egokitzeko eta mugimenduan parte hartzeko edo, gutxienez, ahalik eta

gutxien kontra egiteko. Iraultza herrikoi askoren mugarri erabakigarria izan da segurtasun-indarrek aginduak ez betetzea erabaki dutenean eta mugimenduan zeuden herritarrekin bat egitea nahiago izan dutenean. 2000. urtean Slobodan Milosevic-en aurka Serbian egindako manifestazioen paroxismoan, herrialde osotik etorritako jendetza handi batek Parlamentua inguratu zuenean, poliziak ez zien jaramonik egin manifestariak uxatzeko aginduei, eta armadak ere esku ez hartzea erabaki zuen. Diktadorea boteretik kendu zuten bortizkeriarik gabeko herri mobilizazioaren ondorioz, segurtasun-indarrek kontra egin gabe, eta gero diktadorea atxilotu eta Jugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegian auzipe-tu zuten, gizateriaren aurkako krimenengatik.

Manifestari serbiarrek bazekiten segurtasun-indarren eta armadaren atxikimendua edo laguntza pasiboa lortu behar zutela. Herritarrek Parlamentua-
ren aurrean egindako hitz-hartze batean, jendetzari egindako gomendio hau entzun zen: “Ez eraso poliziari. Polizia herriaren alde jarriko da”³⁵. “Denek go-
rroto dute polizia” esloganak horrelako aliantzak eragozten ditu eta sistema
indartzen du, boterearen aginduetara dauden gorputzak batuz. Aldiz, “polizia,
lasai, zuen seme-alabengatik egiten dugu” bezalako eslogan batek aurreiritziak
erortzen laguntzen du, batzuek eta besteek bestela ukan ditzaketek eginkizunak
ahultzen ditu, eta epe motzean ezinezkoak diruditen baina etorkizun hurbilean
erabakigarriak izan daitezkeen aliantzen baldintzak sortzen. Muturreko gertae-
ra klimatikoek jendarmeen, polizien eta suhiltzaileen familiei gero eta gogorrago
eragingo dietenean, klimaren aldeko borrokaren beharra askoz ere partekatua-
goa irudituko zaie, eta aliantzak egiteko aukerak askoz ere ugariagoak izanen
dira, baina baldintza bakar batekin: zenbait urtez lehenagotik baldintza egokiak
sortu izana, kontaktuak egin izana eta ingurune estrategiko horietan gure mun-
du-ikuskeraz zabaldu izana.

Polizien adibidea hartu dut, erraza delako militanteen eta polizien arteko
aurkakotasun sistematikoa irudikatzea, errepresioa gogortzen ari den testuingu-
ru batean. Baina aliantza zabalduen filosofia hori askoz urrunago aplikatu behar da.
Egungo sistema egituratzen duten sektoreen botere ikaragarriari begiratu behar
zaio, industrian, finantzetan, alderdi politikoetan (eskuinekoetan, kontserbado-
reetan, liberaletan) eta abarretan. Botere handia zentralizatzen duten sektore
guztietan zirrikituak sortu behar dira, kontraesanak azaleratu, lotura egin de-
zaketen pertsonak identifikatu eta gaurko eta biharko aliantzen baldintzak pres-
tatu. Gaur egungo sistemak askoz gaitasun txikiagoa izanen du erresilientzia-
rako eta koordinaziorako, baldin eta boterea zutabe hauskorretan oinarritzen
bada, eta zutabe horietan zalantzak, kontraesanak eta aurkakotasunak badaude.

³⁵ Ikusi Steve York-en *Bringing Down a Dictator* dokumentala, Milosevic eraitsi zuen bor-
tizkeriarik gabeko mugimenduari buruz.

Heldu diren urteetan, beraz, klima-mugimendutik kanpoko sektoreekin aliantzak zabaldu eta sakondu behar dira. Klimaren gaiaren zilegitasun handiaz baliatu behar da, gizarteko sektore anitzetan galderak eta kezak sortzen dituela eta, ahal bezainbat zubi eraikitzeko. Gure sare-lana ez da talde militanteetara mugatu behar eta gizarte osora hedatu behar da. Leku guztietan badago klimaren arazoak hunkitzen duen jendea. Utziko ote diegu beren kezak eta galderak beren eremuetan bakarrik kudeatzen, eremu horiek maiz gure diagnostikotik eta mundu-ikuskeratik urrun izanik, edo gai izanen gara loturak sortzeko eta geure diagnostikoa eta mundu-ikuskerara partekatzeko?

2.7. Kooperaziorik eza eta programa eraikitzailea: eraikuntza masiborako bi arma

Lurraldeetan hedatu sare handi bat eta funtsezko sektore askotan eraiki aliantzak masa-estrategia ez-bortitzeko ekintza-modu indartsuenak garatzeko bi baldintza dira: programa eraikitzailea eta botereari ez laguntzea klimaren aldeko borrokan oraindik gutxiegi garatuta dauden bi ekintza-modu dira.

Programa eraikitzailea

Gaur egun baztertuak diren alternatibetatik abiatuz, gizarte alternatiboa eraikitzeko, maila-aldaketa ikaragarria lortu behar dugu. Gure lurraldeen maila alternatiba horiek orokortzeko lehen urratsa da alternatiben sistema bat eraikitzeko.

Bortizkeriarik gabeko estrategian, Gandhik “programa eraikitzailea” deitzen zuenarekin bat dator hori: herritarren autonomia bermatzen duten zerbitzuak eta bizibideak eskala handian antolatzea, borrokatzen den sistemaren mende ez egoteko. Ipar Euskal Herria laborategi gisa ageri da alternatiba sistemikoen eremu horretan: 300.000 biztanle inguru biltzen dituen departamendu erdi horretan, herritarren ekimen multzo bat abiatu da, lurralde osoan orokortzeko xedearekin³⁶. Lehenago ere aipatu dut Euskal Monetak, tokiko moneta osagarriak, izan duen hedadura, baina beste ekimen asko aipatzekoak dira. Laborantza-mugimenduak egiazko instituzio paralelo bat plantan ezarri du Euskal Herriko Laborantza Ganbararen bidez, horrek egiazko laborantza ganbera baten lana egiten baitu, laborantza herrikoiaren praktikei osoki eskainiz, departamenduko laborantza ganbera ofizialak sostengatzen duen laborantza industrialaren ereduaren parean.

Frantziako Estatuak Euskal Herriko Laborantza Ganbara bi aldiz auzipetu zuen, “chambre d’agriculture” izendapena legez kontra erabiltzea leporaturik. Euskal Herriko Laborantza Ganbarak bi auziak irabazi zituen eta, horrez gain,

³⁶ Horri buruz Julien Milanese irakur daiteke: “L'écosystème alternatif du Pays Basque français”, CERTOP ikerketa-txostena, 2021, interneten eskuragarri.

herri-mobilizazioari ekin zion, Ipar Euskal Herriko laborari eta biztanleen sare oso bat federatuz laborantza-eredu jasangarri baten inguruan. Ikastolen sarea ere badago, non, gaur egun, Ipar Euskal Herriko ikasleen %13 eskolatuak baitira, 38 ikastetxetan (11 haur eskola, lehen hezkuntzako 20 ikastetxe, bigarren mailako 4 ikastetxe eta lizeo bat). Emaidza ikusgarri hori ikastolak beren eskuz sortu dituzten herritarren indarretik heldu da, euskara salbatu nahiz, bizirik eta egunerokoan mintzatua den hizkuntza gisa, hamarkada luzeetako debeku eta baztertze-politiken ondorioz desagertzeko arriskuan zelarrik. Bestalde, %100 berriztagarria den energia eskaintzen duen kooperatiba bat ere sortu da, Enargia. Horrez gain, I-ENER egiturak energia berriztagarriak sortzeko bitartekoak plantan ematen ditu, batez ere teilatueta panel fotovoltaikoak, Euskal Herriaren energia alorreko independentzia eta herritarren kontrola garatzeko.

Kontua ez da alternatiba sektorialak elkarren artean isolaturik garatzea, baizik eta ekosistema koherente bat sortzea, eta euskal lurralde osoaren mailan atalase sistemiko batera iristea. Hori da Bizik 2018an argitaratu *“Burujabe: Gure bizi baldintzak berreskuratuz”* liburuxkaren zentzua³⁷. Bertan, lurralderako proiektu subirano, jasangarri eta solidario baten zirriborroa marrazten da. Lan teoriko hori alternatiben garapen zehatzaren osatzera dator, globalizazioaren kontakizun nagusiaren aurka proposa dezakegun lurralde mailako alternatiba global baten kontakizuna proposatuz. Burujabe proiektuak burujabetzaren kontzeptuaren ikusmolde zabala proposatzen du, bederatzi arlotan deklinaturik: elikadura-burujabetza, energia-burujabetza, bizileku-burujabetza, ekonomia-burujabetza, lan-burujabetza, gure gorputz eta sexualitateei buruzko burujabetza, burujabetza soziala, kultura-burujabetza, elkartasunezko burujabetza, hori guztia burujabetzaren ikuspegi ireki batekin: “gure lurraldetik haratago, lurraldeen arteko asanbladak antolatzea da kontua, lurraldeen arteko trukaketak erabakitzeko eta denei bermatzeko, edozein baldintza geografikotan, oinarritzko gaietarako bidea. Klimaren aldaketak eskatzen duen mundu mailako elkartasuna plantan ezarriko da munduko beste lurraldeen burujabetza sustatuz, eta ezinbizi bilakatu edo bilakatuko diren herrialdeetatik ihes egiten dutenei harrera eginez”³⁸.

³⁷ Itzultzailearen oharra: 2023an, BIZIk lan horren bertsio eguneratua argitaratu du: *“Euskal Herria Burujabe – Denon mundua eskuetan berriz har dezagun”*.

³⁸ Aipa dezagun, halaber, *“Et Si... le monde d'après ne ressemblait pas au monde d'avant”* liburua, 2020an argitaratua, eraldaketa ekologiko eta sozial handinahiak gauzatzuz gero mundua nolakoa izanen litzatekeen deskribatzen duten testu eta ilustrazioak biltzen dituen. Bestalde, Alternatiba Parisek 2022an argitaratu *“Notre grand pari : métamorphoser l'Île-de-France”* liburua proposatzen du 2040-2050 urteetan eraldaketa ekologiko eta sozial arrakastatsua gertatu ondotik Ile-de-France eskualdea izanen litzatekeena- ren ikuspegi bat.

Erresilientziarako proiektu bat eraikitzen da, horrela, lurralde mailan, ekonomiaren, laborantzaren, energiaren, kulturaren eta hezkuntzaren funtsezko eremuetan autosufizientziarako bide zehatzak garatzen dituzten egituren bidez. Horrelako egiturak dira lurraldeetako benetako metamorfosiak eragiteko behar ditugunak, hain zuzen, hasieratik bazterrekoak ez izateko pentsatu egiturak. Hamarkadaren helburuetako bat alternatiba horiek askoz gehiago garatzea izan behar da, gehiengoan izan daitezten eta, aldi berean, ahalik eta lurralde gehienetara hedatu daitezten. Horretarako, aldaketarako palankak aktibatu beharko ditugu, maila anitzetan: soilik herritarrenak diren ekimenak bai, baina baita ere udal-mailan eta herriarteko mailan dauden ekintzarako palanka instituzionalen aktibatzeke lana, eta maila globaleko ekintzarako palankak ere³⁹. Maila lokala ezinbestekoa da alternatibak ernatzeko, baina ez da analisisian huts egin behar eta gure eginalak ekintzarako palanka lokaletan mugatu. Estatu-mailan erabakitako lege-aldaketek eta finantzaketa-programa masiboek eragin garrantzitsua izan dezakete alternatibak garatzeko eta orokortzeko, bai zaharkitze programatua debekatuko luketen legeak, bai eraikinen berrikuntza termikorako programa zinez handi-nahiak, bai energia berriztagarriak, laborantza herrikoa eta garraiatzeko modu eztiak argiki sostengatuko litzuketen politikak. Alternatibaren orokortzearen beha egotea, salbuespenak diren lurralde batzuen ikusgarritasunaren alde bakarrik eginez, denbora gehiegi galtzea litzateke. Azeleragailuak behar ditugu, eta horiek, neurri handian, maila globaleko aldaketa erradikalen mende dira.

Beraz, agerikoa da lan lokala lan globalarekin artikulatzeko beharra. Horrekin batean, alternatibak ekintza erradikalekin artikulatu behar dira ere, sektore erabakigarrietan indar harreman lotesle bat plantan emateko gai izateko. Lurralde anitzetan finkatuak diren taldeen arteko koordinaziorako gaitasunaren garrantzia ere agerikoa da, aliantza zabalen laguntzarekin, nazio-mailan indar harreman hori gauzatzeko behar bezain ekintza masiboak egiteko.

Kanpaina nazionaletan, ekintza deszentralizatuak egin ditugu dozenaka lurraldetan aldi berean, adibidez *Action Non-Violente-COP21* mugimenduarekin eta Lurraren Adiskideen Sarearekin, *Société Générale* eta *BNP Paribas* banku klimatiziden aurka. Azken urteetan klima-mugimenduak Frantziako Estatuan bizi izan duen gorakada ikusirik, orain ekintza deszentralizatuak hedatu behar ditugu aldi berean ehunka lurraldetan. Greenpeace, ANV-COP21 eta Lurraren Adiskideekin batera, desobediencia zibileko ekintza bat antolatu genuen, 2000 partaide bilduz Parisko *La Défense* auzoan: lau dorre blokeatu genituen, multina-

³⁹ Besteak beste, Alternatibak eta *Réseau Action Climat* sareak hori egiten dute, “*Alternatives territoriales*” kanpainarekin, *Collectif pour une Transition Citoyenne* kolektiboak ere “*Pacte pour la transition*” proiektuarekin, eta Bizik “*Hitza Hitz*” kanpainarekin. Alabaina, “*Hitza Hitz*” kanpainak Ipar Euskal Herriko biztanleen %87 ordezkatzen duten 56 herritako hautetsien engeaiamenduen jarraipena antolatzen du.

zionalen eta Emmanuel Macronen gobernuaren arteko hitzartzea salatzen. Alemanian, *Ende Gelandek* askotan antolatu ditu desobedientzia zibileko ekintzak, milaka pertsona bilduz ikatz meatzeak blokeatzeko. Orain antolatu behar dugu, milaka pertsona bilduko dituzten desobedientzia zibileko ekintza masiboak egiteko. Argi dago kopuruaren indarrak eragin erabakigarria duela gure aurkarien aurrean erabil dezakegun indar harremanean. Beraz, kopuru horiek izan behar ditugu gogoan, klima-mugimenduaren eraikuntzaren hurrengo urratsak irudikatzen eta askoz gorago joateko lanari lotzeko.

Kopurua erabakigarria da, batez ere, kooperazioari uko egiten dioten ekintzetan, zeinak bortizkeriarik gabeko estrategiaren ekintza motarik indartsuenetako batzuk baitira, baina oraingo klima-mugimenduan gutxiegi erabiltzen baitira. Heldu diren urteetan, gai izan beharko dugu Frantziako Estatuan milioi bat pertsona bil ditzaketen boikot selektiboak antolatzen non, helburu zehatz eta estrategikoak finkaturik, multinazional ahaltsuenak makurrarazteko indarra ukanen baitugu. Hori gure irismenetik kanpo dago epe laburrean, baina heldu den urteetan erdiets dezakegun helburua da, bidean den masifikazio lanean segituz gero.

Ehunka talde militanteren koordinazioarekin, talde horiek beren lurraldeetako milaka elkarte eta sare kulturalekin konektaturik, eta funtsezko sektoreetan aliantza estrategikoak aktibatuz, ehunka mila pertsona mugiaraz genitzake kooperaziorik ezaren helburuen inguruan. Mendeko Aferaren petizioak, 2 milioi sinadura baino gehiago bilduz, erakutsi digu mobilizazio benetan masiboak posible dela Frantziako Estatuan, klimaren alde, baldin eta ekintza sinpleak, berehala egingarriak eta erraz ulertzeko modukoak proposatzen badira. Kooperaziorik eza erabiltzen duten ekintzen indarra ekintza baten sinpletasunean eta ekintza hori masiboki errepikatzean oinarritzen da.

Klimaren "Gatzaren martxa"

Gandhik gidatu zuen "Gatzaren Martxa" kanpaina aztertuz, ekintza sinple eta aldi berean masibo batek izan dezakeen indarraren adibide egokia ageri da. 1930eko martxoaren 12an, Gandhik bere ashrama utzi zuen, 79 lagunekin, eta 24 eguneko ibilaldia hasi, Indiako ozeanorainoko 390 kilometroak egiteko. Indiaren independentzia lortzea zen haren xedea, baina haren martxaren helburua, lehen begiratuan, ezdeusa zirudien: gatz eskukada bat biltzea. Zergatik ote? Zeren inperio kolonialak gatzaren banaketan bere monopolioa inposatzen baitzuen orduan eta indiarrei debekatu egiten baitzien gatz bereko ekoiztea eta saltzea. Monopolio horrek, beraz, autonomia kentzen zien indiarrei, eta gatzaren gaineko zerga bat ordaintzera behartzen zituen. Alabaina, gatz egunerokoan ezinbestekoa zitzaien, bai sukaldaritzarako, bai elikagaiak kontserbatzeko. Gandhik gogoan zuen keinua, Indiako ozeanoaren bazterrean gatz eskukada soil bat jasotzea, beraz, inperio kolonialari zuzendu probokazio eta mesfidantzazko keinu politikoa zen. Alabaina, Gandhiren martxak katalizatzaile lana egin zuen, eta 50.000 in-

diar inguru bildu zituen. Apirilaren 6an, Gandhi Indiako ozeanoan sartu zen eta gatz pixka bat bildu zuen eskuetan. Oihartzun politiko izugarriko eskukada izan zen. Milaka indiarrek Gandhirekin bat egin eta ur gazia ontzietan bildu zuten. Gero, herrialde osoan, indiarrek eredu horri masiboki jarraitu zioten, desobediencia zibila eta kooperaziorik eza erabili zuen mugimendu izugarria sortuz, non indiarrek beren gain hartu baitzuten ura irakinaraztea eta lurruntzea, gatza biltzeko. Britainiarrek 60.000 desobeditzaile baino gehiago espetxeratu zituzten, Gandhi barne, baina ezin izan zuten mugimendua geldiarazi. Azkenean, britainiar agintariak amore eman zuten, indiarrei gatza biltzeko eskubidea eman, eta preso guztiak askatu zituzten. Baina egun horretan ez zen soilik gatzaren gudua irabazi. Izan ere, gatzaren gudu horrek bere barnean zeukan Indiaren independentziarako metodo globalagoa. Populazio masibo bat martxan jarri zen inperioa desafiatzeko, bere independentzia nahia adierazteko, bere burua antolatzeko eta, aldi berean, Gandhiri inporta zitzaizkion autonomia-balioak berreskuratzeko. Beraz, gatzaren gudua oso estrategikoa izan zen: Indiako populazio osoaren berehalako behar material bati erantzuteaz gain, adierazgarri globalagoa ere izan zen, maila politikoan. Ekintza horrek, beraz, eragin pedagogiko harrigarria izan zuen eta erremediorik gabeko independentzia-izpiritua hedatu zuen herrialdean. Pitzadura erabakigarria sortu zen inperio kolonialean, eta horrek, beste ekintza askoren ondotik, Indiaren independentzia ekarri zuen, urte batzuk berantago, 1947an (hala ere, India eta Pakistan banatu ziren, Gandhiren atsekaberako). Beraz, keinu batek, itsasoan bildutako gatz eskukada batek, zeregin erabakigarria izan zuen munduko inperio kolonial handiena garaitzeko eta herrialde oso bat askatzeko.

Zer izan daiteke “klimaren gatzaren martxa”, Frantziako Estatuan edo nazioartean? Hori da geure buruari egin behar diogun galderetako bat. Zeintzuk dira jendearen berehalako interes material bati lotu ekintza sinpleak, jende gehienarentzat eskuragarriak, eta beren barnean sistema aldatzeko eta klimaren aldeko metodo globalagoa daukatenak? Desobediencia zibila eta/edo kooperaziorik eza plantan ematen duten kanpainak antolatzeko, mota horretako helburuak identifikatu behar ditugu, jendea oso modu masiboan mugiarazteko, mundua ikusteko modu bat jendarteratzeko eta maila politiko eta ekonomikoan aldaketa handiak lortzeko. Kooperaziorik eza masiboki plantan ematen duten kanpainak are interesgarriagoak dira, hainbat aldetarik aldi berean irabazteko aukera ematen ditutelako: gobernu edo multinazional bat aldarrikapen zehatz bati buruz mukurrazteko gai den indar bat mobilizatzen dute, kooperatzen ez duten pertsonen sistemaren zerbitzuetatik kanpo beren bizibidea bermatzeko erabiltzen dituzten alternatibak garatzen eta indartzen dituzte, eta gehiengo kultural bat eraikitzen laguntzen dute.

Eraikuntza masiborako bi arma hauek, kooperaziorik eza eta programa eraikitzailea, masiboak izan behar dira eraginkorrak izateko, baina behar bati eran-

tzuten diote, eta gogoan atxiki behar ditugu. Epe ertainean lortu beharreko helburuak dira eta, horietatik abiatuta, mugimenduaren masifikaziorako urrats egituratzaileak diren tarteko helburuak identifika ditzakegu.

Klima-mugimenduaren nazioarteko dimentsioa

Datorren hamarkada klima-mugimenduaren nazioarteko dimentsioa gorago eramateko aukera ere izan behar da. Nazioartean eragina izan duten mugimenduaren azelerazio-faseak izan dira indartsuenak. 2018an Erresuma Batuan sortutako Extinction Rebellion mugimendua beste dozenaka herrialdetara zabaldu da hilabete gutxiren buruan, bortizkeriarik gabeko desobedientzia zibilaren filosofia oso eskala handian zabalduz. Klimaren aldeko ikasleen greben mugimenduak berehala hartu zuen nazioarteko dimentsioak zilegitasun izugarria eman zion eta, gainera, irismen unibertsala ere. Imajina dezagun mugimendu hau Suediara mugatu izana: bistan da ez zuela eragin bera izanen, ez eta munduko iritzi publikoan izan duen eragin handia ere. Museoetako margolanei zopa botatzeko ekintzak ere oso abiada handian zabaldu dira nazioartera, artelan horiek daukaten izaera kultural unibertsala dela eta. Zenbat eta zabalagoa izan mugimendu edo jarduteko modu baten nazioarteko dimentsioa, orduan eta gehiago ematen dio izaera unibertsal eta legitimoa bere mezuari eta klimaren kausari.

Frantziako Estatuan, dinamikak frantsesagoak dira. Bizkitartean, Frantziako Estatua herrialde estrategikoa da klimaren aldeko borrokan: munduko bosgarren edo seigarren potentzia izanik, sare diplomatiko handia daukanez, eta eragin politiko eta kultural garrantzitsua ere daukanez, nazioartean eragin handia izanen lukeen herrialdea da, nazio-mailan benetan anbizio handiko klimaren aldeko politikak plantan emanen balitu –Emmanuel Macronek ohikoak dituen diskurtso hutsetatik haratago–. Frantziako Estatua, gainera, COP21a egin zen herrialdea da, non klimari buruzko nazioarteko lehen akordioa onartu baitzen, eta horrek dimentsio sinboliko garrantzitsua eta erantzukizun handiagoa ematen dio. Orduan, nazio-mailan lor ditzakegun garaipen eta aurrerapenak nazioartean eragin zabalagoa izan dezakete.

Bestalde, Frantziako Estatuak nazioarteko konexio anitz ahalbidetzen dituen kokapen geografikoa dauka: Europako mendebaldearen erdialdean dago eta muga asko dauzka. Gainera, Frantziako Estatua Mediterraneoko herrialdea ere da, eta nahasmendu klimatikoak bereziki eragina duen itsasoa partekatzen du Afrikako iparraldearekin. Itsasoz haraindiko Frantziako Estatuak, berriz, beste kontinente batzuekin lotzeko aukerak zabaltzen ditu, hala nola Amerikan, Ozeanian eta Indiako ozeanoan.

Azkenik, frankofoniaren eremua eta sareak ere kontuan har ditzakegu, eta horiek Frantziako Estatuak eta Europako lurraldeak aise gainditzen dituzte. Antza denez, nazioartera gehien zabaldu diren mugimendu militanteek inge-

lesaren unibertsaltasunaz baliatu dira, *Greenpeace*, *Extinction Rebellion* edo *Fridays for Future* eta *Youth for Climate* mugimenduetako adibideek erakusten dutenez. Izan ere, Greta Thunberg bozeramaileak, suediarra izan arren, ingelesez hitz egiten du nazioartean. Baina horrek ez digu ahantzarazi behar frantsesa ere munduko hizkuntza mintzatuenetako bat dela, eta hori ere nazioartean hedatzeko tresna izan daitekeela. Alternatiba, adibidez, Haitin garatu da, non 30 talde inguru biltzen baititu, baina baita Senegalen, Kongon eta Suitzan ere, aldiro sare frankofonoen bidez. Iragan kolonialistatik jarauntsitako menderatze-mekanismoei buruz erne egonik ere, hizkuntza komun bat ukaitez baliatu behar dugu, geografikoki eta kulturalki oso urrun diren munduko eskualdeen artean elkartasun lotura sendoak sortzeko. Are gehiago, Haiti bezalako herrialdeak edo Afrika mendebaldeko herrialde frankofonoak nahasmendu klimatikoaren inpaktuak gehien pairatzen dituzten munduko eskualdeen artean daudenean.

Frantziako Estatuko beste fenomeno asko bezala, hexagonoko mugimendu militanteek gehien bat Frantziako Estatua metropolitanoari begiratzen diote. Hemen ere mailaz aldatu behar da. Nahiz eta Frantziako Estatuko mailan lan anitz egitekoa dugun, klima-mugimendu globalaren nazioarteko dimentsioa garatzeko beharra lehentasunetan egon behar da. Bertako eta nazioko mailetan ekintzak egiten ditugun bitartean, beraz, nazioarteko mugimendu global batera bideraturik ere pentsatu eta txertatu behar ditugu.

2.8. Borroka hasi baino ez da egin

Klima-mugimenduaren aurreko faseek oinarri sendo eta baliotsuak plantan ezarri dituzte, eta horietan oinarrituko gara ondokoak eraikitzeko. Urte askotako esperientzia daukagu, gero eta gehiago hedatzen ari diren metodo eraginkorrak, eta partekatzeko eta mutualizatzeko bide asko. Askotariko klima-mugimendu multzo bat daukagu, eta haiek berak ere lurralde anitzetan errotuak diren tokian tokiko taldeen sareetan adarkatuak dira. Bitartekari mediatikoak eta komunikatzeko gaitasunak dauzkagu. Askotariko aliantzak badauzkagu. Gizartean kontzientzia maila handia dago, eta horrek zilegitasun handia ematen dio klimaren kausari.

Horiek guztiak erabili behar ditugun abantailak dira, segidari heltzeko, askoz gorago joateko xedez, anbizio handiko helburu berriak finkatuz. Tokian tokiko taldeen sareetan oinarritu behar dugu lurralde mailako sarea trinkotzeko eta ahal bezainbat zabaltzeko aldirietara, herri txiki eta ertainetara eta baserri-eremuetara. Klima-mugimenduaren soziologia zabaldu behar dugu lurralde aniztasun horretan bermatuz eta jadanik dauzkagun aliantzak sakonduz. Mobilizazio masiboen ereduak garatzen jarraitu behar dugu, bortizkeriarik gabeko estrategiaren aukerarik indartsuenak hedatzeko, erran nahi baita kooperaziorik eza eta programa eraikitzailea. Urrats berri eta erabakigarriak egin behar ditugu gehien-

go kultural bat ager dadin, mundu ekologiko eta solidarioaren ikuspegiaren inguruan, kausa klimatikoaren zilegitasunean oinarrituz.

Klima-mugimendua duela hamar urte edo hogeita hamar urte zertan zegoen gogoratuz gero, orain dagoen baldintzetan egon dadin, dauzkan menturekin, lorpen handia da. Heldu den hamarkadari izpiritu borrokalariz eta itxaropenaren ausardiaz heldu behar zaio, beste hainbat balentria egin ahal izateko. Borroka hasi baino ez da egin. Sendo antolatzen jarraitu behar dugu, hurrengo haustura momentuetan eta historiaren hurrengo azelerazioetan erreakzionatzeko gai izateko. Horrela, klima-mugimendua gero eta mugimendu sozialagoa eta zentralagoa izanen da, bai nazio-mailan, bai nazioartekoan. Margaret Mead antropologoak maiz aipatzen den esaldi hau idatzi zuen: “Sekula ez duda pertsona talde txiki batek mundua alda dezakeela. Izan ere, mundua beti horrela aldatu da”. Klimaren aldeko borroka planetario honetan, orain, jende kopuru handiak du mundua aldatu behar. Klima-belaunaldia altxatu eta martxan jarri da. Gai da herritarren mugimendu masiboa agerrarazteko. Mugimendu erradikala eta herrikoa, bortizkeriarik eta zalantzarik gabekoa, zeinak erronka klimatikoari aurre egin ahal izanen baitio, aldi berean mundu hobe eraikiz. Mundu justuagoa, bizidunak eta oreka ekologikoak errespetatuko dituen, justizia sozialaren, lankidetzaren, tolerantziaren, elkar laguntzearen eta elkartasunaren balioetan oinarriturik.

